

JEAN BARBIER

Ixtorio-Mixterio

BERNARDO GARRO «OTXOLUA»

Ipuin-Mipuinak

Moldakuntza eta sarrera: Igone Etxebarria



SUTONDOAN

Bernardo M. Garro «Otxolua» bigarrenez dakargu SUTONDOAN bilduma honetara. Lehenago *Bertolda eta Bertoldin* italieratik Bizkaiko euskerara itzulia, orain *Ipuin-Mipuinak* herri ipuinen bilduma. Lehenengoa hizkuntza arrotz batetik itzulita dago, beste hau, ostera, euskerazko beste eredu batetik Bizkaikora aldatuta.

Ipuin-Mipuinak Jean Barbierrek ahoz eta herriko jendeari jasotako ipuin sorta bat da. Barbierrek *Ixtorio-Mixterio* izenburua emon eutsen ipuinoi eta holan argitaratu *Gure Herria* aldizkarian lehenengo, eta liburu baten gero, frantsesez eta euskeraz.

«Otxolua»k aldaera biak batera emon ebazan *Euzkadi* egunkarian gerra aurretxoan.

SUTONDOAN bilduma honetako argitarapenak lehenagoko idazleen lanak ezagutzera emoteko helburua dauka, gaurko irakurleari begira egokituta, eta, lagungarri izan daitekezan sarrera lan eta beharrezko oharrakaz orniduta.

Ipuin-Mipuinak honetan Barbierren lapurterazko aldaera Otxoluaren bizkaierazkoaren ondoan agertuko da. Horregaitik, lan honen ekarria bikoitza da: herri literatura dan aldetik ipuinen euron balioa, eta, euskera aldaera biak alkarren ondoan aurkeztuaz euskalki bien konparaketa.

Edizioaren prestakuntza lan Labayru Ikastegiaren «Mikel Zarate» Iker Mintegiaren esku geratu da, argitarapena ostera, Labayru Ikastegia eta Bizkaiko Aurrezki Kutxaren artean egin da.

JEAN BARBIER

Ixtorio-Mixterio

BERNARDO GARRO «OTXOLUA»

Ipuin-Mipuinak

Moldakuntza eta sarrera: Igone Etxebarria



LABAYRU IKASTEGIA

BIZKAIKO AURREZKI KUTXA  CAJA DE AHORROS VIZCAINA

KULTUR EKINTZA

BILBAO

1989

Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz

Egileak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren beka bat jaso dan lan han burutu ahal izateko.

© LABAYRU IKASTEGIA - BIZKAIKO AURREZKI KUTXA
Aretxabaleta, 1-1ngoia - 48010 BILBAO
Tfnoa.: 443 76 84

ISBN: 84-86833-17-5

Lege gordailua: BI-2701-1989

Fotokonposaketa: IPAR, E.K. - Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 BILBAO

Inprimategia: Art. Gráf. RONTEGUI, S.A.L. - Ribera de Erandio, 4 - ERANDIO



SARRERA:

LIBURU HONEN NONDIK NORAKOA

Ichtorio-Michterio / Ipuin-Mipuiñak izen honen azpian gauza asko eta ezbardinak batzen dirala esan geinke, eta horrek puntu batzuk, labur bada be, argitzea eskatzen dau.

Lehenengo ta behin liburu hau herri ipuinen bilduma dala esango dogu. Herri ipuinok Jean Barbier jaunak batu, eta berak apur bat moldatuta, idazkera literarioz emon ebazan argitara. Hau da, herritik jasota egon arren, ez dagoz zuzenean transkibiduta, ahozko hizkeraren ezaugarriak eta bizitasuna zainduz, idatzirako moldatuta baino, honek dituan ondorioakaz.

Baina guk ipuinok bikoiztuta dakarguz, hau da, aldaera bitan emonda, nahiz eta testu bera izan. Aldaeretako bat Barbierrek berak egindakoa da. Bestea ostera, "Otxolua" izenordez ezagutzen dogun Bernardo Maria Garro idazle bizkaitarrarena da. Eta aldaera biok ezbardintzen dauana euskera bera da, hain zuzen be, euskalki ezbardinetan idatzita egotea.

Bietarik lehenengo Jean Barbierrena da, bera baxenapartarra izanik, bere euskalkian emona. Otxoluarena geroagokoa da eta bizkaieraz idatzita dago, nahiz eta bien artean urte gitxiren aldea dagoan.

Barbierrek lehenago *Gure Herria* aldizkarian argitaratu ebazan ipuinok, 1.921etik 1.925era bitartean, zenbaki ezbardinetan eta ez guk hemen aurkeztuko dogun ordena berean, danak nahasturik eta tartekaturik baino. 1.931ean, aldizkariko

ipuinak bildu eta liburu batean argitaratu ebazan danak hiru multzo nagusitan bananduta, liburu honetan ikusi daiteken moduan. Liburu hau frantsesez eginda dago, euskerazko itzulpena ondoan dauala.

Otxoluak, oinarriztat Barbierren ipuin honeek hartuz, *Euzkadi* aldizkarian argitaratu ebazan 1.933-1934 bitartean, alkarren ondoan emonaz aldaera biak. Baina lan hau aldizkari horretan gelditu zan, gaur liburu honetan kaleratu arte, berari buruzko bibliografieta aipatzen bada be.

Beste datu jakingarri bat liburuaren edukia da.

Liburuak daukan izenburu orokorrak ipuin bilduma osoa batzen dau. Baina barruan beste lau multzotan banandu doguz ipuinok, idazleek eurek egin daben bareizketari jarraituz.

Multzo bakoitza ardatz nagusi baten inguruan jarria da, eta hurrengo izenburuak daukez, aldaera bien arabera:

1. Laminak / Laminak.
2. Josu Jauna eta Kepa Deuna / Jesus Jauna eta Jon Doni Petri.
3. Ipuin-mipuiñak / Ixtorio-mixerio.
4. Lau ipuin Axular-etzaz.

Jean Barbierrek ez eban laugarren atal hau bere liburuan sartu, bai ostera *Gure Herria* aldizkarian argitaratu. Honez gainera, Axularri buruzko bosgarren ipuin bat ere sartu dogu, Barbierrengandik barik Otxoluak Mayi Ariztiarengandik jaso.

Gure helburua, Otxoluak Barbierrengandik hartu eta bizkaieratu ebazan testu guztiak biltzea izan da, eta horregaitik gehitu deusagu bilduma honeri laugarren atal hau. Eta ez hau bakarrik, beste kontaera bat be aurkituko dau irakurleak liburu honetan: "Euskaldunak Aegito'n (Gabonetako ipuina)" izeneko. Hau berez *Supazter Xokoan* bildumakoa da, hala bere, hona ekartea ondo eretxi deusagu, bilduma honetako ipuin bakarra izanik, beste inon lekurik izan ez, eta galdu daiten bildurrez.

Honezkero, herri-ipuinen bilduma bi aipatu doguz: *Ixtorio*

rio-Mixterio eta Supazter Xokoan. Baina honeek ez dira arlo honetan egin diran bilduma bakarrak. Jakina da herri literaturak jarraitzaile eta ikertzaile asko izan dituala, eta izango dituala (hala espero dogu).

Guzti honeen artean, eta mende honen hasieran kokatuz, aipatzekoak lirateke¹: Resurrección M. Azkueren *Euskalerriarren Yakintza* (4 tomo), Mayi Ariztiaren *Amattoren uzta*, Jose Miguel Barandiaran eta Manuel Lekuonaren lan zabal baizen onak, eta beste asko duda barik, batzuk liburuetan argitaratuak, beste batzuk aldizkarietan, eta, hainbat, ziur asko, paperetan galduak.

Ikusi daitekenez, beraz, Barbierren bilduma honeek, gero Otxoluaren interesa biztuko dabenak, ez dira lan solteak. Herri literatura, (ipuinak, baladak, kantuak, bertsoak...) gai erakargarria izan da garai ezbardinetan eta historia osoan zehar.

Era berean, interesgarria da argitalpen honeek alkarren artean konparatzea, gauza asko garai ezbardinetan eta leku ezbardinetako lekukoei jasoak izan arren errepikatuta, eta, aldaketa txikiren batzuk gora-behera, alkarren antza haundia daukenak aurkituko doguz eta.

Eta ez hori bakarrik, badirudi beti iraganari begira gagozala. Gaur egun be, magnetofonia hartu eta Euskal Herriko hainbat tokitan jaso ahal izango ditugu, aipatutako liburuetan aspaldi ikertzaile batek jasotako ipuinak edota horreen antzekoak. Hala ere, autortu beharra dago iturri honek gero eta ur gitxiago daukala, bizimoduaren aurrerapenak ipuinak zabaltzeko bideak beste batzuen bitartez ordezkatu dauzalako, hareei bideak estutuz.

¹ Pierre Lafittek "Bilduma baliosak" aipatu eta biltzaile handien izen guztiak ematen ditu.

LAFITTE, P.: "Euskal Ipuinak" in *Euskera*, 1973 XVIII, 161-2an

Jon Juaristik bere *Literatura Vasca* liburuan laburpen bat dakar izen eta lan garrantzitsuenak aipatuz.

JUARISTI, J.: *Literatura vasca*. Ed. Taurus, Madrid, 1987, 22-23 orr.

Guk hemen aurkezten dogun ipuin bilduma hau, Lapurdi, Baxenafarroa, Zuberoan zehar, eta garai ezbardinetan Barbierrek herriko jendeari jaso da, eta gero bere lumaz itxura dotoretu eta irakurlego zabalari aurkeztua.

Gure herria, gure kultura eta gure lireraturak, holako lanen behar handia dauka oraindik, eta horregaitik eretxi deusagu oso interesgarri bilduma bikotx hau argitaratzeari eta irakurlego zabalarengana heltzeko moduan jartzeari.

MATERIALAREN ITURRIA. IPUINEN BIBLIOGRAFIA

Hemen dogun ipuin bilduma hau, orain arte sakabanatuta egon da aldizkarietan atalka argitaratuta.

Jean Barbierrek ipuinok lehenengoz *Gure Herria* aldizkarian argitaratu ebazan 1921etik 1925era bitartean. Urte honetan "Legendes" izenburu orokorraz bildutakoak eta baita "Supazter Xokoan" bildumakoak be aurkituko doguz¹. Aldizkarian danak nahastuta dagoz, orden jakin bati jarraitu barik.

Baina 1931an gure bildumako ipuin gehienak liburu baten batu eta *Légendes Basques d'après la tradition* izenburuagaz argitaratu ziran Parisen, Delagrave liburudendan.

Liburu honetan hiru atal nagusi sartzen dira: Laminak, Jesus Jauna eta Jon Doni Petri eta Ixtorio-Mixerio.

Liburuan ipuinak frantsesez idatzita dagoz, eta ondoren euskerazko itzulpena dauke. Horrez ganera, idazleak azalpen, ohar eta jakingarri batzuk gehitu deusaz ipuinen nondik-norakoa, beste herrialde batzutako edo literatura klasikoko irudiaz dauken zerikusia, eta abarren barri emonaz.

¹ Ipuin guztion bibliografia oso zehatza dago "Jean Barbier eta Gure Herria" lanean, in *Gure Herria*, 1975-eko 5-garrena, 272-5 orr.

Guzti honek liburu interesgarria bihurtzen dau hau, euskal ahozko tradizioa, eta ipuinen errepertorioak ezagutu nahi dituanarentzat derrigorrezkoa.

Interes horregaitik seguru asko, Elkar Argitaletxeak barriro argitaratu eban liburu hau 1983an, izenburu beragaz eta egoan egoanean ezer be aldatu barik.

Otxoluak ostera, Jean Barbierren liburu osoa eta gehiago itzuli eban arren ez dau orain arte inoren interesa biztu lan osoaren bilketa egiteko.

Otxoluak zatika eta atalka, ipuinak *Euzkadi* aldizkarian kaleratu ebazan 1933. urteko bigarren trimestretik 1934 urteko bigarren trimestrera bitartean ataratako zenbaki ia guztietan.

Otxoluak aldaera biak batera emoten ditu, Barbierrena eta berea, ondoan hiztegi lagungarria dauala, "Atzalgarriak" deitua. Atzalgarriok hitzen esanahia argituteko dira batez be, bai Barbierren erabileran bai berean.

Dirudienez Otxoluak Barbierren liburua erabili eban oinarritzat, hango ordenari lotzen jako eta (esan dogu *Gure Herria*-n danak nahasturik eta orden jakin bati jarraitu barik argitaratu ebazala). Horrez ganera gehitu deutzaz Axularri buruzkoak eta "Euskaldunak Aegito'n" *Supazter Xokoan* bildumatik aldatu eban bakararra.

Otxoluak *Euzkadi* egunkarian lapurterazko bertsioari grafia aldatetak egin eutsazan, berak bizkaieraz erabilten ebaren antzekoa jarritz. Horregaitik, guk edizio honetarako Barbierren idazlanera jo dogu bere lanak berak idatziriko moduan aurkeztu ahal izateko. Beraz, lapurterazko bertsioa liburutik hona aldatutakoa da "Laminak", "Jesus Jauna eta Jon Doni Petri" eta "Ixtorio-Mixterio" ataletako ipuinetan. Ganerakoak, Barbierren "Trois legendes sur Axular" eta "Axular et les sorciers" batetik, eta Mayi Ariztiaren "Axular oraino" bestetik *Gure Herria* aldizkaritik zuzenean hartuta dagoz.

IDAZLEEN BARRI EMOTEN

Bernardo María Garro "Otxolua"

Mundakan 1891ean jaioa, Bilbon egin ebazan "Comercio"ko ikasketak. 18 urte ebazala Argentinara joan eta 7 urte egin ebazan bertan. Villasantek dinoanez han beste toki askotako euskaldunakaz egon eta euren euskalkietan sakontzeko aukera izan eban.

1927an Mundakara bihurtu zan, baina Bilbon lan egiten ebanez herri bion artean ibili zan.

Antza danez, gaztetarik etorkon euskera eta herri hizkeraganako zaletasuna, asko arduratzen ei zan herriko esakera, atsotitz, ipuin eta holakoez. Zaletasun horregaz lotuta dago bere lehen agerraldia, zelanbait esateko, idatzizko medioetan.

1927an "Kirikiño"k euskal palindromo lehiaketa eratu eban, eta Otxoluak 100 bat bialdu ebazan. Hortik aurrera ipuin, kontaera, esakerak, barriak etabar bialtzen hasi zan *Euzkadi* aldizkarira.

Idazleen artean guren ebana eta maisutzat eukana Añibarro ei zan, eta haren *Escu liburua* batez be.

"Otxolua" ezizenaz be badakigu zerbait Eusebio Erkiagak esanda. Hona hemen bere berbak:

"Bere euskal izenorde "Otxolua"z behin baino sarriagotan adierazo eustana. Arean bere, euskeran "ni/neu", "eketa" eta "neure burua" hitzak ditugun arren, neu edo 'yo' esanguraz, gaztelaniaz "el tuerto" esan ohi dabenez, berak be, horixe zertu eban, eta hizkera-aldakiz "otxolua" berbea beretzakotu. Benetan gizon ona ta alai zan Bernardo. "Orixe" handiak alabantza ederrak egiten zitan hari buruz, Bizkaiko idazleen artean maila garaian ezarriz" (87-6-15).

Otxoluak itzi ebazan lanen artean ez dago dudarik ezagunena *Bertolda eta Bertoldin* dana (1932), Bertolda eta Bertoldin pertsonaia nagusien inguruan eratutako ipuin edo narrazio barregarriak osotutako liburua.

Liburu hau itzulpena da eta bertan euskera oso ondo dakiala erakusten dau, bai berea eban bizkaiera bai beste euskalki batzuk, danetatik hartutako esaera, hitz, aditz formak etab. tar-tekatzen ditu eta. Baina akats bat dauka liburu honetan erabiltzen dauan hizkerak, behin baino gehiagotan salatu izan dana. Luis Villasantek "excesiva preocupación purista" dino. Adolfo Arejitak "euskera gogor samarra eta kargatuegia" dala dino: hain euskera aberats-ugaria erabili gureaz testuak berezkotasuna galdu egiten dau: hitzetan, aditzetan, esakeretan.

Beste itzulpen batzuk be egin ditu:

— Barbierren ipuinak bizkaieratu

— Ingelesetik: "Abera-ipuñiak", "Abera dontsuak"

— Ingeles eta gazteleratik: "Euskal Erriko Abera eta Piztiak"

— Argitaratu barik dagoan Gomá kardenalaren Ebangelio Elkartuen bizkaierazko itzulpena.

Eta, gitxi bada be, ba ditu lan batzuk berak sortuak: "Bijar Donianera", olerki batzuk, abestien letrak, eta etimologia, leku izen eta deitura euskaldunen ulerkuntzarako azalpenak.

Jean Barbier

Donibane Garazin (BN) jaio zan 1875ean. Hasparren, Larresoro eta Baionan ikasketak egin eta gero 1898an abade egin zan. Ordutik aurrera Toulousen Teologi-Doktoradutza egin, Larresoron irakasle eta Baionan Apezpiku egon zan. 1913an Donibaneko parroku egin eben eta han egon zan 1931ean hil arte.

Gaztetarik erakutsi eban euskal zaletasuna eta idazteko grina.

Euskal kulturaren arlo asko ukutu ebazan: olerkia, musika, folklorea, nobela (narratiba), ipuinak, antzerkia...

Ikasle zala zenbait lan egin eban, baina lehenengoz 22 urte ebazala "Itxas arrantzaleak" olerkiaz sari bat irabazi eban. Gerroago beste asko hartu ebazan.

Gure Herria aldizkariaren sortzaileetarikoa dogu 1921ean J. Choribit, D. Dufau, P. Iturbide, L. Apesteguy-gaz batera.

Aldizkari honetan argitaratu ebazan lanik gehienak.

Herriko iturritik kantak, ipuinak etab. batu eta aztertzen lan handia egin eban eta, galtzeko zorian egozan hainbat jaso eta iraunarazo ditu.

Hainbat lan argituratu ditu:

— Nere kantuak (1910): 12 kantu hoberenak

— Ama Birjina Lurden (1920): Provost apaizaren lan bate-tik itzulia

— Supazter Xokoan (1924): 25 ipuin, 5 komedia eta kantu bat

— Ixtorio-Mixterio (1930): euskeraz eta frantsez itzulpe-nagaz

— *Légendes du Pays Basque d'après la tradition*: frantse-sez eta euskeraz. Hiru zati ditu: Laminak, Jon Doni Petri eta Jesusen kondairak, eta Ixtorio-Mixterio. Lehenengo biak Ixtorio-Mixterio liburuan argitaratuak zituan lehenago.

— Piarres (1926, 1929): nobela luzea zati bitan. Gehien bat etnografia lana da, argumentua ohiturak azaltzeko aitzakia bihurtzen da.

Horrez ganera hainbat bertso eta komedia egin ditu.

Jean Barbierrek idazle emonkor eta onaren fama hartu dau bere ondorengoengan, askok emon daben eritziaren arabera. Ekarki daiguzan hona batzuk.

Orixek, esaterako, hurrengo hau esan eban idazle honetaz:

"Neretzat Barbier Jauna eusko idazleetan aurenetakoa da. Deritzait, Barbier'ek bere elerti gaiak antolatuzian, bizi zan txokotik pixka bat aldegiñ, eta gai oek Euskaleñi oro bildu izan baziren Barbier bera izango gendula, gure Eñiak biar zuen idazlaria, euskerak biar zuen elertilaria"¹.

Seve Calleja eta Xabier Monasterio:

"Debe ser considerado como uno de los grandes escritores de todos los tiempos de Iparralde, tanto por el volumen de su producción como por la calidad de la misma"².

Baina idazle guztiek azpimarratu dabe herri jakituria iturritzat hartu eta Senpere eta Donibane inguruan entzun eta ikasi ebazan kanta eta ipuinak idatziz emon ebazala. Hala ere idazkera apur bat landu eta bere estiloaz ornitzen ebazala esan izan da, barriro be herriko jende xeheari eskeintzeko eredu landu baina ulerkorrez idatzita, nahiz eta bizitasun apur bat galdu.

Villasantek argi egiten dau eritzi honen laburpena *Légendes du Pays Basque d'après la tradition* liburuaz dabilela:

"Redactado en un vasco muy simple, pero más puro que el del pueblo. Admirable simplicidad, bella lengua intermedia, sin la nobleza de Arbelbide ni los prestigios de Etchepare"³.

¹ ARTETXE: "Jean Barbier. Idazle ta Olerkari" in *Yakintza*, 1933, I, 323-334 orr.

² CALLEJA, S., MONASTERIO, X.: *La literatura infantil vasca*, Ediciones Mensajero/Universidad de Deusto, Bilbao, 1988, 180-183 orr.

³ VILLASANTE, L.: *Historia de la Literatura vasca*, Ed. Aranzazu, 1979, 304-6 orr.

Beraz, biltzaile eta egokitzailea dogu.

Baina ezaugarri bereizgarririk badau euskalzalea izatea da. Eta hori bere lanetan agiri-agirian dago bai hizkuntzan baita gaietan be.

IPUINEN AZTERKETA

1. Gaiak

Bilduma honetan jaso doguzan ipuinak lau atal nagusitan bananduta dagoz, bakotxa ardatz baten inguruan.

1.1. *Laminak*

Laminak euskal ahozko tradizioan zabalkunde handia izan daben pertsonaiak dira. Euskal Herri osoan entzun izan dira era honetako pertsonaien inguruko istorioak, ipuin asko dagoz honetaz idatziz jasota be dagoeneko.

Laminen irudia nahikoa zehaztuta dago gaur egun, ezaugarri orokorrenei dagokienez behintzat.

Normalean اندrazkoak¹ dira, baina anak pertsonen modura euki beharrean ahateenak lakoak daukez. Eta hori izaten da laminak dirala ezagutzeko gehien erabilten dan errekurtsoa.

Horrez ganera, oso politak eta ederrak dira, ule luze eta argia euki daroe eta sarritan erreka bazterretan ule hori orraztuten agertzen dira urrezko orraziakaz.

Euren boterea gauzez da indartsuen eta ipuin askotan kristautasunaren ezaugarriren bat erakustek (gurutzea, Biblia, "Aitaren" egin, "Jesus" esan...) euren boterea deuseztatu leike.

¹ Jean Barbierek ez dau puntu hau batere argi ikusten, izenak, egitadak eta abar aztertu ondoren. Azkuek ostera, bere informazioa hori dala aipatzen dau.

R.M. Azkuek "Laminak Euskalerrian" artikuluan 'lamina' izena greziarrena dala dino, eta mitologia grekotik hona hebreoan eta latinean ere aurkitu daitekela berba bera, zentzua beti bardina ez bada be.

Artikulu honetan Azkuek Homeroren *Odisea*-n Ulisesek Ciclopes-enean gertatutako pasartea laminen kontra bategaz konparatu eta parekatu egiten dau. Kontraera hori bilduma honetan "Laminea eta Atsoa"¹ izenez datorrena da. Holan azalzen dau berak parekotasun hau:

"Argiagotu dezagun ipui(n)txo au. Homero-ren Mito artan arako Ulisesek, Kiklops (Cíclope) giza-yalea taket gori batez itsutu zuen Ulisesek, *Outis* erderazko "Nadie" zuen izena. Farran-farran aria iruten zuen gizon emakume yantziak "Nadie" orren ordez "Yo mismo" artu zuen izentzat: euskalkiren batean *nihaur*, besteren batzuetan *nerau... niaun buru... neu*.

— *Erorrek erorren burua erre badun, or konpon*, esanda alde egin zioten Lamia deadartiari bere lagunak" (AZKUE, R.M.: "Laminak Euskalerrian", *Euskera*, 1927, 104-109 orr.)

Otxoluak eta Barbierrek atondutako bilduma honetan hamar ipuin ditugu "Laminak" izenburu orokorraren azpian. Asko izan ez arren hainbat ezaugarri betetzen da, beste bilduma batzukaz konparatuz parekatu eta osotu daitekezanak.

Aldia: Laminak aspaldian bizi ziran pertsonaiak doguz, garai zaharrekoak, eta inoiz ez da finkatzen noizkoak diran.

Aztergai ditugun ipuinen artean denbora erreferentziak era honetara emoten jakuz:

¹ Ipuin berau, eta Barbierrena oinarritzat hartuta, lehenago be Kirikiñok bizkaieratu eban. *Euzkadi* aldizkarian, 1929ko Urtarrilaren 23an, gero SUTONDOAN bilduma honetako *Egunekoa* liburuan jaso, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1981, 224-226 orr.

"Orain dirala berreun edo irureun urte egotegi bat euken Senperen"

"Alde aetan Lamin asko izaten zan, bai, eta..."

Zehaztasun falta zeozelan orekatu nahian gitxi gora behe-rako datuak emoten dira, egia antza emoteko, baina beti dira oso datu badaezpadakoak.

Bizilekua: 'Egotegi' berbea erabili dogu aurreko adibidean. Egotegi hori gehienetan barrua da, kobazuloa edo antzekoa.

Ipuin baten erreka edo holako zerbait igaro behar da sarre-rara heldu ahal izateko. Beraz, gizonarentzat ez da erreza ego-tegi edo bizileku honeetara heltzea.

Hala ere, eurak heltzen dira gizona dabilen parajeetara. Gure ipuinetara bihurtuz, lamina eta gizakiaren arteko hartue-mona leku eta modu ezbardinetan gertatzen da:

— Laminak etxeetara keoditik sartu-urteten dabe.

— Mendien artzainakaz topo egiten dabe.

— Gizakien beharra daukenean artez jotzen dabe behar da-ben lekura.

— Mendi tontorrean egoten dira burua urrezko orraziakaz orraztuten.

Misterioa: Laminak jendearen artean entzute handia dau-ke, baina oster, jende honek ez dauka euren barririk apenas. Euren egotegiak zelakoak diran jakiteak jendearengan interes handia sortzen dau. Ipuin batean hau oso argi dago: Lamina batek emaginari deituko deutso beste lamina bati seina egiten laguntzeko, herriko andra honek onartu egingo dau laguntzea, baina batez be jakinminak eraginda.

Hala be, misterioa sortzen daben hainbat puntu behin eta barrero errepikatzen dira:

— Laminak norbait euren egotegira eroaten dabenean be-giak itxita eroaten dabe, bidea ikusi ez dagian.

— Ezin da ezer atara laminen bizilekutik. Normalean eurak konturatu egiten dira bisitariak ostonka zerbait hartu dabenean.

— Normalean, eskeinitako laguntza oparien bitartez eskertzen dabe. Baina sarritan izaten dabe beste trikimailuren bat be oparia berreskuratzeke edo euren eremutik kanpora balioa galtzeke.

Laminak ez ei dira ikusterrezak, eta ikustekotan, askotan, laminak dirala konturatu orduko euren eragina zabalduta dago: begizkoa, maite mina...

Mendi, baso, erreka eta antzeke inguruetan egoten diranez, batez be artzainak dira euren barri daukenak eta ikusten dabezanak.

Badakie etxeetara joan eta herriko jendeagana joten be euren beharrizana euki ezkeru. Kasu hau birritan gertatzen da aztertzen gabilzan ipuinetan: Behin lamina bat hil aginean dagoala eta, hil baino lehenago otoitz egin dagion andra baten bila joan dira. Eta beste baten, lamina bat seinu egiteke dagoala eta, emaginaren bila arin joan dira.

Indar sobrenaturala: Laminak ahalmen bereziak daukez. Ona, txarra? Bietarakoak aurkituko doguz. Beste batzuk miragarriak dira, besterik gabe. Adibideak aipatuko ditugu:

— Lamina batek emagina euren bizitokira daroanean, atari aurrean dagoan ur korronteak makila bategaz "kaxk" jo eta ura zati bi egin da. Igaro ostean barriro be ura jo eta han doa hots baten bere lekura.

— "Laminea eta argina" ipuinean, lamineak harginaren nahi guztiak beteko ditu, gizonak zer nahi eta haxe emoten deutso, berak gura dauana bihurtzen dau gainera: hodei, eguzki...

— Eragin okerragoa dauka "Doministikun" ipuineko lamineak: familia baten jaioten diran haur guztiak hil egiten dira jαιο barritan lamina baten ekintzaren ondorioz.

Batzutan 'lamina' eta 'sorgina' bardindu, edo nahastu behintzat, egiten dira.

Ipuin baten lamineari "Bas-Andre" edo "Basoko Andra" esaten jako esaterako, basajaunaren emearen antzera.

Gizonak be batzutan jotzen dau eurengana, azken erremedio moduan batzutan, desio bat adieraziz besterik gabe bestetan. Holakoetan laminak gizonari mesede egiteko prest agertzen dira baina zerbaiten truke beti. Eta trukean eskatzen daben hori mesede eskalaren arima da sarri askotan. Era honetako tratuak ardaztat hartuta eraikin eta obra askoren azalpena emon izan da.

Gure bilduma honetan Laustaneko jauregiaren eraikuntza da azalpen honen bitartez erakusten jakuna, baina gauza bera entzun daiteke Castrejanako zubiaz edo beste edozein tokitakoaz.

Aberastasuna: Laminak urrez inguratuta aurkezten jakuz normalean. Orraziak oso ezagunak dira, baina badirudi ontziak eta antzeko tresnak be urrezkoak izaten dirala askotan.

Horrez ganera, gizakien begietara deigarriak diran beste gauza asko be eukiten dabez: ogi zuri-zuria, arropa dotoreak...

Baina laminen ezkutuan euren egotegitik ataratako edozek bere balioa galtzen dau eremutik urten baizen laster. Beraz, eurek emondakoa izan behar dau, bestela ez dau balioko.

Ahultasuna: Laminen eragina gizonak gaintitzeko modukoa izan daiteke, horretarako zer egin behar dan jakin ezker.

"Doministikun" ipuinean esaterako, ume jaio barriari doministikun egiteko esatea nahikoa da haurrak hiltzen zituan lamiaren botere hori desegiteko.

Normalean pertsona zaharrak dira holako erremedioak dakienezan: bai laminaren eragina dala ezagutu, eta baita eragin horri zelan aurre egin be.

Ezagutza hau bizitzan zehar entzun edo ikusitakotik dator normalean, horregaitik zaharrak gazteak baino gehiago jakiten dabe kontu honeetaz.

Baina laminen eraso berezko fenomenoek be desegin daitezke. "Mundaraingo lamiñak" ipuinean esaterako, goizeko eguzkiaren lehen izpiak dira Basoko Andrea ostondu azoten dabena.

"Laustaneko jauregia"n be goizeko lehen orduan oilarraren kukurrukuak lanean dabilzan guztiak lana bertan behera itsita alde egitera behartzen ditu.

Kristau ezaugarriak: Puntu honetaz ipuin honeetan egiten diran aipamenak balio desbardina euki leikie.

"Laustaneko jauregia"n herritarrak abadearengana jotzen dabe sorginkeria ha desegiteko modua berak bakarrik jakin leikelakoan.

"Laminak Senperen, Utsaleko zubian" izeneko ipuinean hiltzear dagoan lamineari otoitz egiteko herritarren bila joan dira. Badirudi heriotzako orduan Jaungoikoagaz bakean hiltzea nahi dabela.

Baina beste behin, "Laminea Imilaunen" ipuinean, azaltzen jaku laminak ezin dirala lur santuan lurperatu. Behin soloan lurperatu eben lamina bat, eta dana asunez bete zan. Ezin izan dabe inoiz dana garbitu.

Nahiko argi nabari daiteke siniskera eta pentsakera desbardin biren arteko nahastea. Batetik tradizio profanoa (laminak, basajaunak...) eta kristaua bestetik. Bigarren hau bestearen ostekoa da eta haren ganean eragina izango dauana. Tradizio kristauak indar haundiagoa eukan herriarengan, baina ha ta guzti be ez dau inoiz bestea guztiz baztertzea lortu. Beti gelditu izan dira haren arrastoak herriko jendearengan, ohitura, rito, errezu, kantu eta abarren bidez.

'Gilen' izena: Bilduma honetako ipuin baten (I, 4) lanean dabilzan bitartean laminak alkarri 'Gilen' deitzen deutse. Holarakoak ezagunak dira gehiago be, nahiz eta laminak edo zertzuk diran argi esaten ez jakun.

Honetaz argibide gehiago izateko hona ekarriko doguz Jean François Cerquand-en *Ipar Euskal Herriko Lengenda eta ipuinak* liburu ederretik ipuin horreetako bi, Gilen deritzen lamina honeen nondik norakoa eta egikizunak gehiago ezagutzeko.

66. LAMINA TXIKIAK

Lehenago, Jesus Kristo jin baino biziki lehen, laborari batzu ari zirelarik beren larren ahatzen, susprendituak izan ziren sentitzez arheko hortzak lotuak zirela finki lurrari. So egiten dute zer den horren kausa eta hatxemaiten dute arhearen zolan armak hortz bezein beste *haur ttipi* nigarrez hurtuak. Heien ikhustez, bihotza hersten ziote, eta pietatez betherik infortunatu gaxo hendako, handik libratzen dituzte eta ekhartzen etxerat. Han soeinatu zituzten bere haurrak bezala, hazi eta altxatu bere erreljionean.

Haur hurak igorriak ziren laminez, lurraren azpitik gainerat, zeren eta heien burhasoek nahi beit zutien egun batez heien kasta heda zadin lurrean, ezagutua eta aiphatua izan ledin. Gero, haur hurak handitu zirenean, aitek eta amek egin ziozten gauaz etxe edo, hobeki erraiteko, palazio batzu manifikoak, denak harri pikatuz, segurki oraiko harginek ez bait liokete halakorik egin. *Haur hek denek deitzen zuten elgar Gilen: Gilen harat, Gilen hunat.* Norbaitek galdegiten ziotenean non zuten aita eta amak, errepostu emaiten zuten:

— *Gu laminen haurrak giutzu, aita gurea eta ama gurea ari dituzu guretako, gu handitu gireneko, urhe eta zilhar fabrikatzen.*

Marie Castet andereak (67 urte) kondatua. Jauregi jaunak transkribatua.

67. LAMINAK ETA EZPEIZEKO ELIZA

Bestordüz, Ezpeizeko eliza *laminek* gai bakhotz egin zizien. Igaran erazteareki harrien, laminek batek bester erraiten zizien:

— *To, Gilen! Hartzak, Gilen! Hor dük, Gilen! Hamabi mila baginen eta oro deitzen Gilen.*

Bena lehiatükiegu erauntsiz lanean, mürria egin zizien bidealat okher.

Grègoire Etxeberri jaunak kondatua. Azark jaunak transkribatua.

68. LIGIKO ZUBIA

Lehenago, Ligiko zaharrek ez zien zübü bat egiten ahal ühaitzean. Zübü hura egin nahi zuten günean, *baziren hirur lamina, Gilen deitzen hiruak*. Erraiten deie Ligiko gizon bati hek eginen deiela harrizko zübü bat Jondani Johane mezpera gaian, nahi badeie eman bere arima phakütako. Gizon harek hitz emaiten dere arima, egiten badie zübia. Ber gaian, hirur Gilenek inkantatü zütien oilarrak oro, eta gero hasi ziren lanean, erraiten zielarik algarri harrien emaiten:

— *To, Gilen! Indak, Gilen! Hartzak, Gilen!*

Zübiaren finitzeko azken harria eskian zuten, nuiz eta ere oilo koroka baten petik, arrautzearen barnetik txitxa batek kükürükü egin beit zian. Ordian hirur Gilenek erran zien:

— Adio gura pakhamentia!

Eta urthuki zien eskütik azken harria hurealat. Geroztik harri bat ments umen dü zübü harek.

Müskildiko Engrace Karrikart-ek kondatua. Latsage jaunak transkribatua.

Holako ipuinak gehiago be badira bilduma honetan baina adibide moduan nahiko dirala eretxi deusagu. Ipuinotan kursibaz bereiztu ditugun esaldietan dago Gilen deritxen izaki honeei buruzko informaziorik gehien. Batean haurrak, bestean laminak, beti antzeko egitadetan aurkezten jakuz.

Bada honetan beste berezitasun bat be: mugaz bestaldeko 'Gilen' mugaz honantzako ipuinetan 'Nikolas' deitzen dira.

Barbierrek laminatzat hartu ditu eta baita Cerquand-ek be. Bitoriano Gandiagak¹ "Arantzazuko folklore-gaien biltzeaz" lanean ostera, beste era bateko azalpena emoten dau. Gandia-

¹ GANDIAGA, B.: "Arantzazuko folklore-gaien biltzeaz", *Euskera*, 1956, I, 206-233 orr.

gak "Bildurgarrixak" atalean sartu ditu "sorgiñak, Anbotoko Señorie, Argixak, Diabruak, Jentillak, Juanito Txitularixa, Su-txakurrak" eta antzekoakaz batera, eta hurrengo ohar honegaz:

"Batzuek Nikolastarrak diabruak dirala esaten dabe, jentillak dirala beste batzuek".

Honen frogatzat jarri dituen adibideetatik bana alderatuko dogu hona:

KOLEGIALKO ZUBIXARENA

"Egun batian gizon bat errekan ur aundixakin ezin pasau ta bere asarrian sorgiñai ots egin otsan: — Emen ez ete da izango sorgiñik o diabruik zubixa egingo dabenik? Baietz egingo dauela, goizeko iruretan ollarrak jo baiño lenago. Gizon orrek goizeko iruretako eiten badaue zuxa, bere anima ta gorputza izango zala beretzako. Gero Anbotoko gaiñetik Nikolasek abrailliakin arrixa tiratu, beste Nikolasek artu. —*Ahí va Nicolás. Eta bestiak: —Bota Nikolas.* Eta bigarrenak irugarrenari: —*Ipiñi Nicolás.* Eta onek irugarrenak egiten ban zubixe. Gero gizona larritu egin zan arimia agindu ebalako eta ollarrari eldu ta kukurruku kantau eragin eutsan. Eta olan salbau. Ondiño zubixak arri bat faltau eban akabauteko. Gero iru orreitatik batek beste mutil gazte bat tentau egin eben. Mutil ori estudiantia zan ta ona. Egun baten urte-neben pasiora. Gaizto orrek esanotsan: — Kanpoak ederrak daoz. —Bai. —Nik badaukot zaldixak kanpo dana txipituko dabena. Eta bestiak erantzun otsan: —Nik be bai frenuak danari eusteko. Eta joan zan oera. Kriaduak ots egin otsan: —Señorito, aguro jaiki, egualdi txarra dator. Artu liburutxo bat eskuan eta kaldera aundi bat buruan. Arrixa etorri zan. Kaldera ortara arri guztia bere frenuakin batu eben. Libruakin konjuria egin ta arri guztixa batu. Gaiztoak esaten otsan: —Itxi dak puska

baten kanpoari arrixa botatzeko, besteak ezetz, ta danak kalderan bat". (Fakunda Arregi)

"Jentil guztixak Nikolas euken izena. Nikolastarrak esaten xaten. — Ahí va Nicolás, artu Nikolas, euren lanian esaten otsan batak besteari" (Ignacio Vergara).

1.2. *Jesus jauna eta Jon Doni Petri*

Aurreko ipuin sortan laminak izan ditugu pertsonaia nagusiak, hau da, mitologia eta kristautasunaren aurreko garaiko kultoakaz zer ikusia daben izakiak.

Sorta honetan, ostera, bete-betean sartzen gara kristautasunak ekarritako pertsonaia, istorio eta irakatsietan.

Izenburu orokorra "Jesus Jauna eta Jon Doni Petri — Josu Jauna eta Kepa Deuna" da, hain zuzen be, eurak diralako istorio honeetako protagonistak. Beste pertsonaia batzuk be bada-goz, baina nagusi bien soinura egiten dabe dantza. Pertsonaia emonkorrak dirala esan daiteke, bilduma honetan bakarrik 23 ipuin ditugu eta.

Jesus Jauna eta San Pedro lurretik ibili zirala oso eritzi zabal da, eta horren froga hor dagoz herrialde ezbardinetan jaso diran hainbeste ipuin¹.

Baina bilduma honetan lurretik ibiltzea zehaztu egiten da eta Euskal Herrira mugatu. Hau da, hemen kontatzen diran gertaerak Euskal Herrian jazoak dira, eta zehatzago oraindik Ipar Euskal Herrian gertatzen dirala esango geunke, Lapurdi eta Biarritz moduko leku izenak aipatzen diralako. Gehienetan ez da leku izenik emoten, baina emotekotan hangoak dira.

¹ THOMPSON, Stith: *El cuento folklórico*.

Liburu honetan "cuentos de hadas" atalaren barruan egiten dan sailkapenean, puntu bat "Los tres mundos" izeneko da. Eta hor biltzen ditu Cristo eta Pedroren ibilerak lurrean zehar. Beste Santu batzuk be badira (207-208 orr, 252 orr.). Leienden artean be sartzen dauz holako kontaerak (353 orr.).

Hau, bestalde, normala da, hango inguruetan jasoak diranez gero esatariek euren ingurura eroatea eta ezagutzen dituen lekuak gertalekutzat hartzea joera orokorra da.

Beraz, Jesus Jauna eta Kepa Deuna Euskal Herrian zehar dabilzan garaiko kontuak ditugu. Badirudi, lurretik ibili eta gero euren ibilaldian Euskal Herrira heltzea suertatu jakela (22. ipuina). Beraz, ibilaldi zabalago baten atala izango geunke hau, honen arabera.

Baina istorioak eta ekintzak konparatzen baditugu bardintsuak edo alkarren oso antzekoak aurkituko doguz leku desbardinetan, nahiz eta bakotxean hango inguruetan kokatu.

Jesus eta Kepa Deuna Euskal Herrian zehar dabilzanean badirudi ez daukela destino eta helmuga jakinik. Ibili dabilz, eta gautu orduan edo iluntzean etxerik etxe hasten dira ostatu bila.

Hain zuzen be, hau da ipuin askotan emoten dan markoa, ostatu inguruan kokatuko dira gertaeretatik asko.

Antza danez, normalean jende pobrearengana jotzen dabe ostatu eske baina ez dabe beti baietza hartzen (23). Hala ere, normalean ostatuaren truke lanen bat egiteko prest ageri dira, eta horrez ganera, ostatu emon deutesenen aldeko gauzak egiten dabez (23).

Baina zelakoak dira Jesus Jauna eta Kepa Deuna.

Jesus: Barbierrek 'Jesus Jauna' eta Otxoluak "Josu Jauna" izendatzen dabe.

Alde batetik gizon moduan ageri da: beste gizonak dabilzan lekuetatik dabil. Jan, lo etab. egiten dau. Inork ez deutso ezer berezirik igartzen.

Baina bestetik, indar berezia dauka: mirariak egin leikez, beste gizonek egin ezin dabezan gauzak egiten ditu.

Jendeak ostera, ekintza miragarriok ez ditu miraritzat hartzen eta imitatzen ahalegintzen dira, ondorio ezin txarrago eta kaltegarriagoak lortuz, jakina.

Esaterako, "Gari jotea" ipuinean Jesusek momentu baten egiten dau gizonek egiteko ordu asko eta lan handia beharko

leukiena: gari piloari su emon eta momentuan garandu. Auzo-ek hori ikustean gauza bera egin gura dabe baina garandu barik erre egiten jake gari guztia.

"Bogadea" ipuinean, hiru bider aginduko dau lan bera egiten egun osoa emoteko. Lehenengo bietan ondo atarako da, baina hirugarrenean dirua kontatzen barik, komunean emongo dabe egun osoa. Behar baino gehiago nahi izateak dakarren kaltea litzateke.

Zentzu honetan Jesus Jaungoiko lez ageri da. Dana daki, dana leike: mirariak, sentimentuak...

Dana ikusten dauala azaltzeko, 12. ipuinean buruaren atzeko aldean begi handi bat daukala dino. San Pedrok ikusi egin deutso ganera.

Mirarietan gauza handiak eta gatxak egitera heldu daiteke: hatzamarrik ez daukan printzesari eskuak igurtzi eta hatzamar guztiak atarako deusaz barriro. Eta ez hori bakarrik, ezer ez dagoan baso erdian jauregi eder-eder bat egingo dau behingo baten.

Hau litzateke Jesusen alderik miragarriena, jainkozkoena zelanbait esateko.

Baina badauka gizonen moduko jokaera be zenbait pasartetan. Esaterako, "Gari jotea" ipuinean, ostatuko jaunak goizean astinaldi ederra emongo deutso Kepa Deunari, goiz erdian oraindino ohetik jagi barik dagozalako, soloko beharrak egiteko berbea emon eta gero. Jesusek maltzur jokutzen dau San Pedrori ohean lekuz aldatzeko esaten deusanean, holan barriro be Pedrok berak hartuko dau astinaldia.

Kepa Deuna: Barbierrek 'Jon Doni Petri', Otxoluak 'Kepa Deuna' deitzen dabe. Alkarrizketetan, Barbierren bersioan 'Piarres' be erabilten da.

Pertsonaia hau Jesusengandik nahiko ezbardina dogu. Labur esateko, gizonen jokaeraren eredu dala esango dogu.

Sentimentu eta jokaera aldakorrak ditu. Testuan bertan ad-jetibo ezbardinak jartzen deutsez: sutsua, gaisoa.

Batzutan sutsum da, gauzak birritan pentsatu barik egiten ditu (6), beste batzutan gixajo hutsum, oso osokoa (1).

Burutazino zelebreren batzuk bere izaten ditu: ezkontzak orekatzeko (4) handiak txikiakaz, gaisoak sendoakaz, etab. batu.

Horregaitik batzutan ez dau Jesusen jokaera ulertzen, berak gizon moduan pentsatzen daualako (5,8).

Eta ez pentsakera bakarrik, sentitu ere holan egiten dau. Bietatik beti da San Pedro gose (12), egarri (9), hasarre (21), berekoi (7) azaltzen dana. Jesusek ez dau holakorik erakusten.

Jesusek San Pedroren harrokeria, egoskortasuna leundu egingo dau horretarako bide ezbardinak erabiliz: saririk emon ez (7): "Gure Aita" osorik esan ez daualako zaldirik emon ez; gauza bat egitera behartu (9): behin ez makurtzearren askotan makurtuazo.

Baina San Pedrok beste egikizun bat dauka: zeruko atea zaindu, hango sarrerak begiratu. Behin bakarrik ageri da ipuinan zeregin hau beteten (18). Eta horretan be ez dauka agintea osoa ipuin honetan ikusi daitekenez. Ama Birjina bere genetik dago, berak galazotako sarrerari baimena emonaz.

Sorta honetako ipuin gehienek zentzu didaktikoa dauke, irakasteren bat dauke azpian. Irakatsi hori era desbardinetakoa izan daiteke.

— Jokabide zuzena erakutsi.

— Jesusen nagusitasuna azaldu, beragan fede osoa izan behar dala erakutsi.

— Fenomeno ezbardinen zergaitia azaldu: zergaitik 'andre buru deabru buru' esaten dan, zergaitik ez dakigun noiz hilgo garan, zergaitik Españan zer jan eta zer edan badagoan baina bakerik ez, zergaitik kalabazak inoren soloetatik hartu daitezkezan...

Era honetako ipuinek amaiera formula berezia dauke:

"Aor zergaitik...", azkenean laburpena edo moraleja emoten dabe.

— Pertsona, gauza eta lekuen sorreraren azalpena: harritik euskalduna eta bekorotzetik gailegoa egin, Bardotze zelan egin eben, Negreze aldean dagoan zingira zelan sortua dan.

Jean-François Cerquand-en bilduman be badira honeen moduko ipuinak. Hango gehienak hemengoakaz bat datoz. Baina horrez ganera, "Notak eta Oharrak" deritzan atalean edizio prestatzaileak komentario labur bat dakar ipuinon ganean, nondik etorri daitekezan eta helburua zein dan azalduz. Hona aldatuko dogu pasartetxoa:

"1.etik 9.era numerotako ipuinak "parabolak" izenburua-rekin sailkatzen ditu Cerquand-ek, eta haiei buruz hauxe dio:

Parabolek, gehienetan, Jesu Kristo eta Jondone Pettiri (Pedro Deuna) erakusten dizkigute, beren artean solasean, egoera berezi batetik ikaspide kristau bat ateratzeko. Jesu Kristoren irudia majestatez betea bada ere, ez da horrela gertatzen Pettirirekin: hau gizon onuts eta barkabera agertzen zaigu. Parabola guztiak intentzio onez eginak izan dira, bainan batzutan errespeto falta piska bat nabaritzen zaie, eta haien arteko bi, inkonbenientziaraino ere heltzen dira.

Istorio horiek elizako erretoreek egin dituzkete seguraski, igandeko predikuetan aipatzeko, eta gero jendeek hartu eta beretu dituzkete, bide batez kolore biziagoa emanez" (110 orr.)

Eritzi berau adierazten dau Barbierrek ere *Légendes du Pays Basque*-n egindako komentario eta oharretan.

1.3. *Ipuin-Mipuinak / Ixtorio-Mixerio*

Ipuin sorta honetan ez daukagu danak bateratzen dituan haririk. Bakoitzak bere ardatza dauka, eta nahiz ta alkarren artean puntu batzuk lotzeko modukoak izan, ez dago pertsonaia

edo gai edo-ta irakatsi berezirik ipuin sorta osoa bat datorrela esan ahal izateko.

Jean Barbierrek *Légendes du Pays Basque* liburuaren sorreran dinoanez ipuin batzuk dramatikoak dira, beste batzuk barregarriak, badira serioak be, baina danak dira misteriodunak. Behar bada ezaugarri hau da Jean Barbierrek sorta hau osotzeko erezpide bateratzailetzat erabiliko ebana.

Sorta honetan batutako hamazazpi ipuinetan gai, zentzu eta helburu ezbardinak dabezanak dagoz.

Lehenengo hiru ipuinetan arima gaiztoa, meza emon behar eban abadearen arima eta Basa Andera agertzen dira. Guztiok artzain eta neskame batengan dauke eragina, baina euren indar gaiztoa kristau ezaugarriren baten bitartez galduko da: meza emon, otoitz egin, eliz-kanpaiak jo. Horrez ganera hirurak gertatzen dira Salbatoreko ermitan, "ermita santua" esaten da behin¹.

Hainbat ipuinen protagonistak izaki bereziak dira, edo gizon arruntak badira izaki bereziokaz topo egiten dabe. Izaki bereziak deitu ditugunak gehienetan mitologia klasikoan dauke euren jatorria, eta gertakizunak be mitologikoak dira. Fenomeno zabala dogu gertaera handi eta entzutetsu honeek herrietako ahozko kontaera bihurtzea, bakoitzak bere herriko leku, ohitura eta esamoldeakaz orniturik. Horregaitik hemen ditugun ipuin honeen modukoak edo antzekoak Europako herrialde askotan aurkituko ditugu eta baita Europatik kanpo be zenbait.

Izaki bereziak parte hartzen daben ipuinak hurrengo honeek dira.

4. TARTALOA. Ipuin honetan "gizon bizar gorria" eta

¹ Ermita honetaz artikulu bi dagoz *Gure Herria* aldizkarian ipuinen aurretxoan argitaratuta,

COLAS, L.: "La Chapelle de Saint-Sauveur (Elichagaray) sur le chemin de montagne menant à la forêt d'Iraty"

BARBIER, J.: "St-Sauveur d'Iraty: Processions et Pèlerinages" in *Gure Herria*, 1921, Errearoa, 329-344 orr.

Tartalo agertzen dira. Lehenengoa bildurgarria bada, bigarrena askoz be gehiago izango da. Baina mutil gazteak biak engainatuko ditu.

Tartalo hau izaki erraldoia zan, oso indartsua eta begi bakarra eukan bekoki erdi-erdian. Mutil gazteagaz apostu egingo dau bere nagusitasuna erakusteko. Baina mutilak zuhurra izateak indartsu izateak baino gehiago balio dauala erakutsiko deusku.

5. AIZKO ETA AREN LAGUN BIAK. Ipuin honek zati ezbardinak ditu, baina pertsonaia nagusia Aizko da. Aizko, 'Basajauna' eta harek bahitutako neska gazte baten semea da. Senda, indartsua eta ulez beterikoa da. Horregaitik eskolara doanean beste mutikoakaz arazoak ditu.

Beste bi izaki berezigaz bat eginda zoria egiten doa eta deabruen deabrukeriei aurre egin beharko deutse.

Deabruak zahar itxuran aurkezten jakuz, frontoian pelotan jokatzen eta deabrukeriak egiten barik, euren jauregian baztertuta bizi dira.

Aizkok bere indar ikaragarri eta berezia erakutsiko dau lagunak lapikotik atara, berregin eta bizia emoten deutesean.

Ahalmen bereziak daukezan izaki miragarriak dirala eta 'atso zaharra' dalakoa aipatuko dogu. Normalean atso hau bide ondoan egoten da eta zoria egiten doazenei edota artzainei agertzen jake. Gehienetan zerbait eskatzen deutse eta erantzuna zelakoa dan halakoa izango da bere jarrera be. Hau da, borronte ona erakusten dauanari lagundu egiten deutso eta berekoia eta zekena danari ez.

Atso honek guzti hau egiteko ahalmena dauka, baina, bera nor da? Batzutan sorgin moduan ageri da, bestetan oster, Ama Birjinea dala esaten jaku.

Sorgin moduan 8. ipuinean dago. Mutil gazteak atsoari berak eskatutakoa emon deutesanez honek zoria egiten lagunduko deutso.

10.ean atsoa 'itzaldu' eta gero esaten jaku atso hori ama

Birjinea zala. Baina bai honetan baita hurrengoan be Ama Birjineak mutil gaztea eta etxeoandreaken bihotz gogortasuna eta zikoizkeria ikusirik lagundu beharrean eskarmentua emongo deutse.

Sorginak badagoz bestelakoak be, akelarreetara joaten diranak eta jendearen kaltea bilatzen dabena (7,13,16 zenb.).

7an, artzain batek sorginen batzar baten esaten dabena kasualidadez entzungo dau eta holan erregearen alabearen gaisoa zelan osatu jakingo dau. 13an sorgin entzutea dauken ama-alabak morroia hartu dabe. Baina mutila alabeagaz ezkontzeko danez ia entzute hori egia dan jakin gura dau, eta eurek egiten dabena eginez akelarrera doa. Mutil honek kalte handiak hartuko ditu.

16an artzainak sorginei aurre egiteko modua dakiala erakusten dau. Sorginak hemen be kaltegarri ageri dira, inoren lepotik barre eginaz.

Ipuin sorta honetako pertsonaietan Errege eta herritarra izango dira ipuin batzuetan nagusi (6,7,8).

6an gizon batek erregea hiru bider engainatuko dau.

7an artzainak, sorginei entzunda, erregearen alabea osatzeko modua ikasi eta osatu egingo dau, saritzat beragaz ezkontzea lortuz.

8an be Erregeak bere alaba osatuten dauanari beragaz ezkontzea aginduko dau. Mutil txiro batek, bidean aurkituko dauan atso zaharraren laguntzaz, bere helburua lortu eta saria bereganatuko dau.

14 eta 15. ipuinetako ikasle alperrak eta mutil tentela eza-gunak dira tradiziozko ipuinetan, bai euskal kulturaren barruan baita gure mugetatik kanpokoetan be.

14ean hiru ikasle guztiz alperrak¹ Parisetik etxerantzako

¹ Ipuin honen zati bat Kirikiñok be argitaratu eban *Euzkadi*-n 1921eko Uztailaren 20an. Barrero jasota dago, SUTONDOAN kolezio honetako *Egunekoa* liburuan. Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1981, 138-9 orr.

bidean egiten dabezan bihurrikeriak kontatzen jakuz. Hitzak txarto ulertzeagaitik sortutako nahasteetatik hasi eta apustuegaitik ingenioa erabiliz nok gauza gehiago lortu, inoren kontura bizi izateraino.

Ipuin hau barregarrien artean sartuko genduke.

Honen aldaerarik bada gure artean.

Ipuin honetan ikasleak 'Parisetik' datozala entzutean andre-ak 'Paradisutik' ulertu eta bere senar hilaz galdetzen deutse. Beste aldaera baten etorri barriak 'Ceutatik' datozala esan eta andreak 'Zeruetatik' ulertzen deutse. Gero ipuinak bardin jarraitzen dau. R.M. AZKUEk *Euskalerrriaren Yakintza*-ren II alean, 358-364 orr. "131. Zeruko berriak" izenburuaz dakar honen moduko ipuina. Hemen ikasleak barik, eskale bat da atera hurreratzen dana. Baina ipuinaren ostean Azkuek ohar luze eta interesgarria dakar. Jakingarria eritzi deusagu eta horrexegaitik dakargu hona.

"La versión bizkaina recogida por Kirikiño puede leerse en *Euskalzale*, tomo III (1899), pág. 45. con el título de *Zerutar bat*.

Lo más curioso del caso es que este cuento figura entre las obras dramáticas de Hans Sachs, celeberrimo zapatero y poeta de Nüremberg, con el título *Der fahrende Schüller im Paradies*, sainete o pieza de carnaval para tres personas, estrenado, según parece, el día 8 de octubre de 1550. Tiene, naturalmente, algunas variantes que el estudioso lector puede ver en la edición de Leipzig *Hans Sachs dramatische Werke*, tomo II, pág. 81. Es posible que esta versión germana sea la madre de las demás versiones. Para decirlo, me fundo en que el tunante, al entrar en el cortijo de una sencilla aldeana que deplora la muerte de su primer marido, le dice que él puede dar noticia de muchas cosas que ha leído en libros... y que ha estado en Venusberg (Montaña de Venus)... y viene de Paris. *Ihr kommet her vom Paradies?* (¿Vos ve-

nís del Paraíso?), le pregunta la mujer confundiendo la villa francesa con la patria celestial; y empieza a pedirle noticias de su marido. Una curiosa variante publicó Menditar, E., en el semanario *Argia* del 19. V. 1929, en la que, a imitación de París y Paradís, se juega con las palabras *Ceutatik* (desde Ceuta) y *zeruetatik* (desde los Cielos).

Cerquand publicó una versión labortana con el título francés *Mari et femme, en Lettres et Arts de Pau* (1874-1875), pág. 288. En su página 274, y al pie de la traducción del cuento, se lee esta curiosa nota: *Cette anecdote, avec tous ses détails, se trouvé dans un recueil du XVIIe siècle (La Gilecière de Môme)... etc.*

Wilhelm Giese publicó en *Rev. int. de est. vascos*, XVIII-417, el mismo cuento recogido por Cerquand y añade: "Este cuento es de un interés especial, porque tiene su origen en un cuento muy difundido a fines de la Edad Media o principios del siglo XVI, del cual se han conservado tres versiones alemanas del siglo XVI. La más vieja está en la colección de cuentos *Schimpf und Ernt*, del franciscano Johannes Pauli, aparecida en 1522."

En esta versión está basado el drama *Der fahrende Schüler in Paradies*, de 1550, que tiene por autor al famoso poeta Hans Sachs, de Nüremberg, y de ésta se deriva la versión incluida en el *Rollwagen Büchlein*, de Jorg Wickram, de 1555.

A continuación publica Giese la versión de Pauli, lingüísticamente modernizada, y tras ella da a conocer, una en frente de otra, las versiones castellanas de los originales alemán y vasco.

El curioso lector podrá ver que el último episodio del cuento alemán, que falta en la versión labortana, figura en el texto baztanés, que se ha dado a conocer páginas atrás."

15ean mutil tentelak agindutakoa esandako moduan egingo dau bere aldetik ezer pentsatu barik. Pasarteak kateatuz doaz

eta mutilak dan-dana aldrebes egingo dau. (Ikus AZKUE, R.M.: *Op. Cit.* 135-138 orr, "47. Erroketxo ta ama" deritxon ipuina).

9. ipuinean, "Untziburu jauna", azeriak munduan diran hiru egiarik haundienak azalduko ditu.

12an alperkeria gaitzat hartuta Jaungoikoak lehenengo ardiak zelan eta zergaitik egin ebazan azaltzen jaku.

17an artzain-andreak mendira joateko Jaungoikoaren bildur izan eta otoitz egin behar dala dino.

Ikusten danez, eta lehenago esan bezala, gai, pertsonaia eta ardatz ezbardinen inguruan eratutako ipuinak dira.

Batzuk laminak, sorginak etabar dabez nagusi, beste batzuk Ama Birjinea eta Jaungoikoa, eta bestetan mitologia klasikoaren aztarrenak argi-argi dagoz: Tartalo, bizar-gorria, frogak, egitadak...

1.4. *Axular*

Sorta honetan bost ipuin batu ditugu. Horrez ganera, idazleak, Otxoluak, sarrera bat egiten dau Axular-i buruz, bera da ta kontakizunon ardatza.

Sarrera horretan Otxoluak Axular eta bere leiendari buruzko barri emoten dau.

Hurrengo lau ipuinak Jean Barbierrek *Gure Herria* aldizkarian argitaratuak dira eta Otxoluak bizkaierara bihurtuak.

Bosgarrena ostera, ez da Barbierrena Mayi Ariztiarena baino. Honek be Otxoluaren sarrera bat dauka Mayi Ariztiaren barri emonaz. Egia esan, ipuin hau ez litzateke bilduma honetakoa izango, baina gai berari lotzen jakonez eta Otxoluak berak sorta berean sartu dauanez, guk be horrerri eretxi deutsagu zuzenena.

Axular gizon historikoa dogu, XVII. mendean bizi izan zana. Euskal literaturan ardatz garrantzitsua dogu, bere obra *Guero* idatzi ebanez gero.

Baina era berean, Axularren bizitza ipuinen gai bihurtu da lehendik ezaguna zan mitologian integratuz.

Axular-i leporatzen jakozan egitadak gizonen ganetik da goan izaki bati dagokoz. Beraz, hemen maila biak nahastu egiten dira.

Behar bada egokia izango jaku puntu honetan Barandiaranek egiten dauan bereizketa:

"Cuento es toda narración popular cuyos personajes, lugar de la acción y el tiempo son indeterminados. *Antziñan* (antiguamente), *etxe batean* (en una casa), *aita bat iru semekin bizi ementzen* (vivía un padre con tres hijos). En la leyenda, por el contrario, los personajes y el lugar de la acción son determinados"¹.

Axularri buruzko ipuin honeetan leyendari dagokozan ezaugarri batzuk betetzen dira:

— Axular bera gizon ezaguna dogu.

— Garaia: egiten diran aipamenak bere bizitzagaz bat etorri daitezke nahiz eta oso zehatzak izan ez. Esaterako: "Saran abade egoanean", edo Salamancako ikasle garaiko kontuak. Badirudi Axularrek Salamancan ikasi ebala, eta deabruaren koba be han ei egoan. Gauza biak ikasteagaz eta ikasle-adinagaz lotu daitezke.

— Lekua: gertaerak gehien baten Saran, Zugarramurdin eta deabruaren koban (Salamancan behar bada) kokatzen dira.

Guzti honegaitik Barandiaranek leyenda definetzerakoan aipatzen dauan datuen zehaztasuna betetzen dala dirudi.

Beste alde batetik zehaztasun honegaz batera mitologiako zenbait egitada berak egindakoak balira moduan kontatzen dira.

Axular pertsonaia: Manuel Lekuonak² Axularri buruzko

¹ BARANDIARAN, J.M.: *Obras completas*, II, 239 orr

² LEKUONA, M.: *Idaz-lan guztiak*, 2, *Euskal Etnografia*, 124 orr.

ipuin bat dakar bere bilduman: Axularren heriotza kontatzen dauana eta ondoren hurrengo hau dino:

"Mito au, gaur Axular'engan mamitua dago; bañan mito-aren gaia, prehistorikoa da: itzala anima dala, alegia. Beste alde, patu txarreko jakinduri-kontuak ere oso zaar-ak dira beren itzez. Axular bañio ondotoxoz zaarragoak - Axular XVII gizaldikoa degu-. Axular'ekin gertatzen dan gauza bera, gertatzen da Fernando Amezketarrarekin: inoiz kontatu izan dira abillidandezko xelebrekeriak, gaur, gure artean Fernando'ri erasten dizkiogu. Erderaz Quevedo'rekin ere gauza bera gertatzen bait da".

Barandiaranek be eritzi bera agertzen dau:

"Sinesgai orietarik batzuk asko edatuak dabiltz aspalditik. Ageri dire Cerquand'ek bildu zituen ipuietan. Vinson'ek eta Sorrannain'ek ere argitarazi zituzten. Berek diotenez, Axular Salamanca'n, debruaren arpean, eskolatu zen. Axular baino leenago berriz Enrique de Villena egon omentzen arpe artan. Onezaz ere erten zan berdin: deabruagandik zituela bere jakiundak eta gero iges egin zuela, bere itzala galduaz. Esaunda hek bazebiltzan beraz Eskualerri'tik urrun; Axularren garaian eta leenagotik ere. Baita Eskualerri'tik ere aspalditik edatuak ziren. Amalagarren mendean aipatuak dire *Livro dos Linhagens* delazko liburuan (Don Pedro de Barcellos'enean) zenbait sinesgai, geroztik Axular'i edo bere oroipenari ezarririk dabiltzenak"¹.

Azalpen honen froga argia dogu "Atarrabio" izenburuaz Resurreccion M. Azkuek bere *Euskalerraren Yakintza*-n dakarren ipuina².

¹ BARANDIARAN, J.M.: "Axular'en itzala" *Gure Herria*, 2, 1957, 97-110 orr.

² AZKUE, R.M.: *Euskalerraren Yakintza*, II, 69-73 orr.

Ipuin honen protagonista Don Juan de Atarrabio dogu. Oso ipuin luzea da, baina ekintzak bereizten baditugu hurrengo atal honeek ikusiko ditugu:

a) Don Juan de Atarrabio eta beste bi lagun Txerrenekin ikastera doaz infernura. Txerrenek ikas-saritzat ikasleatariko bat han gelditzea eskatzen deutse. Tratua egin dabe eta ikaske-tak amaitu diranean danak alde egin gura dabe, baina Txerren-ek bere saria gura dauanez azkenaren itzala harrapatuko dau. Holan bihurtu zan Atarrabio itzal-gabeko gizona. Atarrabio gero Gofñin egon zan erretore.

Kontaera hau "Axularren gerizea" ipuinagaz parekatu dai-teke. Axular be gero Saran egon zan erretore.

b) Abade honek sakristauari agindu eutsan Mezako konsa-grazino denporan hilteko. Sakristauak agindua bete eban eta orduan uso batek urten eutsan ahotik zerurantz.

Kontaera hau eta Mayi Ariztiak "Axularren eriotza" deitu dauana bat datoz, detaileak salbu.

Manuel Lekuonak be honen aldaera eder bat batu dau bere *Idazlan guztiak* bilduman.

c) Beste behin Atarrabiok Jaunaren argitasun bat izan eban: Aita Santua gizatxar bigaz egoala. Orduan, Atarrabiok, bere menpe eukazan hiru jenioei galdetu eutsen Aita Santua-rengana eroateko zenbat denbora beharko leukien, eta trukean, saritzat jana eskeini. Hara heldutakoan, atezainak ez deutso sartzen itsi, baina Atarrabiok mahaia neurtu behar ebala esan eta atezaina bera joan zan mahaia neurtzera. Zabaletara eta lu-zetara neurtzean gurutzea egin eban eta holan agertu ziran gi-zatxarrak Aita Santuaren aurrean.

Itzultzean, Atarrabiok edurra eukan erropatan igarotako men-di eta bideen seinale. Detaileak eta zehaztasunak aparte, kontaera hau "Axular eta Aita Santua"ren parekoa dogu duda barik.

Atarrabio hau dala ta, Barandiaranen *Obras Completas* bil-dumako lehen liburuan, Hiztegian, pertsonaia mitikotzat defi-nitzen dau. Holan dino berak:

"ATARRABI. Es un personaje mítico que figura en una leyenda de Elduayen. En la versión de Zugarramurdi se le llama Atarrabio; en la de Ezpeleta Ondarrabio. Según la versión de Villafranca de Ordicia, donde no figura el nombre, Atarrabi era uno de los hijos -el hijo bueno— de Marimunduko. Juntamente con un hermano suyo más joven, hizo sus estudios en la escuela del diablo, que era una caverna" (43. orr.)

Beste artikulu baten¹ ostera, idazle berak Axularren gorabeherak zehaztean esaten dau deabruaren eskolara joan zirala Axular eta bere anaia Atarrabio beste ikasle talde bategaz. Hemen beraz, pertsonaia biak anaitzat aurkezten jakuz.

Lan berean, deabruaren eskolatik urten ostean pertsonaia bakoitzak bide ezbardina hartu ebala dino Barandiaranek: Axular ona da eta Atarrabio txarra, deabruarengandik gaiztakeriak baino ikasi ez ebazana.

Eta azkenez, Axularren jatorria azaltzeko Mari Mundukoren istorioa emoten dau. Mari Mundukok zazpi ume izan zituan, eta horreetatik nagusi biak Axular eta Mikelats ziran, ona lehenengoa eta txarra bigarrena.

Beraz, datuak nahiko nahastuta dagozala esan behar da.

Hiztegiko definizioaren arabera Atarrabio Marimundukoren seme ona da. Artikuluaren arabera Marimundukoren semeetatik bi Axular (ona) eta Mikelats (txarra) dira. Horrez ganera Axular eta Atarrabio anaiak dira, baina Axular ona dan arren Atarrabio txarra da.

Eta gai honetan sartu garan ezkerro "Aztiri" izenordez izenpetzen dauan A. Alustizaren² hipotesia ekarriko dogu hona.

¹ BARANDIARAN, J.M.: "Axularren eginkizunak eta Axularren izena" in *Euskera*, I, 1956, 285-293 orr.

² ALUSTIZA, A. "Aztiri": "Atarrabi apeza eta Pedro de Atarrabio" in *Euskera*, XXI, 1976, 108-111 orr.

Idazle honek Atarrabi bi aurkeztuko deuskuz, bata histori-koa bestea folkloreakoa.

Lehenengo Pedro de Atarrabia pentsalari eta teologilari ospetsua da, bere eskola-izkribuak ale bitan argitaratuta ditue-
na. Frantziskotarra, Nafarroako Villava herriko Atarrabia au-
zoan jaio zan, XIII. mendearen erdi aldean uste danez. Parise-
ko unibertsitatean ikasi eta 1317-1320ra bitartean Aragoi
Probintziko Frantziskotarren Nagusia izan zan. Barzelonako
unibertsitatean egongo zan irakasle ziur asko, eta hangoak
izango dira eskola-izkribuak. Azken 20 urtean Nafarroa zaha-
rrean bizi izan zan, 1346 edo 47an hil zan arte.

Bigarrena folklore zaharrean ageri dan Atarrabi apeza
dogu, Atarrabio edo Ondarrabio. Alustizak dinoanez, Toledo
eta Salamanca inguruetan be baziran arren, Atarrabio Sarako
leze baten deabruak eskolatu eban, beste anai bigaz batera:
Arruit eta Don Juan. (Axularren izena be azaltzen da batzutan
Arruit-en ordez).

Aurkezpen hau egin eta gero hurrengo galdera hau egiten
dau artikuluaeren egileak: Ez ete dira biak bat? Azken baten,
Axularren kasuan gauza bera gertatu da. Axular bere jakindur-
ria apartekoagaitik sartu da folkloreakan.

Badirudi Pedro de Atarrabiak be jakinduria nahikoa ebal-
a folkloreakan sartzeko. Eta horrez ganera izenak bat datoz.

Azkenean be hasierako puntura gatoz: Manuel Lekuonak
dinoanez, lehenago egozan istorioak pertsona zehatzei lotzen
jakez. Fernando Amezketarrari gertaera barregarriak, Axularri
abade jakitunen egitadak. Baina istorioa hor dago protagonista
Axular, zein Atarrabio izan. Inoiz heroeak izen barik agertzen
dira, nahiz eta ekintza bera izan. Esaterako, itzala deabruak
kentzen deusnan ikaslearena beste ipuin bi honeetan gertatzen
da: Cerquand-ek "Itzal gabeko apeza" izenburuaz dakarren
ipaina (I, 42 orr.), eta Azkueren *Euskalerriaren Yakintza*-ko
"Martin abade" (II, 88 znb.).

Deabruaren eskola: Axular gizon zintzo, zuhur eta jakin-

tsua da. Hau jendeurrean frogatzen da: bere inguruan dagozaten eredia da (artzainak, ikaskideak...), beragana jotzen dabe aholku eske.

Baina jakituria hori norainokoa dan erakusteko deabruari berari eta sorginei be aurre egiten deutse.

Jakituria hau Salamancan hartu ei dau Axularrek, bertako kobazulo baten deabruak eukan eskolan. Lehenago esan dogunez, euskal tradizioan gehiagotan be aurkitu doguz era honetako kontaerak. Ikasketa honeek dirala eta azalpen nahiko argigarria da Cerquand-ek bere bilduman "Itzal gabeko apeza" izenburuaz dakarren ipuinaren hasiera:

"Nuizpait, Salamankako lezean, debrü zaharrak formatü zizün aphezgeien eskola bat. Dohainik eta urthe bakhoitz eskolatzen zitizün. Beste eskoletarik elkhi aphezak beno hantxez sabantago zütüzün eskola hartarik jelkhitzen zirenak, eta süstut künjüría hanitz azkar zizien. Bena urthe oroz eskolier batek behar zizün baratü lezean debrü zaharrarentako, eta azkenik jelkhizalea züzün bethi han barazlea". (I, 42 orr.)

Datu guzti honeek ezagunak dira folkloristen artean.

Alustizak, lehen aipatutako lanean, Atarrabioren eskola Sarako leze batean kokatzen dau, hala ere Toledo eta Salamanca inguruetan be bazirala holakoak argi isten dau.

Barandiaranek "Axularren eginkizunak eta Axularren izena" lanean antzerako informazioa emoten dau.

Lekuari dagokionez eritzi ezbardinak onartzen ditu: batzuren ustez deabruaren eskola Salamancan dago, beste askok ostera Saratik hur dagoala uste dabe, Sarako lezeetan.

Eskola mota horrek ezaugarri bereziak ditu eta eskolatze prozesu normalaren aldean abantaila handiak: Salamancan Axularrek urteak behar ebazan ikasketak egiteko, eta deabruaren eskolan urte batean eskola guztiak hartzen ziran, "horrela etzan hainbeste kosta, ez diru, ez eta ere urte" dino.

Guzti honi Cerquand-ek bildutako ipuinean dinoena gehitzen badeutsagu, hau da, deabruaren eskolatik askoz be jakitu-

nago, prestatuago urteten ebela, orduan abantaila guztiak eukazala esan behar.

Geriza galdu: Axular, Atarrabio, Martin abadea... danen arteko lotura gertaera bera da. Eta gertaera deabruaren eskolan egon ostean hari burla egitea da. Ikasle batek beragaz geratu behar dau baina azkenean danak alde egiten dabe. Hala ere deabruak zeozer harrapatzea lortuko dau eta azkenen urten dauanaren geriza/itzala hartuko dau. Ordutik aurrera abade hori geriza barik ibiliko da munduan zehar.

Barandiaranek dinoanez, itzala, erromatarren denboratik gure herrietan sartu dan sinestez, itzala da bakotxaren arima.

Horregaitik itzala mezaren momentu zehatz baten bakarrik urteten eutsan, konsagrazinoan. Eta horregaitik baita, momentu horrexetan hil behar eban, hilteko orduan geriza, arima izan gura ebalako. Beraz, heriotzak edozein unetan ustekabean harrapatu baino lehen, hil behar ebala pentsatuz, zerbitzariari agindu eutsan konsagrazinoan hilteko, arima eta guzti zerura joan ahal izateko. Bere nahia bete dala usoaren bitartez erakutsiko da.

Azpimarratzekoa da, Axularrek (edo besteetako edozeinek) erakusten dauan jakituria, heriotzari berari be irabaziz.

2. Ezaugarriak

2.1. *Tipologia*

Aurreko puntuan argi geratu danez bilduma honetan mota ezbardinetako ipuinak ditugu. Batzuk ardatz baten inguruan alkartzen badira be, sorta beraren barruan mota, gai, esanahi eta motivo ezbardinetakoak dagoz.

Wilhelm Giesek RIEV aldizkarian argitaratutako "Los cuentos populares vascos de Jean Barbier" artikuluan honen barri emoten dau:

"La colección publicada por J. Barbier *Légendes du Pays Basque d'après la tradition* (Axularri buruzko kontaerak ez dira bilduma honetakoak) contiene Märchen (cuentos populares no localizados), Sagen (cuentos populares localizados), leyendas y cuentos chistosos, todos recogidos de la tradición oral".

Bilduma honetan ipuinak ez dira orijinalak edo guztiz bariak. Beste ipuin bilduma batzutura jotzen badogu hainbat aurkituko dogu. Batzutan aldaeraren batez, inoiz nahastuta, leku ezbardinetan jasoak, eta, duda barik danak ezbardinak kontalariak ezarritako estilo bereziaz horniduta.

Ikusi esaterako Azkueren *Euskalerraren Yakintza*, J.M. Barandiaranen *Obras Completas II*, Mayi Ariztiaren *Amatzen uzta*, edota J.F. Cerquand-en *Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak*.

Ipuin guztien sailkapen zehatza emoteak lan luzea eta sakona eskatuko leuke. Hala ere, eta hau sarrera bat baino ez dala jakinda, ipuin mota batzuk aipatuko ditugu:

Majia eta miresgarritasunaren ingurukoak: honeen artean gauza miresgarriak egiteko gaitasuna daben zenbait azpimota bereiztuko dogu:

— Gauza miresgarriak (tresnak): Laminen makilak erreka erdibitzeko ahalmena dauka; "Zamaua, astoa ta makilea" ipuinean, honeetariko bakoitzak, gizonaren aginduz, jana, dirua eta kolpeak emon leikez.

— Sendakai magikoak: "Erregina bat basoan" ipuinean Jesussek basoan dagoan neskari hatzamarrak barriro atarako deustoz. "Aizko eta haren lagun biak": Aizkok bere lagunak lapikotik atara, osotu eta berbiztu egingo ditu.

Kristau ezaugarriak laminak eta sorginen boterea ezereztu egiten dabe.

— Indar berezia dauken izakiak: Aizko, Tartalooa...

Senideak: Senideen artean onak eta txarrak dagoz baina argi dago familiaren indarra. Anaiak (gehienetan hiru) bat egi-

ten dabe asmoetan. Erregeak edozer egingo dau bere alaba osatzeko.

Txarren artean leku berezia dauka amaordeak, eta honegaz batera amaxeak: "Erregina bat basoan". Baina ipuin honetan bertan maitale edo senarraren garrantzia be ikusiko dogu.

Zuhurtasuna eta engainua helburu batzuk lortzeko garrantzitsua izango da. Paristik datozan ikasle alperren kasua litzateke adibiderik argiena.

Engainua da Tartalo eta gizon bizar gorriari aurre egin eta adarra jotzeko bidea. Lehiaketa, indarrez barik zuhurtasunez irabaziko dau ipuin honen protagonistak.

Ingenioa izango da mutil txiro gaztea erregearen alabari barre egin arazo eta beragaz ezkontzera eroango dauana.

Leloak: Pertsonaia lelo batek egiten dituanak txiste modukoak lirateke, esaterako, amaren esanak orpoz-orpo beteten dituan mutikoarenak.

Leiendak eta ohiturak: hemen sartuko geunkez batetik Jesus Jauna eta Jon Doni Petriren ibilerak Euskal Herrian zehar; Axularri buruzkoak bestetik. Eta azkenez Euskal Herriko kulturari bereziki dagokiozan izaki eta gertaerak: sorginak, akelarreak...

2.2. Topikoak

Zenbait ezaugarri behin eta berrero errepikatzen dira. Ezaugarri arruntak dira, ipuin bakar baten barruan garrantzi berezirik ez daukenak, behar bada, baina ipuin askotan errepikatzeak hemen aipatzeko besteko balioa emongo deutse.

Zenbaki topikoak: 'Hiru' zenbakia behin eta berrero ardatz bihurtzen da: hiru anaia, hiru egiak, hiru galdera, hiru frogak, hiru egun...

Hiru anaien kasuan gazteena da zuhurrena eta besteak bete ez dabezan helburuak beteten dituenak.

Inoiz edo behin 'zazpi' eta 'hamabi' be azaltzen dira. Jakina danez ahozko literaturaren edozein moietan esanahi berezia hartzen dabe zenbakiok.

Pobreak: Pertsonaien artean era askotakoak dagoz: miragarriak, onak, txarrak, gizon arruntak... Baina egitarik handienak gizon arruntak egiten dabez. Gizonok gehienetan familia pobreetakoak dira, eta eurak hartzen dabez sariak eta ondorio onuragarrienak: aberastasuna, jende aberatsagaz ezkondu, zoriona.

Erregina salbatzeko barre eragiten deusn katean lotuta dagozanak artzain, okin, errementari, giltzaria eta holakoak dira.

Era berean Laminak eta sorginak ikusten dabezanak artzainak izan ohi dira.

Zoria egiten joan: Pobreak eta behartsuak izateak bizimodu hobegoaren bila joatera bultzatzen ditu ipuinetako protagonistak, eta ez dira etxera bihurtuko helburu hori bete arte.

Laguntasuna: Behartsuek euren nahia beteteko laguntza izaten dabe askotan. Jesus Jauna eta Jon Doni Petriren ipuinetan Jesus izango da beharizanik haundiena dabenei lagunduko deusena. Besteetan laguntza hori 'atso zahar bat'en bitartez gauzatuko da. Atso hori batzutan 'sorgina' dala esaten da, bestetan 'Ama Birjinea'. Honeek aholkua emon edota tresnak eskuratuko deutsez laguntza horren hartzaileei. Atso horren deskribapena nahiko zehatza da "Zazpi lapurrak" ipuinean: "Atso zaar zaartxo bat, abailduta, toles bi ija eginda, gaisoa dandarez ebillen bada ta".

Sorginkeriak, laminak edo deabruen indarra deusezteko kristau ezaugarriren bat nahiko izango da: kanpai-hotsa, ototza...

Irakatsia: Ipuin batzuk agerian dauke irakatsi edo moralejaren bat, eta horretarako egokituta dagoz. Jesus Jauna eta Jon Doni Petriren kontaeretan Jean Barbierrek 'parabola'ren egitura ikusten dau. Baina ageriko irakatsirik ez badago be beti sa-

ritzen da ondo eta zuzen jokatzea, on eginak saria dauka. Zekenkeria, norberekoikeriak ondorio kaltegarriak dakarz. Horra hor irakatsia.

Amaiara zorientzua: Ipuin barregarrietan izan ezik, orokorrean pertsonaiak zorientzua bizi dira ipuina amaitu eta hil artean. Euren ametsa bete da eta "harrezkero" ondo eta pozik bizi dira "Jaungoikoak daki noiz arte".

2.3. *Euskal kulturako ezaugarriak*

Esanda daukagu aztertzen gabilzan ipuinetatik asko beste herri batzuetan be ezagunak dirala, gai eta motivo antzerakoak behin eta berrero errepikatzen dirala han eta hemen. Hala ere, herri ipuin eta herri literaturaren ezaugarri berezkoa da gauza guztiak egokitzea kontatzen diran tokira eta bertako ohituretara.

Ezaugarri askotan nabaritu daiteke egokitze hori guri dagokigun gai honetan.

Euskal mitologia zaharra: laminak, sorginak, Basajauna beste mito eta siniskera batzukaz nahastuta aurkezten jakuz.

Gure laminek beste leku batzuetako 'hada, sirena' eta antzekoen ahalmena dauke.

Basajauna, basandrea etab. jentilekaz batera mitologia horretakoak liriateke.

Sorginak eta akelarreak: gure herriko jendearen siniskeretan oso erroturik dagoz, horregaitik dira behar bada hain ugari holakoan inguruan sortutako kontaerak.

Euren inguruko ritoak, esaerak, formulak nahiko zehatzak dira. Ama-alaba sorginak akelarrera joateko hurrengo pausuak egiten dabez: gauerdian lapiko bat atara, gantzutu eta formula berezi bat esanda tximiniatik gora desagertu.

Formula be zehatz emoten da:

"Sasi guztien ganetik
Edoi guztien azpitik
Ordubete arantz
Ordubete onantz."

Beste behin (7. "Artzaina errege") Akelarreko zeremonia azaltzen jaku: "Sorgin Nagosia" liburu bat dauala aulki gorrian esertzen da beste guztien erdian eta beste guztiek bera agurtu eta liburuari mun egiten deutse.

Sorginen izenak be baditugu: Katero, Amala, Niñika, Katalin.

Bertako lekuak eta ezaugarriak aipatu: Gertaerak Euskal Herriko leku ezagunetan kokatzen dira: Lapurdi, Biarritz, Euskal Herria, Zugarramurdi, Salbatoreko ermita...

Egia esan lekuen barri ez da askotan zehazten baina leku izenik aipatu ezkeru Euskal Herrikoak izango dira.

Baina bestela be badira ekintza gure inguruan kokatzeko bidea emoten daben ezaugarriak: pertsonaien izenak, bizimodua, ogibidea, siniskerak...

Guzti honek kontalariak kontaerari *egiantza* emoteko izaten daben joerara garoaz. Hau da, kontatzen dana benetan halkan gertatu zala frogatu nahi izaten da eta horretarako bide ez bardinak erabili daitekez. Bat leku ezagunetan kokatzea da.

Beste bat orain be frogatzeko modua dagoala erakustea da. Esaterako (2) Basa Anderari lapurtutako argimutilla Salbatoreko ermitan dago oraindino antza danez, ikusi nahi dauanak han dauka kontaera horren froga.

Biarritzeko zingira zelan sortu zan azaldu ostean kontalariak beste hau generatuten dau:

"Eta inoiz joango bazinateze ara, Negrezeko alderantz, an ikusiko dozue oindinokarren, gau ikaragarri atako euriak egiñiko ur geldi edo zingira andiaren bazterrean" (23).

Beste behin be kontalaria bera jartzen da ekintzaren lekuo: (13) "Pozarren nengoan, aren ezteguetara joateko ustez; ez

naz joan bapere, mutillak neskeari ezetza arin baiño arinago emon eutsan-eta, goiz atan bertan..."

2.4. *Hasiera eta amaierako formulak*

Ipuin hasiera eta amaierak horretara egokitu diran formula modukoak bitartez egiten dira.

Hasieran ipuinean zehar azalduko diran zenbait arlotako informazioaren barri emoten da: lekua, denpora, pertsonaiak, egoera.

Gehienetan datu orokorrak eta batere zehaztasun bakoak dira.

Denpora adierazleak: Zehaztasun falta bete-betekoa da holako espresioak erabilten diranean: Bein baten, Asagoko al-dian, Leenago, Aspaldi-aspaldi dala, Aldiko baten, Atxina munduan, Bein ba ei zan, Beñola ba ei ziran...

Beste batzutan aspaldiko garaian kokatu nahirik zenbat urte igaro dan esaten da, baina beti 'urte asko' adieraziko dauan datua: Orain dirala berreun edo irureun urte, Orain dala aspaldi-aspaldi, Orain aspaldi zortzi edo bederatzireun urte dirala, Orain berrogetamar bat urte.

Nahiz eta garaia ezezaguna izan, orduko ezaugarri batzuk emoten dira batzutan: Baso ikaragarriak ziran orduko basoak, Behorlegi Mendin edonon izaten ziren lenago Lamina zuloak, Aldi aetan Lamin asko izaten zan, bai, eta...

Inoiz edo behin, asteko eguna edo orduari buruzko datuak emoten dira, gehienetan esanahi berezia daukelako: Gau baten, goizalderantz, Arrats baten, zapatu egun baten, gauerdian...

Sarri erabilten dan moldea dogu lehenengo egoera normal baten aurkezpena egin eta gero 'behin baten' egoera normal hori apurtzera datorren gertaeraren barri emotea:

"Asagoko al-dian, beraz, baebilen Josu Jauna mundu onetan Deun Kepa andiagaz. Iluntze baten...". "Josu Jauna eta Kepa Deuna Euskal Errian ebiltzalarik, egun baten...". "Or, Euskal

Erri Naparroako erri baten sendi (famelia) beartsu-beartsu bat bizi zan. Egun baten...". "Beiñola ba ei ziran anaie bi, Ama il barri eben, eta egun baten...".

Axularren bizitzaren ganean sortutako kontaeretako gertaerak Axular bizi zan garaian kokatzen dira: "Beraz, 'Axular' gazteena bizi-zalarik, Aita Santua...", "Beste nozbaitean, Axular Saran abade egoanean, bere anaiea, Zugarramurdi a bere abade egoana, eguna emoten etorri jakan zaldiz".

Jesus Jauna eta Jon Doni Petriren kontaerak be, eurak Euskal Herrian ibili ziran garaira jotzen dabe. Hau da, benetako eta egiazat jotzen da garai historiko zehatz baten pertsonaia bi honek Euskal Herrian ibili zirala, eta horretara bialtzen gaitue: "Euskal Errian ebilen, orduan bere, Josu Jauna, Kepa Deuna lagun ebala", "Josu Jauna eta Kepa Deuna emen zear ebiltzalarik", "Josu Jauna eta Kepa Deuna baebiltzan beraz Euskal Errian".

Leku adierazleak: Denpora oso modu orokor eta zabalean adierazi bada, lekuari dagokozan datuak eskasagoak dirala esango dogu. Gehien errepikatzen dana "Etxe baten" izango da, eta salbuespen moduan "Baserri baten" eta "Erri baten".

Hau da joera nagusia, hau da, leku zehaztasunik ez emotea. Hala ere, badira leku izenak eta informazio apur bat zabalagoa eskeintzen dabenak:

"Orain dirala berreun edo irureun urte, 'Laminak' ba ei eben *egotegi* bat, *Senperen*", "Orain dala aspaldi-aspaldi, 'Laustane'ko jaunak, bere *jauregiari* maiz eretxirik", "Leenago, Laminak ei ziran *Mundarraingo mendiaren ganean*", "Arrats baten, orain dala aspaldi, *Bethirineko 'Inhurria'n*", "Orain dala aspaldi, *Ergaraiko ganeetan*", "Gau baten, goizalderantz, *Salbatoreko ermitan*".

Amairako formulak ezbardinak izango dira ipuinaren tonoaren arabera.

Gehienetan amaiera zoriontsua gertatzen da, eta holakoe-tan formulazioa be nahiko antzekoa da. Adibide batzuk ekarriko ditugu hona:

"Eta bere amagaz eta anaie biakaz, aberats izan zan Jaungoikoak daki noiz arte luzaroan. Ondo bizi izan baziran, era beratan il ziran" (II, 16).

"Aitari parkaturik, aita eta guztiak joan ziran beraz Erregearen Jauregira, eta zorionez beterik bizi izan ziran antxe Jaungoikoak daki noiz arte luzaroan" (II, 19).

"Ondo bizi izan baziran, era beratan il ziran" (II, 5).

"Ezkondu eta zorion betean bizi izan ziran antxe, Jaungoikoak daki zenbat urtetan" (III, 7).

Batzutan gertaera baten arrazoa edo zergaitia azaltzen da helburu didaktikoagaz. Holakoetan amaierak ipuinaren arrazoa emongo dau beste formulazio modu batez:

"Orra zergaitik ez dakigun zuzen, gaurko egunean oindiño ez Laminak zelakoak diran, ez zegaz bizi diran, ez zelako bizilekuetan" (I, 1).

"Aor zergaitik dan Españan zer jan eta zer edan, baiña, arrezkero 'bakea' urri dabe" (II, 11).

"Ori dok bada, Kepa!... Eta, gizonak gura zein gura ez, ara or zergaitik dozan beti —zoritxarrez— zigortau egin bear izan dozan lapurrak" (II, 21).

Beste batzutan kontatzen dana benetakoa dala frogatu eta baieztatzeko lekua ipuinaren amaiera hau da:

"Eta arrezkero an dago, beti Salbatoreko ermitan, eta egon bere an egongo da beti" (III, 2).

"Eta iñoiz joango bazinateze ara, Negrezeko alderantz, an ikusiko dozue oindinokarren, gau ikaragarri atako euriak egiñiko ur geldi edo zingira andiaren bazterrean" (II, 23).

"Eta arrezkero, ondo aberastuta, or dabil gure mutilla, bere oiñetako maiztu eziñak aldean dituzala. Lengo astean oindiño igaro jatan zear, antxe, pinodietako bizkarrean" (III, 4).

Laminen ipuinetako batzuk antzerako egitura beteten dabe kontaeraren amaieran. Laminak, bere indarra ezereztu dabenean, madarikazioren bat egiten dau, eta ondoren kontalariak,

harrezkero zer egoera geratu dan eta zer gertatu dan laburtzen dau ipuinari azkena emoteko:

"Une berean, ate ostetik elduriko aldari bat entzuten dabe, asarre bere asarre:

— Madarikatua, gauza ori iri irakatsi dauana! Madarikatua i eu bere!

(...)

Arrezkero, eta gizon zaartxo areri eskerrak, beti da bizi a umea, eta arrezkero..." (I, 3).

"Oillar madarikatua!, eta bere lagunakaz itsutu zan bera bere osinean.

A arria egundo ezin dau inok atera osinetik; antxe dago beti, ur azpi-azpian, laminak atzaparrakaz deutsela, eta Laustaneko jauregiak arri baten peitua (faltea) dau egunoko egunetan" (I, 4).

"Madarikatua ni! Mila urtean egon bear dot orain zulo onetan! Eta arrezkero, an dago, zulo aretan, artzain garaurik eguno ez da arako azartuten-eta..." (I, 7).

3. Hizkuntza

Hizkuntzaren puntu honek baditu gitxienez adar bi. Bata, herri ipuinak kontatzerakoan egiten diran esaldiak, egiturak, hau da, hizkera berezia. Bestea alde linguistikoa litzateke. Barbierrek lapurteraz, Otxoluak bizkaieraz, aldaera bitan aurkeztu jakuz kontaera berberak. Horrek azterketa luze baterako beste emongo leuke, guk hemen labur-labur aipatuko badogu be.

3.1. *Kontaeren hizkuntzazko errekurtsuak*

Herri ipuinak berez ahoz kontatzekoak dira. Honek baldintza batzuk jartzen ditu, kontalariari batez be, entzulegoren

atenzioa bereganatu nahi badau. Garrantzitsuena atsegina izatea da, baina horretarako gauza asko dagoz jokoan.

Atsegina izatea kontaeran bertan be badago, baina horrez ganera gauzak esan eta azaltzeko moduan be. Hau da, mamia baizen garrantzitsua izango da azala.

Puntu honetan ipuinak kontatzerakoan edozein kontalarik erabiliko leukezan egitura, esakera, ritmo eta abarrez arduratuko gara.

Badira zenbait ezaugarri behin eta barriro erabilten diranak eta kontaera bat entzutea atsegina izatearen oinarrian dagozanak.

Banan banan aipatuko doguz ipuinotan garrantzirik gehien dauken ezaugarriok:

Narrazio-alkarrizketa: Holako kontaeretan forma biak tartekatu egingo dira batetik bestera arin eta sarri aldatuz. Honek ritmo, estilo, totoa aldatzea dakar, eta honen ondorioz monotonia apurtu egingo da entzulea adi egotera behartuz.

Narraziotik alkarrizketara aldatzeak zehar estilotik zuzenera aldatzea dakar.

Alkarrizketak bizi biziak dira normalean, galdera-erantzuen bidez osotzen doaz, kontatzen danari, momentu zehatz baten esandakoari, indarra emonaz.

Galdera-erantzunak txitean-pitean tartekatzen dira narrazioan zehar, laburrak izan arren eginkizun garrantzitsua beteaz.

Hots-hitzak eta esaldi eginak: Hots-hitzek bizitasun eta sinisgarritasun indar berezia emongo deuto narrazioari. Bertan parte hartu dabenak hartutako inpresioa entzuleari be sentituaizo gura jako, istorioa errealitatetik ahalik eta hurren erakutsiz.

Ekintza bakoitzak soinu ezbardina sortuko dau. Ekarri dalguzan hona adibide batzuk:

'piru' ta 'piru' goruetan

Atzo 'frin-frin', 'firun-firun', gaur 'fran-fran', 'furdulu-furdulu'.

Zidar eta urreak 'tin, tin' jausten

Makileak: kiski, kaska, zirt eta zart, "ai!" emendik, "oi!"
andik.

Tas, tas, tas atea jo.

Kaxk, kaxk, kaxk atea jo.

Dilin, dalan, dilin, dalan.

Tiki-taka, tiki-taka.

Karkar eta karkar (barrea).

Esaldi eginak deitu ditugu ipuin baten barruan behin baino gehiagotan errepikatu eta esanahi edo balio berezia hartzen dabena. Formula magikoen funtzioa eukiko leukie. Esaterako:

"Txitxi ta papa, papa buxtia"

"Zafla, Maria, zafla"

"Zamau, zabal adi".

Sorginen artean euren formula eta esakera bereziak daukez:

"Kukulukun, jai! jai! jai!"

Akhelar, bai, bai, bai!"

Era honetako esaldiak, ganera, mundu miresgarri eta ezezagun batera joateko atea lirarteke. Esaldiok esan ostean aldaketa bat gertatzen da, eta aldaketa horren ostekoa mires eginda eta intrigaz itxaroten dau entzuleak.

Indartzaileak: Lehenago esanda daukagu denbora eta leku zehaztasun gitxi emoten dala normalean ipuinetan. Ekintzak non eta noiz gertatu diran ez dauka garrantzi handirik. Baina narrazioan zehar une, egoera eta lekua bera be zehaztu nahi izaten da ekintzak aurrera egin ahala. Holako zerbait azpimarratu nahi danean indartzaileen bitartez egiten da. Esaterako:

Denpora: beingoan, orduxe-orduxe, oraintxe-oraintxe.

Egoera: gogo-illun gogo-illun, mirriztuez-mirriztuez, gorri-gorri, ozta-ozta.

Lekua: aor, aortxe.

Ekintza bera be azpimarratu daiteke. Esaterako, egitura nahiko finkatua da hurrengo esaldi hau:

"joan, joan, beti joan, eldu zan azkenean"

"joan, joan, urez ur, itxasoz itxaso joan, bajoazan beraz"

"joan, joan, beti joan, lau edo bost egun garrenean aurkitu-
ten dau"

"olan etorri, etorri, etozala".

Guzti honegaz entzulea (edo irakurlea) adi egotea lortu nahi da, ekintzak, kontatera hurreratu eta sinesgarri egin, entzuleak sentitu dagian entzuten dagoana, berarengan intriga, sentimentuak sortu nahirik.

3.2. *Hizkuntza idazle bion erabileran*

Aztertzen gabilzan ipuinak herritik jasoak dira, hala ere irakurtzean errez igarten da idatzia ez dala ahozkoaren transkribapen lotua.

Jean Barbierrek *Légendes du Pays Basque* liburuan egin dauzan ohar eta komentarioetan esaten dau hizlariak erabilitako bariantek berak dagozanean itzi dauzala. Esaterako, aditz forma bera era ezbardinetan erabili badabe toki batean eta bestean berak ez dauzala bardindu.

Askotan leporatu jako Jean Barbierri ahozko iturritik hartutako ura liburuetera ixurtzerakoan eskua gehiegi sartzea material horri itxura literarioa emon gurean eta euskal kutsurik ez dauken berba eta egiturak kentzeko.

Gure testu honetan euskera ulerterreza darabil, herri ipuinek berezkoa daben joskera errez eta aberatsagaz, esaldi laburrak gehienetan eta hiztegi ezaguna, batez be euskalki hori erabilten dan lekuetan. Hizkera arina, bizia dala esango geunke, ahozkoa azken baten.

Baina gatozan Otxoluak Barbiarren testua oinarriztat hartuta bizkaieraz jarri dauan ipuin sortara.

Otxoluak autortu egiten dau ipuinok bizkaieratutean bere helburua etnografiko eta filologikoa barik euskal euskalki bi (lapurtera eta bizkaiera) alkarren artean dauken antzekotasuna eta hartuemona frogatzea izan dala. Horrek askatasuna emoten deutso testuan berba, egitura eta antzerakoak moldatuteko. Hona hemen bere berbak:

"Olako gogorik ez dabenak (folk-loreaz dabil), edo ni legez, ipuiñok bizkaieratutean, Lapurdi eta Bizkaiko euzkereen artu-emonen baiño billatzen ez dabenak, besterik uste izan legie, eta augaitik, ni neuk, bizkaieratutean, zerbait orraztuteko eskukotasuna artu dot. Eta txarto badinot, parkatu".

Egia esan, begien bistakoa da Otxoluak bere eskuaz landu dauzala ipuinak, herri kontalari batek inoiz erabiliko ez leukezan berba, egitura eta esakerak darabilzalako.

Otxolua bere garaiko gizona dogu alde honetatik, eta orduan indartsuen ebilen joerari jarraitu eutsan. Otxolua herri hizkera eta literatura zalea dogu, Kirikiñoren moduan. Baina alde hau baztertu barik, biak jarraitu eutsen Aranak bideratutako hizkuntza ereduari euren idatzietan ikusi daitekenez.

Testuari lotuaz, deigarriena aditzen erabilera sintetikoa da duda barik: baditauntse (itaundu), badakioe (ekin), badakus (ikusi). Holakoak ugari dira testuan.

Bestalde aditzetan, aditz laguntzaileetan, pluralgile bikoi-tza daben formak erabilten ditu, ahozko hizkeran hainbeste erabilten diran moduan: egiten dituz, aurkitzen dituz, eroan egin zituzan, ebagita zituzanez...

Hiztegia arazoak sortu leikezan beste arlo bat da. Otxolua konturatu da, antza, honetaz, eta urtenbidea jarri deutso: Ezezagun edo arraroak izan daitekezan berben ondoan, parentesi

artean horren ordezko ezaguna jarri dau, jarrera didaktikoa erakutsiz. Esaterako: 'sendi (famelia)', 'garesti, karutxo', 'keo-dian (tximinian)', 'pedar (potin)', 'eralgi-ala (gastau-ala)'.

Hala eta guztiz be, eta hiztegiaren arlo honetan gagozala, ipuin bilduma hau eta *Bertolda eta Bertoldin* liburua konparatzen badoguz, hau askoz be irakurterrezagoa dala ikusiko dogu. Esaterako, hango "Bakaldun-Bakandera" hemen "Errege-Erregina" dira. Hau da, herrian zabalago dabilzan berbak gehiago erabilten ditu.

Konparaketa honegaz jarraituz, joskeran be esango dogu hemen herrikoia ageri dala. *Bertolda eta Bertoldin*-en esaldiak oso luzeak dira, borobilak eta ondo tajutuak, baina horrek irakurketa oztopatu egiten dau. Ipuinotan esaldiak laburragoak dira, eta honen arrazoia sinplea da. Hemen, aurrean daukan eredu euskerazkoa da, Barbierrena. Berak egin dauana da, lapurteraz dagoena bizkaieraz jarri, baina lan hori esaldiz esaldi, eta berba kopurua apenas aldatu barik egin leike, eta halan egin egiten dau.

Beraz, ondorioa zera litzake: aztertzen gabilzan ipuin sorta honen idazkera *Bertolda eta Bertoldin* liburuan erabilitakoa baino herrian erabilten dan hizkeratik hurrago dagoala. Ha ta guzti be, ipuinok herritik jasoak dirala kontuta hartuta, herri hizkera horretatik nahiko urrun gelditzen dirala esan behar.

Guzti honek naturaltasuna galduazoten deutse ipuinei. Baina beste alde batetik, hala ere, ipuinak bizi biziak dira.

Alkarrizketa ugari dago, eta oso arinak dira. Horrez ganera hika erabilten da gehienetan pertsonaiek alkarren artean berba egiten dabenean. Puntu honetan aipagarria da laminak hartzen daben tratamentua. Jean Barbierrek luze lantzen dau ia laminak gizon ala andrazkoak diran *Légendes du Pays Basque* liburuaren sarreran. Azken ondorioa, bietara aurkitu daitekezala izango da. Ganera ez dago batere argi izen bakoitzak zer esan gura dauan edo noraino heltzen dan: lamina, Basa-Andera, sorgina, atso zaharra, Gillen...

Azkuek lan eder bat dauka *Euskera* aldizkarian 1927an argitaratua, "Laminak Euskalefian". Lan osoan laminen jatorria, izakera, egitadak, etab. zehatz aztertzen ditu eredu eta guzti. Azkuek andrazkotzat jotzen ditu.

Testuan bietara aurkituko dogu hika tratamenduaren arabe-
ra. Laminen arteko alkarrizketa bera da Barbierrek eta Otxo-
luak emoten dabena, eta testua hau da:

OTXOLUA

—Zer dona bada? Zer dona?
Nok ondatu au orretara?
—"Neukneureburuk!...
Neukneureburuk!..."
—Euk eure burua ondatu
baldin badona zer erru jau-
kona inok, beraz, eta zer
gura dona guganik?...

BARBIER

—Zer duk bada? Zer duk?
Nork hola funditu hau?
—Nehorknereburuk!...
Nehorknereburuk!
—Hehorrek hire burua fun-
ditu balin baduk nork zer
hoben dik beraz, eta zer
nahi duk gure ganik?...

Pertsonaien artean hika erabilteak bizitasun haundia emo-
ten deutso kontaezari, eta baita aberastasuna be. Horrez ganera
informazio ezbardina atara geinke erabilera horretatik, lamina-
ren generoari buruz ikusi dogunez. Jesusek San Pedrori hika
egiten deutso baina ez alderantziz, Axularrek deabrueri hika
egiten deutse, baina amari berorika. Andra-gizonen artean
behin hika egiten dabe, arraroa bada be (III, 14).

Ipuinen bizitasuna argi dago entzuteko dirala esatean. Hau
da, kontalari batek buruan daukan zerbait kontatzen dauanean
inoiz ez dau bardin kontatuko, eta berari entzun deutenak be
ezbardin kontatuko dabe. Beti sortzen dagoan prozesua da, eta
kontalariak beti barrikuntzak eta bere aportazioa gaineratuko
deutse.

Barbierrek jasotako ipuinotan, inoiz kontalariaren eritzia
edo jarrera agerikoa izatera heltzen da, kutsu moralaz batean:

"Baiña -eta zuek parkatu— 'beste atarikoak' egin eutsan as-
toak parra-parra";

egiaztatzeko norbera lekuko jarriz bestean, lehen pertsonan hitz eginaz:

"Pozarren nengoan, aren ezteguetara laster joateko ustez; ez naz joan bapere, mutillak neskeari ezetza arin baiño arinago emon eutsan-eta, goiz atan bertan..."

ONDORIOAK

Herri literatura, beste herri askotan moduan, gure inguruan oso aberatsa, emonkorra eta garrantzitsua izan da.

Pierre Lafitteren eritiz gizonak errealitatetik ihes egin beharra dauka, eta horretarako bide ezbardinak erabili leikez: lana, otoitza (ohoragarriak), edaria, droga (higuingarriak) eta jostetak (beste bien bitartekoak).

"Gizon gehienak mundu hontako biziari kirets-kino bat aurkitzen diote, eta nolazpait, gogoz bederen, ihes egin nahi diote ametsetarako munduetarat murgilduz"¹.

Herri literatura deitu doguna josteta-moduen arteko bat litzake, irudimenezkoa. Eta honen barruan beste bereizketa batzuk egin daitezke: kantuak, teatroa, ipuina. Baina danen iturria bat bera izan daiteke. Honen froga moduan Lafittek adibide ugari emoten ditu, euren artean "Genevieve" pastoralala eta Lapurdiko "Marie Valentine" ipuina alkarren antzekoak dirala dino.

Baina antzekotasun eta bardintasunak herri bateko espresio modu ezbardinen artean ezeze herri ezbardinen kontakizun eta beste ereduetan be azaldu eta zabaldu daitezke.

Sarrera honetan askotan aurkitu daiteke ideia hau, hala ere, ekarri daiguzan gai honetan jakitun diran beste batzuen eritzia puntu honetaz:

¹ LAFITTE, P.: "Euskal-Ipuinak" in *Euskera*, 1973, XVIII, 160 orr.

Pierre Lafitte:

"Miatzen baldin baditugu ipuin bilduma handiak, hala nola *Dictionnaire des contes populaires, Bibliothèque bleu des XVII et XVIII siècles, Die Marchen der Weltliteratur, Kondjahon Monogatari*, eta bertze, aitortzera behartuak gara ipuin-beretsu keta ederra kausi ditakeela nonnahi, nehork ez dakielarik nork nori dituen ebatsi edo mailegatuak. Adibidez guk Axular-ez erraiten baitugu ere itzala galdu zuela deabruaren atzaparretan utzirik, alemanek eta italianoek gauza bera kondatzen dute bertze zenbaitez..." (*Eusker*a, 1973, XVIII, 164 orr.)

Jose Miguel Barandiaran:

"No es raro recoger aquí leyendas que son populares en Galicia, en Castilla y en toda la extensión de la antigua Aquitania. Y en recopilaciones de mitos de diversos pueblos ibéricos, gálicos, latinos, germánicos y nórdicos hallaremos noticias que nos recuerden no pocas de nuestras leyendas o relatos populares (...) Esto no ensombrece la originalidad de la mitología vasca. No olvidemos que, como decía F. Brunetière, la originalidad no consiste precisamente en que uno extraiga algo de su propia sustancia, sino en imprimir a las cosas comunes su marca individual" ("Notas preliminares" in *Obras Completas I*, 14 orr.).

Guzti honek bete-betean jotzen dau hona dakargun ipuin sorta hau. Jean Barbierrek bildutako ipuin honeetariko asko bibliografian sartu ditugun ipuin bildumetan aurkitzen dira. Hala ere, beti diferenteak izango dira kontalariaren arabera.

Baina bilduma honi bagagokioz oso ederra dala esango dogu. Ardatz ezbardinen inguruan taldekatuta herri baten siskera, pentsaera eta sentikera modu errez eta eder baten azaltzen jakuz.

Herritik jasotako ipuinak izanik modu literarioan aurkeztu dabez idazleek, trankripzio filologikoari kendu eta balio literarioari garrantzi handiagoa emonaz. Era berean, ahozko katea inoiz eten daitekela eta, idatziz jasotea oso baliagarria da zabalakundea eta iraupena gordeteko.

Bilduma honetan bersio bikotxa jaso dogu.

Jean Barbier da bilduma egilea, berak batu, sailkatu eta idazkera moldatu dau.

Otxoluak Barbierrena bizkaieratu egin dau, harek egindako bilduma osotuz, handik-hortik-hemetik haren ipuinak hartu eta lana luzatuz.

Biak ditugu garrantzitsuak, edukia bera izanik euskalki bi alkarren parean ikusi ahal izateko.

Bestalde, Otxoluarena garai bateko euskeraren erakusgarri be bada.

Guztira, interesgarria deritzogu bai herri ipuinak baita euskera, hizkuntza bera be aztertzeke dakarren aportazioagaitik.

GURE EDIZIOA

Testua finkatzeko hiru iturri nagusi erabili ditugu:

— Lapurterazko testurako: Jean Barbierren *Légendes du Pays Basque d'après la tradition*, 1981ean Elkar argitaletxeak egindako edizioa; eta Mayi Ariztiaren *Amattoren uzta*, *Gure Herria* aldizkariak 1934ean ataratako separata.

— Bizkaierazko testurako Otxoluak *Euzkadi* egunkarian 1933-34ean argitaratutako atalak.

Otxoluak bizkaierazko testua lapurterazkoa aldamenen daua argitaratu eban, baina hori be berak erabilten eban grafiaz idatzita, hau da, Aranatarren erara moldatuta. Horregaitik nahiago izan dogu jatorrizkora jotea.

Testuari dagokionez, grafia aldetiko aldaketa batzuk egin deusaguz, gaurko irakurleari gaur erabilten diran ikurrak eta

grafemak eskeintzekotan. Zentzu honetan ahalik eta gitxien aldatzen ahalegindu gara, beti idazlearen idazkera, ezaugarri morfologikoak eta abar errespetatuz, eta inon aldatu badira oharretan azalduta dago zein kasutan egin dan trukea.

Egin izan ditugun aldaketa nagusiak hurrengoak dira, euskalki bakoitzeko testuari dagokiozanak bereiztuz:

Lapurterazkoa:

— *h* guztiak dagozan dagozanean itzi doguz.

— *-mb-* > *-nb-*: zombait>zonbait, hoimbertze>hoinbertze

— *ch* > *x*, *tch* > *tx*: chilotik>xilotik, chutik>xutik, bildotchak>bildotxak.

— Apostrofoak kendu egin ditugu: etchek'andre>etxekandre.

Bizkaierazkoa:

— *-r-* > *-rr-*: aurean>aurrean, etofia>etorria.

— *-r-* > *-r-*: dator>dator, negar>negar.

— *-ñ-* > *-iñ-*: baña>baiña, artzaña>artzaiña.

— *-l-* > *-ill-*: iĭun>illun, makiĭlea>makillea.

— *-t-* > *-t-*: polita>polita (dana dala holangoak oso urriak dira)

— *-y-* > *-i-*: anaya>anaia.

— Aposotrofoa kendu egin dogu: Axular'ek>Axularrek.

— Gidoiari dagokionez:

. Kendu egin dogu 'ba' aurrizkia eta aditzaren artean: ba-dira>badira, ba-doa>badoa.

. Gorde indartzaile moduan errepikatzen diran hitzen artean: bakar-bakarrik, polit-polita.

. Gorde *-ta* forman: eukan-da, izango-ta, ebela-ta.

— Berba konposatuetan joera bikotxa erabili dogu, gaurko erabilerari jarraituz:

. Berba finkatua danean gidoia kendu: Basa-jaun>Basajaun, Euskal-Erri>Euskal Erri.

. Gaurko erabilerak holan eskatzen badau edo idazleak sortutako konposaketa danean gorde: il-aginean, arri-tu-ezkoan, entzun-gor, oillar-kukurrukua.

— Aditzetan idazleak darabilen formea errespetatu dogu, adibidez: dautsa, jakan...

— Idazleak -oa-z amaitzen diran berbetan -ua egiten dauanean aldatu egin dogu: eruan>eroan, gaisua>gaisoa. Holako aldaketak egin ditugunean oin-oharretan aipatu dogu. Baina, esan behar da idazlea bera ez dala regularra, 'gaisua' dino baten adibidez, eta 'gaisoa' hurrengo orrian.

— Ortografia aldetik 's' eta 'z' gaurko arauetara egokitu doguz: azkatu>askatu, adizkide>adiskide, gusti, guzti>gusti.

Edizio hau, bestalde, irakurleari lagungarri izan dakikeozan oharrez horniduta dago gehien bat hiztegi aldetiko azalpenak eskeiniz. Oharrok era bitakoak dira: gehienak Otxoluak berak emoten ditu, ipuin baktxaren amaieran "Atzagarriak" izenburupean jartzen ditu bai lapurteraz bai bizkaierazko testuetan erabilten diran hainbat hitzen esanahi eta azalpenak. Holakoak guk kako artean, [], jarri ditugu.

Honeeri guk beste batzuk gehitu deutseguz testuaren ulermena errezteko gogoz. Honeek kako barik dagoz besteetatik bereizteko. Holangoetan, batzutan sinonimoak emon doguz, eta beste batzutan ostera, Azkueren hiztegiara jo dogu, oharretan bertan (Azk) marka daukien berbetan hain zuzen.

Azalpentxo hau amaitzeko Otxoluaren idazkerari buruzko ohar bat egingo dogu. Otxolua ez da regularra ortografiaren erabileran. Lan hau idazterakoan eredu bi eukazan aurrean: Barbierren idazkera eta berea. Ipuinetan berea nagusi dan arren, bien arteko interferentziak nabaritzen jakoz, ortografia, morfologia eta hiztegiaren arloetan. Hau izan daiteke berba bera idazteko forma ezbardinak erabiltearen arrazoia. Adibidez batzutan 'gaisua', 'illun' eta 'aurrera' idazten dau eta beste batzutan 'gaisoa', 'ilun' eta 'atxina'.

BIBLIOGRAFIA

Jean Barbier

- ARTECHE J.: — "Jean Barbier. Idazle ta olerkari" *Yakintza*, 1933, I, 323-334 orr.
— "Gratiem Adema-Jean Barbier" *Euzkadi*, 1933, Abuztuak 20
- CALLEJA, Seve, MONASTERIO, Xabier: "Jean Barbier (1895-1931). El recopilador del folklore de Iparralde", *La literatura infantil vasca*. Ediciones Mensajero, Universidad de Deusto, Bilbao, 1988, 189-183 orr.
- ETXAIDE, Jon, "Aldapeko": "Jesus Jauna eta San Pedro Euskalerriar barrena", *Euzko Gogoia*, 1951, Orrila-Garagarrila, 5-6 zbk.
- LAFITTE, Pierre: "Barbier Jaun apeza", *Euskera*, 1976, XXI, 269-276 orr.
- Gure Herria*, 1975-eko 5 eta 6 zenbakietan Barbierren jaiotza-
ren 100 urteurrena zalako berari eskainitako lanen bilduma
dago.
- MITXELENA, Luis: *Historia de la Literatura Vasca*. Erein, Donostia, 1988, (2, edizioa)
- ONAINDIA, Santi: "Jean Barbier", *Euskal Literatura* IV. Etor, Bilbao, 1975
- OXOBI: "Jean Barbier", *Gure Herria*, 1931, XI, 481-484 orr.
- VALENCIA TIRAPU, Eduardo: "Jean Barbier" in BARBIER, J.: *Supazter Sokoan*, Itxaropena, Zarautz 1987, 21-32 orr. Euskal Editoreen Elkarte, Klasikoak-16.
- VILLASANTE, Luis: *Historia de la Literatura Vasca*. Editorial Aranzazu, 1979, (2. edizioa), 304-306.

Bernardo M.^a Garro "Otxolua"

AREJITA, Adolfo: "Sarrera" in OTXOLUA: *Bertolda eta Bertoldin*. Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Sutondoan-4, Bilbao, 1983.

VILLASANTE, Luis: *Historia de la Literatura Vasca*. Editorial Aranzazu, 1979 (2. edizioa), 392-394.

Ipuinei Buruz

ALUZZITZA, A. "Aztiri": "Atarrabi apezka eta Pedro de Atarrabia". *Euskera*, XXI, 1976, 108-111 orr.

AZKUE, R.M.: "Laminak Euskalerrian". *Euskera*, 1927, 91-115 orr.

BARANDIARAN, J.M.: — "Axularren eginkizunak eta Axularren izena". *Euskera*, I, 1956, 285-293 orr.

— "Axular'en itzala". *Gure Herria*, 2, 1957, 97-110 orr.

— *Obras Completas* I. Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1973.

BARBIER, J.: "La Chapelle de Saint Sauveur (Elichagaray). Sur le chemin de montagne menant à la forêt d'Iraty". *Gure Herria*, 1921, Errearoa, 329-337 orr.

ERCORECA, Anton: *Cuadernos de Etnologia y Etnografía de Navarra*, Institución Príncipe de Viana - Diputación de Navarra.

— "Los gentiles (El mito de los gigantes en el País Vasco) N° 23 (1976).

— "Laminak (Recopilación de leyendas)" I: N° 30 (1978), II: N° 31 (1979)

GANDIAGA, B.: "Arantzazuko folklore-gaien biltzeaz". *Euskera*, 1956, I, 206-233 orr.

- GIESE, Wilhelm: "Los cuentos populares vascos de J. Barbier. Notas morfológicas y comparativas" *RIEV*, 1931, 523-530 orr.
- JUARISTI, Jon: — *Historia de la Literatura Vasca*. Ed. Taurus, Madrid, 1987.
- "Introducción" in JUARISTI, Jon: *La tradición romántica. Leyendas vascas del s. XIX*. Ed. Pamiela, Iruñea, 1986.
- LAFITTE, Pierre: "Euskal-Ipuinak". *Euskera*, 1973, XVIII, 160-166 orr.
- LEKUONA, Manuel: *Idazlan guztiak*, 2: *Euskal Etnografia*. Kar-daberaz Bilduma 23, Gipuzkoako Foru Aldundia. 122-124 orr.
- THOMPSON, Stith: *El cuento folklórico*. Universidad Central de Venezuela, Ediciones de la Biblioteca, Caracas, 1972.

Ipuin Bildumak

- ARIZTIA, M.: *Amattoren uzta* (La Moisson de Grand'Mère) Premier Fascicule, Editions "Gure Herria", Bayonne Imprimerie "La Presse", 1934.
- *Amattoren uzta*, Elkar, 1982.
- AZKUE, R.M.: *Euskalerrriaren Yakintza*. Espasa-Calpe, Madrid, (2, argitalpena)
- BARANDIARAN, J.M.: *Obras completas II*. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1973
- BARBIER, J.: *Supazter Sokoan*. Itxaropena, Zarautz, 1987. Euskal Editoreen Elkarte, Klasikoak-16
- CAERQUAND, J.F.: *Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak* (I,II). Anuntxi Aranaren transkribapena, Txertoa, Donostia, 1985-1986. Larrun-8,9.
- VINSON, J.: *Literatura Popular del Pais Vasco*. Ed. Txertoa, San Sebastian, 1988.

LAMINAK

1. LAMINAK SEMPEREN, UTSALEKO ZUBIAN

Duela bizpahiru ehun urthe, *Laminek* ba omen zuten egoitza bat, Semperen, *Utsaleko* zubiaren azpian. Bainan, nahi bezenbat behaturikan ere, nehork ez omen zuen deus jakiten ahal barne hartako berririk.

Behin batez, bizkitartean, Lamina hetarik bat hiltzerat omen zoan. Haren lagunek bazakiten arras ongi, orena ethorria zuela; eta, futxo, ez ziteken hil, deus gisaz, gutarteko *jende* batek, Lamina ez zen batek, hura ikusi eta, haren aintzinean, den othoitzik ttikiena erran gabe.

Laminetarik bat gan zen beraz —*Gaazetxean* baitzuten ezagun bat eta— haren ganat.

«Ethorri behar duzu, othoi, gure etxeraino!... Gure lagunetarik bat arras gaizki da, eta ez du bere azken hatsa botako ahal, zuk ikusi eta, othoitz ttiki bat harentzat erran dukezun arte. Sari ederra izanen duzu, berrogoi eta hamar liberako bat, eta gainerat oraino, ikusgarri zerbeit.»

Berrogoi eta hamar libera ez baitziren orduan nola nahizka irabazten, Gaazetxeko gure emaztekiak deliberraten du beraz gatea, zer nahi izanen bazen ere.

Utsaleko zubiari buruz heldu zirelarik, Laminak erraiten dio emaztekiari:

1. LAMINAK SENPEREN, UTSALEKO ZUBIAN

Orain dirala berreun edo irureun urte, *Laminak* ba ei eben egotegi bat, Senperen. *Utsaleko* zubi azpian. Baiña, edozenbat bidar begiratuta bere, iñok ezin jakin izaten ei eban ezer ango barruko barririk.

Bein baten, orraitino, Lamina aetariko bat il-aginean ei egoan. Aren lagunak baekien ondo bere, ordua etorrita eukala; eta, kontxo, ezin zeitekean il ezelan bere, gure tarte-ko *kristau* batek, Lamina ez zan batek, a ikusita, aren aurrean otoitzik txikiena edolabere esan barik.

Lamina aetariko bat joan zan, beraz —*Gaazetxean* ezagun bat ei eben-da— ezagun aregana.

—Arren, gure etxera etorri bear dozu...! Gure laguneta-riko bat gustiz txarto dago, eta ezin emon izango dau bere azkeneko arnasea, zuk ikusi ta arentzako otoitz txiki bat esan ez dagizun arte. Sari ederra izango dozu, berrogeta amar pezetako bat, eta arez ganera, bezuzaren¹ bat!

Berrogeta amar pezeta ez ziran orduan edozelatan irabazten, eta *Gaazetxeko* gure andreak joatea erabagi eban, beraz, daiteana daiteala.

Utsaleko zubi aldera eldu ziranean, badiñotso Lamineak andreari:

¹ Bezuzea: Oparia.

«Gure etxetik sarri atheratzearekin, deus harramantzarik entzuten baduzu, ez othoi gibelera beha! Zoazi bethi aintzina, zure bidean... Bertzenaz, zure ikusgarria galduko duzu, zuhaur batere ohartu ere gabe.»

«—Ontsa da; ez dut segurki gibelera behatuko!»

Utsaleko zubiaren ondora heltzen dira beraz, eta, hekien etxean sartzeko, behar baitzen urean iragan, Laminak, makila berezi batekin *kaxk*, jotzen du ura, eta ura egiten da berehala bi zathi. Biak gero iragan ondoan, Laminak berriz ere *kaxk* emaiten dio makilarekin, eta ura, kuxean jen zen bere lekurat.

Gure emaztekoa sartzan da beraz etxe barnera, eta Lamina hil-urrenaren aintzinean othoitz bat erranik, abiatzen da kanporat.

Bainan Laminek ez zuten hola gan zadien nahi, deusik hartu gabe:

«Pokadu bat bederen jan behar zuela!»

Emaiten diote beraz arras ongi jatera, eta gero, berrogoi eta hamar libera dirurekin, gainerat oraino, urhe *tabakier* bat.

Gure emaztekoa loriatua bazoan beraz etxe alde, noiz eta ere harrabots zerbeit entzunik, burua itzultzen baitu, eta *adiol*, batere berak sumatu gabe, galtzen du... tabakiera urhezkoa!

Doi-doiako lamina eta biak heltzen dira ur bazterrera. Aintzinean bezala, Laminak hartzen du makila, eta *kaxk* jotzen... Bainan, aldi huntan ura ez da bi zathi egiten.

Berriz ere jotzen du *kaxk*, bainan berriz ere alferretan. Orduetik bazakien Laminak zertako ez zen ura bi alde emaiten. Bainan, ez zitaken oraino mentura emaztekiari erraitera. Bertze behin jotzen du beraz makilarekin... Ura bethi geldi geldia!

Orduan Laminak erraiten dio emaztekiari:

«Uste gabetarik hartua, izan behar duzu zurekin *gure puxka* zerbeit?»

—Gure etxetik urtenda, beingoan ezere zaratarik entzun badagizu, arren, ez atzerantz begiratu! Zoaz beti atxina, zeure bidean... Zure bezuzea galduko dozu, osterantzean, zeuk ezerbere oartu barik.

—Ondo da; ez dot aurki atzerantz begiratuko.

Utsaleko zubi ondora elduten dira, beraz, eta, areen etxean sartuteko uretan barruna igaro bear zanez, Lamineak, makilla berezi bategaz, *kaxk*, joten dau ura, eta beingoan, ara, ura zati bi eginda. Gero biak igaro ostean, Lamineak barriren barri *kaxk* emoten dautso makilleaz, eta an doa ura ots baten beren lekura.

Sartuten da, beraz, gure andrea etxe barruan, eta Lamina ia-illaren aurrean otoitz bat esan ostean, asten da kanporako.

Baina Laminak ez eben gura alan joan eitean, ezer artu barik:

—Kopau bat besterik ezean artu bear eballa!

Gustiz ondo jaten emoten dautse, beraz, eta gero, berrogeta amar pezeta dirugaz, arez ganera, urrezko toxa¹ bat.

Bajoian, beraz, gure andrea etxerantz pozarren-ozta, eta bat-batean abarrots bat entzunik, bigurtzen dau burua, eta agur!, ezerbere berak susmatu barik..., urrezko toxea galdu!

Alameneko(?) laminea eta biak elduten dira ur bazterre-
ra. Lenengotan lez Lamineak artu makillea eta, *kaxk* joten dau... Baiña, oraingotan ez da ura zati bi egiten.

Barriri bere jotzen dau *kaxk*, baiña barriri bere alperrik. Ordutik ekian Lamineak zer zala-ta ura erdibituten ez zan. Baiña, ezin zeitekean ausartu oindiñokarren andreari esaten. Beraz, beste bein jotzen dau makilleaz... Ura beti geldi-geldi.

Orduan Lamineak badiñotso andreari:

—Uste barik artuta-edo, *gure izkilimerien* bat dozu zuk aldean, oiez?

¹ Toxa: (Azk) Tabaquera de cuero; hoy hasta la de hoja de lata se llama así.

Emaztekiak, nahizik eta gorde, ihardesten dio:
«Ez dut uste, andre Lamina!... non ez dudan ixkilima zenbeit...»

Miatzen da, eta : «Ez, ez, ez dut deusik kausitzen.»

«—Bizkitartean, nik ez dezaket ura bi alde egin, eta ez baduzu hartu duzuna aithortzen, hemen gare ittant batendako!»

Emaztekiak erraiten dio orduan: «Nik dudan guzia, ogi pitta bat dut mokanesaren buruan hartua, ene etxean erakusteko zuen ogia zein den xuria.» (Elhurra baino ere xuriago omen zen.)

«—Nor nahiri gerthatzen ahal den gauza da hori. Bainan, gure etxetik ez da deusik erematen ahal. Hortakotz, othoi behar dautazu ogi hori itzuli, zeren ez duen nihork gure gauzarik ikusi behar sekulan.»

Gure emaztekiak itzultzen dio beraz ogia, eta berehala, makilarekin *kaxk* jo orduko, idekitzen da ura eta baztertzen.

Hainbertzenarekin, suntsitu zen Lamina...

* * *

Gaazetxeko emazteki gaixoak *harat hunata* irabazi zuen gau hartan; ezen, bidean heldu zelarik, bere berrogoi eta hamar liberak ere suntsitu omen zitzaizkon sakelan!

Horra zertako xuxen ez dakigun, oraiko egunean oraino, Laminak nolakoak diren, zertaz bizi diren eta nolako bizitegietan.

Andreak, arritu-ezkoan, erantzuten dautso:

—Ez dot uste, andre Lamina..! orratzen bat-edo "zertu" ez bajat...

Arakatuten dituz *soiñekoak*, eta: —Ez, ez, ez dot ezer idoroten.

—Orraitifño, nik ezin dautsat urari alde bitara erazo, eta artu izan dozuna autortu ez badagizu, emen gagoz zati baterako!

Badiñotso orduan andreak:

—Ara, bada, nik dodan guztia. Ogi puzka-puzkatxo bat daukat zapiaren musturrean artuta, zuen ogiaren zuria nire etxean erakusteko. (Edurra bera baiño zuriago ei zan.)

—Edonori jazo al leikeon gauzea da ori. Baiña, gure etxetik ezin daiteke ezer eroan¹. Orregatik, ogi ori bigurtu egin bear daustazu, arren, gure gauzarik arean ez dau iñok eguno ikusi bear-eta.

Gure andreak bigurtuten dautso beraz ogia, eta beingoan, makilleaz jotean-beraz, ara ura edegi eta baztertu.

Geiagoko barik, itsutu egin zan Laminea...

* * *

Gaazetxeko andra gaisoak² gau atako *joan-etorria*³ irabazi eban irabazi, bidera elduta sakeleko berrogeta amar pezetak bere itsusu egin jakazan bada-ta!

Orra zergaitik ez dakigun zuzen, gaurko egunean oindiño, ez Laminak zelakoak diran, ez zegaz bizi diran, ez zelako bizilekuetan.

Euzkadi, 1933, Apirilak 21.

¹ Eroan: Idazleak 'eruan' dakar.

² Gaisoak < gaisuak.

³ Joan < juan.

2. LAMINA ETA ATXOA

Etxe batean omen ziren jaun andre batzu, adin batetara ja helduak biak. Jauna bazoan goizik ohera, eta andrea, aldiz, berant arte ari zen, arrats guziez, *phiru-phiru* iruten.

Bainan, arrats guziez ere andre gaixoari, eta bethi tenore berean, suphizkiari beheiti jausten zitzaion emazteki arrotz bat, eta emazteki arrotz hoi ez zen itzaltzen, afaritik zerbeit puxka bildu arte.

Iruleak aski zuen bere xingarraren erretzen hastea, burrumba beraren eta galde beraren entzuteko: «*Xitxi'ta papa, papa buxtia?...*»

Bazuen jada zonbait aste hola hola gerthatzen zitzaiola, eta andere gaixoa, harritua, ez zen menturatzen bere jaunari deuseren erraitera, noizbait, dudarik gabe geldituko ahal zela Lamina.

Bizkitartean, arrats batez, jaunari, ametsetarik bezala, iduritu zitzaion bere andrea solasean ari zela norbaitekin...

Emazteki gaixoa ohera ethorri zenean, galdatzen dio jaunak:

«Errazu! doi doia, ez zinen zu norbaitekin mintzo?

—Bai...

2. LAMINEA ETA ATSOA

Etxe baten senar-emazte batzuk ei ziran, adin eldukoak biak. Gizona goizetik joaten zan oera, eta andrea, barriz, berandurarte eragoion gabero *piro-piru* goruetan.

Baiña, gabero baita bere eta beti tertzio baten, andra gaisoari emakume arrotz bat jatziten jakon keoditik (tximinitik) bera, eta emakume arrotz orrek ez eban alde egiten arik eta aparitik puzkaren bat lortu arte.

Goruleak naikoa eban bere urdaia erreten astea, burrunbada berbera ta eskabide berbera entzuteko: *Txitxi ta papa, papa buxtia?*...

Baziran aste batzuk olantxe olantxe jazoten ekiola, eta andra gaisoa, arrituta, ez zan azartuten bere senarrari ezer esaten, noiz edo noiz, aurki¹, Laminea etorten geldituko al zalakoan.

Orraitino, gabe baten, senarrari, amesetan legez, bere andreak norbaitegaz berbetan eragoiola² iruditu jakon...

Andra gaisoa oera etorri zanean, itaunduten dautso senarrak:

—Esan! ointxe ointxe ez dautsazu zuk nor edo nori berba egin?

—Bai...

¹ [Aurki: Duda barik, seguru asko.]

² [Eragoion: Ibili, ihardun.]

—Nor zinuen bada hor?

—Ori, batere ez dakit nihaurek ere nor den, bainan, badu jada zonbait egun mustro bera agertzen zautala, eta bethi tenore berean, ni afaiten hasi orduko: eta xuxen galdatzen ere dautala: «*Xitxi'ta papa, papa buxtia?*»

—Eta emaiten diozu?

—Beharko! Zer eginen dut?

—Ontsa da! Bihar arratsean, zure orde, ni egonen naiz. Tenore hartan hola heldu den norbait ez ditake deus onik! Sorgin bat den edo Lamin zonbait... ikusiko dugu bihar. Ahal bezen polliki emanen ditut zure lephokoa eta mottoa, eta usteko du zuhaur zaituzkela han, bertze arratsetan bezala.»

* * *

Biharamunean, erran bezala, emaztekoa badoa ohera, eta gizona, aldiz, gelditzen da supazterrean, eta hantxet hasten alegia eta iruten...

Arte laburrik barnean, harrabots handi bat sumatzen du, eta, firrindan suphizkiari beheiti jautsirik, alde aldean jartzen zaio bethiko arrotza, berehala galdeka: «*Xitxi'ta papa, papa buxtia?*»

Gure gizonak alegia eta ez entzun egiten du, eta sekulako karraskan emaiten da *phiru* eta *phiru* iruten. Eta Laminak galdatzen dio oraino:

«Zoin hazkarki ari zaren gaur lanean!

—Bai, atzo *frin-frin*, *firun-firun*, egun *fran-fran*, *furdulu-furdulu...*» Eta irulea bethi ari zen iruten, begi bazterraz arrotzari begira. Berehala ezagutu zuen Lamin bat zela hola ethortzen zena, eta berehala ere egin bere buruarekin, lehen bai lehen handik haizatu behar zuela.

—Nor izan dozu or, bada?

—Ara; neuk bere ez dakit arean nor dan, baiña badira egunen batzuk mamu berberori agertuten jatala, eta beti ertzio baten, apalduten asten nazaneko; eta zuzen-zuzen eskatuten daust: *Txitxi ta papa, papa buxtia?*

—Eta emon egiten dautsazu?

—Emon bearoko! Noraezean, zer egin?

—Ondo dago! Biar gabez, neu egongo naz zure orde. Alako tertzioan olan etorri datorkena ezin leiteke ezer onik izan! Edo sorgina izan edo Laminaren bat... biar ikusiko dogu. Alik politozkoen imingo dodaz aldean zure lepokoa eta zure buru-zapia, eta zeu izango zaituzala an uste izango dau, beste gabetan legez.

* * *

Biamamonean, esandakoanez, badoa andrea oera, eta gizona, barriz, sutondoan gelditurik, asten da antxe goruetan bailiarduan...

Arik gitxigarrenean, abarrots andi bat asmetan dau, eta, bilinbolaka keoditik bera jatzirik, brau, albo-alboan jarten jako betiko ezezaguna, beingoan eskeka: *Txitxi ta papa, papa buxtia?*

Gure gizonak entzun-gor egiten dau, eta egundoko eioetan ekiten dautso *piru* eta *piru* goruetan. Eta ara bere Lamineak badirautsa:

—Ori da lanean azkar eragotea, zure gaurkoa!

—Ba atzo *frin-frin, firun-firun*, gaur *fran-fran, furdulu-furdulu*... Eta goruleak ekin eta ekin eragoion goruetan, begi zearka arrotzari begira. Beingoan ezagutu eban Lamina bat zala olan etorten zana, eta beingoan baita egin eban burupidea lenbaitlen uxatu bear ebalá andik.

Lamina, bere alde, zerbaiti oharturik, hasten zaio galdeka:

«Ez zare zu, gaur, bethiko hartan! Borthitz iduritzen zauzkit. Zer da zure izena?...

—*Nehorknereburu.*

—*Nehorknereburu?... Eta xitxi'ta papa, papa buxtia?...*»

Gure gizonak padera supazter xokoan baitzuen, suan emaiten du urin ausarkirekin, eta uzten han, ongi gorritu arte.

Lamina, loriatua jada, hasten da, eskuak fereka eta fereka: «*Xitxi'ta papa, papa buxtia!!...*»

Hainbertzenarekin, noiz eta ere iduritzen baitzaio engoitik aski gorritua ditekela, iruleak *brau* hartzen du padera, eta, *pla*, urina botatzen Laminari, begitartearen erdira...

Lamina, berehala, marrakaz badoa suphizkiari gora, eta, han, kanpoan, karrasia min batean biltzen ditu bere Laminlagunak oro. Eskuak bere begitarte erreari lothurik, heiagoraka ari zen, gelditu ere gabe, eta lagunek ez ziozoketen deusik adi bere erranetan:

«Zer duk bada? Zer duk? Nork hola funditu hau?...

—*Nehorknereburuk!... Nehorknereburuk!...*

—*Hehorrek hire burua funditu balinbaduk, nork zer hoben dik beraz, eta zer nahi duk gure ganik?...*»

Eta Laminak oro suntsitu ziren berehala alderdi guzieta-
ra, gau ilhunean.

Lamineak, bere aldetik, zerbait susmaurik, asten jako itaunka:

—Ez zagoz zu gaur betiko zeureatan. Gogor iruditen zatxataz. Zelan dozu izena?...

—*Neukneureburu.*

—*Neukneureburu?... Eta txitxi ta papa, papa buxtia?..*

Gure gizonak sartagia sutondoan eukan-da, sutan imini koipez bete-beterik eta an itzi eban gori-gori egin arte.

Laminea orduan, pozaren pozaz, asten da eskuak igurtzi eta igurtzi: *Txitxi ta papa, papa buxtia!!..*

Geiagoko barik, ordurako naiko goriturik egon zeiteke-ala iruditu jakonean, goruleak, *brau*, artuten dau sartagia eta, *pla*, botaten dautso koipea Lamineari arpegi-arpegira...

Laminea, beingoan, badoa orroeka keodian gora, eta, an, kanpoan, garraisi bizi baten batuten dituz bere Lamina-lagun guztiak. Eskuak bere arpegi erreari eutsozala, ai eneka eragoion gelditu bere egin barik eta lagunak ezin eutsen esaten ebanik ezer ulertu.

—Zer dona, bada? Nok ondatu au orretara?...

—*Neukneureburuk!... Neukneureburuk!...*

—*Euk eure burua ondatu baldin badona*, zer erru jau-kona inok, beraz, eta zer gura dona guganik?...

Eta Lamina gustiak itsutu ziran alde batera eta bestera, gau illunean.

Euzkadi, 1933, Maiatzak 17.

3. DOMINIXTEKUN

Bertze orduz, etxe batean, haurrak oro, sortu eta laster galtzen omen zituzten, eskuetan oraino zituztelarik; ez bat, ez bia, suntsitzen zitzaizkoten.

Beraz, ordukotz lau edo bortz gisa berean galduak, eta berriz, hain xuxen, haur bat laster sortu behar, guziak hertura handitan ziren, zer egin ez jakinez, ethorri behar zen haurraren begiratzeko.

Hola oro auhenetan zaudelarik, sortzen zaiote aingeru bat ezin gehiago pullita. Halako gauza maitea galdu beharko zutela, aldi hartan oraino!...

Denak nigarrez zauden beraz, noiz eta ere, berriak jakin beharrez heldu baitzaiote auzoko gizon xahar xahar bat. Guziak nigarretan ikusteaz harrিতua, galdatzen diote hean baden deus makurrik?

—«Ez, ez, ez da deusik oraino; haurra oraixet sortua baizik ez da, bainan...

—Bainan?... Zer, bainan? Zeren beldurra duzue bada, hola nigarretan urtzeko?

—Guk uste, orai arte nehoi erran ez duguna ez duen biziki balio zuri erraitea; bainan, jakin nahi duzunaz gainean,

3. DOMINISTIKUN

Asagoko¹ aldian, etxe baten, ume gustiak, jaio eta laster galduten ei zituezen, oindiño eskuetan zituezala; ez bat ez bi (esateko asti barik) ilten jakeezan.

Beraz, orduko lau edo bost era beratan galdu, eta barriro, ain zuzen bere, ume bat laster jaio bear, gustiak ebiltzan estura larritan etorri bear eban umea jagoteko zer egingo jakin ez-eta.

Gustiak olantxe aienaka ebiltzala, jaioten jake aingeru bat ezin politagoa. Alako gauza maitea galdu bear izango, ordukotan bere!...

Danak egozan negarrez, beraz, eta ara, bajatorke batzarrrak batzen² auzoko gizon zaartxo-zaartxo bat. Gustiak negar eta negar ikusteaz arrituta, itaunduten dautse ea ezer zoritxarrik danentz?

—Ez, ez, ez da ezer oindinokarren; umea oraintxe jaio baiño ez da egin, baiña...

—Baiña?... Zer, baiña? Zeren bildur zaree olan negarrez urtuteko?

—Ez dogu uste orain arte inori esan ez dautsoguna zuri esateak askorik balio izango dauskunik, baiña, jakin gura

¹ Asagoko: Lehenagoko.

² [Batzarrak batu: recoger noticias (B-mu).

Batzarbatzaille: buscador de noticias (B-mu).]

huna bethi zer zaukun gerthatzen. Orai arte izan ditugun haurrak, batere gu ohartu gabe, galtzen ditugu guziak, eta beha gautzi, orai, hunen aldi noiz izanzen othe den.

—Hori baizik ez duzue, jende gaixoak? Jakin izan banu!... Xuxenduko dugu, xuxenduko makurra!... Hean, hunat nork hartuko duen haur hori altzoan?... Ongi hola, eta atxik aingeru gaixoa, nik bertzela erran arte.»

Hainbertzenarekin, altzoan pixka bat hozturik, haurrak egiten du *urtzintz* bat, eta, kuxean, berehala, gizon xaharrak oihu egiten dio:

«*Dominixtekun, haurra!...*»

* * *

Ordu berean, athe gibeletik heldu, entzuten dute boz bat, saminki hasarretua:

«*Madarikatua, gauza hoi erakatsi daukana! Madarikatua hiaur ere!...*»

Eta madarizione hoi erraitearekin batean, itsusi itsusia, farrandaka, *Lamin* handi bat joan zitzaioten su-phizkiari goiti...

Geroztik, eta gizon xahar hari esker, bethi bizi da haur hura, eta —ez denez hoi mirakuilua?— geroztik, ordu arte hilarazten zituen eritasun hartarik bederen, ez da nihun gehiago haurrik hiltzen, zeren, urtzintz-aldi guzietan, amak erraiten dion haurrari:

«*Dominixtekun, haurra!*»

dozun ezketino, ara zer jazoten jakun beti. Orain arte izaten izan doguzan umeak, geuk bapere oartu barik galduten izan doguz gustiak, eta begira gagoz orain onen txandea noiz izango ete dan.

—Ori baiño ez al dozue, lagun gaisook? Nik jakin izan baneu!... Zuzenduko dogu zuzendu, zoritxarriori! Ea, ona nok artu dagian ume ori altzoan!... Ondo dago, olantxe euki aingeru gaisoa neuk besterik esan arte.

Geiago barik, altzoan puzka bat ozturik, umeak egiten dau *enotxun*¹ bat, eta beingoan, bat-batean, gizon zaartxoak oi egiten dautso:

—*Doministikun, ume!*...

* * *

Une berean, ate ostetik elduriko aldari bat entzuten dabe, asarre bere asarre:

—*Madarikatua, gauza ori iri irakatsi dauana! Madarikatua i eu bere!*

Eta birao ori esateaz beraz, *Lamina* andi bat, ezain-ezain, arrapastaka, keodian gora joan jakoen...

Arrezkero, eta gizon zaartxo areri eskerrak, beti da bizi a umea, eta —ez ete da ori miraria?— arrezkero, ordurarte il eraiten zituzan geiso aretarik beinik-bein, ez da inon geiago umerik ilten. Onetarako, amak, *enotxun*-aldi bakoi-tzean esan daroatso umeari:

—*Doministikun, ume!*...

Euzkadi, 1933, Maiatzak 30.

¹ [Enotxu: Doministiku.]

4. LAUSTANEKO JAUREGIA

Orai duela aspaldi, aspaldi, *Laustaneko* Jaunak, bere jauregia txarregi kausiturik, jauregi berri bat egin zezoten galdatu omen zioten *Laminereri*.

Laminek baietz: gogotik eginen zutela, *eta gau-erdiz geroztikako lehen oilar-kantua gabe oraino*, baldin eta Jaunak bere arima emaiten bazioten saritzat. Eta *Laustaneko* Jaunak baietz hitzeman zioten.

Laminek gau hartan berean hasi zuten beren lana, eta *Arradoiko* harri eder gorri batzu pullikixko lanthurik, harri hek batek bertzeari, bixi bixia emaiten zituzten, ahapetik elgarri erranez: «To, Gillen! —Harzak, Gillen! —Emak, Gillen!» Eta lana bazoan, bazoan karraskan.

Laustaneko Jauna oilategiko zurubi kaskotik *Laminereri* beha zagon, halako puska ilhun zerbait eskuan.

Hor, Laminek eskuetan hartu zuten azken harria: «To, Gillen! — Harzak, Gillen!... Azkena duk, Gillen!...»

Ordu-berean, *Laustaneko* Jaunak ixtupa mustuka bati su emanik, argi handi bat eraiki zen betbetan, oilategiaren aintzinean, eta oilar gazte bat, iziturik, ustez eta iguzkia

4. LAUSTANEKO JAUREGIA

Orain dala aspaldi-aspaldi, *Laustaneko* Jaunak, bere jau-regiari maiz eretxirik, jauregi barri bat egiteko eskatu ei eutsen *Laminari*.

Laminak, baietz; pozik egingo eutsela, *eta gau erditik aurrerako lenengo oillar-kukurrukua baiño lenago egin bere*, baldin eta Jaunak bere arimea emon baegioen sari-tzat. Eta Laustaneko Jaunak baietz agindu eutsen.

Laminak gau bereatan asi eben euren lana, eta *Arradoiko* arri eder gorri batzuk politozko landurik, arri aek batak besteari aguro-aguro emoten eutsezan, aopean alkar-rreri esanez:

—Eutsok, Gillen! —Artuik Gillen!

—Ekak, Gillen—. Eta lana bajoan, bajoian abiadan.

Laustaneko Jauna oillategiko zurubi (eskillara) ganetik *Laminari* adi egoan¹, alako zertxo ilun bat eskuan ebalá.

Aor, bada, azkeneko arria artu eben laminak eskuetan; —Eutsok, Gillen! —Artuik, Gillen!... —Azkena dok, Gillen!...

Une berean, Laustaneko Jaunak amuko² moltso bateri su emonez, argi andi bat atera eban berbertan, oillategiaren aurrean, eta oillar gazte bat, egun atan eguzkiak aurreak

¹ Egoan: Idazleak 'eguan' dakar.

² Amuko: (Azk) copo de lino.

aintzindu zitzaion egun hartan, *kukurukuka* eta hegalez zaf-
flaka eman zen.

Azken Laminak, jadanik eskuetan zuen azken harria fir-
rrindilaka arthiki zuen ur-handiko osinera, marraka samin
batean: «*Madarikatu oilarra!*» eta, bere lagunekin suntsitu
zen bera osinean.

Harri hura nehork egundaino ezin athera du osinetik;
han da bethi ur zola zolan, Laminek aztaparez daukatela,
eta Laustaneko jauregiak harri bat eskaz izan du bethiko
denboretan.

artu eutsazala uste izanik, *kukurrukuka* eta egoakaz zaplaka asi zan.

Atzerengo Lamineak, ordurako eskuetan eukan arria birinbolaka jaurti eban ibaiko osinera (ur sakonenera) orroe bizi bategaz: *Oillar madarikatua!*, eta beren lagunakaz itsutu zan bera bere osinean.

A arria egundo ezin dau inok atera osinetik; antxe dago beti, ur azpi-azpian, Laminak atzaparrakaz deutsela, eta Laustaneko jauregiak arri baten peitua (faltea) dau egunoko egunetan.

Euzkadi, 1933, Maiatzak 30.

5. LAMIN-ELTZEA

Behin batez, Lamin bat haurra beharra zen.

Igorri zuen beraz bere lagunetarik bat, emaintzan ari zen herriko emazteki baten bilha.

Bidean heldu zirelarik, laminak erraiten dio emainari: «Nola, lana zuk egin ondoan, hautatzerat emanen baitauzkitzute bi eltze, bat axalean *urhearekin*, bertzea axalean *hautsarekin*, hautaazu *hautsarekilakoa*, zeren urhea harek bakarrik izanen baitu barnean.

—Baietz, segurki!»

Hitzeman bezala egin zuen emainak, eta laminak errana *hala hala* gerthatu zitzaion guzia.

5. LAMINA-LAPIKOA

Bein baten, Lamina batek seiña egin bear eban.

Bialdu eban, beraz, beren lagunetariko bat, emagintzan¹ ekiten eutsan erriko andra baten billa.

Bidera eldu ziranean, lamiñeak esaten dautso emaginari: —Zuk zeure lana egin ostean, lapiko bi emango dautsuez zeuk aututeko²: bat, azalean *urragaz*, bestea azalean *autsagaz*. *Ausduna* autu zuk, barruan urrea arek baiño ez dau izango-ta.

—Baietz, aurki!

Agindurikoa legez egin eban emaginak, eta lamineak esan eutsana *arexetara* jazo jakon gustia.

Euzkadi, 1933, Ekainak 9.

¹ [Emagintza (B, G): profesión de partera. Emagin: partera.]

² [Autu (B): Elegir.]

6. MUNDARRAINGO LAMINAK

Lehenago, Laminak omen ziren Mundarraingo mendia-
ren gainean, eta Bas-Andrea joaiten omen zen, goiz guziz,
—bainan hatik iguzkia atheratu gabe— mendi-kaskoan bere
buruaren orhaze urhezko batekin orhaztatzerat. Eta hori ba-
zakiten inguru hetako artzain guziek.

Aldi batez, argia gabe, artzain batek ebasten dio bere
orhaze urhezkoa, eta gero ihesari emaiten da.

Ohartu deneko, Bas-Andrea ondotik abiatzen zaio. Eta
aantzu gibeletik atxemana duelarik, horra non agertzen di-
ren iguzkiaren lehenbiziko inharrak...

Eta, hantxet, on bazitzaion eta ez, Bas-Andreari bere zi-
loan sartu behar izan zitzaion, eta orhazearen jabe gelditu
zen artzaina.

6. MUNDARRAINGO LAMIÑAK

Leenago, Laminak ei ziran Mundarraingo mendiaren ganean, eta Basoko Andrea joaten ei zan goizean-goizean —baiña orraitino eguzkiak urten orduko— mendi tontorrean bere burua urrezko orrazi bategaz orraztuten. Eta ori baekien inguru aetako gustiak.

Bein, egun egin baiño lenago, artzain batek ostuten dautso urrezko orrazia, eta gero igesari ekiten dautso.

Oartu zaneko, Basoko Andrea atzetik abiatu jakon. Eta ia-ia atrapata eukanean, ara non agertuten diran eguzkiaren lenengo iñarrak¹ ...

Eta, une atantxe, gura nai gura ez, Basoko Andreak bere zuloan sartu bear izan eban, eta artzaiña orraziaren jaube gelditu zan.

Euzkadi, 1933, Ekainak 9.

¹ [Iñar (an, B): rayo de sol.]

7. LAMINAK BEHORLEGI-MENDIN

Behorlegi-Mendin non nahi baziren lehenago Lamin-ziloak.

Artzain batek, egun batez, ikusi zuen Bas-Andre bat, urhezko orhaze batekin zilo hetarik batean orhaztatzen ari; ez baitzen guti harritu!

Bainan Bas-Andreak erran zion ez izitzeko eta zilo hartarik, bizkarrean hartuta, eremaiten bazuen Apanizera, diruz zer nahi emanen ziola.

Artzainak: baietz, eremanen zuela gogotik.

Hartu zuen beraz bizkarrean; bainan, zilotik athera ere gabe, sekulako alimaleak jali zitzaizkon bidera. Harritu zen artzaina, eta, Bas-Andrea han berean arthikirik, eskapatu zen ahalik eta lasterrena.

Bas-Andreak, orduan, oihu bat egin zuen ikaragarria, eta erran zuen marrumaz: «Madarikatua ni! Mila urthez egon behar baitut orai zilo huntan!»

Eta geroztik, han da, zilo hartan, artzainik ez baita sekulan harat menturatzen...

7. LAMINAK BEHORLEGI MENDIN

Behorlegi Mendin edonon izaten ziran lenago Lamina zuloak.

Artzain batek, egun baten, Basoko Andra bat ikusi eban urrezko orraziaz zulo aetariko baten orraztuten ziarduala; bestelako ikarea ez eban artu!

Baiña Basoko Andreak ez izututeko¹ esan eutsan, eta zulo aretarik, bizkarrean artuta, Apanizera eroan baegian, zenbat gura diru emongo eutsala.

Artzaiñak; baietz, eroango ebalá pozik bere.

Artu eban, beraz, bizkarrean; baiña zulotik urten bere egin barik, sekulako piztiak urten jakozan bidera. Ikaratu zan artzaiña, eta, Basoko Andrea bertan bera jaurtita, alik arinen iges egin eban.

Basoko Andreak, orduan, oiú ikaragarri bat egin eban, eta marruzka esan eban: "Madarikatua ni! Milla urtean egon bear dot orain zulo onetan".

Eta arrezkero, an dago, zulo aretan, artzain garaurik eguno ez da arako azartuten-eta...

Euzkadi, 1933, Ekainak 7.

¹ [Izutu (B, G): Espantarse.]

8. LAMINAK BAZTERRETXEAN

Bazterretxeko jendeek, arrats guziez, oherat joan gabe, gopor bat esnerekin artho-xigorrak eta xingar-axalak uzten zituzten, supazter xokoan, zartaineko urin ondarren gainean.

Oro lokhartu zirenean, Laminak jausten ziren su-phizkiari beheiti, eta *murtxa* eta *murtxa*, marrumaño batean artzen ziren, supazterreko puxka-miko guziak azkeneraino jan arte. Eta, gero, ixil ixila joaiten ziren su-phizkiari goiti.

Eta biharamunean, Bazterretxeko jendeek kausitzen zituzten ongarriak hedatuak, erreka guziak garbituak, lurak irauliak, arthoak jorratuak.

Gau batez, gopor esnea, xingar-axalak eta artho-xigorrak supazterrean emaita ahantzirik joan ziren guziak oherat, eta, Laminak, gaitziturik, joan ziren bertze bas-herri batetarat, urrun, biziki urrun, sekulan gehiago ez baitziren Bazterretxeko lanetarat agertu.

8. LAMINAK BASTERRETXEAN

Basterretxeko biztanleak, gabeen-gabeen, oera joan orduko, katillu bete esnegaz arto-txingorrak eta urdai azalak izten zituezen, sutondotxoan, sartagineko koipe ondakinen ganean.

Gustiak loak artuta egoten ziranean, Laminak keoditik beera jatziten ziran, eta *muxka* eta *muxka*, urrumada¹ baten ekiten eutsen sutondoko apurreria gustiak azkeneragino jan arte. Eta gero, isil-isilik joaten ziran keodian gora.

Eta, biaramonean, Basterretxeko biztanleak, ongarriak² zabaldua aurkituten zituezen, erreten³ gustiak garbituta, lurak landuta, artoak jorratuta.

Gau baten, katillu esnea, urdai azalak eta arto txingorrak sutondoan imintez aazturik joan ziran gustiak oera, eta, Laminak, mindurik, beste baserri batera joan ziran urrun, urrun bere urrun, eguno geiago Basterretxeko lanetara ez ziran agertu bere egin-eta.

Euzkadi, 1933, Ekainak 16.

¹ Urrumada: (Azk) Silbido del viento. Hemen 'arin', 'beingoan' esan nahi dau.

² Ongarriak: (Azk) Estiercol, abono.

³ Erreten: (Azk) Acequia, regata.

9. LAMINA, LAKHAREN BARNEAN

Etxe batean, non nahi sartzen omen zitzaizkoten Laminak.

Arrats batez, oherakoan, etxek-andreak, uste gabeen, lakha bat ahoz beheiti emanik, Lamin bat atxeman zuen, biharamunean, lakharen barnean ithoa; ontsa harritu baitzen, sinhesten ahal ere duzuen bezala.

Nola ez baitzen Laminik lur sainduan ehorzten, zilo bat baratze zolan eginik, han eman zuten Lamina, eta biharamuneko, dena ausin egin zen Lamina ehortzi zen tokia, egundaino geroztik ezin garbitu baitzuten toki hura.

9. LAMINEA IMILAUNEN

Etxe baten edonon sartuten ei jakezan Laminak.

Gau baten, oera orduan, etxekoandreak, uste-uste barik, imilaun bat musturrez beera iminirik, biaramonean Lamina bat atrapau eban imilaun barruan itota; sekulako ikaratu zan, sinistu al izango dozuenez.

Eta Laminarik lur deunetan ezin lurpetu izaten zanez, solo barrenean zulo bat egin, eta an imini eben Laminea. Biaramonean, asun utsa egin zan laminea lurpetu eben lekua, eta arrezkero ezin izaten eben lekua eguno garbitu.

Euzkadi, 1933, Ekainak 16.

10. LAMINA ETA HARRI-PIKATZAILEA

Duela aspaldi aspaldi, ba omen zen harri-pikatzaille bat.

Harriari joka akitzen zela, eta bertze zerbeit hobeko zuela, nahiko zuen aberats.

Baitzen denbora hetan Lamin hainitz, Lamin hetarik bategen entzun eta, hor egiten du *Aberats*.

Bainan, ase zen hala ere, bera baino gehiagokoak oraino bazituela, eta Enperadore nahiko zukeen. Eta *Enperadore* egin zuen Laminak.

Uda-min batez, iguzkiak kexarazi zuen, eta bere buruarekin egin zuen: Iguzki hobeko zuela. Eta *Iguzki* egin zuen Laminak.

Bainan, aroa pitta bat goibeldurik, hedoi bat aintzinean eman zitzaion, eta gaitzitua osoki, hedoi hobe zuela bururatu zitzaion. Eta *Hedoi* egin zuen Laminak.

Bainan, uri-pesia batzu gaitzak igortzen zituala lurrera, ohartzen da Hedoi harroka handi bat harrotzen ere ez zuela, eta hedoi baino nahiagoko zukeen harroka. Eta *Harroka* egin zuen Laminak.

Bainan, burdin-mailua eskuan, gizon batek puxka puskararen ondotik jauzarazi zion, eta gizon hura behar zuela eman zen oihuka. Eta *Harri-pikatzaille* egin zuen beraz Laminak, trufaz erraiten ziola:

«*Bat duenak bertzea nahi; horra aintzinean bezenbat ba-*

10. LAMINEA ETA ARGINA

Aspaldi-aspaldi dala, ba ei zan argin bat.

Arria joten nekatu egiten zala-ta, beste zerbait izatea oba eukeala, aberats gura leukean.

Aldi aetan Lamin asko izaten zan, bai, eta Lamina aetariko batek entzunik, aor, *Aberats* egiten dau.

Baiña, aretara bere ase egin zan, bera baiño geiagokoak ara bere ba zituzala-ta, eta Enperadore izan gura eukean. Eta *Enperadore* egin eban Lamineak.

Bein, udearen garrian, eguzkiak kezkarazo egin eutsan, eta bere kolkorako egin eban: Oba eukeala Eguzki izan. Eta *Eguzki* egin eban Lamineak.

Baiña, aroa tindil bat lanbroturik, edoi bat jarri jakon aurrean, eta min-min egiñik, edoi izatea oba eukeala bururatu jakon. Eta *Edoi* egin eban Lamineak.

Baiña, erakusmeneko euri jasak lurrera bialduten era-
goiolarik, oartuten da edoia aitz andi bateri zirkinik bere ez eutsola eragiten (astindu bere ez ebala egiten), eta edoi baiño naiago eukean aitz izan. Eta *Aitz* egin eban Lamineak.

Baiña, gizon batek, burdinazko maillua eskuan ebala, zatia zatiaren urrengo, lur jo erazo eutsan eta a gizona izan bear leukeala asi zan oiuka. Eta *Argin* egin eban, beraz, Lamineak, eta baiñotsan isekaz (burlazar):

—*Bat* dauanak *bestea* bere gura. Aor, bada, lenengotan

haizela! Gaurgoiti, gauden beraz hola hola: ni *Lamin* eta hi
Harri-pikatzaille.»

Eta Lamina bethikotz itzali zitzaion Harri-pikatzaileri.

baizen beste az! Gaurtik aurrera gaiagozan, beraz, onexetara: ni *Lamina* eta i *Argin*.

Eta laminea betiko itsutu jakon Arginari.

Euzkadi, 1933, Ekainak 16.

JESUS JAUNA
ETA
JON DONI PETRI

JOSU JAUNA ETA
KEPA DEUNA

1. OGI JOTZEA

Bertze orduz, beraz, Jesus Jauna bazabilan mundu huntan, Jon Doni Petri handiarekin.

Ilhuntxe batez, lo egitea galdatu zuten etxe batean, eta baietz erran zioten berehala, ganbera bat, eta ganbera hartan ohe bat, izanen zutela.

Sari zerbeit jende heieri eman beharrez, aire berean galdegin zioten Jesusek zer lanetan ari behar ziren biharamunean; eta erran zioten ogi jotzen ari behar zirela. Jesusek manatu zioten orduan, desmezua eman zezoten langileeri, ogiak joko zituztela harek eta haren lagunak. Eta erran bezala egin zuten jende heiek.

Biharamunean, etxeko nausiak ongi uste zuen Jesus eta Jon Doni Petri argia gabe hasiko zirela lanean. Bainan, hauk batre ez mugitzen! Kexu ziren bazterrak...

Hor, menturatzen da nausia ganberan sarturik erraitera: «hainbertze ogi izanki jotzeko eta ez zirenez bada ohartzen argia zela aspaldi hartan?»

—Hek baietz, jeikiko zirela.

Bainan, nola bethi ohean baitzauden, kexaturik, erran zioten berriz ere nausiak: hean jeiki gogo zutenez, bai ala ez?

—Hek bethi baietz, jeikitzaera zoazila... Bainan, sekulan ez jeikitzen!

1. GARI JOTEA

Asagoko aldian, beraz, baebilen Josu Jauna mundu one-tan, Deun Kepa andiagaz.

Iluntze baten, lo egiteko lekua eskatu eben etxe baten, eta baietz esan eutsen beingoan; logela bat eta logela atan oe bat izango ebela.

Lagun aei sariren bat emon gurarik, itaundu eutsen Josuk, bertatik, ze lanetan eragon bear eben biaramonean; eta gari joten eragon bear ebela, esan eutsen. Orduan Josuk, alogerekoeri ezetza bialduteko agindu eutsen, eta berak eta bere lagunak joko zituezala gariak. Eta esandakoa legez egin eben etxeko aek.

Biaramonean, etxeko ugazabak bete-betean uste eban Josu eta Kepa Deuna egun egin orduko asiko zirala lanean. Baiña, ezta igitu bere, aek! Asarre ziran bazterrak...

Azkenean, azartuten¹ da ugazaba logelan sartu eta esaten: "ainbeste gari joteko euki eta oartu bere ez ziranentz egiten aspaldi atan egun argi ebenik?"

—Aek baietz, jagiko zirala.

Baiña, beti oean egozanez, ugazabak, asarraturik, barriren barri esan eutsen: "ea jagiteko usterik ete eben, bai ala ez?"

—Aek beti baietz, orduantxe jagiko zirala... Baiña, eguno jagi ez!

¹ [Azartuten: Ausartuten, atrebitzen.]

Hasarre gorrian orduan, makila batekin heldu zaiote nausia, eta bietarik, ohe-hegian zagona —Jon Doni Petri gaizoa— ongi zafratzen du, eta badoa.

Jesusek, zertako ere ez baitzuen oraino jeiki nahi, Jon Doni Petri intzire eta intzire entzunik, erraiten dio bere lagunari: «Jende hoik arras kexu ditiaguk. Haugi ohe-xokora, hire uspel hoiere ferekatzera; joko haute bertzela berriz ere, hegi hortan.»

Jon Doni Petri sekulan xokoan eman orduko, debruek hartua sartzen da hor berriz ere nausia, bere makilarekin, oihuka erranez: «Zagozte ixtant bat, zagozte!... Ikusiko diagu berehala, ez zaiztenez oraikoan ohetik jeikiko!... Doi doia izan baititu hegikoak, zokokoaren aldi orai!» Eta ohe xokoan emana zen Jon Doni Petri jotzen du berriz ere, eta ederki zafratzen.

Jeiki ziren beraz orduan —Jon Doni Petri intzire eta intzire— eta, ogiak meta batean ezarririk, su eman zioten. Eta, su harekin, ogi guziak, bihitsu ziren, lastoa alde baterat eman, arlantza eta ahotza bertzerat, eta ogia bertze batetarat.

* * *

Jende hek loriatu ziren, eta zalu ahantzi zituzten goizeko kexamenduak oro. Eta nola ez baitzakiten deuseren gordetzen, Jesusek suarekin bihitsu zituela ogiak heien ganik jakinik, auzo batzuek su eman zioten hek ere beren ogieri, eta... beren ogi guziak erre.

Orduan ugazaba, asarre bizitan, bajatorke makilla bategaz, eta bietarik, oe aurrean egoana —Deun Kepa gaisoa— astin-astin egiten dau, eta badoa¹.

Josuk, zergaitik edo agaitik ez eban oindinokarren jagi gura, eta Kepa Deunaren aiene eta aieneak entzunik, badiñotso bere lagunari: "Etxekook asarre bere asarre joaguz. Ator oe bazterrera eure ubelok (maillatuok) igurzten; osterantzean, aurrera orretan, barriro bere jo egingo aue".

Ez zan Kepa Deuna bazterrean jarri baiño egin, eta, aor sartuten da ostera bere ugazaba diabruak artuta, bere maki-lliaz aldarrika esanez: "Zagoze, zagoze apur baten!... Beingoan ikusiko joagu, oraingoan jagiko ez zareenentz!... Oe aurrerakoak ointxe-ointxe artu jozak, bazterrekoaren txandea orain, barriz!" Eta oe bazterrean jarririko Kepa Deuna joten dau barriren barri, eta ederto makillatu.

Jagi ziran beraz orduan —Kepa Deuna aiene eta aieneka— eta, gariak meta baten iminirik, su ezarri eutsen. Eta, su aregaz, gari gustiak garandu egin ziran, lastoa alde batera iminiaz galbota² eta galaotza bestera, eta galgaraua beste batera.

* * *

Pozarren jarri ziran etxeko aek, eta laster aztu jakezan goizeko asarre gustiak. Eta ezer gordeten ez ekienez, Josuk suaz gariak garandu zituzala aekanik jakinik, auzoko batzuk eurak bere su ezarri eutsen euren garieri, eta... euren gari gustiak erre.

Euzkadi, 1933, Ekainak 28.

¹ Badoa: Idazleak 'badua' dakar.

² Galbota: (Azk) Residuo de trigo que queda en la criba.

2. BOKETA

Bertzaldi batez, jende behar batzuen gana joan ziren Jesus eta Jon Doni Petri, gaua heien etxean iragan behar zutela; eta hala egin ere zuten.

Biharamunean urruntzearekin, jende heieri galdegin zioten Jesusek: zer ari behar ziren egun hartan? Eta ihardetsi zioten bokata puxkila bat behar zutela xuritu. —Jesusek orduan: «Goizean hasi lanak iraun dezauzetela arrats arte!» —«Bai, urrun da segurki arrats arte huntako lanik izanen baitugu. Puxketeria zerbeit dugu doidoia.» —Jesusek berri: «Ene hitzak izan dezala podore!»

Eta hori erran eta joan ziren...

Jende gaixo hek bokata xuritzen hasi, eta bethi athera, bethi athera arrats arteko lana izan zuten, eta arratsean, mendia bezen gorako oihaleria bazuten, ez baitzakiten gehiago non koka hura guzia.

Eta auzoko jende abarizios zikoitz batzuek, jakinik zer gerthatu zitzaieten beharño heieri, Jesus eta Jon Doni Petriri galdatu zioten ethor zitezen, gauaren iragaiteko, heien etxera. Galdegina egin zuen Jesus onak: eta biharamunean, bertze etxean bezperan bezala, erran zioten jende hekiei: «Zer ari behar zarete egun?» —«Ori, Jauna, diru puxka bat izan eta, hura behar ginuke *zenbat den* ikertu,

2. BOGADEA¹

Beste bein, lagun beartsu batzukana joan ziran Josu eta Kepa Deuna, aen etxean gaba igaro bear ebela-ta; eta aretara egin eben, egin bere.

Biamamonean, alde egitean, baditauntse Josuk lagun aeri: zetan inardu bear eben egun atan? Eta bogada apurtxo bat zuritu bear ebela erantzun eutsen. —Josuk orduan: "Goizean asiriko lanak gaberarte iraun dagizuela!"

—"Bai, badago obarik, aurki, onegaz gauerarteko lanik guk izatea. Tindilkeria bat dogu ozta-ozta". Josuk barriro: "Nire berbeak izan dagiala podere!"

Eta ori esanaz, joan egin ziran...

Aek lagun gaisoak asi ziran bogadea zurituten, eta beti atera, beti atera, gauerarteko lana izan eben, eta gaeuz, mendia baizen goragoko oialtedia baeben, eta ez ekien a guztia non eskegi.

Eta auzoko lagun zeken batzuk, beartxu aeri jazorikoa jakinik, eskatu egin eutsen Josuri ta Kepa Deunari gaua igaroten eurenera etorteko. Eskaturikoa egin eban Josu onak; eta biaramonean, atzegunean beste etxean legez, baditauntse etxeko aeri, "Zetan inardu bear dozue gaur? —Ara, bada, Jauna; guk diru pizka bat izan eta, axe bear geunke

¹ [Bogadea: Colada.]

miatu...» Eta Jesusek berehala: «Goizean hasi lanak arrats arte iraun dezautzuetela!»

—«Oh! Jauna, ez dugu arrats arteko lanik izanen, gure diru pittarekin!»... Jesusek berriz: «Ene hitzak izan beza podore!» Eta hori erranik, joan ziren...

Jende zikoitz hek loriatu ziren. Zer urhe eta zilar meta behar zuten arratsean!...

Lana hasi gabe eta lan hartarik den mendrenik ez gero galtzeko, joan ziren, salbu zuek eta, *bakartokira*, *zerbitzuetara* eta, handik ezin atheraz, han egon behartu zitzaio-ten arrats arte!!...

zenbat dan ikusi, begiratu..." Eta Josuk beingoan: "Goizean asiriko lanak gauerarte iraun dagizuela!"

—O, Jauna, ez dogu gauerarteko lanik izango, gure diru apurragaz"—. Josuk barrero: "Nire berbeak izan begi podere!". Eta ori esanik, joan egin ziran...

Zeken alako aek pozarren gelditu ziran. Ako urre eta zidar pilloa izango ebena gauean.

Lana asi orduko eta lan aretarik asti txistilik bere gero ez galduteko, joan ziran —zeuek parkatu— *bakartokira*, *komunera* eta, andik urten ezinik, an egon bear izan eben gauerarte...

Euzkadi, 1933, Ekainak 28.

3. OGI-EZPALAK¹

Eskual-Herrian zabilan, orduan ere, Jesus Jauna, Jon Doni Petri lagun.

Landa handi batean, ogi sartzen ari ziren jendeak, eta Jesusek galdegiten diote: «Hean baduten polliki?» —«Gauza gutti, Jauna, arras gauza gutti.»

Jesus, hitz bat gehiago erran ere gabe, urundu zen berehala.

Urrunago, bertze landa batean, hala hala, ogi sartzen ari ziren jendeak. «Baduzue polliki?» —Bai, Jauna, bai! Gutiago ere izan ginezakeen, eta Jainkoak emanaz, Jainkoari zor diozkagu eskerrak.»

Jesusek orduan Jon Doni Petriri: «Jende horiek ezpal bezanbat gaitzeru² izanen die.»

Eta Jon Doni Petrik, gibel aire puxka bat gelditurik, ahapetik berehala jende heieri: «Ezpal hainitz egitzue, eta egitzue beraz ttipiak!»

3. GARI-TXOLAK¹ (GARI-ESKUTAK)

Euskal Errian ebilen, orduan bere, Josu Jauna, Kepa Deuna lagun ebala.

Landa andi baten, garia etxera iragoten eragoioen lagunek, eta itaunduten dautse Josuk: "Ea polito dabenez?" "Gauza gitxi, Jauna, oso gauza gitxi".

Josu, berba bat bere geiago esan barik, urrundu egin zan beingoan.

Urrunago, beste landa baten, era berean, gari iragoten eragoioen lagunak. "Polito al dozue?" - "Bai, Jauna, bai! Gitxiago bere izan geinkean, eta Jaungoikuak emoneiaz, Jaungoikoari zor dautsoguz eskerrak".

Josuk orduan Kepa Deunari: "Lagun orreek eskuta beste imina² izango joek".

Eta Kepa Deunak, atzean puzka baten gelditurik, aopean beingoan lagun aeri: "Eskuta asko egizue, eta egizuez, beraz, txikiak!"

Euzkadi, 1933, Uztailak 7.

¹ [Ogi Ezpal (L), Gari Eskuta (B), Gari txola (B): gavilla de trigo.]

² [Gaitzeru (L), Imina (B): Cuarto de fanega.]

4. EZKONTZAK

Bertze aldi batez, Jesus Jaunak ez ikhusiarena egiten zuelarik, Jon Doni Petri eman zen aberatsak beharrekin ezkondu nahiz, eta oraino sendoak eriekin, edo handiak ttipiekin.

Jesus Jaunak erran zion hatik laster: holako ezkontza guti eginen zuela.

Eta, Jesusek aintzinetik ikusi bezala, hasi lana utzi behartu zitzaion Jon Doni Petriri, nehor gutik onhesten zuelakotz harek nahikako ezkontzarik.

Bizkitartean, ezkontgai *handi* zonbeit ezkondu ziren eta ezkontzen dire oraino, egungo egunean, *ttipi koxkorro* batzuekin.

4. EZKONTZAK

Beste bein, Josu Jaunak ez-ikusi¹ buru egiten ebalarik, Kepa Deuna aberatsak beartsuakaz ezkondu gurarik asi zan, eta ara bere sendoak geisoakaz, edo andiak txikiakaz.

Orraitino, laster esan eutsan Josu Jaunak: olako ezkontza gitxi egingo ebala.

Eta, Josu Jaunak aurretiaz ikusi eban letxe, asiriko lana itzi egin bear izan eban Kepa Deunak, arek gura izaniko ezkontzarik lagun gitxiri on eristen ekiolako.

Baiña, orraitino, ezkongei *andi* batzuk ezkondu egin ziran eta ezkondu egiten dira, gaurko egunean oindiño, *txiki koskor* batzukaz.

Euzkadi, 1933, Uztailak 7.

¹ [Ez-ikusi buru egin: hacer como que no ve.]

5. EMAZTEKI ZIRTZILA ETA EMAZTEKI GARBIA

Bertze egun batez, bero ari zen biziki, eta bidean egarritu ziren Jesus eta Jon Doni Petri. Iturri baten ondoan iragaitzarekin, Jesusek hala galdaturik, emazteki batek emaiten diote edatera baso zikin batean.

Jesusek, edan ondoan, basoa itzuli zion emaztekiari, erranez: «Jainkoak eman dezauzula *lagun on!*»

Urrunago joan eta, berriz ere egarritu ziren, eta bertze emazteki batek, baso garbi garbi batean eman zioten edatera.

Jesusek orduan: «Jainkoak eman dezauzula *lagun total!*»

Zonbeit hurratsez urrunduz zirelarik, Jon Doni Petrik, halako hasarre batean, erran zion Jesusi: «Jauna, zer iduritu zauzu, bada, lagun on bat agindu duzularik lehenbiziko emazteki zantzailari, eta lagun total bat, aldiz, bigarren emazteki hain garbiari?»

Eta Jesusek berehala: «Lehenbiziko harek, lagun on batekin ere, izanen dik lanik aski; eta, aldiz, bigarrena, lagun totalaren xuxen ibilarazteko ere gai izanen duk.»

5. EMAKUME BALDANA¹ ETA EMAKUME GARBIA

Beste egun baten, erakusmeneko beroa egoan, eta bidean egarritu egin ziran Josu eta Kepa Deuna. Iturri baten ondoan igaroeran, Josuk alan eskaturik, emakume batek baso zikin batetik emon eutsen edaten.

Josuk, edan ostean, basoa (edontzia) bigurtu eutsan emakumeari, esanaz: "Jaungoikoak emon dagizula *lagun on!*"

Urrunago joanda, barrero bere egarritu egin ziran, eta beste emakume batek, baso garbi garbi baterik emon eutsen edaten.

Josuk orduan : "Jaungoikoak² emon dagizula *lagun baldar* bere baldar!"

Oinkada batzuk urrundu ziranean, Kepa Deunak, alako asarre bategaz, badiñotso Josuri: "Jauna, zer uste izan jatzu zuri, baiña, lenengo andra baldrageari lagun on bat aginduteko, eta lagun baldar bat, barriz, bigarren andra ain garbiari?"

Eta Josuk beingoan: "Lenengo arek lagun on bategaz bere izango jok lanik asko; eta, bigarrena, ostera, lagun baldarrari zuzen ibili erazoteko bere gauza izango dok".

Euzkadi, 1933, Uztailak 7.

¹ [Baldan, baldar, baldraga (B): abandonado, flojo.]

² Jaungoikoak: Idazleak 'Jaungoikuak' dakar.

³ [Total (L): abandonado, flojo en extremo.]

6. EMAZTEAREN ETA DEBRUAREN BURUAK

Egun batez, Jesus Jaunak eta Jon Doni Petrik, bidean doazilarik, ikusten dituzte emazteki bat eta debru bat, tirahala mokoka ari.

Heien gana lasterka joanik, Jon Doni Petri suharrak mozten diote bieri burua.

Jesusek gaizkitu zuen berehala eta handizki, eta manatu zion: joan zadien aire berean buru heien beren tokietan emaitera.

Bainan, Jon Doni Petri gaizoa, bere hutsaren urrikiaz dena hartua, nahasi zen, eta emaztekiari ezarri zion debrua-ren burua, eta debruari aldiz emaztekiarena!!!

Orduz geroztik da erraiten: «Emazteki buru... debru buru.»

6. ANDREAREN ETA DEABRUAREN BURUAK

Egun baten, Josu Jaunak eta Kepa Deunak, bidean doazela, ikusten dituez emakume bat eta deabru bat ekinalean burrukan eragoioela.

Eurekana arineketan joanik, Deun Kepa sutsuak burua ebagiten dautse bieri.

Josuk, bertatik, agiraka egin eutsan eta garrazto egin be, eta aginduez esan eutsan: berbertatik joan eiteala aek buruak euren leketan iminten.

Baiña, Deun Kepa gaisoa, bere utsagaz damu-damu eginda, nastau egin zan, eta andreari deabruaren burua ezazri eutsan eta deabruari, barriz, andrearena!

Ordutik gora esan daroe: "Andra buru...deabru buru".

Euzkadi, 1933, Uztailak 7.

7. JON DONI PETRIREN ZALDIA

Egun batez, Jesus Jaunak erran zion Jon Doni Petriri: «Zaldi bat emanen deat, *Gure Aita* erraiten badautak, bururen buru, gogo batre barriatu gabe.»

«Bai! hoi gauza errexat manatzen dautazu!...»

Eta tarrapatan hasten da Jon Doni Petri: «Gure Aita zerruetan zarena, erabil bedi sainduki zure izena... Bainan, Jauna, zelarekilakoa izanen da zaldia, ala zelarik gabekoa?»

Eta Jesusek: «Ez duk orai izanen ez zaldirik, ez eta ere zelarik.»

7. KEPA DEUNAREN ZALDIA

Egun baten, badiraitsa Josu Jaunak Kepa Deunari: "Zaldi bat emongo doat, *Aita Gurea* asitik azkenera gogoa ezer bere alendu barik esan badaistak".

—Bai! Ako aginduten daustazun gauzearen erreza!...

Eta arrapastaka asten da Kepa Deuna: "Aita Gurea zeruetan zagozana, santifikadua bedi zure izena... Baiña, jauna, zaldia zeladuna¹ izango da, ala zelarik bakoa?"

Eta Josuk: "Orain, barriz, ez dok izango ez zaldirik ez eta zelarik bere".

Euzkadi, 1933, Uztailak 7.

¹ [Zela (B, arc): silla de caballo.]

8. ORGA UZKAILIAK¹

Jesus Jauna eta Jon Doni Petri bidean zoatzilarik, Eskual-Herrian, kausitzen dute gizon bat, orgak uzkailirik, belauniko Jainkoari othoitzean orgak altxa zetzon. Jesus aldetik iragaiten zaio, batre behatu ere gabe.

Urrunago joan eta, kausitzen dute bertze gizon bat, orgak uzkailirik hura ere, eta bere orgeri ari zena, hementik har eta hantik altxa, indarka, kexatua, izerditan, etsaiaren izenak eta oro erranez errabian.

Jesus Jaunak berehala erraiten dio Jon Doni Petriri: «Haugi; gizon hori behar diagu lagundu bere orgen altxatzen.»

Jon Doni Petrik erraiten dio: «Zer, jauna! axtiko gizona² ez dugu lagundu, othoitzean ari zelarik, eta hau behar dugu egin orai, etsaiaren izenak eta oro erraiten dituelarik!»

Eta Jesus Jaunak ihardetsi zion Jon Doni Petriri: «Hunek egin ahalak egiten ditik, eta harek ez.»

8. BURDI ITZULIAK

Josu Jauna eta Kepa Deuna bidean joiazala, Euskal Errian, aurkituten dabe gizon bat, burdia itzulirik¹, belauniko, Jaungoikoari arrenka burdia zutundu egion. Josu albotik igaroten jako, arean begiratu bere egin barik.

Urrunago joanda, aurkituten dabe beste gizon bat, burdia itzulurik a bere eta bere burdiari ekiten eutsana, eldu emendik eta jaso andik, indarka, asarratuta, izerditan, arerioaren (deabruaren) izenak eta gusti amurrutan esaka.

Josu Jaunak, beingoan, badirautso Kepa Deunari: "Ator; lagundu egin bear jeutsaagu gizon orreri bere burdia zutunduten".

Badiñotso Kepa Deunak: "Zer Jauna! Arestiko gizonari² ez jeutsaagu lagundu arrenka eragoiolarik, eta oneri egin bear ete jeutsaagu orain, arerioaren izenak eta gusti esaten dituzalarik?"

Eta Josu Jaunak badarantzutso³ Kepa Deunari: "Onek eginalak egiten jozak eta arek ez".

Euzkadi, 1933, Uztailak 19.

¹ [Orga uzkailak (L), Burdi itzuliak (B): los carros volcados. Oartu burdia bat baka-rra izan arren bere, beti diñola 'orgak', 'orgeri', 'orgen', orga bi edo geiago bailirantxe.]

² [Axtiko gizona (L), Arestiko gizona (B): El hombre de hace un momento.]

³ Badarantzutso: 'erantzun' aditzaren forma soila: erantzuten deutso.

9. ZALDI FERRA ETA GEREZIAK

Behin batez, Eskual-Herrian gaindi zoazilarik, Jesus Jaunak, lurrean zerbeit erakusten ziola, erran zion Jon Doni Petriri: «Altxazak lurreko ferra hoi.» Bainan Jon Doni Petri, ixilka ostiko batez jotzen zuela zaldi-ferra, bere buruarekin hasi zen: «Zertako altxa burdin txar hoi?»

Jesus Jaunak, orduan, ixil ixila harek ere, berak altxatu zuen ferra, eta, herrirat heltzean, harotz bati saldu, bi sose-tan. Bi soseko harekin, gero, gereziak erosi zituen eta bide-ari berriz eman ziren.

Bero ari zuen itsuski. Jon Doni Petri, ahoa agortua, alderdi guzietarat beha zagon, bere buruarekin solasean: «Ez othe diagu ithurriño bat ere ikusiko hemen gaindi?»

Hainbertzenarekin, Jesus Jaunari —alegia eta deusik ez — gerezi bat erori zitzaion sakelatik. Jon Doni Petrik altxatu zuen berehala eta ahorat ereman ithoka, beldurrez eta Jesus Jaunak ikus.

Urruntxago, behin, bietan, hamarretan, hogoietan, gauza bera bethi: Jesus Jaunak bota eta Jon Doni Petrik jan, azken gereziraino.

Gero gelditu ziren doi-doia, arbola baten itzalpean, eta Jesus Jaunak erran zion Jon Doni Petriri: «Behin bakarrik

9. ZALDI PERREA ETA KERIZAK

Bein baten, Euskal Errian barruna joiazala, Josu Jaunak lurrean zerbait erakusten eutsala, esan eutsan Kepa Deunari: "Jaso egik beanganeko perra¹ ori". Baina Kepa Deuna, isilean ostiko bat perrari emonez, bere kolkorako asi zan: "Zetarako jaso burdina zantar ori?"

Josu Jaunak, orduan, isil-isilik arek bere, berak jaso eban perrea, eta errira eldueran su-gizon (errementari) bateri saldu eutsan txakur txiki bitan. Txakur txiki aekaz, gero, kerizak erosi zituzan, eta barriro ekin eutsen bideari.

Bero izugarria egoan. Kepa Deuna aoa agortuta, alde gustietara begira ebilen bere buruagaz berbetan: "Ez ete joagu iturritxo bat bere ikusiko emen zearri".

Geiago barik, Josu Jaunari —ezer ez bailitxakion— keriza bat jausi jakon sakeletik. Kepa Deunak jaso beingoan eta aora eroan eban itoka², Josu Jaunak ikusteko beldurrez.

Urruntxoago, bein, birritan, amarretan, gauza berbera beti: Josu Jaunak bota eta Kepa Deunak jan, azkeneko kerizaragiño.

Gero, tinditxo³ baten gelditu ziran arbola baten gerizpetan, eta Josu Jaunak badifotso Kepa Deunari:

¹ [Perra (B): herradura.]

² [Itoka (B): precipitadamente.]

³ Tinditxo: (Azk) Gotita, un poquito.

kurtu izan bahintz zaldi-ferraren altxatzeko, ez huen hogoi
aldiz kurtzearen beharrik izanen gerezien jateko!»

—Bein bakarrik makurtu izan baintz zaldi perrea jasoteko, ez euan ogei bidar makurtu bearrik izango kerizak jateko!

Euzkadi, 1933, Uztailak 19.

10. URHE-ZILARRAK ELHORRI-XURIAN

Jesus Jauna eta Jon Doni Petri hemen gaindi zabiltzalarik, pobre-behar guzieri, amoina zerbeit norbeiti hartu zutelarik, bethi solas hau bera entzuten zioten Jon Doni Petrik: «Esker mila: Jainko onak itzul dezautzula!»

Jon Doni Petrik orduan erran zion Jesus Jaunari: «Jauna, ez noake gehiago zurekin; bazter guziak zorrez bethiak dituzu eta; ezen, eskale guziek hau derasate¹ bethi: «Jainkoak itzul dezautzula!»

—Eta Jesus Jaunak ihardetsi zion berehala: «Nerekin aski ibili balinbahaiz, Piarres, goazen bakotxa bere alde.» Eta hala egin ere zuten.

Bainan, ordu berean, Jesus Jauna hurbildu zitzaion elhorrri-xuri ondo bati, hura inharrosi, eta sekulako urhe zilarrak handik erorrarazi.

Zilar eta urheak *ttin*, *ttin*, *ttin* erortzen entzutearekin, laster egin zuen Jon Doni Petrik, eta diruaren biltzen hantxet hasi.

Orduan, Jesus Jaunak erran zion: «Ez, Piarres, ez; diru hoi ez bil! Horren beharretan nauk, nere zorren pagatzeko.»

Bainan, Jon Doni Petrik ihardetsi zion, xitun xitun:

10. URRE ZIDAR (DIRUAK) ELORRI ZURIAN

Josu Jauna eta Kepa Deuna emen zear ebiltzalarik, Kepa Deunak eras¹ auxe entzuten eutsen beti txiro beartsu gustieri norbaitenganik limosnaren bat artuten ebenean: "Jaungoiko onak atzera emon dagizula!"

Kepa Deunak, orduan, badirautso Josu Jaunari: "Jauna, ez naz geiago zugaz joango, bazter gustiak zorrez beterik dozuz eta; bai, eskeko gustiak bere auxe eradaten dabe beti: "Jaungoikoak atzera emon dagizula!"

Eta beingoan erantzun eutsan Josu Jaunak: "Nigaz nai-koa ibili baaz, Kepa, gaioazan bakotxa bere aldetik". Eta egin bere alan egin eben.

Baiña, une berean, Josu Jauna elorri ondo bateri (arbola bateri) urreratu jakon eta irdarausi egíñez, naidan urre zidar diru eratzi eutsazan.

Zidar eta urreak *tin, tin* jausten entzutean arifieketan egin eban Kepa Deunak, eta dirua batuten asi zan antxe.

Orduan, Josu jaunak onan esan eutsan: "Ez, Kepa, ez: diru ori ez batu! Neuk bear joat ori, neure zorrak ordaindu-teko".

Baiña, Kepa Deunak apal-apal erantzun eutsan:

¹ [Eras (B): máxima, dicho
Erasan (L): hablar, charlar.]

«Oi, Jauna, zorrak errexki ordainduko ditutzu zuk, orai eta geroan, eta zure lagun nahi naiz bethi.»

—Oi, Jauna; zorrak erreztu ordainduko dozuz zuk, bai orain eta bai gero, eta zure lagun izan gura dot beti".

Euzkadi, 1933, Uztailak 19

11. ESPAINIA ETA BAKEA

Aldi hartan, Jesus Jauna eta Jon Doni Petri bazabiltzan Espainian. Herri batean iragaiten ari zirelarik, herri hartako buruzagiak jin zitzaizkoten, Ebanjelioa entzun beharrez.

Ebanjelioa entzun eta, Jon Doni Petriri hurbildurik, erran zioten ahapetik: «Jauna, zure beharretan ginitazke. Nausiaren ganik ardietsi behar dauzkutzu lau gauza, gure erresumarentzat: *ogi*, *arno* eta *haragi* nasaiki, eta gero *bakea*, bethi *bakea*.»

Bainan, Jesusek, heien galdea entzunik eta heien alderat itzulirik, erran zioten: «Lau gauza horiek ez doazke elgarrekin. Ogi, arno eta haragi, izanen duzue, eta nasaiki, bainan ez bakerik.»

Horra zertako baden Espainian jateko eta edateko, bainan, geroztik, eskas dute *bakea*.

11. ESPAÑA ETA BAKEA

Aldi atan, baebiltzan Josu Jauna eta Kepa Deuna Españan barruna. Erri baten zear igaroeran, erri atako agintariak erdu jakezan, Ebangelioa entzun bear ebala-ta.

Ebangelioa entzunda, Kepa Deunagana urreraturik, badinotse aopean: "Jauna, zure bear geunke. Zure nagosiaganik gure erreinoarentzat (aberriarentzat) lau gauza jadiesi bear dauskuzuz: *ogi*, *ardao* eta *okela* ugari, eta ganera *bakea* beti *bakea*.

Baiña, Josuk, aen eskabidea entzunik eta aen alderantz bigurturik, onan esan eutsen: "Lau gauza orreek ezin joan daitekez alkarregaz. Ogi, ardao eta okela, izango dozue, eta ugari, baiña bakerik ez".

Aor zergaitik dan Españan zer jan eta zer edan, baiña, arrezkero, *bakea* urri dabe.

Euzkadi, 1933, Uztailak 27.

12. JAINKOAREN BEGIA

Egun batez, Jesus Jauna eta Jon Doni Petri elgarrekin zoazilarik, Jon Doni Petri, goseak zinez hamikatua, lurrerat erori ogi-buruen altxatzen eman zen, erhien artean bihiak porroskatu eta, heien ixilka gero jateko.

Eta horra Jesusek erraiten diola: «Piarres, hean! behazok bada ene buru-gibelari.»

—«Ai, Jauna! Baduzu hor begi handi handi bat!»

—«Bai, eta begi horrekin ikusia haut doi-doia, ogi buru biltzen ari hintzela.»

12. JAUNGOIKOAREN BEGIA

Egun baten, Josu Jauna eta Kepa Deuna alkarregaz joiazala, Kepa Deuna, benetan goseak ilda, lurrean jausiriko galburuak jasoten asi zan, atzamar tartean garauak apurapur eginda, gero isilean jateko.

Eta orra Josuk esaten dautsola:

—Kepa, ea! Begira egiok, bada, nire buru atzeari.

—Ai, Jauna! Begi andi-andi bat dozu zuk or!

—Bai, eta begi orregaz ikusi aut ointxe-ointxe, galburuak batuten iarduala.

Euzkadi, 1933, Uztailak 27.

13. ONAK ETA GAIXTOAK

Ihurzuria, egun batez, herri baten gainera eroririk, Jon Doni Petri gaizoak galdegin zion Jesus Jaunari: «Jauna, ihurzuria hola zertako erori da jende onen eta tzarren gainera? Zertako ez gaixtoen gainera bakarrik?»

Jesusek ez zion kuxean deus ihardetsi.

Urrunago joan eta, Jesus Jaunak erraiten dio Jon Doni Petriri: «Piarres, erle-ume¹ hori harrezak.»

—«Kofoinik² ez dugu, Jauna.»

—«Bardin dik: golkoan emak.»

Golkoan emaiten du beraz Jon Doni Petrik, eta berehala, oihuz ere hasten: «Atx! Denak sista ari zaizkit! Atx!...»

Urruntxago gero, Jesus Jaunak: «Emanezadak erle-umea, hortxeko kofoin hortan sarraraz dezadan.»

—«Jauna, segur guziak lehertu³ ditudala.»

—«Zertako?»

—«Sistatzen baininduten.»

—«Sistatzen? *Guziek?* Zertako leher beraz *guziak, onak* eta *gaixtoak?*»

13. ONAK ETA GAIZTOAK

Justuria, egun baten, erri baten ganera jausirik, Deun Kepa gaisoak baditauntso Josu Jaunari: "Jauna, justuria zergaitik jausi da olan lagun onaren eta txarren ganera? Zergaitik ez gaiztoen ganera bakarrik?"

Josuk ez eutsan beingoan ezer erantzun.

Urrunago joanda, Josu Jaunak esaten dautso Kepa Deunari: "Kepa, erle pillo¹ ori artu egik".

—Ez dogu guk erlauntzik², Jauna.

—Bardin dok: kolkoan imini egik.

Kolkoan iminten dau beraz Kepa Deunak, eta bai beingoan garrasika asi bere: "Oi, ene! Gustiak jabiltaz kinaka! Oi, ene...!"

Urrunagotxoan gero, Josu Jaunak: "Emon egidak erle piloa, orkoxe erlauntz orretan sartuazo dagiodan".

—Jauna, gustiak lertu³ dodaz, aurki.

—Zergaitik?

—Kin egiten izan dauste-ta.

—Kin egin? *Gustiak?* Zergaitik lertu beraz *gustiak*, *onak* eta *gaiztoak?*

Euzkadi, 1933, Uztailak 27.

¹ [Erleume (L), Erlekume (B), Erlepilo (B): enjambre.]

² [Kofoin (L), Erlauntz (B): colmena.]

³ [Leher (L), Lertu (B): reventar, aplastar.]

14. IHIZKO HESIA

Jesus Jauna eta Jon Doni Petri bazabiltzan beraz Eskual Herrian.

Jendeek bazakiten, orduan, noiz behar ziren hil.

Egun batez, landa baten bazterretik zoazilarik, Jesus Jaunak ikusten du gizon bat, ihizko hesi batez landaren hesi-ten ari zela. Berehala, galdatzen dio Jesusek zertako egiten duen zerradura bat hoin ez-deusa?

«Oh! Jauna, hirur egunen buruko hil beharra naiz. Nere hesiak iraunen ahal du nik bezenbat!»

Eta Jesusek, ordu berean: «Hola denaz geroz, hemendik harat ez dakikezue gehiago, noiz hil behar zaizten.»

14. IIZKO¹ ESIA

Josu Jauna eta Kepa Deuna baebiltzan beraz Euskal Errian.

Gizonak baekien, orduan, noiz il bear eben.

Egun baten, landa baten bazterretik joan joiazela, Josu Jaunak ikusten dau gizon bat, iizko esi bategaz landea esituten² ziarduala. Josuk, beingoan, itaun egiten dautso zergaitik egiten dauan esto³ ain gauzaez bat?

—O, Jauna; iru egun barru il egin bear dot. Nire beste iraungo al dau nire esiak!

Eta Josuk, une berean: "Olan danezkero, emendik aurre-ra ez dozue geiago jakingo noiz il bear dozuen.

Euzkadi, 1933, Uztailak 27.

¹ [Iizko esia (B): el seto, la valla de junco.]

² [Esitu (B): acotar un terreno.]

³ [Esto (B): seto, valla.]

15. DAFAILA, ASTOA ETA MAKILA

Bertzorduz, etxe batean, baziren hiru seme.

Egun batez, zaharrenak erraiten dio bere amari: «Ama, egitzu laster opilak, joan nadin gero fortuna egitera.»

Amak egiten ditu opilak, eta semea abiatzen da bidez-bide. Zoalarik, ur-bazter batean kausitzen ditu Jesus Jauna eta Jon Doni Petri.

Jesus Jaunak oihuz erraiten dio: «Errak, muthikoa, sari-tan truk, eremanen gaituk bertze aldera?» —«Baietz segurki!» Eta gure muthikoak ereman zituen beraz bertze aldera.

Jesus Jaunak, orduan, saritzat eman zion *dafail* bat, erranez: «To, harzak dafail hau. Gosetzen edo egarritzen haizen aldi guziez, aski dukek erraitea: «*Dafaila, heda hadi!*», eta dafail horren gainean, izanen duk, berehala, behar dukan jateko edo edateko guzia.»

Gure muthikoa, fortuna jada egina zuela loriatua, abiatzen da kuxean etxe-alde. Joan, joan, bethi joan, arratsean heltzen da ostatu batetara, eta oherakoan, dafail baliosa emaiten diote altxatzera ostatuko jendeeri, erranez: «Dafail huni ez gero erran, othoi: «*Dafaila, heda hadi!*» — «Ezetz, segurki!»

Bainan muthikoa ohera joan orduko, ostalerek erran zio-

15. ZAMAUA¹, ASTOA ETA MAKILEA

Atxina munduan, ba ei ziran etxe baten iru seme.

Egun baten, seme zaarrenak esaten dautso amari: "Ama, egizuz opilak aida baten, zoria egiten berlan² joan naitean".

Egiten dituz amak opilak eta semea bidez-bidez abiatzen da. Joan joiala, ur bazter baten, Josu Jauna eta Kepa Deuna aurkituten dituz.

Josu Jaunak, dei eginda, badinotso: "Esaik, mutil; saria-
ren truke eroango al gozak beste aldera?" - "Bai, beintzat!"
Eta gure mutillak, beraz, atoan eroan egin zituzan beste
aldera.

Josu Jaunak, orduan, *zamau* bat emon eutsan saritzat,
esanez: "Eutsok; artu egik *zamau* au. Gosetu edo egarritu
aiten bakotxean, naiko izango dok esaten: *Zamau, zabal
adi!*, eta *zamau* orren ganean izango dok, beingoan, jateko
edo edateko bear izango doan gustia".

Gure mutilla, dagoaneko zoria eginda eukala-ta poza-
rren, etxerantz abiau zan beingoan. Joan, beti joan, arratse-
an ostatu batera elduten da, eta oera orduan, *zamau* balio-
tsua emoten dautse gordeteko ostatukoeri, esanez: "Zamau
oneri, ez gero, arren, *Zamau, zabal adi* esan!" - "Ezetz, eze-
lan bere!"

¹ Zamaua: mantel.

² Berlan: enseguida.

ten dafailari: «*Dafaila, heda hadi!*» Eta, berehala, dafailaren gainean, *brist* eta *brast* eman ziren sekulako jatekoak eta edatekoak! Eta ez ziren jende hek guti harritu!

Berehala, dafail hura bertze hala halako batean trukaturik, ixil ixila, atseginez xoxotuak, joan ziren gero ohera.

Biharamunean, ostatutik urrundu zeneko, ongi gosetua ere baitzen gure muthikoa, arbola baten pean hedatu zuen dafaila, erranez: «*Dafaila, heda hadi!*» Bainan, erran eta erran hura arizana gatik, dafail-basa hutsik gelditu zen, eta gure muthikoa, bere bihotz-minarekin zozotua, etxerat itzuli zen, fortunarik egin gabe.

* * *

Handik laster, bigarren semeak erraiten dio amari: «Ama, egitzu laster opilak joan nadin gero fortuna egitera.»

Amak egiten ditu opilak, eta semea badoa bidez-bide.

Ur-bazter berean, kausitzen ditu, harek ere, Jesus Jauna eta Jon Doni Petri.

Jesus Jaunak oihu egiten dio: «Errak, muthikoa, saritan truk, eremanen gaituk bertze aldera?» — «Baietz, segurki!» Eta gure muthikoak ereman zituen bertze aldera.

Jesus Jaunak, orduan, saritzat emaiten dio *asto* bat, erranez: «To, harzak asto hau. Diru beharretan haiteken guzian, errok asto huni: «*Lanari, ene astoa!*» eta asto horrek, berehala, urhea eginen dauk purrustaka.»

Gure muthikoa, fortuna egin duela loriatua, abiatzen da kuxean etxe-alde.

Arratsean, heltzen da hura ere, anaia zaharrena joan zen ostatura, eta, oherakoan, astoa emaiten diote eskuetara, erranez: «Asto huni ez gero erran, othoi: «*Lanari, ene astoa!*» — «Ezetz, segurki!»

Baiña mutilla oera joan zaneko, ostatariak badiñotse zamauari: *Zamau, zabal adi!* Eta bereala, zamauaren ganean, *brist* eta *brast*, naidan jateko eta edateko jarri ziran! Eta ez ziran lagun oek gitxi arritu!

Beingoan, a zamaua beste antz-antzeko bategaz trukaurik, atseginez txotxatuta isil-isilik joan ziran oera gero.

Biamamonean, ostatutik urrundu zaneko, gose bere gose zan gura mutilla eta, arbolape baten zabaldu eban zamaua esanez: *Zamau, zabal adi!* Baiña, esan eta esan ak ekin arren, sasizamaua utsik gelditu zan, eta gure mutilla, biotzminez tentelduta, etxera bigurtu zan, zoririk egin baga.

* * *

Andik laster, bigarren semeak badiñotso amari: "Ama, egizuz opilak aida baten, zoria egiten berlan joan naitean".

Egiten dituz amak opilak, eta semea badoa bidez-bide.

Ur bazter berean, aurkituten dituz arek bere, Josu Jauna eta Kepa Deuna.

Josu Jaunak dei egiten dautso: "Esaik mutil; sariaren truke eroango al gozak beste aldera?" - "Bai, beintzat!" Eta mutillak eroan egin zituzan beste aldera.

Jesus Jaunak, orduan, emoten dautso saritzat *asto* bat esanez: "Eutsok; artu egik asto au. Diru bearrean aiteken bakotxean, esan egiok asto oneri: *Lanean, ene astoa* eta asto orrek, beingoan, urrea egingo doa parra-parra.

Gure mutilla, zoria egin ebala-ta pozarren, berealaxe abiatzen da etxerantz.

Arratsean, elduten da a bere, anaie zaarrena joaniko ostatura, eta oera orduan, emoten dautse *astoa* gordeteko, esanez: "Asto oneri ez gero, arren, *Lanean, ene astoa!* esan". —Ezetz, ezelan bere.

Bainan, muthikoa ohera joan orduko, ostalerek erran zioten astoari: «*Lanari, ene astoa!*» Eta, berehala, hasten zaiote astoa, urhea egin eta egin purrustaka. Eta ez ziren jende hek guti harritu!

Berehala asto hura bertze hala halako batean trukutzen diote, eta ixil ixila, gero, badoazi ohera.

Biharamunean, ostatutik urrundu zeneko, astoari erraiten dio gure muthikoak: «*Lanari, ene astoa!*» Bainan, salbu zuek eta, bertze hartarik egin zion astoak, purrustaka. Eta, gure muthikoa, fortunarik ez zuela egin, zozotua itzuli zen etxerat.

* * *

Handik laster, hirugarren semeak erraiten dio amari: «Ama, egitzu laster opilak, ni joan nadin fortuna egitera.»

Amak egiten ditu opilak, eta semea badoa bidez-bide.

Bethi ur-bazter berean, kausitzen ditu, harek ere, Jesus Jauna eta Jon Doni Petri.

Jesus Jaunak hala galdaturik, ereman zituen biak bertze aldera, eta Jesus Jaunak, saritzat eman zion *makila* bat, erranez: «Nihun sekulan etsaiik atheratzen balinbazauk, makila huni errok: «*Zafra, Maria, zafra!*» eta ikusiko duk ikusiko dukana.»

Agur eta milesker, arratseko heltzen da muthikoa, bere bi anaiak larrutu zituzten ostatu hartara berera.

Oherakoan, erraiten diote ostalerei: «Altxa zadazue, othoi, makila hau, bihar goiz arte. Bainan, zuen onetan, ez zaiozuela gero erran: «*Zafra, Maria, zafra!*» — «Ezetz, segurki!».

Bainan, muthikoa ohera joan orduko, ostalerek, makila harturik, erraiten diote: «*Zafra, Maria, zafra!*»

Baiña, mutilla oera joan zaneko, ostatariak badiñotse astoari: *Lanean, ene astoa!* Eta, beingoan, asten jake astoa, parra-parra, urrea egin eta egin. Eta ez ziran lagun aek gitxi arritu!

Beingoan a astoa beste antz-antzeko bategaz trukaten dautse, eta gero, isil-isilik, badoaz oera.

Biaramonean, ostatutik urrundu zaneko, esaten dautso gure mutillak astoari: *Lanean, ene astoa!*. Baiña —eta zeuek parkatu— *beste atarikoa* egin eutsan astoak parra-parra. Eta gure mutilla, zoririk ez ebala egin-eta, tentelduta bigurtu zan etxera.

* * *

Andik laster, irugarren semeak badiñotso amari: "Ama, egizuz opilak aida baten neu joan naitean zoria egiten".

Egiten dituz amak opilak, eta badoa semea bidez-bide.

Beti ur bazter bereatan, aurkituten dituz, arek bere, Josu Jauna eta Kepa Deuna.

Josu Jaunak alan eskaturik, eroan egin zituzan biak beste aldera, eta Josu Jaunak saritzat, *makilla* bat emon eutsan, esanez: "Eguno inon areriorik urten baldin badaik, esan egiok makilla oneri: *Zapla, Maria, zapla!*, eta ikusiko dok ikustekoa.

Agur eta milla esker, arratserako elduten da mutilla bere anaie biak kapustu izaniko ostatu atara bertara.

Oerakoan, esaten dautse ostatarieri: "Gorde egidazue, arren, makilla au biar goizerarte. Baiña, zeuen onerako, ez egikeozue gero *Zapla, Maria, zapla* esan".

—"Ezetz, ezelan bere".

Baiña, mutilla oera joan zaneko, ostatariak, makillea arturik, badiñotse *Zapla, Maria, zapla!*

Ah! baia? Makila hasten zaiote, hantxet, kiski, kaska, zafra eta zafra, jendeeri eta gauzeri zapartaka, oro xehatu beharrez. *Ai!* hemendik, *atx!* handik, hasten dire ostalerak. Eta, makila nihundik ezin geldiaraz! Jo eta jo, hura bethi ari!

Azkenean, harramantzetara jeikitzen da gure muthikoa; eta, erhotuak, ostalerak hasten zaizko oihuka: «Othoi, othoi, geldiaraz zazu makila! eta «*Heda hadi, dafaila*» eta «*Lanari, ene astoa!*», oro itzuliko daukitzugu!»

Gure muthikoak, «*Geldi, Maria, geldi!*» erranik, geldiarazi zuen makila; eta *Lanari Astoaren* gainean, *Dafaila, heda hadi* beso azpian, *Zafra, Maria zafra* eskuan, itzuli zen etxerat.

Eta bere amarekin, eta bi anaiekin, aberats bizi izan zen, Jainkoak daki zonbat luzaz!

Ongi bizi izan baziren, arabera hartarat hil ziren.

A! Bai, e? Makillea asten jake berpertan, kiski, kaska, zirt eta zart, laguneri eta gauzari zartadaka, gustiak zeatu bearrez! *Ai!* emendik, *oi!* andik, asten dira ostatariak! Eta makilleari iñondik inora ezin gelditu erazo! Jo eta jo, ak ekin beti!

Azkenean, zarraparra aregaz iratzartuta jagiten da gure mutilla, eta ostatariak, zoratu eginean, asten jakoz aldarrika: "Arren, arren, gelditu eragiozu makilleari, eta *Zamau, zabal adi* eta *Lanean, ene astoa*, gustiak emongo dautsuguz atzera.

Gure mutillak, *Geldi, Maria, geldi* esanik, gelditu erazo eutsan makilleari; eta *Lanean Astoaren* ganean, eta *Zamau zabal adi* besapean eta *Zapla, Maria, zapla* eskuan zituzala, etxera bigurtu zan.

Eta bere amagaz eta anaie biakaz, aberats bizi izan zan Jaungoikoak daki noiz arte luzaroan.

Ondo bizi izan baziran, era beratan il ziran.

Euzkadi, 1933, Abuztuak 6.

16. HARRIA ETA BEHI-ONGARRIA¹

Jesus Jauna eta Jon Doni Petri bazoazin egun batez elgarrekin.

Bazterreri beha eman zen Jon Doni Petri, eta harri handi bat zangoarekin² koskatu zuen, ontsa min hartu baitzuen, gaizoak!

Kexaturik, hartu zuen eskuetan, besagainka arthikitze-ko. Bainan, Jesus Jaunak erran zion orduan:

«Ez hadila hola kexa! Harri gogor hortarik eginen diat *Eskualduna*.» Eta hala egin ere zuen.

Urrunago, berriz bazoazilarik, zabal zabala erortzer³ zen Jon Doni Petri, behi-ongarri baten gainean lerraturik.

Kexatu zen oraino gaizoa. Bainan, Jesus Jaunak erran zion:

«Ez hadila bada kexa, Piarres; eta go'mak⁴ non zangoak eman!... Zer eginen diagu behi-ongarri hortarik?

—Egizu *Gallegoa*, Jauna.

—Gallegoa eginen diagu beraz, Piarres.» Eta hala egin ere zuen Jesus Jaunak.

16. ARRIA ETA BEKOROTZA¹

Josu Jauna eta Kepa Deuna bajoiazan egun baten alkarregaz.

Alboetara begira jarri zan Kepa Deuna, eta arri andi bat jo eban oiñagaz², eta bai ondo min artu bere, gaisoak!

Asarraturik, artu eban eskuetan, besaganka jaurtiteko. Baiña, Josu Jaunak badirauso orduan:

—Ez adi olan asarratu. Arri gogor orretarik, *Euskalduna* egingo joat. Eta alan egin eban, egin bere.

Urrunago, barriro joan joiazala, Kepa Deuna ia-ia jaus-ten da³ luze-luze, bekorotz baten ganean laprast eginik.

Asarratu zan ara bere gaisoa. Baiña, Josu Jaunak badinotso:

—Ez adi asarratu bada, Kepa; eta oiñak non jarri, zurt ibili adi!... Zer egingo joagu bekorotz orretarik?

—Egizu *Gallegoa*, jauna.

—Gallegoa egingo joagu beraz, Kepa. Eta egin bere alan egin eban Josu Jaunak.

Euzkadi, 1933, Uztailak 16.

¹ [Behi ongarrri (L), Bekorotz (B): boñiga de vaca.]

² [Zango (L): pie. El significado verdadero de 'zango' es 'pierna'; pero es curioso observar que, tanto en L como en B, el pueblo haya desechado la voz genuinamente euzkérica 'oin' (c), pie, y use preferentemente las voces 'zango' (L) y 'kadera' (B), de probable origen erdérico y que realmente significan 'pierna, anca'.]

³ [Erortzer izan (L), Jausi aginean egon (B): estar a punto de caerse.]

⁴ [Go'mak (L): (contracción de "gogo emak"), ten atención, ten cuidado.]

17. BI BESO, BI ZANGO, SABEL BAKAR BAT

Egun batez, Jon Doni Petri, gogoetan luzaz egonik, eman zitzaion galdez Jesus Jaunari:

«Jauna, bi beso, bi zango, bi begi, bi beharri ditugun bezala, zertako ez ditugu ere bi sabel?»

Eta Jesus Jaunak ihardetsi zion berehala:

«Baten hazteak ere lanik aski emanen diolakotz gizonari, Piarres.»

17. BESO BI, OIN BI, SABEL BAKAR BAT

Egun baten, Kepa Deuna, gogamenetan luzaroan egonda, asten jako Josu Jaunari itaunka:

—Jauna; beso bi, oin bi, begi bi, belarri bi doguzan legez zergaitik ez doguz baita sabel bi bere?

Eta Josu Jaunak beingoan erantzun eutsan:

—Bat aziteak bere lanik asko emongo jautsaalako gizonari, Kepa.

Euzkadi, 1933, Abuztuak 16.

18. TRENTEKUTXILO

Jesus Jauna eta Jon Doni Petri Eskual-Herrian zabiltzalarik, buruz buru egin zuten¹, egun batez, soldado ibili eta, puxka bat kolpatua zelakotz, eske zabilan gizon batekin.

Soldado zaharrak galdegin² zion beraz amoina Jesus Jaunari. Eta Jesus Jaunak ihardetsi zion, sosik ez zuela, baina, zerbeit emanen ziola, halere: «Zaku bat nahi duzu orai berehala, ala *zerua* geroan?»

Eta ahapetik, Jon Doni Petri ari zitzaion:

«Galdezok *zerua*!... *zerua*!»

Eta gizonak oihuz ihardetsi zion:

«Errexki mintzo zira eta zu!... Zerurat joan arte bizi behar ez balitz, ba!... Jauna, emadazu othoi zaku bat...»

Eta zaku bat emaiten, erraiten dio Jesus Jaunak:

«Deus behar-orduetan, aski diozu erraitea: *Trentekutxilo!*»

* * *

18. TRENTEKUTXILO

Josu Jauna eta Kepa Deuna Euskal Errian ebiltzalarik, egun baten, gudari ibilita elbarri samar egoalako eskean ebilen gizon bat aurkitu eben.

Gudari zaarrak, beraz, limosnea eskatu² eutsan Josu Jaunari. Eta Josu Jaunak, laukorik ez ebala erantzun eutsan, baiñan alan bere, zerbait emongo eutsala: *Zorro*³ bat nai al dozu orain berton, ala *zerua* geroenean?

Eta baziardutson Kepa Deunak aopean:

—Zerua eskatu egiok!... zerua!

Eta badarantzutso gizonak deadarka:

—Berba egin bai zuk, erreztok!... Zerura joan arte bizi bear ez balitz, bai!...Jauna, emon egidazu, arren, zorro bat..."

Eta zorro bat emotean, badinotso Josu Jaunak:

—Ezer bear izan ezkerok, naiko dautsazu esatea:

Trentekutxilo!

* * *

¹ [Burus buru egin norbaitekin (L): encontrarse con alguien (en el camino). No he podido hallar modismo bizcaíno equivalente a este lindísimo laburdino; tal vez le haya.]

² [Galdegin, galdetu, galdez eman (L): preguntar, pedir. Itaundu (B): preguntar.]

Eskatu (B): pedir.]

³ [Zorro (B): saco.]

Agur eta milesker, Jon Doni Petri aphaletik erasian ari zitzaiola, badoa gure gizona; eta, handik berehala, huna non heldu zaion okin bat, bolanjer bat, bere karroa ogi bero berroz betherik. Eta soldado ohiak galdegiten dio okinari, hean emanen dion ogi puxka bat?

«—Zer uste duk ala hiretzat ditudala ene ogiak? Ez duk ukanen, eta hoa hire bidean!»

Ah! Baia?... Eskaleak, berehala, oiuhu egiten du: «*Trentekutxilo!*...» Eta, hantxet, ogiz bethetzen zaio bere zakua. Eta lorietan joan zen handik, zonbeit egunen jateko-arekin.

* * *

Handik laster, zerga-biltzaile¹ bat aintzinean iragan zitzaiola, bere asto bat diruz kargaturik, eta gure gizonak oiuhu egin zion beraz:

«Sos bat edo bertze emadazut, othoi?»

—Sos bat edo bertze? Ez eta ardit bat ere! Zer uste duk ala hire muttur pullitarendako bilduak ditudala diru hauk oro?»

Erran badu erran, oiuhuz hasten da soldado zaharra:

«*Trentekutxilo!*»... eta, hantxet, urhez bethetzen zaio bere zaku handia.

Eta gero, aberats zen hola, eta bethikotz.

* * *

Handik laster ezkondu zen eta dohatsu bizi zen, egun guzietz bere athermaldia³ deskantsuz eginez.

Agur eta milla esker, Kepa Deunak aopean marmarka ziardutsolarik, badoa gure gizona; eta andik beingoan, ara non agertuten jakon okin bat, panadero bat, bere burdia ogi bero-beroz beterik. Eta gudari izanak itaunduten dautso okinari, ea emongo dautsonez ogi puzka bat?

—Zer uste dok ik, ostera, iretzat joadazala neure ogiak, ala? Ez dok izango arean bere, eta oa eure bidean.

A; bai, e...? Eskekoak, beingoan, deadar egiten dau: *Trentekutxilo!*...Eta, berpertan, ogiz beteten jako bere zorroa. Eta pozarren joan zan andik, egun batzuetarako jatekoagaz.

* * *

Andik laster, petxu-batzaille¹ bat igaro jakon aurrean, bere asto bat diruz zamaturik, eta gure gizonak deadar egin utsan, beraz:

—Lauko bat edo beste emon egidazu, arren?

—Lauko bat edo beste? Ezta lauziriko bat bere! Zer uste dok ik, ostera, ire mustur politarentzat batu joadazala oneek diru gustiok, ala?

Esan baeban, esan eban: asten da deadarrez gudari zaarra:

—*Trentekutxilo...*! eta, ots-otsean², urrez beteten jako zorro andia.

Eta geiago, aberats izan zan olan betiko.

* * *

Andik laster, ezkondu egin zan, eta doatsu bizi zan, egunaro bere egurastaldia³ patxadaz eginenez.

¹ [Zerga-biltzaile (L), Petxu-batzaille (B): cobrador de tributos.]

² [Ots-otsean, Ots baten (B): de golpe, al pronto.]

³ [Atheraldia (L), Egurastaldia (B): paseo.]

Hor, ohartzen da, egun batez, bere andrea bethi eta ilhuno¹ hiratzen² ari zaiola.

«Zer duzu bada ilhun hola izaiteko? Ez dituzu nahi dituzun guziak?»

Andreak ez zion lehenik deusik aithortu, baina gero erran zion, hura atheratzen zen aldi guzietan, jiten zitzaiola gizon handi itsusi³ bat, harriturik ikaretan atxikitzen zuen mamu bat.

Biharamunean, soldado xaharrak egiten du alegia eta kanporat joaiten⁴, eta gero, eman zen athe-xokoan gorderik.

Hor heldu da gizon itsusia, eta gure soldadoa emaiten da oihuz: «*Trentekutxilo!*...» eta, berehala, zakuaren barnera, buruz beheiti sartzen da gizon itsusia. Orduan jotzen, ehotzen du soldadoak eta hantxet... hiltzen.

Gero, haren hezurak eremaiten ditu herriko harotzari, hezur heiekin zerbeit eginarazi beharrez.

Harotzak kurutze bat nahi ukan zuen egin. Baina, nehondik ez zuen lana bururatu ahal izan, eta, hola seguratu ziren *debru* bat zela delako gizon itsusi hura.

* * *

Xahartu eta hil zen azkenean gure soldado ohia. Baina, hil baino lehen, bere andreari galdegin zion othoi bere zakua, kaxan, hil-kutxan eman zezon.

Bere zakuarekin joan zen beraz zeruko atherat.

Baina, Jon Doni Petrik, atherik ideki gabe batere, leiho ttiki batetik behatu zion, eta gure gizontoa berehala ezaguririk, oihuka eman zitzaion:

Aor; egun baten oartuten da bere andrea egunean baiño egunean kadenago¹ ta erkinago² jagokola.

—Zer dozu, bada, olan ildu¹ egoteko? Ez ete daukozu, bada, zeuk zer gura eta axe?

Andreak ez eutson lenengotarik ezer autortu, baiña gerogarrenean esan eutsan, ak urteten eban baktotxean gizon andi ezain³ bat etorten ekiola, eta, arriturik, ikara baten jarten ebala mamu arek.

Biaramonean, gudari zaarrak egiten dau kanpora urten-go baileuan⁴, eta gero jarten da ate bazterrean gorderik.

Aor; badator gizon ezaiña eta gure gudaria asten da deadarrez: *Trentekutxilo...!* eta beingoan, zorroz barruan buruz beera sartuten da gizon ezaiña. Orduan, gudari zaarrak jo, eio eta bertan... il egiten dau.

Gero, badarroatsoz aren azurrak erriko sugizonari (errementariari), azur aekaz zerbait egin eragiteko ustez.

Sugizonak gurutze bat egin gura izan eban. Baiña, iñon-dik iñora ezin amaitu izan eban lana, eta olan etsi egin eben *deabru* bat zala arako gizon ezain a.

* * *

Zaartu eta il zan azkenean gure gudari izana. Baiña il baiño lenago, bere zorroa, arren, atabutean, zerraldoan iminteko eskatu eutsan bere andreari.

Bere zorroagaz joan zan, beraz, zeruko ateetara.

Baiña, Kepa Deunak, aterik idegi bere egin barik, leio txikitxo batetik begiratu eutsan, eta gure gizontxo bereala ezaguturik, deadarrez asi jakon:

¹ [Ilhun (L), Kaden (B), Ildu (B): decaído de ánimo, apocado.]

² [Hiratu (L), Erkindu (B): adelgazarse, acabarse.]

³ [Itsusi (L), Ezain (B): feo.]

⁴ [Alegia eta kanporat joaiten (L), Kanpora urten-go baileuan (B): fingir como si saliera.]

«Norat heldu haiz?... Zerurat? Hi, zerurat?... Jesus Jaunak, lehen, hauta eman zaukalarik zeru hunen eta zaku trastu baten artean, zalukara utzi huen zerua, zakuaren hartzeko! Hire zakuarekin, hoa beraz orai nahi dukan tokira...» Eta brixtez hetsi zion leiho ttikia.

Bazoan beraz gure gizon gaixoa ifernura buruz. Bainan, huna non biderat atheratzen zaizkon sekulako debruak, beren sardi xorrotxak eskuan, oihuka:

«Norat jin uste duk? Ifernurat? Haizen bezalako! Orai zonbeit urthe, gure aita hil daukuk lurgainean. Hoa hemendik, eta laster, zuhur balinbaduk!...

Heldu da beraz, berriz oraino, zerurat buruz.

Eta, aldi huntan, uste-gabetarik, Jon Doni Petrik athea erdi-idekia utzirik, parabisuan sartzten da soldado xaharra.

Bainan Jon Doni Petri lasterxko ohartzen zaio, eta oihuz emaiten: Lekuak huts ditzan eta zalukara!

Gure gizonak zerbeit erran nahi eta Jon Doni Petrik ez zion deus aditu nahi.

Zer egin ez jakinez gehiago, oihuka emaiten da soldado xaharra: «*Trentekutxilo!*» Eta, Jon Doni Petri zapartaka ari zen, zakuaren barnerat ez joan nahiz... Bainan —oh! Jainkoa, zuk barka— nahi bazuen eta ez bazuen, zaku mardikatuan sartu behar izan zitzaion, Jesus Jaunak hola lehen manatu izan zuelakotz.

Hainbertzenarekin, Ama-Birjina hurbildu zen tarrapata hetara.

Soldado xaharrarenak entzunik, oro berehala, hirriño batekin antolatu¹ zituen: Jon Doni Petri libratu zuen, maiteki balakatu, eta... soldadoa zeruan sarrarazi.

Han ikusiko dugu, harat egun batez joaiten girelarik, athearen ondo ondoan, eskuineko aldetik.

—Nora etorri az...? Zerura? I, zerura...? Josu Jaunak, beñola, eure aukeran emon eueanean edo zerua au edo zorro mantar bat, arin baiño arinago itzi enduan zerua zorroa artuteko! Eure zorroagaz joan adi orain, beraz, euk nai doan lekura..." Eta "birrist" itxi eutsan leio txikitxo.

Bajoian, beraz, gure gizon gaisoa inpernu aldera. Baiña, ara non urteten dautsen bidera naidan deabruk, eskuetan sarda zorrotzak dituezala, eta aldarrika:

—Nora uste dok etortea? Inpernura? Azan alako ori! Orain urte batzuk gure aita il dauskuk ik lurraren ganean. Joan adi emendik, eta laster, zentzunik baldin badok!...

Elduten da, beraz, barriro bere, zeru aldera.

Eta, oraingotan, uste-uste barik, Kepa Deunak atea erdi zabalik itzirik, sartu egiten da paradisuari gure gudari zaarra.

Baiña bai Kepa Deuna laster oartu, eta deadarrez asten jako: Leku aetarik alde egiteko eta arin baiño arinago!

Gure gizonak zerbait esan nai, bada, baiña Kepa Deunak ez eutsan ezer aditu gura.

Geiago zer egin jakin ezda, asten da deadarka gudari zaarra: *Trentekutxilo...!* Eta Kepa Deunak baziarduan zartadaka, zorro barrura joan gura ezik... Baiña —o, Jaungoikoa, eta zeuk parkatu— gura naiz gura ez, zorro madarikatuan sartu bear izan eban, Josu Jaunak lendik olantxe agindu ebalako.

Onenbestez, Ama Birjinea urreratu zan zarraparra aetara.

Gudari zaarrarenak entzunda gero, beingoan, irribarretxo bategaz atondu¹ zituzan gauza gustiak: Kepa Deuna jaragin (librau), maitero-maitero baretu, eta... gudaria zeruan sartu egin eban.

An ikusiko dogu, egunen baten ara joan gaitezanean, atearen ondo-ondoan, eskoeko aldetik.

Euzkadi, 1933, Abuztuak 16, 24.

¹ [Antolatu (L), Atondu (B): arreglar.]

19. ERREGINA BAT OIHANEAN

Behin batez, baziren jaun-andre batzu aberatsak.

Nexka bat izan zuten, *Maria Balentina* eman baitzioten izena.

Ama hil zen hamabortz urtheren buruan, eta berriz ezkondu zen aita.

Bainan, bigarren andrea biziki gaixtoa athera zen neskatxarentzat. Egun batez, kanpoan aita zelarik, xerri bat hil zuen andre gaixtoak, eta gero, bere jaunari erran zion Maria Balentinak hil zuela xerria.

• Aitak galdatu zion beraz haurrari, hean harek hil zuenez xerria? —Harek, ezetz!

Zonbeit egunen buruan berriz, emazteki tzar harek hiltzen du behor bat, eta jaunari erraiten dio Maria Balentinak hil duela behorra.

Berriz ere haurrari galdatzen dio beraz aitak hean harek hil duenez behorra? —Harek, ezetz!

Eta aitak sinhetsi zuen berriz ere bere haurra, zeren ez zen batre gezurtia.

Andreak, orduan, herra¹ bihotzean, erran zion jaunari:

«Ikusten dut orai, Maria Balentinak egin guziak ongi zaizkitzula...»

19. ERREGINA BAT BASOAN

Bein baten, ba ei ziran senar emazte aberats batzuk.

Neskatilla bat izan eben, *Miren Balendine* izena imini izan eutsena.

Ama, arik amabost urtegarrenean il zan, eta aita ezkondu egin zan barriro.

Baiña, bigarren andreak gustiz gaiztoak urten eutsen neskatilleari. Egun baten, aita kanpoan zala, txarri bat il eban andra gaiztoak, eta gero, Miren Balendinek txarria il ebala esan eutsan senarrari.

Aitak, beraz, umeari itaundu eutsan ea txarria il ebanentz? Arek, ezetz.

Egun batzugarrenean ostera bere, emakume txar arek ilten dau beor bat eta badiñotso senarrari Miren Balendinek beorra il dauala.

Aitak, ostera bere, umeari itaunduten dautso ea beorra il dauanentz? - Arek, ezetz!

Eta aitak ostera bere sinistu egin eutsan beren umeari, ez zalako bapere guzurtia.

Andreak, orduan, biotzean kurrukea¹ ebala, onan esan eutsan senarrari:

—Orain ikusten dot Miren Balendinek eginiko gustiari ondo deritxozula zuk...

¹ [Herra (L), Kurruka (B): rencor.]

Eta emazteki tzarrak, hirugarren aldian, hil zuen... bere haurra, ezen haur bat bazuten, bigarren ezkontzako. Heiagoraka¹ joan zen gero jaunaren ganat, eta, bethi bezala, Maria Balentinaren gain eman zituen oro.

Aitak berriz ere galdeginik hean hobenduna² hura zenez, ezetz erran zion Maria Balentinak. Bainan, aldi hartan, erhotu zen aita, tzarkeria egiteko baizik ez zela gehiago haren alaba zaharrena. Eta, hor, bere hasarrean, Maria Balentinari, bi eskuak mahain baten gainean emanarazirik, esku hetako erhiak oro pikatzen diozka, kanit³ handi batekin. Eta gero, egortzen du etxetik, dohala nahi duen tokira!

Nigarrez oihuka ari zen neskatxa gaixoa, eskuak odolotan, oihal zerbeiten galdez, zauri izigarrien lotzeko doia be-deren⁴!...

Abreki feratu zuen aitak. Eta Maria Balentinak orduan, etxetik urruntzearekin, hau erran zion aita higuinari:

«Elhorri bat agian sarturen duzu eskutik, eta ez gero atheraturen, etxerat ni berriz itzuli artean!»

* * *

Eta, herrestaka⁵, odolotan, urrundu zen neskatxa dohakabea.

Joan, joan, bethi nigarrez, oihan beltz batetara heltzen da arratsean, eta, ilhunpean, zilo handi batetara erortzen. Erhiak moztuak izanez, ez zitaken nehola ere handik athera.

Eta emakume dongeak, irugarrenekotan, il egin eban... "bere" umea, ume bat eben-eta, bigarren ezkontzakoa. Alaurika¹ joan zan gero senarragana, eta, beti legez, Miren Balendineren gain ezarri eban dana.

Aitak, barriro bere, ea erruduna² zanentz itaundurik, ezetz esan eutsan Miren Balendinek. Baiña, ordukotan, burutik egin jakon aitari , bere alaba zaarrena geiago txarkeriak egiteko baiño ez zala-ta. Eta, aor, bere asarrear, Miren Balendineri esku biak mai baten ganean imini erazorik, eskuetako atzamar gustiak ebagiten dautsoz gaiñueta³ andi bategaz. Eta gero, etxetik bialduten dau, doala nai dauan lekura!

Negarrez garraisika eragoion neskatilla gaisoak, eskuak odoletan, zapiren bat eskatuten, zauri izugarriak lotuteko beste edolabere⁴!...

Aitak, aberekiro, jaurti egin eban etxetik. Eta Miren Balendinek, orduan, onan esan eutsan aita gorrotogarriari:

—*Arantza bat sartuko al jatzu eskutik, eta ez al dozu gero aterako ni barriro etxera atzera etorri artean!*...

* * *

Eta, biortuta⁵, odoletan, zorigaiztoko neskatillea urrundu egin zan.

Joan, joan, beti negarrez, baso itzal batera elduten da arratsean, eta, illunetan, zulo andi batera jausten. Atzamarrak ebagita zituzanez, ezin zeitekean ezelan bere

¹ [Heiagoraka (L), Alaurika (B): dando gritos de dolor.]

² [Hobendun (L), Errudun (B): culpable.]

³ [Kanit (L), —del erdera—, Gaiñueta (B) —del erdera—, Aizto (R): cuchillo.]

⁴ [Bederen (L), Edolabere (B): siquiera, a lo menos.]

⁵ [Herrestaka (L): arrastrándose (sin embargo más parece tener en este cuento la acepción de "contrayéndose de dolor" y por eso se ha traducido por 'biortuta').]

Deuseri ezin loth alabainan! Eta gau bat izigarria iragan zuen hantxet, basa ihizien beldurrean, eta zer nahi pairatzen¹ zuela bere esku odolztatuetarik.

* * *

Biharamuenan, toki hetako Erregea, ihizirat², bere xakurrekin, heldu da oihan hartara.

Xakurrak, jauzian, sartzen dira Maria Balentina zagon zilo handian, ez baitzen haur gaixoa guti harritu! Baina aita gaixtoa baino hobeak izan ziren xakurrak. Neskatxari zauriak milikatzen diozkate maiteki, eta badoatzi...

Bainan, egun hartan berean, Erregeren muthilak xakurreri eman jatekoa eta, ahamenik hartu gabe berentzat, jateko hura guzia ekarri zioten Maria Balentinari, oihaneko zilo hartara. Eta, hala hala egiten zuten gero, egun guzi-guziez.

Laster kexatu zen Errege, bere xakurrak mehatzen ari zitzaizkola. Eta bizkitartean, sekulan ez bezala asetzen zituena, bere ustez...

Muthil batek hor noizpeit salatzen dio xakurrek norapeit bethi baderamatela beren jatekoa.

Segitu zituen beraz Erregek bere xakur maiteak... Eta nor harritu? Errege harritu, xakurren ondok oihaneko zilotan sartu zelarik, eta zilo hartan neskatxa gazte bat dena odoletan kausitu zuelarik!...

Haren beraren ganik oro jakin ondoan, Errege-Jauregirat ereman zuen neskatxa dohakabea. Eta, ondoan, hala maitatu zuen Maria Balentina, non bere semearekin ezkon-

andik urten. Ezeri ezin oratu, ara bere! Eta gau izugarri bat igaro eban antxe, basa-piztien bildurrez, eta bere esku odolduetarik ezin esan alak jasaten¹.

* * *

Biamamonean, leku aetako Erregea elduten da baso atara eizatan², bere txakurrakaz.

Txakurrak, ikotika, Miren Balendine egoan zulo andian sartu ziran, eta bestelako ikarea ez eban ume gaisoak artu! Baiña aita gaiztoa baiño obeak izan ziran txakurrak. Neskatilleari zauriak miazkauten dautsez maitero, eta badoaz...

Baiña, egun atan bereatan, Erregearen mutillak txakurreri jatekoa emonik, a jatekoa, eurentzat aokadarik artu barik Miren Balendineri ekarri eutsen gustia, basoko zulo atara. Eta, arexetara egiten eben gero, egunaro-egunaro.

Arik laster, Erregea keskaz jarri zan bere txakurrak geroago egozala-ta. Eta orraitio, eguno ez legez asetuten zituzan, bere ustez...

Aor; guenean mutil batek salatuten dautso txakurrak nora edo ara eroaten dabela beti euren jatekoa.

Beraz, Erregea jarrai egin jaken bere txakur maiteari... Eta nor arritu ez? Erregea zurtzauta gelditu zan txakurren atzean basoko zuloan sartu zanean, eta zulo atan neskatilla gazte bat dana odoletan aurkitu ebanean!...

Areganik beraganik gustia jakin ostean, Errege-jauregi-
ra eroan eben neskatilla zorigaiztokoa. Eta, gero, Miren Balendine maite bere maite ebanez, bere semeagaz egin

¹ [Pairatu (L), Jasan (L): sufrir (se ha aceptado la voz 'jasan' para el texto vizcaíno, por su mucho uso actualmente).]

² [Ihiza (L), Eiza (B): caza.]

tarazi baitzuen, eta eztei ederrenak egin ziren hamar egun osoz.

* * *

Handik laster, zorigaitzez, Errege Aita hil izan zen, eta Errege gaztea joan zen gerlara¹; eta haren amak Maria Balentina arras hastio baitzuen, ordutik dohakabe osoki izan zen Erregina gaixoa.

Beraz, Erregea gerlan zen denboran, eta hura etxetik urrundu zeneko, bi haur ukan zituen Maria Balentinak, bi-txiak, batto bertzea bezen pullitak baitziren.

Amak berehala mezua² igorri zion Erregeari, baizik eta, bi haurren orde, bi xakur izan zituela Erreginak.

Erregeak, jelosturik³, ihardetsi zion berehala: xakurrak baziren xakurrak, ongi altxa zitzazten, hura etxerat itzuli artean.

Bainan ama tzar harek, Seme Erregearen egiazko mezua gorderik, bere muthileri⁴ erran zioten, Erregeren manua zela, hil zitzaten berehala Erregina eta haren bi haurrak.

Muthilen nahigabea! Hainbertze maite zuten beren Erregina! Joan ziren beraz Maria Balentinarekin eta haren hurrekin. Bainan, Erregina eta printze gaixoak hiltzeko orde, Maria Balentinari egin ziozkaten soinean bi sakela⁵ handi, eta sakela hetan haurrak ezarririk, egorri zuten Erregina: zohala handik, urrun, biziki urrun! Eta gero, be-

etsan ezkontzea, eta eztegu ederrenak egin ziran amar egun osotan.

* * *

Andik laster, zoritxarrez, Errege Aita il egin zan eta Errege gaztea gudan¹ joan zan; eta aren amak Miren Balendine gorroto bere gorroto ebanez, ordurik geiago oso zoritxarrekoa izan zan Erregiña gaisoa.

Beraz, Erregea gudan zan aldian eta etxetik urrundu baiño egin ez zaneko, ume bi izan zituzan Miren Balendinek, bikotxak, bata baizen bestea politak biak.

Amak, beingoan, erreparri² bat bialdu etsan Erregeari, baiña ume biren ordezt, Erregiñak txakur bi izan zituzala esanez.

Erregeak, pekoa arturik³, bereala erantzun etsan: txakurrak edo ziran-ziralakoak, ondo azi egiezala, bera etxera atzera joan artean.

Baina ama donga arek, Seme Erregearen egizko erreparria gorderik, bere morroier⁴, Erregearen agindua zala-ta, Erreginea eta aren ume biak beingoan ilteko esan etsen.

Morroien naigabea! Ain eben maite euren Erreginea! Joan ziran, beraz, Miren Balendinegaz eta aren umeakaz. Baiña, Erreginea eta printzipe gaisoak il bearrean, Miren Balendineri sakel⁵ andi bi egin eutsezan aldean, eta sakel aetan umeak ezarririk, bialdu egin eben Erreginea: joiala andik, urrun, oso urrun! Eta gero, euren txakurretarike iru

¹ [Gerlara joan (L), Gudan joan (B): ir a la guerra.]

² [Mezu (L) —del erdera—, Erreparri (B): mensaje, noticia.]

³ [Jelostu (L), Pekoa artu (B): sospechar, recelar.]

⁴ [Muthil (L), Morroi (B): criado, servidor.]

⁵ [Sakela (L), Sakei (B): faltriquera.]

ren xakurretarik hiru hilik han berean, heien bihotzak ekarri ziozkaten Erregina-Amari, eta osoki hau enganatu zuten.

* * *

Muthil bihotz onekoak urrundu orduko, haren ganat heldu bi gizon ikusi zituen Erreginak. Izitu¹ zen berriz, bainan sosegatu ere laster, ezen bi gizon hek *Jesus Jauna bera eta Jon Doni Petri* ziren, lur gainean ibilki.

Hurbildu zen beraz Jesus Jauna, eta, oro zakizkan bezala, deusik ez zion Erregina gazteari galdatu, bainan bai so-lasetan bihotz-altxagarrienak² erran amultsuki. Esku ikaragarriak ferekatu ziozkan, eta Erreginari berehala, han berean, berriz sortu zitzaizkon bere erhiak oro.

Jesus Jaunak gero eskua altxaturik, oihan beltz haren erdian, jauregi bat ederra jali zen hantxet, lurpetik, bere baratze pullitarekin eta ororekin. Ahuntx muñuña bat ere eman zion Erreginari, beren esnearentzat, eta joan ziren gero Jesus Jauna eta Jon Doni Petri. Bainan, urruntzean, Erreginari manatu zion Jesus Jaunak, *bere onetan, ez zadin sekulan athera jauregitik; erhiak eroriko zitzaizkola, jauregitik atheratzea bezen xuxen.*

Urrundu baino lehen, hatik, Jesus Jaunak berak bathaia-tu zituen Erreginaren bi haurrak, *Iguzkia* deitzen zuela bat-tto, *Ilhargia* aldiz bertzea.

* * *

ilda, aen biotzak ekarri eutsezan Erregina Amari, eta bete-betean atzipetu eben.

* * *

Morroi biotz onekoak aldendu ziraneko, gizon bi bera-gana etorten ikusi zituzan Erregineak. Izutu¹ zan barrero, baiña bai lasatu bere laster aek gizon biak *Josu Jauna eta Kepa Deuna* ziralako, lur ganean ebiltzan-eta.

Urreratu zan, beraz, Josu Jauna, eta dan-dana ekianez, ez eutsan Erregina gazteari ezer itaundu baiña bai berbarik biotz-azkorgarrienak² esan laztanik. Igurtzi eutsazan esku errukigarriak, eta beingoan, berpertan, bere atzamar gustiak sortu jakazan barrero Erregineari.

Jesus jaunak, gero, eskua jaso eban, eta baso itzal aren erdian jauregi eder bat sortu zan, bertan, lurpetik bere baratz politagaz eta gustiagaz. Auntz polit-polit bat bere emon eutsan Erregineari esnea izan egien, eta joan ziran gero Josu Jauna eta Kepa Deuna. Baiña alde egitean agindu eutsan Josu Jaunak Erregineari, *onerako inotsola eta ez egikeala eguno jauregitik urten; jauregitik urtenaz beraz atzamarrek txuxen jausiko jakozala-ta.*

Alde egin orduko, orraitino, Josu Jaunak berak bateatu zituzan Erreginearen ume biak, batari *Eguzki* izena ezarririk eta besteari, barriz, *Ilargi*.

* * *

¹ [Izitu (L), Izutu (B): espantarse.]

² [Solasetan bihotz-altxagarrienak (L), Berbarik biotz-azkorgarrienak (B): palabras más reconfortantes.]

Noizpeit beraz, Erregea itzuli zen gerlatik etxera; eta, berehala erran zioten, nola Erregina gaztea eta haren bi haurrak hilak ziren aspaldi hartan.

Auhenetan¹ eman zen Errege gaztea. Eta, bere atsegabearen ahanzteko bezala, oihanez oihan abiatu zen, lagun batekin, ihizin² bethi, gauaz eta egunaz.

Ilhuntxe batez, oihan beltz handian galdu ziren, eta argi bati urrunera oharturik, joan ziren argi hari buruz. Eta hola-xet aurkitu ziren Maria Balentinaren jauregi-aintzinean.

Gau hartako atherbea galdatu zuten beraz, eta, baietz, eman zioten Erreginak.

Andre gazteak berehal-berehala ezagutu zuen bere jaun Erregea, baina ez hunek bere andre Erregina.

Afaltzerat eman zioten ederki bieri, eta gero, joan ziren beraz lo egitera.

Unhatuak izaki biak, laster lokhartu ziren.

Orduan, Erreginak, bere bi haurrak berekin harturik, ereman zituen Erregearen ohe aintzina, eta, ixil ixila, ahapetik erran zioten, jaun hura heien aita bera zela, eta pulliki pulliki musu eman zezoten beraz. Eta, pulliki, pulliki, batek bertzearen ondotik, musu eman zioten, eta itzali³ ziren hiruk.

Errege ez zen deuseri ohartu, lo baitzagon ederki.

Bainan haren laguna ez zagon lo, eta oro ikusirik beraz, oro salatu ziozkan Erregeri. Eta orduan, egin zuten biek, zerbeit gisaz harat bererat jin behar zutela ondoko gauean oraino, lo egitera.

Erran bezala jin ziren; eta alegia eta lo egin⁴ zuten beraz ondoko gauean. Bainan, Erregina gaztea haren ohearen ain-

Noiz edo bein, bigurtu zan Erregea gudatik etxera; eta bereala esan eutsen Erregina gaztea eta aren ume biak bazala aspaldi il izan zirana.

Erostaka¹ ekin eutsan Errege gazteak. Eta, bere atseka-bea aztu gura baileuan, basorik baso abiau zan, lagun bategaz, eizan² beti, gauez eta egunez.

Iluntze baten, galdu egin ziran baso itzal andian, eta urrunean argi bat oarturik, argi atarantz joan ziran. Eta olan, Miren Balendineren jauregi aurrean aurkitu ziran.

Gau atarako aterpea eskatu eben, beraz, eta, baietz, emon egin eutsen Erregineak.

Andra gazteak beingo-beingoan ezagutu eban bere senar Erregea, baiña arek ez bere emazte Erreginea.

Apalduten ederto emon eutsen bieri, eta gero, beraz, lo egiten joan ziran.

Eiota egozan biak eta laster loak artu eben.

Orduan, Erregineak, bere ume biak beragaz arturik, Erregearen oe aurrera eroan zituzan, eta isil-isilik, aopean esan eutsen a jauna euren aita bera zala, eta polito-polito mosu emoteko, beraz. Eta, polito-polito, batak bestearen urrengo, mosu emon eutsen, eta itsutu³ egin ziran irurak.

Erregeak ez eban ezer oartu, lo egoan-eta edertozko.

Baiña, aren laguna ez egoan lo, eta beraz gustia ikusirik, gustia salatu eutsan Erregeari. Eta orduan, biak egin eben, urrengo gauean bere zelan edo alan bertaraxe etorri bear ebela lo egiten.

Esandakoanez, urrengo gauean etorri egin ziran eta loburu⁴ egin eben beraz. Baiña, Erregina gaztea aren oe

¹ [Auheneka (L), Erostaka (B): lamentándose.]

² [Ihizan (L), Eizan (B): de caza.]

³ [Itzali (L), Itsutu (B): desaparecer.]

⁴ [Alegia eta lo egin (L), Loburu egin (B): fingirse dormido.]

tzinean haurteri musuaren emanarazten ari zelarik oraino, Erregek hartu zion besoa Maria Balentinari, eta zorrozki galdegin zion, zer ari zen hola, eta nor zen hola artzeko?...

Harritu zen Erregina gaixoa; bainan gero, bere baitharatu zenean, oro aithortu ziozkan Errege-Jaunari. Loriatu zen Errege-Jauna, musu eta musu bere haurteri, musu eta musu aspaldi hartan hila zaukan bere andre maiteari.

Manatu zioten berarekin itzul zitezen etxerat, eta berehala oraino; bardin ama ere hila zela, zuela zonbeit hilabete; atsegin handienen erdian biziko zirela, lehengo atsegabe guziak ahantzirik.

Jesus Jaunak aipatu mehatxuaz¹ deusik salatu gabe bizkitartean, ez zuen Erreginak oihan handi hartarik urundu nahi. Erhiak eror beldur zen alabainan, jauregitik atheratzen balinbazen... Bainan, azkenean, Erregeren othoitzetarat erori zen; eta, jauregitik atheratzean berean, —odolik batere gabe, hatik— *erhiak erori zitzaizkon!*...

* * *

Etxerat zoatzilarik, Maria Balentinaren sort-herrian, jende multzo bat bildua ikusi zuten. Eta gero, galdeginik zer zen bada, ihardetsi zioten: gizon bat zela, *elhorri bat eskuan sarturik, elhorri hura ezin atheratuz ari zena.*

Badoakote Maria Balentina, erhirik ez zuela gehiago osoki ahantzirik, eta orori erraiten diotela:

aurrean umeeri mosu emon erazoten ziarduan bitartean, Erregeak besotik oratu eutsan Miren Balendineri, eta garrazto itaundu eutsan zetan ziarduan eta nor zan olakorik egiteko?...

Ikaratu zan Erregina gaixoa; baiña gero, bere senera etorririk, gustia autortu eutsan Errege Jaunari. Poztu zan Errege Jauna sekulako, eta mosu eta mosu egiten eutsen bere umeeri, mosu eta mosu aspaldi atan iltzat eukan bere emazte maiteari.

Beragaz etxera bigurtuteko, eta beingoan atan bere, agindu eutsen; Erregina ama bere illabete batzuk atzerago il izan zan ezkerro, atsegin andienen erdian bizi izango zirala, lengo atsekabe gustiakaz azturik.

Josu Jaunak aitaturiko zemaiaz¹ ezer azaldu barik, orraitio, ez eban Erregineak baso andi areanik alde egin gura. Atzamarrak jausi ekiozan bildur zan, alabaiña, jauregitik urten baldin baegian... Baiña, azkenean, Erregearen eskaria-kaz amore emon eban: eta jauregitik urteitean bertan —odolik bapere barik, orraitio— *jausi egin jakazan atzamarrak!*...

* * *

Etixerantz joazala, Miren Balendineren jaioterrian, lagun pillo bat batuta ikusi eben. Eta gero, zer ete zan itaundurik, gizon bat egoala *arantza bat eskuan sartuta* erantzun eutsen, *eta a arantzea atera eziñik ziarduala*.

Bajoake Miren Balendine, geiago atzamarrak ez ebanik gustiz aztuta, eta badiñotse gustiori:

¹ [Mehatxu (L), Zemai (B): amenza.]

«Utz nezazue! Nik atherako diot...

—Ez duzu eginen, nehork ezin egina da eta!

—Halarikan ere...»

Hurbildu zen, eskuak hedatu zituen gizonaren gana, hura hunkitu, eta —zinezko mixterioa!— bere erhiak berriz sortu zitzaizkon, eta sortu sekulakotz!...

Xitamiru, hantxet, elhorria athera zion gizonari, eta orduan ohartu zen, *gizon hura bere aita zuela!*...

* * *

Aitari barkaturik, aita hura eta oro joan ziren beraz Erregeren Jauregirat, eta hantxet, zorion bethean bizi izan ziren, Jainkoak daki zenbat luzaz!

—Itzi egidazue niri! Neuk aterako dausat...
—Ez dozu egingo, iñok ezin dagikeana da-ta!
—Alan bere...

Urreratu zan, luzetu zituzan eskuak gizonagana, ikutu eutsan eta —benetako misterioa!— bere atzamarrak barrero sortu jakozan, eta sortu bere betiko!...

Txistua baiño arinago, berpertan atera eutsan arantzea gizonari, eta orduxean oartu zan *a gizona aita ebala!*...

* * *

Aitari parkaturik, aita eta gustiak joan ziran beraz Erregearen Jauregira, eta zorionez beterik bizi izan ziran antxe Jaungoikuak daki noiz arte luzaroan!

Euzkadi, 1933, Irailak 5, 13, 23.

20. KUIAK

Jesus Jauna eta Jon Doni Petri bazabiltzan beraz Eskual-Herrian, aldi hartan oraino.

Hor nonbeit, Lapurdin, batzen dute emazteki bat, kuia¹ bat buruan zoana, bertze bat eskuan.

Jon Doni Petrik erraiten dio Jesusi:

«Kuia hoik ebatsiak ditu, Jauna! Lephoa utz nezake...

—Ago ixilik, Piarres, eta arnegurik ez hola egin: *ur* baizik ez duk kuia... Ez hakiena hoi, gaizoa?»

Horra zertako haizu² omen den, geroztik, bertzeen kuia-*ren hartzea* landetan! Ur baizik ez da!

20. TUNTUXAK

Josu Jauna eta Kepa Deuna baebiltzan beraz Euskal Errian, aldi atan ara bere.

Or nonbait zear, Laburdin, aurkituten dabe emakume bat, tuntuiz¹ bategaz buruan eta beste bat eskuan joan joiana.

Badiñotso Kepa Deunak Josuri:

—Orrek tuntuxok osturikoak dituz, Jauna! Kokota egin-go neuke...

—Ago ixilik, Kepa, eta ez arnegurik olan egin; *ur utsa* baiño ez dok tuntuxa... Ez ete enkian ori, gaisoa?

Aor zergaitik ei dan bidezko², arrezkero, iñoren tuntuizak soloetan *artutea!* Ur utsa baiño ez da!

Euzkadi, 1933, Irailak 23.

¹ [Kui (L), Tuntuiz (B): calabaza. (Egia esan: 'Tun tui' (B), flotador, boya; (G) botijo. Baleiteke 'kalabazeak' inoiz 'Tuntuiz' izenik izan ez izatea; baiña, Bizkaian inoiz erabili izan dira kalabazak tuntuiztat. Gaur dan egunean Ondarrabin (AN), 'flotador' esateko 'kui' esan daroe. Bizkaian ez dau gaur kalabazeak euzkerazko izenik. Burubakokeria ete da, aldi baten 'tuntuiz' ebala uste izatea?)]

² [Haizu izan (L), Bidezko izan (B): ser lícito.]

21. ZAZPIGARREN MANAMENDUA

Behin batez, Jesus Jauna eta Jon Doni Petri harat hunat bazabiltzalarik Eskual-Herrian, Jon Doni Petri hasarre gorrian eman zen, ikusirik, ezker, eskuin, oro ohointzan ari zirela, nausi ala sehi, saltzaile ala erosle, langile eta deusere ez egile.

«Jauna, zafraldi bat ona eman behar diozute ohoin tzar horieri...

—Ago ixilik, Piarres! Ohoinak balire bezala horiek oro!...

—Ez direla ohoinak? Zer dire bada?

—Ohoinak izaiteko, behar liketek zazpigarren manamendu bat... Eta aspaldixkoan, nere manamenduetarik zazpigarrena khendua ditek gizonek. Horra zertako ez den gehiago ez ohointzarik, ez eta ere ohoinik.

—Bainan, zuk ez baituzu ordean manamendu hoi khendu...

—Hori duk ba, Piarres!... Eta, gizonek nahi ala ez nahi, horra zertako bethi badiren —zorigaitzez— gaztigatu beharko diren ohoinak.»

21. ZAZPIGARREN AGINDUA

Bein baten, Josu Jauna eta Kepa Deuna Euskal Errian batera eta bestera ebiltzalarik, asarre gorritan jarri zan Kepa Deuna, zein ezkerretara zein eskoatara begiratuta, gustiak, ugazaba naiz otseñiek, saltzale naiz eroslek, bear egin naiz ainbakok, lapurretan ziarduela ikusirik.

—Jauna; astinaldi on bat emon bear dautsezu lapur donga orreeri...

—Ago ixilik, Kepa! Lapurrak dozak, ostera, orreek gus-tiok, ala?...

—Lapurrak izan ez orreek? Zer dira, bada?

—Lapurrak izateko, zazpigarren agindu bat bear litzate-kek. Eta aspalditxoon, nire aginduetarik zazpigarrena ken-duta jaukoek gizonak. Aor zergaitik ez doan geiago lapurre-tarik ez eta lapurrik bere.

—Baiña, zuk zeuk ez dozu agindu ori kendu bada-ta...

—Ori dok bada, Kepa!... Eta, gizonak gura zein gura ez, ara or zergaitik dozan beti —zoritxarrez— zigortau egin bear izango dozan lapurrak.

Euzkadi, 1933, Irailak 30.

22. BARDOTZE

Jesus Jauna eta Jon Doni Petri, lur gainean zabiltzalarik, unhatuak heldu izan ziren Eskual-Herriko mugarat, eta bide bazterrean jarri ziren biak.

Hatsa pitta bat hartu eta, bazterrerri behako bat emanik, Jon Doni Petrik erran zion Jesusi:

«Zer eginen dugu, Jauna, toki huntarik?

—Ba, to, ez Eskualdun eta ez kaskoin¹..., eginen diagu *Bardotze*².»

Eta, xutitu eta, egin zuten *Bardotze*.

22. BARDOTZE

Josu Jauna eta Kepa Deuna, lurrean ebiltzalarik, nekatuta eldu ziran Euskal Erriko mugara, eta bide bazterrean jezarri ziran biak.

Arnasa pizka bat artu eta ingurumariari begiraldi bat jaurtiaz, badiñotso Kepa Deunak Josuri:

—Zer egingo dogu, Jauna, toki onetarik?

—Ba! Aiko; ez Euskaldun eta ez Kazkoin¹ ...egingo joagu *Bardotze*².

Eta, zutunduta, *Badortze* egin eben.

Euzkadi, 1933, Irailak 21.

¹ [Kazkoin (L): Gascón.]

² [Bardotze: 1. Bardos, pueblo de Lapurdi; 2. revuelto de 'tripakis'.]

23. MIARRITZEKO AINTZIRA

Aldi batez, ilhuntxean, Jesus Jaunak eta Jon Doni Petrik, han nonbeit, Negrezeko aldean, Miarritzen, kask, kask, kask jo zuten etxe txar batetako atheari. Eta, etxe hartako jendeeri galdegin zioten gau hartako atherbea.

Baietz segurki, sarrarazi zituzten.

Jesus Jaunak galdatu zioten gero, jaterat izan zezaketenez, ahamen¹ bat bederen?

Eta jende gaixo hek aithortu zioten, deusik ez zutela emaiteko.

«Ikherrazue² mankan,

—Ba, jauna, ba. Bainan, zorigaitzez, badakigu gure mankaren³ berri. Huna...»

Eta harritu ziren jende hek, gain-gaineraino ogiz betherik manka ikustearekin...

Belhauniko eman ziren Jesus Jaunaren aintzinean. Eta Jesus Jaunak galdegin zioten orduan, hean ohe bat izan zezaketenez, arras unhatuak⁴ zirela biak?

«Ohea ba, gogo onez... Bainan, mihiserik ez ginuke emaiteko...

23. BIARRITZEKO ZINGIREA

Aldiko baten, illuntzean, Josu Jaunak eta Kepa Deunak, an nonbait, Negreze aldean, Biarritzen, tas, tas, tas, jo eben etxe txiro bateko atean. Eta gau atarako aterpea eskatu eutsen etxe atako laguneri.

Baietz aurki, eta sartuteko agindu eutsen.

Josu Jaunak, gero, jatekorik izango eukeenentz itaundu eutsen, aomen¹ bat besterik ezean?

Eta lagun gaiso aek, ez eukela ezer emoteko autortu eutsen.

—Arakatu² egizue azpiran.

—Bai, jauna, bai. Baiña, zoritxarrez, badakigu gure azpirearen³ barri. Ara...

Eta arrituta gelditu ziran lagun aek azpirea gan-ganeragino ogiz beterik ikustean...

Belauniko jarri ziran Josu Jaunaren aurrean. Eta Josu Jaunak, orduan, ea oe bat izango eukeenentz itaundu eutsen, neke-neke eginda⁴ egozala biak eta?...

—Oea bai, pozik bere... Baiña, izararik ez geunke emoteko izango...

¹ [Ahamen (L), Aomen (B), Aokada (B): bocado.]

² [Ikhertu (L), Arakatu (B): registrar.]

³ [Manka (L), Azpira (B): artesa.]

⁴ [Unhatu (L), Neke egin (B): fatigarse.]

—Ikusazue berriz oraino.

—Ba badakigu, ba, Jauna, gure mihisen berri.

—Ikusazue halere...»

Eta, sekulako¹ mihisiak atzemanik batto behar ez zen tokian, harrituak hantxet zauden jende gaixoak.

Jesus Jaunak erran zioten orduan:

«Bazter hautako etxe guzietan galdegina ginduen gau huntako atherbea... Nehork ez dauku eman zuek baizik. Gaur, entzunen duzue asko harramantza; ez izi batere. Hemen gitazke gu, zuen gerizatzeko.»

Eta ohera joan ziren oro...

* * *

Gau hartan, sekulako ihurzuriak izan ziren eta orzantz-karraskak: uria pesiaka², haizea zirimolaka³...

Biharamunean, urak eramanez, suntsituak⁴ ziren toki hetako etxeak oro, suntsituak ere etxe hetako jende guziak.

Jesus Jauna eta Jon Doni Petri hartu zituen etxe txar hura zen bakarrik xutik han gelditu...

Eta sekulan joaiten bazaizte harat, Negrezeko alderdirat, han ikusiren duzue oraino, gau izigarri hartako uriek egin ur-geldi edo aintzira⁵ handiaren bazterrean.

—Begiratu egizue barriren barri.

—Ondo bere badakigu, bai, gure izaraen barri.

—Ikusi egizue, alan bere...

Eta, naidan¹ izara aurkiturik, batxo bat bere izan bear ez eban tokian, ikaratuta egozan antxe lagun gaisoak.

Josu Jaunak badirautse orduan:

—Inguru onetako etxe gustietan eskatu izan dogu gau onetarako aterpea. Inok ez dausku emon, zuek baiño. Gaur, abarrotsik asko entzungo dozue; ez ikaratu bere egin. Emen izango gara gu, zuen alde egiteko.

Eta oera joan ziran gustiak...

* * *

Gau atan, erakusmeneko justuri eta trumoe-ots asko izan zan; ura truxuaka²; aizea zurrumilloka³...

Biaramonean, leku aetako etxe gustiak itsututa⁴ egozan, urak eroanda; etxe aetako lagun gustiak itsututa aek bere.

Josu Jauna eta Kepa Deuna artu izaniko a etxe txiroa baiño ez zan an zutunik gelditu...

Eta iñoiz joango bazinateze ara, Negrezeko alderantz, an ikusiko dozue oindinokarren, gau ikaragarri atako euriak egiñiko ur geldi edo zingira⁵ andiaren bazterrean.

Euzkadi, 1933, Irailak 30.

¹ [Sekulako (L), Naidan (B): muchos-as.]

² [Hura pesiaka (L), Ura truxuaka (B): lluvia a jarros.]

³ [Haizea zirimolaka (L), Aizea zurrumilloka (B): viento a remolinos.]

⁴ [Suntsitu (L), Itsutu (B): desaparecer.]

⁵ [Aintzira (L), Zingira (B): lago.]

IXTORIO-MIXTERIO



IPUIN-MIPUIÑAK

1. MEZA MIXTERIOZKOA

Goizaldera, gau batez, goraxago den oihanetik ohartu ziren artzain batzu, argi bat bazela Salbatoreko elizan.

Ondoko gauean, tenore berean, argi berari ohartu zitzaizkon berriz artzainak, eta hala hala gero aste oso batez. Laztura¹ batek hartu zituen eta jadanik aiphu zuten bazkatokiz² behar zirela aldaratu³.

Bainan, toki gizenaren⁴ uzteak ere dolu egiten eta, elgarri erranez hasi ziren, ikusi behar zutela lehenik argi hura zer othe ziteken.

Etxolan bethi begiratzen zuten ur benedikatuarekin ongi zeinaturik, arrosarioak bainan ere makila azkar bat eskuan, abiatu ziren beraz guziak batean, goizalde batez.

Argia laster ikusi zuten bethi bezala, eta heien zakur artzanorrek⁵ gibelerat egin zuten, erausi eta erausi.

Ez gutiago izituak, artzainak hurbildu ziren bizkitartean, eskuak elgarri emanik, orok bat egiteko.

Ikaran beraz, nehor ez deusik atzeman gabe bidean, heltzen dira elizara, eta bethi bezala hetsia kausitzen dute.

1. MISTERIODUN MEZEA

Gau baten, goizalderantz, Salbatoreko ermitan argi bat zala oartu eben artzain batzuk, goratxoago dagon basotik.

Urrengo gauean, tertzio bereatan, bera argia oartu eben artzaiñak barrero bere, eta alantxe gero astebete osoan. Larrikara¹ batek artu zituzan, eta aitatu bere egin eben larra tokiez² aldatu³ egin bear ebela.

Baiña, leku koipatsua⁴ izteak bere min emoten eta, alkarri esaten asi ziran ikusi egin bear leukeela lenengo a argia zer izan zeitekean.

Txabolan beti gorderik euken ur bedeinkatuaz aitearen ondo eginda, errosarioakaz eskuan baiña bai makilla sendo banagaz bere, goizalde baten, beraz, gustiak batera asi ziran bidean.

Argia laster ikusi eben, beti legez, eta ardi txakurrak atzerantz egin jakeezan, ausi eta ausi.

Artzaiñak, ez ikara ezago, bata besteagana urreratu ziran orraitino, eskuak alkarri emonez gustiak bapat egiteko.

Ikara baten, beraz, bidean inor ez ezer aurkitu ez eta, elduten dira ermitara, eta beti legez itxita topaten dabe.

¹ [Laztura (L), Larrikara (B): tener miedo.]

² [Bazkatoki (L), Larra toki (B): pastizal.]

³ [Aldaratu (L), Aldatu (B): cambiar.]

⁴ [Toki gizona (L), Leku koipatsua, Leku gizona (B): sitio graso.]

⁵ [Artzanor (L): mastín.]

Polliki polliki, hetarik bat menturatzen da gako xilotik behatzera, eta mututurik gelditzen da. Haren lagunek behatzen dute harek bezala, eta harrituak daude hek ere. Aldareko argiak phizturik, mezaren emaiteko soinekoak soinean, aphez bat bazen han xutik, aldarearen oinetan.

Artzainek harrabots zerbait eginik athean, gibelerat behatu zuen aphezak, eta gero, berehala ithoka bezala, hasi zuen bere meza: «*Introibo ad altare Dei*». Eta artzainetarik batek, jakin gabe ere kasik zer erraiten zuen, kanpotik ihardetsi zion, ahalik eta hobekiena.

Eta gero, artzainek «*Et cum spiritu tuo*» edo «*Amen*» ihardesten ziotela bethi, aphezak segitu eta akabatu zuen bere meza, eta ez artzainek nahi baino lasterrago.

Noizbait meza akabatu zenean, apheza itzuli zen atheari buruz, eta begitarte-begiak lorietan, oiuhu batean erran zuen: «O! milesker, arima onak, nor ere baitzaizte! Hoinbertze urthe hautan beha nindagon, meza hau erran beharrez zerruan sartzeko! Nehor ez zen hemen sekulan, niri ihardesteko! Milesker berriz ere! Ez zaituztet zerutik ahantziko.» Eta hainbertzenarekin, suntsitu² zen apheza.

* * *

Sekulako bildotxak izan zituzten, urthe hartan, gure artzainek... Bainan, ez toki hetan beretan. Bazkaz aldaratu ziren biharamunean berean.

Polito-polito, aetariko bata azartuten da giltz zulotik begiratuten, eta mututurik geldituten da. Beste lagunak begiratuten dabe arek legez, eta arrituta dagoz aek bere. Altarako argiak bizturik, mezea emoteko soifnekoak aldean, abade bat egoan an zutunik, altare onean.

Artzaiñak zarataren bat atean egiñik, atzerantz begiratu eban abadeak, eta gero, beingoan, itoka legez asi eban bere mezea: *Introito ad altare Dei*. Eta artzaiñetariko batek, zer esaten eban bere ia ez ekiala, kanpotik erantzun eutsan alik ondoen.

Eta gero, artzaiñak *Et cum spiritu tuo* edo-ta *Amen* erantzuten eutsela beti, abadeak jarraitu eta amaitu egin eban bere mezea, ez orraitifño artzaiñak gura eukeen baizen laster.

Nozbait mezea amaitu zanean, aterantz biurtu zan abadea eta arpegi eta begiak pozaren-pozetan, deadar baten esan eban: "O! milla esker, arima onak, zareenak zareela! Iragoko ainbeste urtean nengoan begira, zeruan sartuteko meza au esan bear izanik! Eguno ez egoan iñor emen niri erasoteko¹! Milla esker barriro bere! Ez zaituet zerutik aaztuko". Eta geiago barik, itsutu² egin zan abadea.

* * *

Naidan bildots izan eben, urte atan, gure artzaiñak... Baiña ez leku aetan eurretan. Larraz biaramon bereatan aldatu izan ziran.

Euzkadi, 1933, Urriak 7.

¹ [Mezea eraso (B): ayudar a misa.]

² [Suntsitu, Itzali (L), Itsutu (B): desaparecer.]

2. SALBATOREKO GANDERAILUA

Orai aspaldi, duela zortzi bederatzi ehun urthe, Lohibarriaz eta Mikelaberroaz bertze etxerik ez omen zen Mendiben.

Lohibarreko muthila joan zen, egun batez, Galharbekopotxara, behi batzuen ondotik. Harat hunat zabilalarik, harpe batean ikusten du Basa-Andere bat, *orai Salbatoreko¹ elizan den ganderailua² garbiturik*, urrezko orraze batekin orraztatzen ari zela.

Iguzkiak bezala dirdirutzen³ ere zuelakotz, ganderailua galdatzen dio muthilak Basa-Andereari⁴. Basa-Andereak ezetz. Bainan, azkenean, othoizka eta othoizka luzaz arizan ondoan, ganderailu ederra eskuratzen⁵ du muthilak, eta badao.

Basa-Anderea laster ohartzen da muthilak Salbatorekottzat edeki diola ganderailua eta elizarat buruz doala. Oihu garrasiaka abiatzen zaio ondotik, eta hainbertzenarekin, *Basa-Jauna* agertzen da gain batean, jauzika heldu hura ere.

2. SALBATOREKO ARGI MUTILLA

Orain aspaldi, zortzi edo bederatzireun urte dirala, "Lohibarria" eta "Mikelaberroa"z beste etxerik ez ei zan Mendiben.

Lohibarriako morroia, egun baten, Galhaberko Potxara joan zan bei batzuren jarraian. Batera eta bestera ebillela, Basa Andera bat ikusten dau aitzulo baten, *orain Salbatoreko ermitan dagon argi mutilla*² *garbituta gero*, urrezko orrazi bategatzen orraztuten eragoiola.

Eguzkiak berak legez distira³ egiten ebalako argi mutillak, eskatu egiten dautso morroiak Basa Andereari, Basa Andereak ezetz. Baiña, azkenean, arrenga eta arrenga luzaro eragon ostean, eskuratuten⁵ dau morroiak argi mutil ederra, eta badoa.

Arik lasterrean, oartuten dau Basa Andereak morroiak Salbatorerako kendu dautsola argi mutilla eta ermitarantza doala. Deadar eta garraisika asten jako jarraian, eta onenbestez, *Basa Jauna* agertuten da gane baten, a bere ikotika datorkiola.

¹ [Salbatore (L), Salbagilla (B): Salvador (Gipuzkoan-eta "Asentsio" egunari bere "Salbatore" esaten deute).]

² [Ganderailu (L), Argi mutil (B): candelero (Salbatoreko ganderailu au, andia ei da, oifizekoa sei Kandela-uztaiduna, eta beste trikimailla bakan askoduna).]

³ [Dizdiratu (L), Distarra egin (B): brillar.]

⁴ [Basa-Andre (L): señora del bosque (gure Anbotoko damaren ordezkoa).]

⁵ [Eskuratu (L, B): lograr.]

Muthilak jadanik bere buruaz etsitua zuen, noiz eta ere leherturik¹ heltzen baita, Salbatorerat, eta oihuka hasten: «Jon Doni Salvatore, zuretzat nuen, othoi urrikal zakizkit!». Eta berehala, bere baitarik jo eta jo hasten da Salvatoreko zeinua. Basa-Anderea eta Basa-Jauna gelditu ziren kolpez orduan berean, eta Basa-Jaunak oihu egin zion muthilari: «Baliatzen zauk, segur, joare tzar hori jo eta jo eman baita!... Bainan, barurik lehenbiziko aldian atzemaiten hautalarik, go'mak hihauri!»

* * *

Handik zonbait egunen buruan, muthila berriz badoa mendira, bezperan ogi joiten arizanik. Bat batean, bihurgune batean, jalitzen zaio Basa-Jauna. Harritzen da muthikoa, eta bere buruari hazka emaiten, harenak egina duela oraikotan; eta bezperaz geroztik buruan kokatuak, erhien artean kausitzen ditu hiruzpalau ogi bihi. *Krak*, ahoan emaiten ditu, baruraren hausteko, eta... Basa Jauna itzali zen eta sekulan gehiago ez agertu. Bainan muthila sekula gehiago ez da *barurik* igan mendirat.

Lohibarreko muthilak, erran bezala egin zuen ganderailuaz. Salvatoreko elizarat ereman zuen, eta han ikus ditake egungo egunean oraino. Bainan ez da lehen bezain eder, segurki! Españolek eliza bi aldiz errerik, beltz beltza egin da eta beltz beltza egon. Mendibiarrek nahi izan zuten orduan herrirat ereman. Bainan, Haritz-Kurutxetako lephotik beherago ezin ereman ahal zuten egundaino. Bi behi pareekin,

Morroiak galdukotzat egiten eban bere burua, baiña noiz edo bein elduten da ler eginda¹, Salbatorera, eta asten da deadarka: "Ene Salbagilla Deuna, zuretzako neban, arren erruki zakidaz!" Eta beingoan, Salbatoreko kanpaia asten da berakotan jo eta jo. Basa Anderea eta Basa Jauna bat-batean gelditu ziran orduxe-orduxean, eta Basa Jaunak deadar egin eutsan morroiari: "Kanpai donga ori jo eta jo asi izateak balio doa, aurki...! Baiña urren baraurik aurkitu agidan lenengokotan, eure burua jagon egikek!"

* * *

Andik egun batzugarrenean, atzegunean (bisperan) garia joten eragon izanda, badoa morroia barriri mendira. Bat-batean, bide biorrune baten urtetan dautso Basa Jaunak. Ikaratuten da mutilla, eta asten da bere buruari azka, oraingotan bereak egin dauala-ta; eta atzamar tartean ara non aurkituten dituzan iru edo lau galgaraun, atzegunetik ara buruan gelditurikoak. "Krauk" iminten dituz aoran baraua austeko, eta... Basa Jauna itsutu egin zan eta eguno geiago agertu ez. Baiña morroia eguno ez da geiago mendira *baraurik* igon.

Lohibariako morroiak, esandakoa legez egin eban argi mutillaz Salbatoreko ermitara eroan eban, eta an ikusi dai-teke gaurko egunean oindiño. Baiña, ez dago leen baizen eder, aurki! Espaiñiarrak ermitea birritan erre izanik, baltz-baltz egin da, eta baltz-baltz dago. Mendibetarrak, orduan, errira eroan gura izan eben. Baiña, Haritz Kurutxetako bizkar ganetik berantzago ezin eroan izan eben eguno. Ekin

¹ [Lehertu (L), Ler egin (B): reventarse de cansancio.]

lauzkatuz¹, bermatu ziren, eta behin baino gehiagotan; bethi debaldetan..., eta geroztik han dago, bethi Salbatoreko elizan, eta han egonen ere da bethi.

eutsen bei buztarri bigaz, burdiari iminita, eta bein baiño
geiagotan; beti alperrik... eta arrezkero an dago, beti Salba-
toreko ermitan, eta egon bere an egongo da beti.

Euzkadi, 1933, Urriak 7.

¹ Lauzkatu (L): enganchar cuatro bestias a un carro.]

3. XAINDIA

Arrats batez, orai duela aspaldi, Bithiiña *Inhurrian* ari ziren artho xuritzen.

Bat batean, ohartzen da muthila bere haitzurrotxa¹ landan ahantzi duela; eta tresna haren beharretan ere delakotz arthoen errekatzeko, oihu egiten du «hamar sos² eman lezozkela, gogotik, haitzurrotxaren ekartzaileari».

Etxeko sehiak³, —neskatxa gazte batek— diruaren gatik, erraiten dio berehala: «joanen dela hura bilha», eta badaoa.

Neskatxa kanporat orduko, bere hamar sosekoaren doluz⁴, urrikitzen zaio muthilari, eta bere khexuan, sakreka hasirik, erraiten du: «*Debruak ereman baleza bederen!*»

Hainbertzenarekin, oihu-garrasia bat entzuten dute urrunera, eta handik ixtanteko, Inhurriako ximineiaren ondoan, —ez gorago— airean hartua eta eremana, iragaiten da neskatxa dohakabea. Eta han iragaitean, ezkaratzera⁶ arthikitzen du haitzurrotxa, erranez: «Horra zuen haitzurrotxa! Nere diru gosearen gatik, ni, orai, izpiritu gaixtoak hartua naiz eta airean eremana...»

3. SANTATXOA

Arrats baten, orain dala aspaldi, Bethirineko *Inhurrian* artoak zurituten eragoioen.

Bat-batean, oartuten da morroia bere atxurkulea¹ soloan aztu izan dauala; eta a tresnea, bear bere, artoak banatuteko bear dauanez, deadar egiten dau "amar lauко² emongo leuzkeozala gogoz, atxurkulearen ekartzailleari".

Etxeko otseñak³ —neskatilla gazte batek— diruarren, "bera joango dala billa", esaten dautso bereala, eta badoa.

Neskatillea kanpora doaneko, damutu egiten jako morroiari, bere amar lauкоen tamalez⁴, eta bere asarrean aiñen-urtika asirik, badiño: *Deabruak eroan balegi, edolabere*⁵!.

Geiago barik, deadar garraisi bat entzuten dabe urrunean, eta arik une batean, Inhurriako tximiniaren bornutik —goragorik ez— igaroten da neskatilla zorigaiztokoa, aidean artuta daroela. Eta andik igarotean atxurkulea jaurtiten dau atadira⁶, esanez: "Aor zuen atxurkulea! Neure diruzalekeriarren, orain, ni, espiritu gaiztoak artu nau eta aidean naroa..."

¹ [Haitzurrotxa (L), Atxurkula (B): azada de dos púas.]

² [Sos (L), Lauко (B): moneda de cinco céntimos.]

³ [Sehi (L), Otsein (B): criado-a.]

⁴ [Doluz (L), Tamalez (B): con pena.]

⁵ [Bederen (L), Edolabere (B): siquiera, al menos.]

⁶ [Eskaratz (L), Atadi (B): portalada, vestíbulo.]

Inhurriko jende guziak, eta heiekin auzoak oro eman ziren, oihuka, haur gaixoaren segi. Hatsantuak¹, joan ziren hola Larzabaleraino, eta han gelditu, leher eginak oro.

Bainan Larzabalen, Larzabaldarrak eman ziren, beren aldian, haur gaztea segitu beharrez.

Eta haurra bazoan bethi aintzina², bethi airean eremana, eta hola heldu izan zen Mendibetik haratago, Salbatoreko parrera. Eliza sainduari oharturik, oihuz eman zen: «Jon Doni Salbatore, urrikal zakizkit, othoi!»

Eta hitz horiek erran orduko, lurrera jautsi zen eztiki, izpiritu gaixtotik libratua...

Inhurriako lagun gustiak, eta aekaz auzoko gustiak, deardarka, ume gaisoaren jarraian asi ziran. Abailduta eta arnasestuka¹, Larzabaleragiño joan ziran alan, eta an ler eginda gustiak, gelditu egin ziran.

Baiña, Larzabalen, Larzabaldarrak asi ziran, eurak orduan, ume gazteari jarraitu bearrez.

Eta umea bajoian beti atxina², beti aidean eroanda, eta alan Mendibe baiño arantzago eldu izan zan, Salbatoreko parera. Ermita santua oartu ebanean, asi zan deadarrez: "Ene Salbagilla Deuna, erruki zakidaz arren!"

Eta berbaok esan zituzaneko lurrera jatzi zan gozaro-gozaro, espiritu gaiztoaganik jareginda...

Euzkadi, 1933, Urriak 14.

¹ [Hatsantu (L), Abaildu eta arnasestuka (B): fatigado y jadeante.]

² [Aitzina joan (L), Atxina joan (B): marchar hacia adelante.]

4. TARTAROA¹

Ama batek bazituen hiru seme. Seme horiek erraiten diote egun batez: «Ama, egitzu, othoi, opilak, fortuna egitera joan gaitezen.» Ama emaiten diozkate opilak, erraiten diotelarik: «Ez muthil joan sekulan *gizon bizar-gorrieta-rat²!*» Eta badoazi hiru semeak.

Joan, joan, joan... Hor, heldu zaiote gizon bizar-gorri bat; eta galdegiten dio lehenari: eian nahi duen haren ganat muthil ethorri? Ezetz erraiten dio. Galde bera egiten dio bigarrenari, eta harek ere ezetz.

Gauza bera galdegiten dio hirugarrenari; eta hirugarrenak bere baithan egiten du *ikusi behar duela*, zer helduko balinbazaio ere; eta baietz erraiten dio.

* * *

4. TARTALOA¹

Ama batek ba ei zituan iru seme. Semeok egun baten, badiñotse: "Ama; arren, egizuz opillak, zoria egiten joan gaitazan". Emoten dautsez amak opillak, esaten dautselarik: *Gizon bizar-gorrienera*² ez eguno morroi joan!". Eta badoaz iru semeak.

Joan, joan, joan... Aor; elduten jake gizon bizar-gorri bat; eta itaunduten dautse lenengoari: ea berenera morroi etorri gura dauanentz? Ezetz esaten dautso. Itaune bera egiten dautso bigarrenari, eta arek bere ezetz.

Bera gauzea itaunduten dautso irugarrenari; eta irugarrenak, egiten dau bere kolkorako *ikusi egin bear dauala*, datorkiona datorkiola bere; eta baietz esaten dautso.

* * *

¹ [Tartaro (L), Tartalo (B): Erriaren adimenez Izadian sorturiko erraldoi antze-koak. Ez ziran gizonak; bai, ostera, gizonaren arerioak. Baiña gizonak, arteziz eta amarru bidez, azkenean beti garaile urteten eban aekanik. Izadiko indarrakanik urteten dauan era beratan, beti ez baiña... "Tartaroak", "Basa Jaunak" eta abar. Izadiko indar eskutukoak gizon itxureaz baiño ez dira (Seres fabulosos representativos y personificación de las fuerzas ocultas de la naturaleza, a las que el hombre domina con su maña y astucia).]

² [Gizon bizar-gorri (c): hombre barbirrubio (Gizon bizar gorri aldara bidetik horri (L), Bizar gorri, bide orri (B): hombre de barba rubia no te fies de él, sepárate de su camino; barbirrubio, corro a ese (que se vaya). (Dicc. Azkue).]

Badoazi beraz, eta nausiak erraiten dio: «Gu bietarik zerbait erraitekorik izanen duenak sekulan, emanen dik bertzeari, bizkarreko larrutik, zapata pare baten gaia.»

Eta, hor, berehala manatzen dio nausiak: dohala oihanera, eta orga bat egur egin dezon, xuxenen xuxenatarik.

Badoa muthila; eta sagardi bat baitzuten gaztea eta ederra, egiten du orga bat egur, sagar-ondo xuxenen xuxenenatarik. Orga egurra ekarririk etxera, erraiten dio nausiarri: «Horra, nausia. baduzu deus erraitekorik? —«Ez, ez, fritsik. Arras ongi duk hola.»

Berriz egortzen du oihanera, erranez ekar dezan bertze orga bat egur, makurren makurrenetik.

Badoa muthila mahastira. Mahastia pikatzen du, aihenik makurrenatarik bethetzen ditu bere orgak, eta badoa etxera: «Horra, nausia. Baduzu deus erraitekorik?»

—«Ez, ez! Arras ongi duk hola.»

Salbu zuek eta, *xerri-zain* egortzen du oraikoan oihanera, *Tartaro bat* bazela han, eta Tartaro harek muthila agian janen diolakoan.

Muthilak, oihanerakoan, berekin hartzen ditu sakelan¹ *xori bizi* bat, *gasna* bat eta *hari-hailkatu* bat². Eta badoa.

Eta Tartaroa ethorri zitzaion, eta erran zion:

«Hazkarra haiza, to, hi?»

Gizonak erraiten dio: «Ba, hazkarra³ nauk... Nahi duk harria zoinek urrunago bota?»

Tartaroak baietz, eta... botatzen du harri bat, hainitz, hainitz urrun.

Badoaz beraz, eta ugazabak badiñotso: "Gu biotarik iñoiz esatekorik izan jagianak (utseginen bategaz iñoiz esapiderik emon jagianak), bizkarreko narrutik zapata pare baten geia emongo jeutsak besteari".

Eta aor, bereala, aginduten dautso ugazabak: doala basora eta burdi bete egur egin dagiola, zuzenen zuzenenetarik.

Badoa morroia; eta sagasti bat eben, bai, gaztea eta ederra, eta sagarrondo zuzenen zuzenenetarik egiten dau burdi bete egur. Burdikada egurra etxera ekarrita, badiñotso ugazabari: "Aor ugazaba. Badozu ezer esatekorik, ala?" —Ez, ez, txitik bere. Gustiz ondo jagok olan".

Bialduten dau barriro basora, esanez, ekarri dagiala beste burdibete egur, okerren okerrenetarik.

Badoa morroia maastira. Ebagiten dau maastia, aienik okerrenetarik beteten dau bere burdia, eta badoa etxera: "Aor ugazaba. Badozu ezer esatekorik, ala?"

—"Ez, ez! Gustiz ondo jagok olan.

Eta zeuek parkatu, *txarri-jagola* bialduten dau oraingotan basora, *Tartalo bat* bazala an eta, Tartalo arek morroia jango al ebalakoan.

Morroiak, basorakoan, artuten dituz sakelean¹ *txori bizi* bat, *gaztae* bat eta *aril bat ari*². Eta badoa.

Eta Tartaloa etorri jakon eta esan eutsan:

—Txo; azkarra³ (sendoa) al az?

—Bai, azkarra nok... —esaten dautso gizonak—. Arria nok urrunago bota gura dok egin, ala?

Tartalook baietz, eta... botaten dau arri bat, urrun, urrun, urrun.

¹ [Sakela (L), Sakel (B): bolsillo.]

² [Hari hailkatu (L), Aril bat ari (B): un ovillo de hilo.]

³ [Azkar (an, B, G, Bn), Hazkar (L): vigoroso.]

Gizonak orduan, harria balu bezala, botatzen du... xoria, eta hura ere badoa harria baino hainitz urrunago. Eta, berehala gero erraiten dio Tartaroari:

«Nahi duk orai, harria bota eta zoinek gehiago puska?»

Tartaroak baietz, eta... botatzen du harria, eta harria egiten da bizpahiru puska.

Gizonak, kurturik, alegia harri bat hartzen, hartzen du bere gasna; botatzen du eta gasna egiten da mila puska.. Eta, berehala gero, muthilak erraiten dio Tartaroari:

«Nahi duk arbola hauk zoinek lasterrago errotik athera?» Tartaroak baietz, eta... hasten da bat errotik athera, bertzea athera, *briu, brau...*

Gizona, orduan berean, ari zen bere hari-hailkatuarekin hango arbola guzien inguratzen, eta Tartaroak erraiten dio: «Zer ari haiz hola?»

Eta gizonak oihuka: «Zer uste duk ala ni, hi bezala, al-dian bat ari behar naizela? Denak betan behar ditiat athera...»

Tartaroa harrিতua!... Marrumaz hasten da: «Aski, aski! Nausi haiz! Nausi haiz!...»

Arte hartan guzian, heien bien xerriak elgarrekin nahasi ziren; hasten dire berexi beharrez. Ezin ezagutuz ari baitziren, gizon gazteak erraiten dio Tartaroari: «Nereak izan behar dituk hauk oro, ezen ezagun-errexak dituk huntarik: bi beharri eta buztan bat baditie nere guziek, eta holakoak nereak izanen dituk oro.» Eta orduan, xerri guziak hartzen ditu berekin.

Gizonak orduan, arria baileuan botaten dau... txoria, eta a bere badoa arria baiño asko urrunago. Eta beingoan, badiñotso gero Tartaloari:

—Orain, arria bota eta nok zati geiago egin gura dok, ala?

Tartaloak baietz, eta... botaten dau arria, eta arria zati bi edo iru egiten da.

Gizonak, makurturik, arri bat artuten ebalakoan legez, artuten dau bere gaztaia; botaten dau eta gaztaia milla zati egiten da. Eta, beingoan gero, badiñotso morroiak Tartaloari:

—"Arbola oneek nok arinago sustraiz atera gura dok egin ala?" Tartaloak baietz, eta asten da bat sustraiz atera, bestea atera, *bristi, brasta...*

Gizonak, ordu berean, ango arbola guziak bere arileko¹ ariaz inguratuten eragoion, eta Tartaloak badiñotso: "Zetan diarduk olan?"

Eta gizonak deadarrez: "Zer uste dok ik, baiña, ik legez, lantzean bana jardun bear joadala nik, ostera? Danak aldabatera² bear joadaz atera..."

Tartaloa ikaratuta!... Marroaka asten da: "Naikoa, naikoa! Eu nagosi! Eu nagosi!"

Arte gusti atan, euren txarri bitzuak alkarregaz nastau ziran: asten dira banandu gurarik. Ezagutu ezinik eragoioenez, badiñotso gizon gazteak Tartaloari: "Oneek gustiok neureak dozak, aurki, ezagun errezak dozak-eta, onetan: niriak, belarri bi eta buztan bat jaukezak gustiak, eta olakok neureak izango dozak danak". Eta orduan, txarri gustiak artuten dituz beretzat.

¹ [Aril (B): ovillo.]

² [Aldabatera (B): a un mismo tiempo.]

Tartaroa badoa, hura, bere xerriak oihan zoko zonbeite-tan dituenek ikusteko.

Arte hartan, gizon gazteak xerrietarik bat hiltzen du, bi-deko bere jatekoarentzat, eta haren tripak golkoan emanik, lasterrez eskapatzen da, Tartaroaren beldurrez. Eta, hats hantua badoalarik, oihanetik atheratzean, bokata xuritzaille baten ondoan iragaitean, xerriaren tripak uzten ditu haren aldean, erranez: «Tripak uzten ditut hemen, zaluago joaiteko.»

Bere xerriak ez atxemaitearekin, enganatua izan dela ikusirik, lasterka heldu da hain sarri Tartaroa, muthil gaztearen ondotik. Eta, bokata xuritzailleari galdegiten dio: ez duenez xerri-zain bat ikusi berria?

—«Bai, orai berean iragana da hemendik, bere tripak hortxet utzirik, lasterrago joaiteko.»

Tartaroak, orduan, muthil gazteak bezen zalu laster egiteko, kanit' handi bat harturik, atheratzen ditu bere tripak, eta, bi urhats egin gabe, erortzen da hantxet, eta hiltzen.

* * *

Gizon gaztea badoa bere xerri guziekin. Hiru edo lauez bertzeak saltzen ditu, egun hartan berean.

Saldu xerri guzien buztanak eta begiratu hiruzpalau xerri biziak sartzen ditu gero ixtil eta lohi baizik ez zen putzu handi batean, eta badoa bere nausi bizar-gorriaren gana, erranez: «Nausia, xerriak putzuan sartu zazkit, ithotzen ari. Othoi ethorri behar zaizkit, atheratzen laguntzera.»

Nausiak baietz.

Tartaloa badoa bera, bere txarriak baso bazterren baten dituzanentz ikusten.

Arteatan, gizon gazteak txarrietarik bat ilten dau, bide-rako bere jatekotzat, eta aren tripak kolkoan sartuta, arineketan iges egiten dau Tartaloaren bildurrez. Eta, arnas-oska doalarik, basotik urteitean, lexiba zuritzaille baten ondotik igaroeran, txarriaren tripak izten dituz aren alboan, esanez: "Tripak izten dodaz emen, arinago ibiltarren".

Bere txarriak ez aurkituteaz, atzipetua izan dala ikusirik, an dator Tartaloa arineketan, arik gitxigarrenean, morroi gaztearen jarraian. Eta, itaunduten dautso lexiba zuritzaille-ari: ez dauanez txarri-jagola bat orduxe-orduxean ikusi?

—Bai, oraintxe-oraintxe igaro da emen zear, eta aortxe itzi dituz bere tripak, arinago ibilteko".

Tartalook, orduan, morroi gazteak baizen arin arrapaladan egiteko, ganueta¹ andi bat arturik, ateraten dituz bere tripak, eta oinkada bi egin orduko, jausten da bertan, eta il egiten da.

* * *

Gizon gaztea badoa bere txarri gustiakaz. Egun atan bertan salduten dituz iru edo lau ez beste gustiak.

Salduriko txarri gustien buztanak eta gorderiko iru edo lau txarri biziak sartuten ditu gero lupetzea eta loaia baiño ez zan zingira baten, eta badoa bere ugazaba bizar-gorriagana esanez: Ugazaba, txarriak zingiran sartu jataz, itoten dagoz. Arren, etorri egin bear zatxataz ateraten lagunduten".

Ugazabak baietz.

¹ [Kanit (L), Ganueta (B): cuchillo.]

Heltzen dira beraz biak aipatu tokira. Eta, gizon gazteak baitzakien non sartuak zituen saldu xerrien buztanak, heien aintzinean emaiten du nausia, buztan heieri loth dadien manatzen diolarik. Eta jo biak lanari...

Bainan, nausiak buztanik baizik ez atheratzen sekulan eta muthilak aldiz ongi zazkien xerri oso-osoak.

Muthila hasten zaio orduan nausiari, erranez: «Huna nola behar ziren bermatu², nausia!»... Bainan, nausiak buztanik baizik ez bethi atheratzen!...

Hasarratzen da azkenean, erhotzen! Eta muthilak erraiten dio orduan: «Hasarre zare nausia?

—Bai, eta ongi hasarre, halere!»

Mutil gazteak, orduan, nausi bizar-gogorriari hartu zion, bizkarretik, oinetako pare baten egiteko behar zen larrua.

Eta geroztik, ongi aberasturik, hor dabila gure muthikoa, ezin-higatuzko bere oinetakoak soinean. Iragan astean kurutzatua dut oraino, hantxet, Pinodietako Kaskoan.

Elduten dira biak aitaturiko lekura. Eta, gizon gazteak salduriko txarrien buztanak non sartu zituzan baekianez, aen aurrean iminten dau ugazaba, aeri buztaneri oratuteko aginduten dautsolarik. Eta badakioe¹ biak lanari...

Baiña, ugazabak ez ateraten eguno buztanik baiño, eta morroiak, ostera, berak ondo ekizan txarri oso osoak.

Morroia asten jako orduan ugazabari esaten: "Ara zelan saiatu² bear dozun, ugazaba!"... Baiña, ugazabak buztanik baiño ez ateraten beti!...

Azkenean, asarre gorrian, sumin-sumin³ jarten da! Eta morroiak esaten dautso orduan: "Asarre zara ala, ugazaba? — Bai, eta indar asarre⁴, atan bere!"

Morroii gazteak, orduan, oiñetako pare bat egiteko bear zan narrua kendu eutsan bizkarretik ugazaba bizar-gorriari.

Eta arrezkero, ondo aberastuta, or dabil gure mutilla, bere oiñetako maiztu ezifñak aldean dituzala. Lengo astean oindiño igaro jatan zear, antxe, pinodietako bizkarrean.

Euzkadi, 1933, Urriak 14, 21.

¹ Badakioe: ekiten deutse.

² [Bermatu (L), Saiatu (B): emplear fuerzas, procurar algo con esfuerzo.]

³ [Sumin (B): furioso.]

⁴ [Indar asarre (B): muy enfadado.]

5. HAXKO¹ ETA HAREN BI LAGUNAK

Hor, Eskual-Herri Nabarroako herri batean bizi zen familia bat arras beharra.

Egun batez, etxean egurra eskasturik, aita, bere alaba lagun harturik, gan zen, zama² bana behar zutela oihanetik ekarri.

Oihanera heldu direlarik, badoazi biak bi alde, elgar hola aditurik: bere zama lehenik eginen zuenak, bertzearen begira behar zuela egon, hitz hartu toki batean.

Oihan izigarriak ziren orduko oihanak!

Neska gazteak bere zama egintxe dueneko, hor, oihaneetik atheraturik, heldu zaio *Basa-Jauna*, neska hartuta eremaiten baitu berekin, lurpean egina zuen egoitzarat³. Nork erran haur gaixoaren izialdura eta burhasoen bihotzmina, beren alaba galdurik?...

* * *

Denboraren buruan, basa-jaunaren ziloan sortu zen bezar *Haxko*. Haur bat zen ezin gehiago hazkarra, gorphutz

5. AIZKO ETA AREN LAGUN BIAK

Or, Euskalerrri Naparroako erri baten sendi (famelia) beartsu-beartsu bat bizi zan.

Egun baten, etxean egurra urriturik, aita, alabea lagun artuta joan zan, basotik zama² bana ekarri bear ebela-ta.

Basora eldueran, ba doaz biak alde banatarik, alkarregaz olan itunduta³: bere zamea lenen egin egianak, bestearen begira egon bear ebala, ain lekutan⁴.

Baso ikaragarriak ziran orduko basoak!

Neskatilla gazteak bere zamea ia eginda daukaneko, aor, basotik urtenda, bajatoroko *Basajauna*, artuten dau neskatilla eta ba daroa beragaz, lurpean eginda eban egotegira⁵. Nok esan ume gaisoaren ikarea eta gurasoen tamala, euren alabea galdutean?...

* * *

Arik aldibetegarrenean, basajaunaren zuloan, *Aizko* jaio zan, beraz. Ume bat zan, barriz, ezin geiago sendoa, gorputz

¹ [Haxko (L): diminutivo de 'haritz', 'haitz', robles.]

² [Zama (c): carga, fagina.]

³ [Itundu (B): convenio.]

⁴ [Ain lekutan: en tal sitio, en un sitio determinado.]

⁵ [Egoitza (L), Egotegi (B): morada.]

guzia dena ile, hainbertzetaraino non, larruaren estaltzeko, ez baitzuen soineko beharrik batere.

Urtheak hola egon ziren ama-semeak lurpetik atheratu gabe. Ordukotz, haurrak zazpi urthe eginak zituen. Egun batez, abiatzen da Haxko, basa-jauna norat gaten den ikusi beharrez. Goiti gan, gan, gan, noizbeit heltzen da gaineko burura. Ikusten du alimaleko argi eder bat, eta ikusi duenaz harritua, jausten da berriz eta badoako amari, guzien erraitera. Ama gaixoak ikararekin erraiten dio: ez ahal duela bederen harria lekuz aldaratu? xahu direla, zerbaiti ohartzen bazaio gero aita! Haurrak, orduan, ihardesten dio ez duela zeren batere beldurti.

Hainbertzenarekin heldu zaiote Basa-Jauna, halako kexu batean erraiten diotela: Gaineko harri hura zuek higitu othe dautazue? —Heiek ezetz. Basa-Jauna sosegatzen da eta badoa.

* * *

Ikusi duen argiaz arras hartua, muthikoak erraiten dio orduan amari: behar dutela handik gan. —«Bainan nork higi harri handia?» —«Nik ama!» —«Ezin dirok, haurra!» —«Bai, ama, bai, eginen dut; zuri ez aithorturik ere, azken aldian ja egin izan dutan bezala...»

Badoazi beraz ziloari gora. Haxkok bere esku iletsuetan hartzen du harria, eta lehenik xutik emaiten. Gero, biraka, biraka, lerrarazten¹ du mendiari beheiti. Harria badoha oldar gaitzean, bidean atxemanak oro porroskatzen dituela.

Harrabots izigarri hek aditurik, beldurtzen da Gizon basa, ez ahal dutela bederen haren ziloko harri-peña aurdiki....

gustia dana ule, ulearen ulez narrua estalduteko ez eban soinekorik bapere bear bada-ta.

Urteetan egon ziran olan ama-semeak, lurpetik urten barik. Ordurako, umeak zazpi urte eginak zituzan. Egun baten asten da Aizko, basajauna nora joaten dan ikusi gurarik. Gorantz joan, joan, joan, elduten da noizbait ganeko aora. Ikusten dau erakusmeneko argi eder bat, eta ikusi dauanaz arrituta, jatziten da barriro eta ba joako amari gustia esaten. Ama gaisoak, ikaraz, esaten dautso: ez al dauala arria lekutik apurrik bere alboratu? galduak dirala, aitag gero zerbait oartu badagi! Umeak, orduan, erantzuten dautso ez dauala ezeren bildurrik izan bear.

Onen bestez, bajatorke Basajauna eta alako asarre baten esaten dautse: "Zuek eragin ete daustazue a ganeko arria? —Aek, ezetz. Basajauna baretuten da eta badoa.

* * *

Ikusiriko argiaz zorabiauta, esaten dautso orduan mutillak amari: joan egin bear dabela andik. —"Baiña, nok eragin arri andiari?" —"Neuk ama!" —"Ezin dok ik, ume!" —"Bai, ama, bai, egingo dot; zuri autortu ez arren, azkenengo bidarrean egin izan dodan legez..."

Ba doaz, beraz, zuloan gora. Aizkok artuten dau arria bere esku uletsuetan, eta lenengo zutunik iminten dau. Gero, bira-biraka, mendian beera amildu erazoten dautso. Eta badoa arria abiada ikaragarrian, bidean aurkituten dituzan zer gustiak birrinduez.

Aek abarrots izugarriak aditurik, bildurtuten da basa Gizona, bere zuloko arkatxa ez ete daben jaurti edo... Eta

¹ Lerrarazi, (Azk) hacer resbalar.

Eta gero, Haxkoren lana ikusi orduko, amari eta haurrari ondotik abiatzen zaiote.

Herrirat ja hurbilduxeak direlarik, ohartzen da ama gai-xoa, Basa-Jauna ondotik dutela, eta zer egiten du orduan? Lotzen da garrasiarik saminenetan...

Garrasia hek entzutearekin, zerbeit debrukeria baziteke-la han gaindi, herriko atabal eta ezkila errepikak hasten dire zapartaka, eta basa gizona, hek oro aditzearekin, ihesari eman zen, eta toki hek hustu ere zituen behin bethikotz.

* * *

Huna herrirat non diren helduak. Ama gaixo haren boz-karioa!... Jende guzia harrিতua bizkitartean haurrari beha dago. Zortzi urthe zituen ordukotz. Beztitzen dute eta eskolan emaiten.

Lehen egunetan, haur guziak harrituak zagozin, zer demuntre zen muthiko itsusi hura; soinekoen artetik izigarrizko ile luzeak ageri zituen alabainan. Gero, elgar hartuxe dutelarik, lotzen zaizko, batek iletik tira, bertzeak tira. Zonbait egunez jazan ere zituen Haxkok hoik oro. Bainan azkenean, kexatu gure Haxko, eta, egun batez, bere amari erraiten dio: «Ama, haur mukizu batzu bethi ari zaizkit, batek iletik tira, bertzeak tira. Ikusiko duzu oraino erdiak hilen baititut!» —«Ez gero holakorik egin niri!»

Biharamunean, badoa beraz berriz eskolara. Bainan, bethiko tira-mietan hasten zaizko, egundaino bezala. Kexatzen da gure Haxko; hartzen du bat gerritik eta harekin bat jo, bertzeak jo... hango garrasien parerik ez zen. Batzu hilak, bertzeak uspelduak; erakuslea¹ leihotik eskapatu zen,

gero, Aizkoren lana ikusten dauaneko, asten da amari eta umeari jarraian.

Erriaren urretxoan ia dirala, oartuten dau ama gaisoak Basajauna jarraian jatorkela, eta zer egiten dau orduan? Asten da garraizika alik gogorren.

Aek garraiziak entzutean, deabrukerien bat bazeitekeala an zear izan eta, erriko atabal eta kanpaiak asten dira jo eta ke, arrapastaka, eta basa gizona, aek gustiek entzutean, igesari ekin eutsan, eta toki aetatik bere alde egin eban, bein eta betiko.

* * *

Ona emen errira elduta. Ama gaiso aren poza!... Lagun gustiak, orraitino, arrituta, umeari begira dagoz. Zortzi urte zituzan ordurako. Jantziten dabe eta eskolan sartuten dabe.

Leenengo egunetan, ume gustiak egozan arrituta, zer demonintres ete zan a mutil itxusia; soñekoen tarterik, alabaiño ule luzeak agertuten zituzan. Geroagogarrenean, alkar artuten dabenekoxe, asten jakoz, batak uleetatik ten, bestea ten. Egun batzutan jasan egin zituzan Aizkok aek gustiak. Baiña azkenean, asarratuten da gure Aizko, eta, egun baten, ba diñotso bere amari: "Ama; umekondo batzuk daragoiote beti, batek uleetatik ten, besteak ten. Ikusiko dozu oindiño, erdiak nik il baietz!" — "Ez, gero, olakorik niri egin!"

Biaramonean ba doa barriro eskolara, beraz. Baiña, betiko tenketetan asten jakoz, eguno lez. Asarratuten da gure Aizko; artuten dau bat garritik eta aregaz jo bat, jo besteak... ango garraiziak ez eben bardinik. Batzuk ilda, besteak maillatuta; irakasleak¹ leiotik iges egin eban, eta ez

¹ [Erakusle (L), Irakasle (B): maestro.]

eta ez nahi baino lasterrago... Haxko ez zen gehiago eskolara itzuli.

* * *

Hola zonbait urthez etxean egon ondoan, egun batez, amari erraiten dio: fortuna egitera behar duela gan, eta beraz moldatzeko harentzat *makila* bat hazkarra. Ekartzen diote bat bi kintal heintsu¹ hortakoa. Bainan, hura deus ez zitzaion. Bertze bat ekartzen diote, hamabi kintal pisu duena. Haztatzen² du; hura nonbait han duela iduritzen zaio, eta abiatzen da bideari, bere makila firurikatuz.

Hola doalarik, buruz-buru egiten du gizon batekin: «Agur, adixkidea! —«Bai zuri ere!»... Gizon hazkarra zaitut, hatik, zu, holako makilaren hoin errexki erabiltzeko!» ! —«Bai, pitta bat; ez da ez hala erraiteko pisua; hamabi kintal nonbait han.» —«Bai, ni ere hazkarra naiz bai. Nahi balinbanu, *sudur-haize*³ batez aurdik zintzazket lurrerat; bainan ez; nahiago dut hortzeko haitz ondo hori aurdiki.»

Eta, sudur zilo bat tapaturik, hasten da. *Krask*, haitza hor badoa, erroz gora!...

Ikusirik hola hazkarra dela, Haxkok erraiten dio: heian nahi duenez harekin etorri; fortuna egiterat abiatu dela...? —Bertzeak baietz, arras gogotik joanen dela harekin.

Badoazi beraz biak, eta hola ongi alegera doazilarik, hor atxemaiten dute gizon bat, *errota*⁴ edo *eihera*⁴ *harri* eta *buxon*⁵

berak gura baizen laster... Aizko ez zan geiago eskolara biurtu.

* * *

Urte batzuetan etxean olan egon ostean, egun baten, badiñotso amari: zoria egiten joan bear dauala eta, beraz, *makilla* sendo bat beretzat gertuteko. Ekarten dautse bat kintal bi ingurukoa. Baiña, a ez eban ezer. Beste bat ekarten dautse, amabi kintalekoa. Astun-arinean artuten dau; eta tira, beretzat arenbatekoa deritxo axeri, eta abiauten da bidean, bere makillari txistu eraginez.

Olan doala, aurkituten dau bidean gizon bat: "Agur, adiskidea!" —"Bai zuri bere!... Gizon indartsua zaitut zeu, orraitino, olako makillea orren errez erabilteko" —"Bai, pizka bat; ez da, bada, olan esateko pisua bere; amabi kintal, orrenbaten." —"Bai, ni bere sendoa naz, bada. Gura baneu, *surruputz*³ bategaz jaurtiko zendukedaz lurrera; baiña ez; naiago dot orkoxe areitz-ondo ori jaurti."

Eta, surtzillo bat itxirik, asten da. *Karrask*, an doa areitza, orpoz gora.

Ain azkarra (sendoa, indartsua) dala ikusirik, ba diñotso Aizkok: ea beragaz etorri gura dauanentz, zoria egiteko bidean abiau dala-ta...? —Besteak baietz, ondo gogoz joango dala aregaz.

Badoaz, beraz, biak eta alan pozik doazela, aor, aurkituten dabe gizon bat, *bolu*⁴ edo *errota arri bategaz* eta *tutu*

¹ [Heintsu (L): proporción.]

² [Haztatu (L): pesar.]

³ [Sudur haize (L), *Surruputz* (B): resoplido.]

⁴ [Eihera (L), Bolu (B), Errota (L, B): molino ('bolu' y 'errota' proceden del erdera.)

⁵ [Buchon: (francés: bouchon), corcho.]

handi batzuekin jostetan² ari dela. «Agur, adixkidea!» —«Bai zueri ere!» Solas eta solas elgarrekin aritu ondoan, Haxkok erraiten dio: «Gurekin ethorri behar duzu zuk ere; ikusten dut gurekilako on zarela...» —«Norat zoazte bada?» —«Fortuna egitera...» —«Bai, bai, arras gogotik.»

Horra beraz Haxko eta haren lagunak, fortunaren ondotik doazila.

Ja, bide puska bat egina eta gosetzen ere hasiak, ikusten dute ardi-borda bat. Badoazi eta atxemaiten dute artzaina, bere ardien moldatzen ari dela: «Agur, adixkidea! —Bai zueri ere, Jaunak.» Beren agurrak egin eta, ez baitziren batiere solas gura, galdegiten diote baduenez deus jatekorik, goseak hamikatuak direla? —«Ez dut gauza handirik, ez; bainan kuarto bat artho baitut aixtiantxet³ ekarria errotatik, talo zonbait eginen ditut, nahi baduzue.»

—«Baietz, gogotik.»

Hasten da artzain gaizoa talo egiten. Harek egin eta bertzeek jan, holaxet hamazazpi jan ziozkaten, non artzaina harritu baitzen sekulakotz.

Asexe direlarik, Haxkok erraiten dio, hola fortuna egitera abiatuak direla, eta heian non iduritzen zaion egin lezaketela errexenik? Artzainak erraiten diote, hantxet, behe-raxago jautsi eta, ikusiko dutela jauregi eder bat, inguru guzian dena burdinez zerratua, aintzinean⁴ portale eder batzuekin. «Bainan erran behar dautzuet, egundaino nehor sekulan ezin sartu dela han; debruak egoten dire jauregi hartan. Nola ikusten baitut zuek gizon batzu zaretela nihon guti diren bezalakoak, iduritzen zaut, nihor jabetzekotz, zuek eginen zaretela...»

*andi batzukaz*¹ kirolean² ziarduala. "Agur, adiskidea!" —"Bai zueri bere!" Alkarregaz berba eta berba eragon ostean, ba diñotso Aizkok: "Gugaz etorri bear dozu zuk bere; ikusten dot gure tarterako ona zareana..." —"Nora zoaze, bada?" —"Zoria egiten..." —"Bai, bai, ondo gogoz."

Aor, beraz, Aizko eta aren lagunak, zoriaren jarraian doazela.

Bide piska bat egin ostean eta gosetuten bere ia asiak, ikusten dabe ardi-borda bat. Ba doaz eta aurkituten dabe artzaiña, bere ardiak moldatuten daragoiola: "Agur, adiskidea! —Bai zueri bere, jaunak." Euren agurak eginda, ez ziran berba gura arean bere bada-ta, itaunduten dautse ezer jatekorik dauanentz, goseak ilda dagozala-ta? "Ez dot gauza andirik, ez; baiña imina bat arto arestitxoan³ errotarik ekarrita badot-eta, talo batzuk egingo dodaz, nai badozue."

—"Baietz, gogoz bere".

Asten da artzain gaisoa taloginean. Arek egin eta besteak jan, amazapi jan eutsezan alantxe, eta bai artzaiña sekulako arritu bere.

Ase samar dagozanean, ba diñotso Aizkok, zoria egiteko abiau dirala alan, eta ea bere ustez non egin legikeen erren? Badiñotse artzaiñak, antxe, beeratxoago jatzi eta, jauregi eder bat ikusiko dabela, inguru gustia burdinez esitua, atxinean⁴ ate-aurre eder batzukaz. "Baiña, esan bear dautsuet, gaur artean iñor eguno ezin sartu izan dala an; deabruak egoten dira jauregi aretan. Baiña, ikusten dodanez, iñon ba da gitxi diralango gizon batzuk zaree zuek eta, agaz iñor jaubetutekotan, zuek egingo zareela irudituten jat..."

¹ [Tutu (B): canuto. "Tutean" o "Tutu jokoa" (B-mu): jugando al hito; jouant aux palets.]

² [Jostetan (B), Kirolean (B-arc): jugando.]

³ [Aixtiantxet (L), Arestitxoan (B): hace poquito tiempo.]

⁴ [Aintzin (L), Atxin (B): delante.]

Badoazi beraz gure hiru gizonak.

* * *

Artzainak erran bezala, heltzen dire delako jauregiaren aintzinera. Gogoetan egonik nola duketen errekkienik, *Sudur-Haize* lotzen da lehenik; bainan debalde. Inharros aldi bat ona emaiten diote, bainan portaleak xutik gelditu ziren.

Buxunen aldi orai. Hartzen du bere errota-harria; firurikatuz arthikitzen du, oldar gaitzean¹. Pareta puska bat badoa lurrerat, bainan, oinon, sartzeko ez aski.

Haxkoren aldi beraz. Oldarraren hartzeko, badoa hogoi bat urhats gibelerat, eta palenga izigarria arthikitzen du bere ahal guziarekin... *Brau!* badoazi portaleak lurrerat!

Sartzen dire hiruak barnera. Nehor ez ageri. Hemen mia, han ikher: non nahi zakuak, urhez betheak. Badoazi sukaldera: bost-pasei eltze suaren aintzinean; batean oiloa, bertzean ahatea, bertzean oilaskoa, nik ez dakit zer eta zer oraino... Funtsean mahaina emaiten dute. Eguerditan, hasten dire bazkaltzen, hamazazpi talo ja garbituak ez baluzte bezala. Jan eta jan, Jainkoak daki zer garbitu zuten oraino. Arratsa jin zitzaioten, mahainetik altxatu gabe.

Aphur bat solasean egon ondoan, abiatu ziren, bakoitza bere ganbara ederra hautatu beharrez. Halako bazkariaren ondotik ohe xuri ederrean lo egitea! Zer zoriona heientzat! Gau bat iragan zuten beren biziko ederrena.

* * *

Badoaz, beraz, gure iru gizonak.

* * *

Artzaiñak esandakoanez, elduten dira arako jauregi aurrera. Errezen zelan artu legikeen gogoratu ostean, *Surruputzek* ekiten dautso lenengo; baiña alperrik. Astinaldi on bat emoten dautse ate-aurreri, baiña zutunik gelditu ziran.

Tuturen aldi orain. Artuten dau bere errota-arria, eta txistu eraginez jaurtiten dau, erruz bere erruz¹. Orma puska bat badoa lurrera, baiña, oindiñokarren, sartuteko ez naikorik.

Aizkoren txandea, orrezkero. Abiadea artuteko, badoa ogei bat oinkada atzerantz, eta jaurtiten dau burdinaga² ika-ragarria bere indar gustiakaz... *Braun!* an doaz ateaurreak lurrera!

Sartuten dira irurak barruan. Iñor ez agiri. Emen begiratu, an arakatu: edonon zorroak³, urrez beteak. Ba doaz eskaratzera: bost edo sei lapiko suaren aurrean; batean oilloa, bestean aatea, bestean oillaskoa, ez dakit nik zer eta zer geiago... Tira; maia iminten dabe. Eguerditan, asten dira bazkalduten, ordurako amazapi talo garbituta ez bailengozan. Jan eta jan, Jaungoikoak⁴ daki zer garbitu eben ostera bere. Arratsa etorri jakoen maitik jagi barik.

Apur baten berbetan eragon ostean, bakotxak bere logela ederra aukeratu bear ebela-ta asi ziran. Alako bazkari ostean oe zuri ederrean lo egitea! Ako zoriona eurentzat! Gau bat igaro eben, barriz, euren bizikorik ederrena.

* * *

¹ [Oldar gaitzean (L), Erruz bere erruz (B): con gran violencia.]

² [Burdinaga (B): palanca.]

³ [Zorro (B): sacco.]

⁴ Idazleak 'Jaungoikuak' dakar.

Biharamunean, jeiki ziren zortziak aldera.

Sudur-Haize gelditzen da etxean, jatekoaren egiteko, eta bertze biak badoazi ihizira, Sudur-haizek, xilintxa bat baitzen han, hura adiaraziko diotela, noiz ethor gibelera. Hasten da beraz Sudur-haize bere lanean, *hau zerdako* bazkari bat behar duela arthatu.

Hamarrak inguruan, *kax, kax, kax*, aditzen du norbeit athean. Badoa; eskale xahar bat zen. Ogi zerra bat zarrastan pikaturik, emaiten dio. Alegia eta eskuetarik eskapatu, eskale xaharrak lurrerat uzten du ogia. Haren adinaz urrikaldurik, kurtzen da Sudur-haize, berriz emaiteko. Kurtu deneko, *brau*, jauzi egiten dio debruak gainera. Aphur bat elgar ezin garhaituz aritu ondoan, nausitzen da eskalea. Doi-doia Sudur-haizek eskuetan zuen ganibet handia harturik, gizon gaixoa puskatzen du debruak eta emaiten eltze baten barnean. Gero, badoa. Ordukotz bi orenetara zoan.

* * *

Gure ihiztariak, xilintxarrik ez entzutearekin, eta gosetuak ere zirelakotz, heldu dira zer iragaiten den behar dutela ikusi.

Beren gizona nihon ez ageri; eltzeak miatzen dituzte. Zer dute ikusten? Beren laguna pusketan emana! *Nola Haxkok baitzuen hilen phizteko ahala*, phuska guziak artharekin bildurik, bere gisako sinfoniak eginik, gure hila hor phizten du. Huna beraz Sudur-haize xutik. Bere laguneri berehala erraiten diote zer gerthatu zitzaion.

Biharamunean, Buxunen aldi zen jatekoaren egiteko.

Eta horri ere gauza bera gerthatu zitzaion.

Deus ez aditzen eta gosetuak, ihiztariak ethorri ziren berantetsirik. Gure Buxun tupinan emana orduko, irakitzen ari! Haxkok pizten du hura ere.

Biaramonean, zortzirak aldean jagi ziran.

Surruputz geldituten da etxean, jatekoa egiteko, eta beste biak badoaz eizan. *Surruputzek*, txilin bat egoan an eta, agaz adierazoko ei eutsen noiz atzera etorri. Asten da, beraz, *Surruputz* bere lanean, *au dok au?* esateko lako bazkari bat gerta bear ebala-ta.

Amarrak inguruan, *kax, kax, kax* norbaitek atean joten dauala entzuten dau. Badoa; eskeko zaartxo bat zan. Ogi zerra bat zarrast ebagi eta emoten dautso. Eskeko zaartxoak, eskuetarik joan jakolakoa eginez, lurrera izten dautso ogiari. Aren adinaz errukiturik, makurtuten da *Surruputz*, barriri emoteko. Makurtu daneko, *brau* zapart egiten dautso deabruak ganera. Apur baten alkar garaitu ezinik ekin ostean, kanet egiten dautso eskekoak. Deabruak, *Surruputzek* aurretxoan eskuetan eban ganueta arturik, zatituten dau gizon gaisoa eta lapiko baten barruan iminten dau. Gero, badoa. Ordurako, baziran ia ordu biak.

* * *

Gure eiztariak, txilirik ez entzutean, eta gose bere baziralako, badatoz zer jazoten ete dan ikusi egin bear dabela-ta.

Euren gizona ifion agiri ez; arakatuten dituez lapikoak. Zer dabe ikusten? Euren laguna zatitan an iminia! *Aizkok, ilak biztuteko ala (poderea) ebanez*, zati gustiak arduraz batu, eta bere moduko pariztak eginik, aor, biztuten dau gure illa. Ara, beraz, *Surruputz* zutunik. Beingoan esaten dautse bere laguneri zer jazo jakon.

Biaramonean, Tuturen txandea zan jatekoa egiteko.

Eta areri bere gauza berbera jazo jakon.

Ezer entzuten ez eta gosetuta, eiztariak etorri egin ziran luze eritxita. Gure Tutu, topinean iminda ordurako, eta irakiten! A bere *Aizkok*, biztuten dau.

Oraikoan, Haxkoren gain etxean egoitea. Bere lagunek ez dute bakarrik utzi nahi: alabainan Haxko hiltzen badute, hek ez dute phizten ahal! Bainan, beldur ttipiena gabe, igortzen ditu Haxkok, doazila deskantsuz.

Bethiko tenorean, *kax, kax, kax*, athean. Badoa Haxko. Bethiko eskale xaharra zen berriz ere. Ogi zerra eder bat emaiten dio aire idor batekin: «Ori, adixkidea!» Ogia lurre-rat erortzerat uzten du xaharrak, eta Haxko othoizten altxa dezon fagorez. Haxkok, idor idorra: «Ori, ongi beharretan balinbazira, altxatuko duzu zuhaurek!» eta itzultzen da bere lanera.

Bainan debru zaharra heldu zaio ondotik, eta azkarki lotzen. Debalde! Ez du bertzeak bezala garhaitzen ahal. Buelta bat borroka izigarrian aritu ondoan, etsitzen du debruak, eta, suphizkiari goiti abiatzen da, iheska Haxkok, orduan, hartzen du bere palenga; sartzen dio gibel aldetik, eta hantxet porroskatzen du. Gero, bere lanerat itzultzen da xixtuetan, bazkaria tenoreko nahizik moldatu. Egintxe due-larik, badoa orenari behatzera: «Eguerdi laurden guti! Ba, hek hunarat orduko... tenorea!» *Dilin, dalan, dilin, dalan*, hasten da xilintxaren harat hunat erabiltzen.

Ihiztariak harrituak, elgarri beira! Ez dakite zer asma. Badoazi lehen bai lehen, behar dutela ikusi zer iragaiten othe den. Atxemaiten dute Haxko mahaina emanik, saldaren atheratzen ari dela. «Zer bada, eskalerik ez da beraz egun ethorri?» —«Othe ditakena da, gizon herbail txar harek garhaitu zaituztela? Jar zaizte, hots! eta jan zazue deskantsu; ez dautzue harek gehiako minik eginen. Hortxet dut, barat-zeko alderat botaiat!...» Eta, bazkaltzen ari direlarik, kon-datzen diote zer gerthatu zaion.

* * *

Oraingoan, Aizkoren gain etxean egotea. Aren lagunak ez dabe bakarrik itxi gura: Aizko il badagie, eurak ezin leikee biztu bada-ta! Baiña, bildurren izpi barik, bialduten dituz Aizkok, doazela lasai.

Betiko orduan, *kax, kax, kax*, atean. Badoa Aizko. Betiko eskeko zaartxoak zan barrero bere. Ogi erregutada eder bat emoten dautso aire garratz bategaz: "Aor, adiskide!" Ogiari lurrera jausten izten dautso zaartxoak, eta Aizkori eskatzen dautso arren jaso dagiola. Aizkok, garratzgarratz: "Tira, orren bearrian andian ba zagoz, jasoko dozu zeuk!" eta biurten da bere lanera.

Baiña deabru zaarra bajoako atzetik eta oratuten dautso sendo. Alperrik! Ezin dau a besteak legez garaitu. Une baten borroka izugarrian eragon ostean etsi egiten dau deabruak, eta abiauten da igesi tximinian gora. Aizkok, orduan, artuten dau bere burdinagea; sartuten dautso atze aldetik eta birrinduten dau bertan. Gero, biurten da bere lanera txistuka, bazkaria tertziarako modau gurarik. Ija eginda daukola, badoa ordua begiratuten: "Amabiak lauren gitxiago! Ba; aek ona orduko... tertzioa *Dilin, dalan, dilin, dalan*, asten da txilinari batera ta bestera eragiten.

Eiztariak arrituta, alkarrerri begira! Ez dakie zer uste izan. Badoaz leen-bait-leen, zer jazoten ete dan ikusi egin bear dabela-ta. Aurkituten dabe Aizko maia iminda, saldea ateraten ziarduala. "Zer, bada; eskekorik ez da gaur etorri, oiez?" — "Ba ete leiteke gizon erbal mantar arek zuek garaitu izan izatea? Ea; jezarri zaitzeze eta jan egizue lasai; ez dautsue arek minik geiago egingo. Aortxe daukot, ortu aldera botata!..." Eta bazkalduten ziarduala, eralgiten dautse zer jazo jakon.

* * *

Hola zonbait egun iragan ondoan, batek jatekoa egin, bertzeak ihizin, nola ez baitzuten oraino etxe guzia ikusia, abiatzen dire, barne bat mia, bertzea mia. Gain gainera direnean, kausitzen dituzte hamabi gizon xahar, lurrerainoko bizarrekin, mahain baten inguruan dagozila. Oro behar dituztela garbitu, badoazi Haxko eta Buxun beren tresnen bila. Lotzen dira beraz Sudur-Haize bere sudur haizearekin, Buxun bere errota-harriarekin, Haxko bere palengarekin, eta begiak hesteko artean, garbitzen dituzte hamabi debru zaharrak.

Ordutik, jauregiaren jabe ziren. Bainan, hola ere lasterxko unhatu ziren, nihor sekulan ikusi gabe. Egin zuten herrirat behar zutela itzuli.

Hartzen dituzte bizpahiruna zaku urhe, eta mendi gaineko artzainaz orhoiturik, hamabi mila libera emaiten diozkate hari ere.

Eta huna gure gizonak, fortuna eginik, aberats handi beren herrirat itzuliak.

* * *

Berri horrek haro handia egin zuen herri guzian, bai eta ere inguruetan.

Herriko aphez eta bertze buruzagiek hala argiturik, ezkondu ziren hiruak.

Ongi bizi izan balinbaziren, arabera hartara hil ziren.

Olan egun batzuk igaro ostean, batek jatekoa egin, besteak eizan, eta arteragino ez eukenez etxe gustia ikusita, asten dira, barru alde bat begiratu, bestea begiratu. Gan-ganeratu diranean, aurkituten dituez amabi gizon zaartxo, lurreraginoko bizarrakaz, mai baten inguruan dagozela. Gustiak garbitu bear dituezala-ta, badoaz Aizko eta Tutu euren tresnen billa. Ekiten dautse, beraz. Surruputzek bere surreko putzagaz, Tutuk bere errota-arriagaz, Aizkok bere burdinagegaz, eta begi itxi-edegi baten garbituten dituez amabi deabru zaartxoak.

Ordutik, jauregiaren jaube ziran. Baiña, alan bere lastertxo egin eben gogait, iñor eguno ikusi barik. Errira biurtu bear ebela egin eben.

Artuten dituez bina edo iruna urre zorro, eta mendi ganeko artzaiñaz gomutaurik, amabi milla peseta emoten dautsez areri bere.

Eta ara gure gizonak, zoria eginik, sekulako aberats, euren errira biurtuta.

* * *

Albista arek usobillo andia atera eban erri gustian, baita inguruetan bere.

Erriko abade eta beste agintariak alan onua emonik, ezkondu egin ziran irurak.

Ondo bizi izan baziran, era beratan il ziran.

Euzkadi, 1933, Azaroak 3, 8, 16.

6. ERREGEA, TUPINA² ETA XIXTUA

Behin batez, omen zen gizon bat debruz egina, eta nola Erregerekin arras adixkide baitzen, noiz nahi ethortzen ziztaion errege ikustera.

Egun batez, errege ethorri beharra eta, erraiten dio bere andreari: «Egun, behar giniken balentria zerbait egin, errege ethorri orduko.» Andreak: —Baietz, segurki! harek ere nahi zuela. Eta biak emaiten dire gogoetatzen; eta hola ari direlarik, ikusten dute errege heldu bere andrearekin, eta, deusen egiteko astirik ez eta, ez jakin zer egin, gure gizonari, bet betan gogoratzen zaio joko hau: Tupina suan baitzuten, irakitan, *gal, gal, gal* ari, hartzen du bere tupina, sukaldearen erdi erdian emaiten, eta sua berehala hiltzen.

Sartzen dire gure errege eta erregina.

«*Agur*» eta «*Bai zuri ere,*» eta berehala, ohartzen da errege tupinari, eta galdegiten du: zertako zen tupina hura sukaldearen erdian irakitzen ari? Eta bere adixkide gizonak erraiten dio: beren gisako tupina dutela hura, batere surik gabe egiten dutela eltzekaria, egun guzietz, sukaldearen erdi erdian eman eta. Erregek ez sinhetsi nahi eta, gure gizonak hurbilarazten du tupinaren ondora, estalkia khentzen, eta erregek ikusi zuen tupina egiazki irakitzen ari zela.

6. ERREGĒA¹, TOPINA² ETA TXISTUA

Bein baten ba ei zan gizon bat deabru gaiez egina (deabrua baizen okerra), eta Erregegaz gustiz adiskide zanez, erregea noiz gura etorten jakon ikusten.

Egun baten, erregea etorri bear, eta badiñotso bere andreari: "Gaur, balentekerien bat egin bear gaieunkena, errege etorri jaiteneko". Andreak: —Baietz, aurki; berak bere baebala gura. Eta biak jarten dira gogoratuten, eta olan diarduelarik, ikusten dabe errege bere emazteagaz etorri datorrela, eta ezer egiteko astirik ez eta zer egin jakin ezik gure gizonari bat-batean otuten jako trikimalla au: Topina eben sutan, *gal*, *gal*, *gal* irakiten, bai, eta artuten dau topina, iminten dau eskaratz erdi-erdian eta amataten dau sua beingoan.

Sartuten dira gure errege eta erregina.

Agur eta *Bai zuri bere*, eta beingoan, oartuten dau erregek topina, eta itaunduten dau: zetarako egoan a topina eskaratz erdian irakiten? Eta aren adiskide gizonak esaten dautso: euren eratakoa dabela a topina, eta bapere surik barik egiten dabela lapikokoa, egunaro, eskaratz erdian iminda. Erregek ez sinistu gura eta, gure gizonak topin ondora urreratu-azoez, kenduten dautso estalkia, eta erregek, topina benetan irakiten egoala ikusi eban.

¹ Erregea: Idazleak 'Erregia' dakar.

² [Tupin (L), Topin (B): marmita.]

Orduan sinhetsi zuen, eta galdatzen dio: othoi sal zezon tupina. Gure gizonak, ahal bezen polliki erraiten dio: nahia-go duela ez saldu, hura dutela beren guzi guzia, eta deusik ez litazkela hura gabe. Eta orduan erregek: ez zutela deusen eskasik izanen, emanen ziotela nahi zuten bezenbat diru, eta othoi saltzeko. Eta, azkenean, gure gizonak, gogoaren kontra bezala, saltzen dio tupina erregeri.

Gure errege gan zen erreginarekin, bere tupina eskuan, eta etxerat heldu eta berehala, badoa bere sehien¹ gana, eta emaiten diote tupina erranez: eman zezaten tupina hura, behar zituen guziak barnean, sukaldearen erdi-erdian, eta utz zezaten bere gisa, eltzekaria bera eginen zela, batere surik gabe.

Sehiek: baietz segurki, ontsa gogotik!

Biharamunean, sehiek emaiten dute tupina, bere onkailu² guziekin, sukaldearen erdi-erdian, eta gan ziren, bakotxa bere lanetara.

Eguerdi aintzintxean, behatzen diote tupinari eta ikusten dute, hek utzi bezal bezala dela tupina, barnean harat hunatik gabe. Harrituak zagozin elgarri behaka, noiz eta ere heldu baitzaiote errege, bere tupinaren berrien galdetzer...

Nor harritu eta errege harritu, ikustearekin bere adixkide gizonak enganatu zuela.

* * *

Bere aldetik, gure gizona ere ez zen batere deskantsuan, baitzakien zer zuen egina.

Orduan sinistu egin eban, eta eskatuten dautso: arren saldu egiola topina. Gure gizonak, al eukean baizen polito badiñotso: naiago dauala ez saldu, axe dabela euren gusti-gustia, eta ain barik ez litzakezela ezer izango. Eta orduan erregek: ez ebela ezeren urrik izango, zenbat gura diru emongo eutsela eta, arren, salduteko. Eta, azkenean, gure gizonak, gogoaren kontra legez, salduten dautso topina erregeri.

Joan zan gure errege erreginagaz, bere topina eskuan ebala, eta etxera eldu eta bereala, badoa bere otseñakana¹ eta emoten dautse topina, esanez: imini egiela a topina, bear zituzan gustiakaz barruan, eskaratz erdi-erdian, eta itzi egiela berekitean, lapikokoa berez egingo zala-ta, surik bapere barik.

Otseñak: baietz, aurki, ondo gogoz!

Biaramonean, otseñak iminten dabe topina, bere ongarri² gustiakaz, eskaratz erdi-erdian, eta joan ziran bakotxa bere lanean.

Eguerdi aurretxoan, begiratuten dautse topinari eta ikusten dabe eurak itzi eben legetxe dagola topina, barruan bapere irakin barik. Arrituta egozan alkarrerri begira, eta arako baten bajatorke errege, bere topinaren barriak itaundutera...

Iñor arritu bazan, errege arritu zan, bere adiskide gizonak atzipetu egin ebala ikustez.

* * *

Gure gizona, bere barruan, ez egoan bapere lasai, zer egin eban baekialako.

¹ [Sehi (L), Otsein (B): criado.]

² [Onkailu (L), Ongarri (B): condimento.]

Bere andrearekin ari zen: xahu zirela oraikoan, errege ethorriko zitzaiotela, eta borthizki gaztigatuak izanen zirela. Bet-betan, jaunak erraiten dio andreari:

«No! behazan! bazakinat zer eginen dugun: bihar, errege ethortzeko aintzinean, emanen dun, hik, xahako bat arno bulharretan, eta errege erasiaka hastearrekin, nik erranen dinat hik enganatu naunala, hik erranik baizik ez dutala deus egin;... eta orduan, hasarretuko naun, eta hiri jazartzeko, alegia eta bulharretan, xahako hortan sartuko dainat kanieta, eta, hi, eroriko haiz, hila bahintz bezala... Eta gero, erregeri sinhetsaraziko zionat, *xixtu hunekin* phitzaraziko hautala, eta hik askiko dun, lehen xixtuan, zango bat mugitzea, bigarreanean bertzea, eta hirugarreanean xutituko haiz.» —«Ba, ba, hola eginen diat, eta agian ez gaitik erregek gaztigatuko!»

Hek erran bezala, biharamunean, errege heldu zaiote, hasarre handian. Sartzen da, eta kuxean, hasten zaio moko-ka gizon gaixoari: ba eta tupina hartan enganatu duela, eta hola trufatzen den errege batez...? Eta ari zitzaion erran eta erran...

Orduan, bere aldiz², gure gizona emaiten da alegia eta hasarre, hura ere, bere andrearentzat: andrearen hoben³ zirela oro; eta bere hasarrean kanieta sartzen dio andreari golkotik. Emazteki gaixoa erortzen da, hila balitz bezala... Errege harritu zen eta erraiten dio gizonari: zer ari den? ez zuela holakorik egin behar! Eta penatua zen errege.

Orduan, gure gizonak erraiten dio: nahi badu, *xixtu* batekin phitzaraziko duela bere andrea —«*xixtu* batekin phi-

Bere andreagaz eragoion: galduak zirala, oraingoan, errege etorriko ekioela eta gogor zigortuak¹ izango zirala. Bat-batean, badiñotso senarrak emazteari:

—Andrea, beiratuina! Bajakinat zer egingo jonagun; biar, errege etorri aurrean, iminiko dona ik ardao zato bat bularrean, eta errege agiraka asteen, ik atzipetu nonala esango jeutsanat nik, ik esanikoa baiño ez jonadala egin besterik; eta orduan, asarratu egingo nona, eta iri atomauteko, bularrean egiten daunatalakoan legez, zato orretan sartuko daunat ganueta, eta i, jausi egingo az, ilik baiengonan. Eta gero, sinistu eragingo jeutsanat erregeri *onegaz txistuaz* biztuko aunadala, eta ik naikoa izango dona, lenengo txistuan, anka bateri eragitea, bigarreanean besteari, eta irugarrenean zutundu egingo az". —"Bai, bai, olan egingo joat eta ez al gozak erregek zigortauko!"

Eurak esandakoanez, biaramonean, agertuten jake errege, asarre bizitan. Sartuten da, eta beingoan, asten jako errietan gizon gaisoari: bai, eta topin aregaz atzipetu egin dauala, eta ea olan burla egiten jakonez errege bateri...? Eta esan eta esan eragoion...

Orduan, bere eretiz², jarten da gure gizona asarre dago-lakoan legez, bera bere, bere andreagaz: andrearenak zirala erru³ gustiak; eta bere asarrean ganuetea sartuten dautso andreari kolkotik. Jausten da andra gaisoa ilik bailegoan... Arritu zan errege eta badiñotso gizonari: zer diarduan? ez ebalá olakorik egin bear! Eta atsekabetuta egoan errege.

Orduan, esaten dautso gure gizonak: nai badau, txistu bategaz biztu eragingo dautsola bere andreari. —"Txistu

¹ [Zigortau (B): castigar.]

² [Bere aldiz (L), Bere eretiz (B): a su vez.]

³ [Hoben (L), Erru (B): culpa.]

tzariko, zuk?... Ez dut sinhesten.» —«Ez duzu sinhesten? Ori, ikusiko duzu berehala.»

Gure gizonak hartzen du xixtua eta jotzen du behin. Eta andreak mugitu zuen zango bat; bigarreanean, bertze zangoa, eta hirugarreanean... *xutitu zitzaion*...

Errege harritua zagon xixtu mixteriozko haren aintzinean, eta galdatu zion: othoi sal zezon xixtu hura. Era gure gizonak: ezetz segurki, bazutela, ordu arte ere, makurrik aski izanik, eta ez zuela salduko. —Bainan erregek ez zion bakterik emaiten: saltzeko eta saltzeko, nahi zuen bezenbat diru galdatzeko eta emanen ziozkala denak... Azkenean, beraz, saltzen dio xixtua, hainitz dirutan, eta joan zen errege etxerat.

Biharamunean, joan ziren errege eta erregina karrikara eta noiz eta heldu baitziren hiriaren erdira, erregek golkotik sartzen dio kanieta erreginari, eta erregina gaixoa erortzen da hila.

Jende guzia harritua zen. Erregek erraiten diote: ez izitzeko, phitzaraziko zuela berehala. Atheratzen du xixtua eta jotzen du behin; bainan erregina ez da mugitzen. Jotzen du berriz, eta orduan ere deusik ez. Hasten da, jo eta jo, eta azkenean etsitzen du, eta ohartzen da erregina hila, zinez hila dela. Asmatzen duzue gure erregeren auhendura¹ nolakoa zen!

* * *

Orainkoan ez du berak joan nahi gizonaren etxerat, bel-durrez eta berriz ere enganatua izan, eta manatzen diote

bategaz biztu eragingo, zuk...? Ez dot sinistuten". —Ez dozu sinistuten? Ara, beingoan ikusiko dozu".

Artuten dau txistua gure gizonak eta joten dau bein. Eta andreak, anka bateri eragin eutsan; bigarreanean, beste ankeari, eta irugarreanean... *zutundu egin jakon...*

Arrituta egoan errege txistu misteriodun aren aurrean, eta, arren saldu egiola a txistua eskatu eutsan. Eta gure gizonak: ezetz, ezetara bere; baebela ordurarte bere, naiko okerrik izan eta ez ebalu salduko. Baiña erregek ez eutsan bakerik emoten: salduteko eta salduteko, gura eban beste diru eskatuteko eta danak emongo eutsozala... Azkenean, beraz, salduten dautso txistua, diru askotan, eta joan zan errege etxera.

Biaramonean, joan ziran errege eta erregina kalera eta noiz-ta uriaren erdira eldu ziranean, sartuten dautso erregek erreginari ganuetea kolkotik, eta erregina gaisoa jausten da ilda.

Lagun gustiak arrituta egozan. Esaten dautse erregek: ez ikaratuteko, beingoan biztu eragingo eutsala. Ateraten dau txistua eta jotzen dau bein; baiña erregina ez da igituten. Jotzen dau barrero, eta orduan bere ezer bere ez. Asten da jo eta jo, eta azkenean, uste gustiak galduten dituz, eta oartuten dau erregina ilda, benetan ilda dagola. Igarri daikezue erregeren arrenkurea¹ zelakoa zan!

* * *

Oraingoan ez dau berak gizonaren etxera joan gura, barrero bere atzipetua izateko bildurrarren, eta bere menpe-

¹ [Auhendura (L), (de 'auhen' lamento), Arrenkura (B): pena, aflicción.]

bere azpiko zitueneri, eman zezaten gizon hura zaku baten barnean eta bota zezaten ur handira¹. Joan ziren. Erregek erran bezala, eman zuten zaku baten barnean, eta ur handiari buruz abiatu ziren.

Bidean zoazilarik, sartu ziren ostatu batean, beren zakua athean utzirik.

Edaten ari zirelarik ostatu barnean, zakua barnean zen gizona, norbait heldu zela sumaturik, hasi zen oihuka: «Ez dut nahi! ez dut nahi!» Bidaiantak², hurbildu eta, galde-tu zion: «Zer ez duzu bada nahi?» Eta, zaku barnekoak ihardesten dio: «Erregeren alabarekin nahi naute ezkontarazi. Bainan nik ez dut nahi, eta urera botatzen naute!» Orduan, bertzeak: «Gizonak, hobe duzu baietz erraitea!» —Eta harek, bethi: ezetz!

Bertzeak erraiten dio orduan: «Ori, nik bethi *ba* erran nezake! Nahi nauzu utzi zure orde? —Ba, ba, dio ihardesten gure gizonak. Eman zaite hemen, berehala.» Eta erran bezala egin zuten.

Eta nola zakuan eman zen gizon hura artzaina baitzen, haren arthaldea bildu eta bazeraman bertzeak.

Bere ardiekin bidean zoalarik, buruz buru egiten du erregerekin... eta hunek, harriturik, galdetzen dio: «Nundik heldu haiz?» —«Nundik heldu? Itsasotik... Ez ninduzun harat igorria?» —«Ba, bainan handik ez duk nehor gibelerat ethortzen, eta ez haiz hi han izatu!» —«Ba, jauna, ba, handik heldu naiz, eta ardi hauk ere handik ditut. Eta ez baduzu sinhesten, zato enekin ikustera, ezen, nitaz geroztik, harat ganak, hek ere, badire bertze zombait.»

Gan zen errege itsas-bazterrera, eta urean ikusi zuen,

ko zituzaneri aginduten dautse imini egiela a gizona zorro baten barruan eta bota egiela ibaira¹. Joan ziran. Erregek esandakoanez, imini eben zorro baten barruan eta ibai alderantz abiau ziran.

Bidean joazela, ostatu baten sartu ziran, euren zorroa atean itzirik.

Edaten ziarduela ostatu barruan, zorro barruko gizona, norbait etorrela susmaurik², deadarka asi zan: "Ez dot gura! ez dot gura!" —Bidaztiak², urreratuta, baditauntso: "Zer da gura ez dozuna?" —Eta zorro barrukoak erantzuten dautso: "Erregeren alabeagaz ezkondu erazo gura dauste. Baiña nik ez dot gura, eta uretara botaten nabe". Orduan besteak: "Gizona, oba dozu baietz esatea!" —Eta arek, beti: ezetz!

Badiñotso besteak, orduan: "Akoa, nik beti *bai* esango neuke! Gura nozu itzi zure ordez?" —"Bai, bai" erantzuten dautso gure gizonak. "Sartu zaitte emen bereala". Eta esandakoanez egin eben.

Eta zorroan sarturiko gizona artzaiña zanez, aren artaldea batu eta baeroian besteak.

Bere ardiakaz bidean joala, erregea aurkitu eban... eta ak, arriturik, itaunduten dautso: "Nondik ator?" "Nondik etorri? Itsasotik. Ez ninduzun zeuk arantz bialdu?" "Bai, baiña andik ez dok iñor atzera etorten, eta i ez az an izan!" —"Bai, jauna, bai, andik nator, eta oneek ardiok bere andi-koak dodaz. Eta sinistuten ez badozu zatoz ikusten neugaz, ni baiño geroago arantz joanda, aek bere, badira beste batzuk bada-ta".

Joan zan errege itxas-bazterrera, eta uretan, zarrapasta-

¹ [Ur handi (L), Ibai (B): río.]

² [Bidaiant (L), Bidazti (B): caminante.]

zalapartaka, ezin ithoz ari, doidoia botaturikako artzain gaxo hura.

Eta erregek erraiten dio gure gizonari: «Ez duk hatik hoi gibelerat heldu!» —«Ez, ederrenen berexten¹ ari da, eta mugitzen ahal zare, nahi baduzu nik bezalako arthaldea izan!»

Eta hainbertzenarekin, erregek urerat salto egin zuen, eta han itho zen.

ka, ito bearrez eta ezin, orduxe-orduxean botauriko artzain gaisoa ikusi eban.

Eta badiñotso erregek gure gizonari: "Orj, orraitño, ez dok atzera etorri!" —"Ez, ederrenak aututen¹ diardu orrek, eta zu zeu bere igituko al zara, nik lango artaldea nai badozu izan!"

Eta onenbestez, erregek zapart egin eban uretara, eta antxe ito zan.

Euzkadi, 1933, Abenduak 1, 7.

¹ [Berezi (L), Autu (B): elegir.]

7. ARTZAINA ERREGE

Duela aspaldi aspaldi, Errege baten alaba arras eri zen.

Alde guzietako medikuak izanak omen zitzaizkon, zela Español, zela Angles, zela Frantses, eta batzuek ez bertzeek ezin senda! Erregeren alaba bethi geroago eta gaizkiago zoan, eta bazterrak ilhun¹ ziren herri guzian.

Denetan fama barriatua zen, mendi, zelai eta xokomoko guzietan, eta Ellande Artzainak berak bazakien bere mendi kaskoan. Eta, harek ere, bertze guziek bezala, hainitz bihotz-min² bazuen. Eta futxo, deusik ezin egin!...

* * *

Egun batez, Erregeren alaba bethi gogoan, harat hunat bazabilarik mendian, ohartzen da Ellande, ardi bat eskas duela arthaldetik. Zer egiten du? Bere ardi guziak sartzen ditu etxolan, eta abiatzen da, gauaren-gauerdi, bere ardi errebelatuaren ondotik.

Gau-erditik oren bateko heinean, mendixka batean zoa-larik, bet-betan, hor, sekulako burrunba aditzen du... Beha

7. ARTZAINA ERREGĒ

Aspaldi-aspaldi dala, Errege baten alabea geisorik egoan, gustiz txarto.

Alde gustietako osalariak joan ei jakozan, bai Españia bai Ingelandar, bai Prantzetar, eta ez batzuk ez besteak ezin osatu! Erregeren alabea beti egoan geroago txarrago, eta gogo-illun¹ ziran bazterrak erri osoan.

Danean egoan zabal albistea, mendi, zelai eta zokondo gustietan, eta Arnolda Artzainak berak bere baekian beren mendi tontorrean. Eta, arek bere, beste gustiak legez, tamal² andia eban. Eta kontxo, ezin ezer egin?...

* * *

Egun baten, Erregeren alabea beti gogoan eta batera bestera mendian ebillela, oartuten dau Arnoldak, ardi bat gitxiago dauala artaldean. Zer egiten dau? Sartuten dituz txabolan bere ardi gustiak, eta asten da bidean, gauerdigauerdian, bere ardi biurriaren jarraian.

Gauerditik ordu batak alderantz, mendiska baten zear joala, bat-batean, aor, erakusmeneko zaratea entzuten

¹ [Ilhun (L), Gogo-illun (B): triste.]

² [Bihotz min (L), Tamal (B): pena.]

eta beha emaiten da; bainan, nola arras ilhun baitzen, ez du deusik ikusten. Urrunago badoa; burrunba are handiago. Izitzen da, eta ondoan zuen arbola handi baten gainerat igaiten...

Ellande sekulan gainerat orduko, izigarrizko haize batean, hor heldu dira sorginak sorginen gainean. Heien erdian, *Sorgin-Nagusia*, liburu handi bat galtzarpean. Ellande-Artzaina zagon arbolaren azpian gelditzen dire hain xuxen! Haren harritzea!

Sorgin guziek agur egiten diote berehala beren Nausiari. Jar-alki gorri gorri bat ekartzen diote, eta jartzen da Nausia. Denek musu emaiten diote liburuari, eta berehala hasi zen *Akhelarre* edo sorginen *Zaba*.

Bere manuen emaiten ari, hasten da beraz Sorgin-Nagusia:

«Zuek, Katero eta Hamala, holako eta halakoari, holako eta halako gaitza! —Zuek, Niñika eta Katalin, holako eta halako etxean holako eta halako jendea suntsi!»

Eta Katero, Hamala, Niñika eta Katalin joan ziren berehala, erkatz-gider¹ batzuen gainean, zoin bere alde.

Eta gero, bertze sorgineri galdegiten diote Nausiak, oihu batean:

«Eta zuek, egin ditutzea nik erranak?»

Eta guziek lurreraino agur eginez, ihardesten diote:

«Bai Nausia, egin ditugu denak.

—Ongi hola. Zoazte beraz orai, eta deskantsa zaizte zonbeit egunez.»

Eta ordu berean barraiatu zen gau hartako Akhelarre. Sorgin guziek, berriz, lurreraino kurturik, adoratu zuten beren Nausia, eta musu eman liburuari. Eta gero, frun, frun,

dau... Jarten da begira eta begira; baiña, gustiz illun egoanez, ez dau ezer ikusten. Badoa arantzago; zaratea ara bere andiago. Ikaratuten da, eta ondoan eban arbola andi batera igoten da...

Ez eban Arnoldak igon baiño egin, eta ara non datozen izugarrizko aize bategaz sorgiñak sorgiñen ganean. Aen erdian, *Sorgin Nagosia*, liburu andi bategaz galtzarpean. Arnolda Artzaiña egoan arbolearen azpian geldituten dira, ain zuzen bere! Aren ikarea!

Sorgin gustiak, bereala, agur egiten dautse Nagosiari. Jarleku gorri-gorri bat ekarten dautse, eta jezarten da Nagosia. Danak egiten dautse mun liburuari, eta bereala asi zen *Akelarrea* edo sorgiñen *Sapatua*.

Bere aginduak emonez, asten da beraz Sorgin Nagosia:

—Zuek, Katero eta Amala, urliari eta berendiari, one-lango eta arelango gatxa! Zuek, Niñika eta Katalin, ain etxetan eta onen etxetan, urlia eta berendia ezereztu!

Eta Katero eta Amala, Niñika eta Katalin beingoan joan ziran itxuski-girten¹ batzuen ganean, bakoxta bere aldetik.

Eta gero, itaunduten dautse nagosiak beste sorgiñeri, deadar garratz baten:

—Eta zuek, egin al dozuez nire esanak?"

Eta gustiak, lurreragiño agur egíñez, erantzuten dautse:

—Bai Nagosia, danak egin doguz.

—Ondo da. Zoaze orain, beraz, eta atsedan egizue egun batzutan.

Eta ordu berean banandu zan gau atako Akelarrea. Sorgin gustiak, barriro, lurreragiño makurturik, gurtu egin eben euren Nagosia eta mun egin liburuari. Eta gero,

¹ [Erkatz-gider (L), Itxuski-girten (B): mango de escoba.]

frun, hedoietan barna igan zen Sorgin-Nausia, eta hantxet suntsitu berehala...

Arte hartan guzian, ikhara gorrian zagon Ellande bere arbolaren gainean, *puies*¹ eta *puies* alderdi guzietara. Sorgin-Nausia bere liburu handiarekin gaki ikustearekin bizkitartean, pizkortu zen denik ere pixka bat. Ordu arte ez zitzaizkonaz geroz sorginak ohartu, batetarat ez othe zoan gutixago beldurtiturik ere?

Bederazka bederazka bazoazin bertzalde sorgin debruak, eta biga ziren orai geldituak, han, arbolaren azpian. Eta biak huna non hasten diren solasean:

«Erran! Badakin, dudarik gabe, Erregeren alaba nola arras eri den?

—Nondik ez?... Badere, hik emana dion gaitza?

—Nik emana zioinat, segurki. Ez zagon behin oraino sendaturik, no²?... Eta bizkitartean, etxean berean liken sendagailua!

—Zer luke bada egitekorik?

—No, bere etxe-aintzinean badin Erregek erreka-estali³ bat. Erreka-estali hartan badun apho-harmatu⁴ bat; harekin eginikako saldatik hiru aldiz edatea aski bailuke eriak, sendatzeko.

—Horixet baizik ez! No, orduan badiken hilarteraineko gaitz!...»

furrun, furrun, furrun, edoien barruna igon zan Sorgin Nagosia, eta antxe itsutu bereala...

Arte gusti atan, ikara gorrian egoan Arnolda bere arbola ganean, *pues*¹ eta *pues* alderdi gustietara. Sorgin Nagosia bere liburu andiagaz joaten ikustean, orraitño, bizkortu egin zan, apur bat baiño ez bazan bere. Ordurarte sorgiñak bera oartu ez eben ezkeru, ez ete zan era batera geroago bildurrik ezago egoteko bere?

Ganera, bajoiazan banan-banan, banan-banan sorgin deabruak, eta une atan bi egozan geldituta, an, arbolearen azpian. Eta ara non asten diran biak berbetan:

—Esan! Ba al dakina, aurki, Erregearen alabea gustiz txarto jagonana geisorik?

—Jakin ez, ostera?... Arean, euk emon al dautsona geisoa?

—Neuk emon jautsanat, bai bein. Ez dona beingo-beingoan osatuko, alabatxo...! Eta orraitño, osagarria etxean bertan izan lajeikena!

—Zer egin bear izango lajeukena, bada?

—Ara, txikiña; Erregek bere etxe aurrean karkaba³ estaldu bat jaukona. Karkaba aretan turtube⁴ bat jagona; aregaz eginiko saldea iru bidar edatea naikoa lajeukana geisoak osatuteko.

—Makala dona! Txikiña, orduan izango iauna illarteragiñoko gatxa!..."

¹ [Pues (BN), Pues (BN, L, S): exclamación para poner en fuga el diablo o a las brujas, colocando el dedo pulgar entre el índice y el corazón. (Bizkaian bere ba ei zan onen ordezko beste berba bat, sorgiñak-eta uxatuteko. Inok baleki eta EUSKADÍra bialdu gura, pozik argitaratuko leuskie "Lauaxeta" jaunak).]

² [No (L): palabra usada para dirigirse a una mujer, como 'to' se emplea para dirigirse a un hombre. Ambos son del trato familiar.]

³ [Erreka estali (L), Karkaba (B): alcantarilla.]

⁴ [Apho harmatu (L), Turtube (B): tortuga.]

Argi-urratzea hurbilduxea bide zen. Oilar batek, han, urrun, egin zuen: *Kukuruku!* Eta, Ellande batere ohartu ere gabe, suntsitu ziren azken bi sorginak...

* * *

Ongi argitu zuelarik gero, arbola gainetik jautsi zen gure Ellande, eta maiz aski gibelerat behatzen zuela, haia haia urrundu zen. Aire berean bazoan Erregeren etxera.

Gan, gan, bethi gan, heldu zen azkenean. Karrikan sartu deneko, gora gora erraiten aditzen du: azken hatsetan dela Erregeren alaba. Bainan, nehuri behatu ere gabe, zalu zalua badoa Jauregira. Sekulako soldadoak baziren han, eta bati erraiten dio Ellandek:

«Errege ikus diteke?

—Errege ikus? Bai, zera! Badu bertze egitekorik goiz huntan! Alaba hiltzen ari zaio eta!

—Hortako bereko dut ikusi behar Errege! Hatsa doi-doia duen ber haren alabak, nik sendaturen dut eria...

—Gizona, baduzu burutik? Hiru erresuma hautako medikuek deus ezin egin dute eta!...

—Zer munta du gero, nik badezaket hek ez dezaketena?

—Zato orduan, eta berehala; banoa Erregeren bilha.»

Laster eta laster badoa soldadoa, eta berehalakoan heldu da Errege, nigarrez urtua.

«Agur, Jaun Erregea! Bizi da oraino zure alaba?

—Bizi ba, bainan doi-doia!

—Ez hola etsi, Jaun Erregea! Salbu da zure alaba, nik erranak egin nahi balinbaditutzu segurik.

Goiz aldia ija urrean zan, oiez. Oillar batek, an, urrun, *kukurruku!* egin eban. Eta Arnoldak bapere oartu barik itsutu egin ziran sorgin biak..

* * *

Ondo argitu ebanean gero, jatzi zan gure Arnolda arbola ganetik, eta sarri askotan atzerantz begiratuten ebala, arinarin urrundu zan. Tiki-taka, tiki-taka, bajoian Erregeren etxera.

Joan, joan, beti joan, eldu zan azkenean. Kanean sartuten daneko, berba-altuka esaten entzuten dau: azkeneko arnasetan dagola Erregeren alabea. Baiña, iñori begiratu bere egin barik, txuxen txuxen doa Jauregira. Naidan gudari egozan an, eta baditauntso bateri Arnoldak:

—Errege ikusi al daiteke?

—Errege ikusi? Bai, zera! Badau ak beste zereginik goizeon! Alabea ilten jagoko-ta!

—Orrexe-orrexegaitik ikusi bear dot Errege. Arnasea ozta-ozta badau bere aren alabeak, neuk osatuko dot geisoa.

—Gizona, ba al dozu bururik? Iru erreinuotako osagilleak ezin dabe ezer egin eta!

—Zer ardura dau, ostera, aek ezin daikeena nik al badaiket?

—Zatoz orrezkero, eta bereala; banoa Erregeren billa".

Badoa gudaria arinik arin, eta beingo baten dator Errege, negarrez urtuta.

—Agur, Errege Jauna! Bizi al da oindiño zure alabea?

—Bizi bai, baiña ozta-ozta!

—Ez olan etsi, Errege Jauna (ez usterik galdu). Salbauta dago zure alabea, nire esanak egin gura badozue bez beintzat.

—Bakarrak baditut eginik orai arte, eta denak bethi alferretan... Bainan, hala ere, zeri loth ez ninditake berriz oraino? Hots, errazu zer dutan egitekorik?

—Jauregi aintzineko erreka-estalia behar duzu berehal berehala urratu...

—Jauregi aintzineko erreka-estalia?

—Ba, Jaun Erregea, eta berehal berehala, zure alaba gaixoaren onetan!»

.....
Errege, Artzain eta soldado, oro badoazi lasterrez.

Ellandek urratzen du erreka-estalia, eta, han, atxemaiten dute apho-harmatu bat gaitza.

«Huna guk behar duguna eta hura bera. Apho-harmatu hunekin eginikako saldatik edan *behar* du zure alabak, hiru egunez segidan. Hiru egunen buruan ikusiko nauzue berrien jakiterat ethorria, eta, arimaz egia, berri onak emanen dazkidatazuela.»

.....
Huts edo kausi, zer nahi gertha, Ellandek errana egin zuten beraz hiru egunez, eta *hirugarren eguneko, Erregeren alaba sendatua zen, sendatua osoki!!...*

Hirugarren egunean, heldu zen ere Ellande, ongi zakizkan berrien jakitera.

Eta, horra nun, Erregek egin zion sekulako ongi-ethorria. Bidez-erdi igorri ziozkan bere gortheko soldadoak. Karrosak karrosaren gainean. Jauregiko athean, Ellanderen beha egoki, hantxet ziren Errege Jauna bera eta haren alaba. Eskutik harturik, ereman zuten biek jateko-barne handi ba-

—Egiñal gustiak eginda nago orain artean, eta danak alperrik beti... Baiña, alan bere, zeri ez ete neuskio nik eutsiko barriro, osterá bere? Ea, esan egizu zer egin bear dodan?

—Jauregi aurreko karkaba estaldua urratu egin bear dozu beingo-beingoan...

—Jauregi aurreko karkaba estaldua?

—Bai, Errege Jauna, eta beingo-beingoan, zeure alaba gaisoaren onarren!"

.....

Errege, Artzain eta gudari, badoaz gustiak arineketan.

Urratuten dau Arnoldak karkaba estaldua, eta, antxe, turtube andi bat aurkituten dabe.

—Aemen guk bear doguna eta axe bera. Turtube onegaz eginiko saldatik edan bear dau zure alabeak iru egun jarraituetan. Iru egun barru ikusiko nozue ni, barriak jakiten etorrit; eta, neure arimearren, barri onak emongo al daustazuez."

.....

Uts ala bete, jazo daiteana jazo, Arnoldak esanikoa¹ egin eben beraz iru egunean, eta *irugarren egunerako, Erregeren alabea osatuta egoan, gustiz osatuta!*...

Irugarren egunean eldu zan baita Arnolda bere, ondo ekizan barriak jakiten.

Eta, ara non, sekulako ondo etorria egin eutsan Erregek. Bide erdi bialdu eutsozan bere jarraigoko gudariak. Zalpурdiak zalpурdien ganean. Jauregiko atean, Arnoldaren begira egonez, antxe ziran Errege Jauna bera eta aren alabea. Eskutik artuta eroan eben biak jateko gela andi batera;

¹ Idazleak 'esanikua' dakar.

tetara; eta ikaragarriko bazkaria egin zioten hantxet, bihar-
mun arte iraun baitzuen bazkariak...

Eta, ororen buruan, hala ongi ere zen bezala, Erregeren
alaba Ellanderekin esposatu zen, eta, hantxet, zorion bethe-
an bizi izan ziren, Jainkoak daki zonbat urthez.

eta ikaragarritzko bazkaria egin eutsen bertan, biaramone-
rarte iraun eban-da bazkariak...

Eta, gustiaren azkenean, alan izatea ondo bere ba zan
eta, Erregeren alabea Arnoldagaz ezkondu zan, eta, zorion
betean bizi izan ziran antxe, Jaungoikoak¹ daki zenbat urte-
an.

Euzkadi, 1933, Abenduak 19, 29.

¹ Idazleak 'Jaungoikuak' dakar.

8. ERREGINA HIRIZ

Bertze orduz, Erregeren alaba eri zen, eta nehork ez zezaken senda. Mediku, azti eta sorgin, oro han zabiltzan errabiaturik, eta bethi debaldetan. Sendagailurik ez zen neskatxarentzat. Eta hiratua egun guzietz gehiago, hirri bat gabe sekulan, ilhun ilhuna bethi, ahituz bazoan hobirat.

Hor, zeri loth ez jakinez gehiago, Erregek oihu eginarazten du: bere alaba emanen diola ezkontzaz alaba horri hirri bat eginarazten dionari...

Etxola txar batean bizi, baziren hiru anaia. Erregeren agintza jakinik, beren buruarekin egiten dute: behar dutela bada ikusi, eian ez othe diotenez eriarri hirri bat nolazpeit eginaraziko.

* * *

Zaharrenak hartzen du beraz berekin *sagar gorri gorritz* betherikako otharre bat, eta badoa. Bidean hola doalarik, sorgin-zilo batean eta harat eroria, ikusten du atxo xahar bat —sorgina— nihundik zilo hartarik ez baitzitaken athera. Laguntza galdez, oihuka emaiten zaio beraz atxoa. Bainan, tuntik behatzen ere ez diola, badoa aintzina gure muthikoa. Erregeren Jauregian sartzen da; baderamate eriarren aintzinerat. Eriak behatzen diote *sagar pulliteri*, eta,

8. ERREGINA BARREZ

Atxinako aldi baten, Erregeren alabea geisorik egoan, eta iñok ezin eukean osatu. Osagille, aztru eta sorgin, gustiak ebiltzan an amorraturik, eta beti alperrik. Ez egoan osagarririk neskatilearentzat. Eta egoan baiño egunean erkinago, barretxo bat barik eguno, gogo-illun gogo-illun beti, mirrirtuez-mirrirtuez bajoian obira.

Aor; geiago zeri eutsi ez jakinik, Erregek aldarriak jo eragiten dituz: bere alabea emongo dautsola ezkontzaz, alaba areri barre bat eginerazoten dautsonari...

Txabola txiro baten, ba ei ziran bizi iru anaie. Erregeren agintzaria jakinik, egiten dabe eurekautan: ikusi egin bear dabela, bada, ea ez ete dautsenez geisoari barre bat zelan edo alan egin erazoko.

* * *

Zaarrenak, beraz, artuten dau beragaz *sagar* gorri-gorritz beteriko otzara bat, eta badoa. Bidean alan doala, badakus sorgin zulo baten eta ara jausita, atso zaartxo bat —sorgina— iñondik iñora andik urten ezin eikeana. Laguntzea eskatuez, deadarka asten jako, beraz, atsoa. Baiña tautik bere begiratuten ez dautsola, badoa atxina gure mutilla. Sartuten da Erregeren jauregian; badaroe geisoaren aurrera. Geisoak begiratuten dautse *sagar* politeri, eta, beingoan,

berehala, bi eskuez baztertzen ditu, sekulan baino ilhunago bera dagola.

Bigarren anaiak *lore* pullit pullit batzu harturik, badermazka Jauregirat. Sorgin-zilo berean ikusten du harek ere atxoa. Bainan ez dio zaharrenak baino hobeki behatzen, eta badoa aintzina. Jauregirat denean, bere *lore* pullitak eskaintzen diozka eriari. Bainan, behatzen ere ez diotela den gutienekorik, eskuez berehala baztertzen diozka Erregina gazteak.

Deus berekin hartzen ez duela, badoa orduan anaia gazteena. Sorgin-zilotik laguntza galdez ari, ikusten du atxoa, eta, berehala ere handik atheratzen.

Dena loriatua, hasten zaio orduan sorgina:

«Zer sari eman dezazuket orai ordainez? Nahi duzu fortuna egin?»

—Ez dut bada egin nahi? Hortarakotz abiatua naiz eta etxetik, Erregeren alabari hirri bat eginarazi beharrez, harekin gero ezkontzeko.

—Hori beraz *bildotx beltz* hau. Harrezazu zurekin eta zurekin atxik bethi, deusezetan truk ez duzula besoetarik uzten behin ere.»

* * *

Bere bildotxa besoetan, badoa beraz muthil gaztea, eta, arratseko heltzen da Erregeren herriko ostatu batetara. Ohe bat galdetzen du gauaren iragaiteko. Bainan, ihardesten diote tokirik ez dutela batere, eta joan behar duela jaun erretoraren etxerat, han baduzkela behar dituenak oro. Badoa beraz aire berean erretoraren etxerat, eta, erran bezala, arras ongi hartzen du erretoraren gelariak: ihaurkiz eta bazkaz

esku biakaz baztertuten dituz, eta iñoiz baiño gogo illunago geldituten da.

Bigarren anaiak, *lore* polit batzuk arturik, badaroaz jau-regira. Sorgin zulo bereatan, ikusten dau atsoa arek bere. Baiña, ez dautso zaarrenak baiño obeto begiratuten, eta badoa atxina. Jauregiratu danean, bere lora politak eskiniten dautsoz geisoari. Baiña, danik gitxienik begiratu bere egiten ez dautsela, beingoan eskuaz baztertuten dautsoz Erregina gaisoak.

Ezer bere artuten ez dauala, badoa orduan anaie gazteen. Sorgin zulotik laguntza eskatuz daragoion atsoa ikusten dau, eta, bai bereala bere andik ateraten.

Poz-pozik, asten jako orduan sorgiña:

—Zer sari emon daiketsut orain ordaiñez? Nai al dozu zoria egin?

—Nai izan ez, ostera? Orretarako asi naz bidean etxetik, egin-eginean bere, Erregeren alabeari barre bat egin erazoteko ustez, gero arexegaz ezkonduko.

—Orrezkero, eutsi *bildots baltz* au. Artu egizu zeugaz eta zeugaz euki beti, ezerberezen alderako zeure besoetatik bein bere itzi barik".

* * *

Bere bildotsa besoetan dauala, badoa, beraz, mutil gaztea, eta, arratserako, elduten da Erregeren erriko ostatu batera. Oe bat eskatuten dau gaua igaroteko. Baiña, tokirik bapere ez dabela erantzuten dautse, eta abade jaunaren etxera joan bear dauala, eta bear dituzan gustiak izango dituzala an. Badoa beraz tiki-taka abadearen etxera, eta esandakoanez, gustiz arrera ona egiten dautso abadearen giltzariak: azpigarritan eta bedarretan bear zan gustia iza-

behar zen guzia izanez, heian ezarriren dutela bildotxa, eta ganbara bat emanen diotela berari. Harek ezetz, berekin behar duela bildotxa. Harritzen da aphez gaizoa, bainan thematzen ere gure muthikoa. Azkenean, xoro bat zitekela, onhartzten diozkate oro, eta badoazi zoin bere ganbaralat, muthil gaztea bethi bere bildotxa besoetan.

Goiz alderat bizkitartean, jaun erretora ez zagoken gehiago larruaren barnean, bildotx mixteriozkoaren berri zerbeit jakin nahiz. Gako-xilotik behatzen du lehenik, bainan ez zezaken deusik ikus. Pulliki pulliki, harrabotsik batherine gabe, sartzten da orduan ganbaran. Muthikoa lo zagon ederki, bere bildotxa bethi besoetan. Bildotxari beharri batetarik lotzen zaio erretora. Marrakaz hasten da alimalea, muthikoa atzartzen, apheza harritzen eta ihes egin behar duela abiatzen... Baduk hoberik!... Nihundik ez dezake utz bildotxaren beharria!...

«Hel! Hel!»¹ oihuka hasten da orduan eta karrasiaka. Oihu hetarat atzarririk, lasterka hor heldu da gelaria², harro harroa ileak, zilo handi bat tarrapatan ezarri duen soineko tzarraren erdi erdian. Bere nausia lagundu beharrez, bildotxaren bertze beharriari lotzen da, eta ezin diro utz gehiago. Muthikoa bildotxari tiraka, tiraka hari berari erretora eta gelaria, kanpora badoazi hiruak trumilka...

Baratzean iragaitearekin, bere buruaz ahalketurik, aza-hosto handi bat hartzen du gelariak eta emaiten gibel-aldean, soineko ziloaren estaltzeko. Eta badoazi, furfarian, herrian harat, Jauregiko alderat.

nez, kortan ezarriko dabela bildotsa eta logela bat emongo dautsela berari. Ezetz berak, beragaz euki bear dauala bildotsa. Arrituten da abade gaisoa, baiña bai gure mutilla bere tematen. Azkenean, zoro bat izan zeitekeala eta, ontzat artuten dabe gustia, eta badoaz bakotxa bere gelara, mutil gaztea beti bildotsagaz besoetan.

Goiz alderantz, orraitño, abade jauna ezin zeitekean egon geiago bere narru barruan, misteriodun bildotsaren barri zerbait jakin gureaz. Giltz zulotik begiratuten dau lenengo, baiña ezin zeikean ezer ikusi. Polito-polito, abarrotsik bapere barik, sartuten da orduan logelan. Mutilla lo ederrean egoan, bere bildotsa beti besoetan ebala. Bildotsari belarri batetik oratuten dautso abadeak. Asten da aberea beeka, mutilla ixartuten da, abadea ikaratuten eta igesi egin gurarik abiauten... Bajagok obarik...! Iñondik iñora ezin dautso itzi bildotsaren belarriari...!

—"Lagun niri! Lagun niri!" deadarka asten da orduan eta garraizika. Deadar aekaz iratzaturik, ara non datorren arineketan giltzaria, uleak naskil-naskil eginda, zarrapastaka jantzi dauan soiñeko mantarraren erdi-erdian tarratada andi bat dauala. Bere ugazabari lagundu gurarik, oratuten dautso bildotsaren beste belarriari, eta ezin dautso geiago uts emon. Mutilla bildotsari tenka, tenka arexeri berari abadea eta giltzaria, an doaz irurak parrastaka kanpora.

Ortun zear igarotean, bere buruaz lotsaturik, aza orri andi bat artuten dau giltzariak eta atze aldean iminten, soiñeko tarratadea estalduteko. Eta badoaz, zurrumillo baten, erritik arantz, jauregi aldera.

¹ [Hel! Hel! (L): ¡Socorro! ¡Socorro!.]

² [Gelari (L): sirvienta de sacerdotes.]

Eta horra, azari oharturik eta hartaz gutziaturik, heldu zaizkotela bide-bazterreko hiru ahuntz alimale. Aza-hostoa hunkitu orduko, hari lothuak gelditzen dire, eta zipoteka abiatzen gero... gelari, aphez, bildotx eta muthikoarekin.

Urrunago, nola bolanjer-okina jeikia baitzen orduko eta hantxet baitzagon athean, oihu egiten diote: «Zato, othoi, eta berex gaitzatzu!» Badoa okina, eta bera hantxet lotzen.

Harotz bat bere lantegian ari ikusten dute eta hel egiten diote karrasiaka: «Gizon hazkarra baitzare, zato gure berex-tera!» Lasterka badoa harotza, eta bera lotzen hura ere.

Urruntxago, beren erkatzak¹ eskuan, athe-aintzinean kalkan ari, baziren bi emazteki. Zapartakan heldu, kabaleria hura guzia ikusi duteneko, hirri eta hirri hasten dire bi atsoak. Gelariak oihu egiten diote: «Hirriz hola artzeko orde, hobeki egin ziniote, gure berextera heldu bazinezte!» —«Berextera?... Huna, huna!» Eta, beren erkatzekin, jo eta jo hasten zaizko jende eta alimalezko soka luzeari... Ah! baia! Erkatzak lotzen dira hantxet, lehen ukaldian berean, eta heien jabeak gero erkatzeri.

Bihurgune batean, xakur baten ondotik eta hari estekatua, bazoan itsu bat. Gure dantza-korda errabiatua aldean iragaitearekin, xakurra sainga eta sainga emaiten da, asiki-ka atsoeri. Lotzen da berehala hura ere, eta itsua gero harekin.

Eta, firrindilaka, badoazi oro, Erregeren Jauregirat ari zirela hurbiltzen.

* * *

Eta, azea ikusirik eta axe orturik, ara non jatorkezan bide bazterreko iru auntz erakusmeneko. Aza orriari ikututen dautseneko, axeri lotuta geldituten dira eta zarrapastaka abiauten gero... giltzari, abade, bildots eta mutillagaz.

Urrunago, panadero-okina jagita egoan ordurako, eta antxe atean egoanez, deadar egiten dautse: "Zatoz, arren, eta askatu gagizuz!" Badoa okina eta, bera antxe lotu.

Errementari bat bere lantegian ziarduala ikusten dabe, eta laguntza eskatuten dautse garraizika: "Gizon indartsua zara-ta, zatoz gu askatuten!" Badoa arineketan errementaria eta, bera lotu axe bere.

Urruntxoago, baegozan andra bi euren itxuskiak¹ eskuetan zituezala, ate aurrean barriketan. Zarrapastaka datorren a mandotedi gustia ikusten dabeneko, asten dira atso biak barreka eta barreka. Giltzariak deadar egiten dautse: "Barrezka olan jarri barik, oba zeunkee gu askatuten etorri!" "Askatuten?... Ara, ara!" Eta euren itxuskiakaz jo eta jo asten jake lagun eta aberezko soka luzeari... A! Bai e? Itxuskiak itxasita² geldituten dira bertan, eta gero jaubeak euren itxuskieri.

Bide biurgune baten, bajoian itsu bat txakur baten atzetik eta areri txikotaz lotuta. Gure dantza-soka amorratua albotik igaroeran, asten da txakurra ausi eta ausi, atsoeri aginka. Beingoan geldituten da lotuta a bere, eta itsua gero aregaz.

Eta, txikindolako, badoaz gustiak, Erregeren Jauregira urreratuez.

* * *

¹ [Erkatz (L), Itxuski (B): escoba.]

² [Itxasi (B): apegar.]

Lorik ezin-eginez jadanik jeikia, bethi bezen ilhun, Jauregiko leiho handi baten ondoan erdi etzana zagon Erregeren Alaba gaixoa...

Elgarri lothuak, eta soka-dantza lehergarri¹ batean heldu, ikusi zituelarik... muthil gaztea, bildotxa, apheza, gelaria, aza-hostoa, ahuntzak, okina, harotza, bi emaztekiak, xakurra, itsua, hirri eta hirri hazi zen Erregina gazte gaixoa. Eta hirri egitetik ez ziteken geldi gehiago, xoro bat bezala karkaraka ari bethi...

Zalapartaka ethorri zen Errege, loriatu baitzen lehenik, bere Alaba hirriz hola lehen aldikotz ikusirik aspaldiko orde. Bainan gero berriz, izitu zen, beldurrez eta hirri egitetik ez zitzakion geldi gehiago. Eta hasarre gorrian eman ere zen laster, putinka Jauregi aintzinean bethi ari ziren jende heien kontra, bere Alaba erhoarazten ziotela. Guzien hilarazteko manua eman zuen, eta soldadoak jada lasterka bazoazin, kanitak eskuan...

Betbetan, muthil gaztea tankez gelditu zen, eta haren ondotik lasterka heldu ziren guziak muthurka joan ziren elgarren gainerat, bainan elgarren ganik berexiak ere zirela ordutik. Eta gero, oiuhu handi batean manatu zion Erregeren Alabari: «Aski hola!...» Bildotxa marrakaz hasi zen hura ere, eta Erregina gazteari bere hirri xoroa baratu zitzaion

Lorik egin ezinda ordurako jagita, beti legez gogo-illun, baegoan Erregeren Alaba gaisoa leio andi baten ondoan erdi etzanda...

Ikusi zituzanean alkarrereri itxasita eta soka dantza lerdagarri¹ baten etozala... mutil gaztea, bildotsa, abadea, giltzaria, aza orria, auntzak, okina, errementaria, andra biak, txakurra eta itsua, barreka eta barreka asi zan Erregina gazte gaisoa. Eta barre egiteari ezin itzi eikeon geiago; zoro bat legez karkar eta karkar eragoion beti...

Astrapalaka etorri zan Errege, eta lenengotan sekulako poztu zan bere Alabea barreka olan lenengokoz ikusirik, aspaldiko orde. Baiña gero, ostera, ikaratu egin zan, barre egiteari geiago ezin itzi izango ete eutson bildurrez.

Eta asarre gorritan bere laster jarri zan, jauregi aurrean tenkurtika² eta tenkurtika eragoioen lagun aen ala³, bere Alabeari zoratu eragin bear eutsela-ta. Gustiak erailteko agindua emon eban, eta bajoazan joan gudariak arineketa eskuan gaiñuetak zituezala...

Bat-batean, mutil gaztea drak gelditu⁴ zan, eta aren atzetik etozan gustiak musturrez joan ziran alkarren gancera, baiña bai alkarreganik askatuta bere ordutik geiago. Eta gero deadar andi bategaz agindu eutson Erregeren Alabeari: "Naiko da...!" Bildotsa beeka asi zan bera bere, eta Erregina gazteari lotu⁵ egin jakon beingoan bere barre

¹ [Lehergarri (L), Lerdagarri (B): aplastante.]

² [Tenkurtika (B): a puro tirar.]

³ [Asarre... lagun aen ala (B): enfadado... en contra de aquella gente.]

⁴ [Drak gelditu (B): parar en seco.]

⁵ [Lotu (B): además de "amarrar", "atar", "adherir", tienen en B la significación de "parar", "pararse": "barrea lotu", parar de reirse, parar la risa; "burdia lotu egin da": se ha parado el carro.]

berehala. Sendatua zen behin bethikotz eta maite maitea
egina...

* * *

Hillabethea gabe, Erregek hitzeman bezala, muthil gaz-
tearekin ezkondu zen Erregina, eta haur hainitz¹ izan zuten.

zoroa. Osatuta egoan bein eta betiko, eta maitegarri-maitegarri egina...

* * *

Illabete orduko, Erregek berba emondakoanez, mutil gazteagaz ezkondu zan Erregina, eta beredin¹ ume izan zituezen.

Euzkadi, 1934, Urtarrilak 9, 16.

¹ [Hainitz (L), Beredin (B): muchos.]

9. AXERIA ETA JAUN KAPITAINA

Behin bazen axeri zahar, zahar bat. Zakurrek begietan hartua² omen zuten, auzoko oiloak oro jaten zituelakotz.

Eta, bizkitartean, bere ziloan egonez ere, barurik bethi egoitea heldu baitzitaion, hil edo bizi, gauaz, herrestaka egiten zituen atheraldi batzu.

Bainan, azkenean, etsitu zuen bere buruaz; eta, hala bizitzeak ere deus onik ez zuela, deliberatu zuen... *Ameriketara joanen zela*, Eskualdun etxeko seme asko bezala.

Erran eta egin, badoa, aire berean, untziko³ kapitain buruzagiaren gana, eta erraiten dio:

«Agur, jaun Kapitaina. Fortunaz, leku bat ez zinuke, enetzat, untzi hortan? Ameriketara nahi nuke nik ere...»

—«Ba, leku banuke, axeri jauna; bainan, garasti, karioxko izanen zautzula, ni beldur! Ezen, hogoi urhe peza behar ditut.»

—«Hala hala da, jaun Kapitaina. Bi arditeko bat ere ez nuke nik. Bainan ereman behar nauzu, halere. Zakur guziek

9. AZERIA ETA UNTZIBURU¹ JAUNA

Bein ba ei zan azeri bat. Txakurrak begitan² artuta ei euken, auzoko oillo gustiak jaten zituzalako.

Eta, orraitño, bere zuloan egonaz bere, beti baraurik egotea etorri litzakionez, il edo bizi, arrastaka egiten zitzuzan gauez urtenaldi batzuk.

Baiña, azkenean, gogait egin eban; eta alan bizi izateak bere ezer onik ez ebala-ta... Euzkaldun etxeko seme asko legez, *Ameriketara joango zala* erabagi eban.

Esan eta egin, badoa txuxen-txuxen untziko³ buru nago-siagana, eta badiñotso:

—Agur, Untziburu jauna. Ez zeunke, arean, leku bat niretzat izango untzi orretan? Ameriketara gura neuke nik bere.

—Bai, leku izango neuke, Azeri jauna; baiña, garesti, karutxo izango ete jatzun bildur ni! Ogei urre diru bear dodaz-eta..."

—Alantxe da, Untziburu jauna. Zortzi mariko bat bere ez al dot nik. Baiñan, alan bere, eroan egin bear nozu. Txakur

¹ [Untziburu (B-neol): capitán.]

² [Begietan hartu (L), Begitan artu (B): tomarle a uno en ojo, generalmente para mal.]

³ [Untzi (L, B-b-mu...), Ontzi (B, G): buque (como "untzi", "ontzi", significan también "vasija, receptáculo", algunos escritores empezaron a usar "untzi" en la acepción de "navío", y "ontzi" en la de "vasija", para mejor distinción.]

aintzinean erabilki naute, zonbait egun hautan, eta ez da gehiago enetzat bizitzerik. Har nezazu beraz zurekin, eta hitzemaiten dautzut, untzian erranen dauzkitzutala munduan diren *hirur egia handienak...*»

Jaun kapitainak, hirur egia hek jakin beharrez, huparazten¹ du axeria; eta hau jauzian² iganik, badoazi berehala.

Joan joan, urez-ur, itsasoz-itsaso joan, bazoazin beraz, eta kapitaina egia handien beha, bethi beha! Eta axeriak fritsik ez erraiten!

Azkenean, aldi batez, jaun kapitaina eta axeri jauna untziko leihotik beira egoki ziren. Gau bat zen xoragarria, ilhargi-xuri bat ederra. Bet-betan, kapitainak erraiten dio axeriari:

—«Errak, axeria, zer gau ederra! Eta ilhargi-xuri⁴ hau!»

—«Bai, hala hala da, jaun kapitaina, gauza ederra ilhargi-xuria! Bainan, *bego nausi iguzkia*⁵!» (Lehen egia.)

* * *

Urrunago joan, eta kexatua kapitaina, axeriak deus ez ziola berriz ere bere baitharik erraiten.

—«Errak, axeria, ez zauk iduritzen loria dela holako gauarekin untziz joaitea? Behazok izararte⁷ horri!»

gustiak aurretik narabile egunokaz, eta ez da niretzat bizi izaterik geiago. Beraz, artu nagizu zeugaz, eta untzian, munduan diran *iru egiarik andienak* esango dautsudaz; ber-bea emoten dautsut".

Untziburu jaunak, iru egia aek jakin gurarik, barrura igoteko³ aginduten dautso azeriari, eta a ikotika igonik, ba-doaz beingoan.

Joan, joan, urez ur, itxasoz itxaso joan, bajoazan beraz, eta untziburua egia andien begira, beti begira! Eta azeriak tautik ez esaten!

Azkenean, bein baten, untziburu jauna eta azeri jauna egon egozan untziko leiotik begira. Gau zoragarria egoan; ire-targi zuri ederra. Bat batean, badiñotso Untziburuak azeriari:

—Esaik, azeria; au dok gauaren ederra! Eta ilargi zuri au!

—Bai, alantxe da, untziburu jauna; gauza ederra ilargi zuria! Baiña, *bego nagosi eguzkia*⁵!" (Lenengo egia).

* * *

Urrunago joan, eta asarre untziburua, azeriak, bere kabuz⁶, ez eutsala barriro ezer esaten eta.

—Esaik, azeria; ez al jak irudituten atsegingarri doala olako gauaz untziz joatea? Begira egiok izarratu⁷ orreri!"

¹ [Huparazi (L): hacer subir.]

² [Jauzi (L): salto.]

³ [Barrura igon (B): subir a bordo.]

⁴ [Ilhargi-zuri (L): claro de luna.]

⁵ [Bego nausi iguzkia, eguna, etc: se podría decir: "areago iguzkia"... "eguna"... más (hermoso) el sol... el día... Sin embargo el "bego nausi" tiene apariencias de dicción antigua. A nosotros los bizkainos nos hace recordar el "bego oña", atribuido por la tradición, a la Virgen de Begoña, cuando hubo quien intentó robarle sus zapatos de plata.]

⁶ [Kabuz bere kabuz (B): por propia iniciativa.]

⁷ [Izarratu (B), Izararte (L): cielo estrellado.]

—«Bai, jaun kapitaina, xoragarria duk holako gau ederra! Bainan, *bego nausi eguna!*» (Bigarren egia.)

* * *

Joan, joan, bethi joan, eta kapitainak egiten zuen bere buruarekin: «Jakin izan banu, ez nian axeri tzar hau nerekin hola hartuko ezen, bethi ixil ixila zagok!» Eta, hor, gogoan hartu zuen kapitainak, axeri enganatzailea urerat botako zuela, Ameriketarat heltzean.

Bizkitartean, gisa batera, hartaz dolu ere zuen, eta, Ameriketako leihorra parrean jada zutelarik, erraiten dio axeriari:

—«Errak, axeria, fritsik ez dautak gehiago erraiten. Behazak itsasoari. Zoin eder, zoin ezti egun itsaso hoi, leihorrari hoin hurbil!»

—«Bai, jaun Kapitaina, gauza ederra duk itsasoa! Bainan, bethi, *bego nausi leihorra!*...»

Eta, hirugarren egia hoi erraiten, *brixt*, saltoan badoa axeria lurrerat...

Horra Ameriketarat nola joan omen zen axeria, axeri Eskualduna, hor nonbeit, Bankakoa edo Aldudekoa.

Geroztik, Amerikano bilhakaturik, han bizi omen da, zahar-okitua, oiloz asean bethi, eta diote: *Juif-Erranek, Judu Herratuak* jan beharra duela, egun batez, bere azken azken aphauruan².

—Bai, untziburu jauna; zoragarria dok olako gau ederra. Baiña, *Bego nagosi eguna!* (Bigarren egia).

* * *

Joan, joan, beti joan, eta untziburuak baegian bere kolkorako: "Jakin izan ba najeuk, ez naioan azeri donga au nigaz olan ekarriko, beti isil-isilik jagok-eta!" Eta, aor; Ameriketara eldu eitezanean, azeri engaiñatzalea uretara botatea artu eban gogoan untziburuak.

Orraitiño, alde batera, erruki bere baeban-ta, Ameriketako legorra¹ ija deusela izan ebenean, badiñotso azeriari:

—Esaik, azeria; murtik ez daustak geiago esaten. Begitu egiok itxasoari! Itxaso orren ederra, itsaso orren barea, gaur, legorretik onen urre!"

—Bai, Untziburu jauna; gauza ederra dok itxasoa! Baiña, beti, *bego nagosi legorra...*!

Eta irugarren egia ori esatean, *brist*, ikoti eta an doa azeri lurrera...

Aor Ameriketara zelan joan ei zan azeria, azeri Euskalduna, Bankakoa edo Aldukoa edo or-ortikoa.

Arrezkero, Amerikano biurturik, an bizi ei da, errime zaarkotua, oilloz ase eginean beti, eta diñoenez: *Judegu Erranteak*, *Judar Aronak* jan bear ei dau, egun baten, bere azken-azkeneko janaldian (otorduan).

Euzkadi, 1934, Urtarrilak 18.

¹ [Legor (c): tierra, en contraposición a "mar".]

² [Apahairu (L): comida, en general.]

10. ZAZPI OHOINAK

Behin baziren bi anaia. Ama berrikitan hila zuten, eta, egun batez, zaharrena etxetik abiatu zen, fortuna behar zuela egin.

Ogi handi bat berekin harturik, makila eskuan athera zen beraz herritik, bere anaia gaztea etxean utzirik:

«Ago hi hemen, eta gauzak oro ongi heltzen balinbaizaizkit, badukek gozo gu bientzat ondoko egunetan.»

* * *

Joan, joan, behti joan, lau-bost egunen buruan kausitzen da oihan handi handi bati hurbil. Bere ogi alimaletik koskoa doi-doia gelditzen zitzaion orai, eta nihon fortuna guti zuen ordu arte eginik.

Hor, oihanetik heldu, ikusten du atxo xahar xahar bat, umatua, bi plegu kasik egina, herrestaka baitzabilan gaixoa:

«Karitate bat, othoi, jaun gaztea, Jainkoaren izenean...

—Ori, gaixoa, zuhaur bezen beharrari ari zaizko galdez. Bainan, —Jainkoak bere lorian duela!— gure ama zenari entzun eta ikasi diot, bere guttitik ere behar zaiola bethi

10. ZAZPI LAPURRAK

Beiñola ba ei ziran anaie bi, Ama il barri eben, eta, egun baten, zaarrena etxetik abiau zan bidez, zoria egin bear ebala-ta.

Ogi andi bat beragaz arturik, makillea eskuan ebala, urten eban beraz erritik, anaie gaztea etxean itzirik:

—"Ago! emen, eta gauza gustiak ondo etorri bajakidazak izango dok gu biontzat gozotasunik ganeko egunetan".

* * *

Joan, joan, beti joan, lau edo bost egun garrenean aurkituten dau bere burua baso andi-andi baten urrean. Bere ogi erakusmenekotik ozta-ozta kurrusku bat geldituten jakon orduan, eta nainon bere ordurartean zoririk gitxi eban eginda.

Aor; ikusten dau basotik urteten atso zaar-zaartxo bat, abailduta, toles bi ija eginda, gaisoa dandarrez ebillen bada ta:

—Arren, karidade bat, jaun gaztea, Jaungoikoaren¹ ize-nean...

—Ara, gaisoa; zeu baizen beartsuari zatxiardukoz eskean. Baiña, gure ama zanari —Jaungoikoak¹ zeruetan beuko!— entzun eta ikasita daukotsat, norberen gitxitxotik

¹ Jaungoikoa: Idazleak "Jaungoikua" diño.

eman eskalari... Ogi-kosko hau harrazu beraz othoi, eta gutiz barka. Gogor aire bat badu segurki, bainan, gaixoa, ez dut bertzerik emaiteko.

—Milesker, jaun gaztea. Jainkoak ja behatu dio zure bihotz onari... Eta norat ari zira hola, barkamendurekin?

—Ori, batere ez dakit... Fortuna egitera, ahal balinbadut. Niri erraiteko ez zinakike non egoiten ohi den andertto hoi? Bi solas egin niozkake gogo onez...

—Eta ni banintz andertto hura?... Saririk gabeko ongi-eginik ez da Jainkoarekin... Huna zuk behar duzuna: Hortxeko oihan handian bada jauregi eder bat; jauregi eder hortan bizi dira zazpi anaia, egunaz pilotan, gauaz ohointzan ari direnak. Zoazi jauregirat buruz. Bainan, harat gabe, zur-xuri luze luze bat kausituren baituzu, igan zaite haren gainerat. Eta zure parrean ikusiren baituzu orduan herriko pilota-plaza handia, ongi behazazu; eta zazpi pilotari balinbadira han, pilotan ari, zoazi deskantsuz eta sar zaite jauregian. Gauza ederrik ikusiren duzu han; harrazu nahi duzun guzia, *bainan ongi balia*; gauza hek oro ebatsi gauzak dira, eta heien jabeak oro hilak, zazpi anaia ohoinek lehenago oihan zokoan hilak...»

Hitz horiek erran orduko, suntsitu zen atxo xaharra, eta muthil gazteak jakin zuen hola Ama-Birjina bera agertu eta itzali zitzaiola tenore hartan.

* * *

bere beti emon bear jakola eskekoari... Ogi kuxkur au arren artu egizu beraz, eta gitxi izateaz parkatu. Gogor antza, aurki badau; baiña, ene andratxoa, ez daukot besterik emoteko.

—Milla esker, jaun gaztea; oingotz begiratu dautso Jaungoikoak¹ zure biotz onari... Eta, nora zoaz olan?, parkatu itaunea.

—Ara, ez dakit bapere... Zoria egiten, al baldin badot. Niri esateko ez al zenki non egon oi dan anderatxo ori? Berbatxo bi esango neuskioz ondo gogoz...

—Eta ni banintz a andratxoa?... Saririk bagako ondo eginik ez dago Jaungoikoagaz... Ona emen zuk bear dozuna: Orkoxe baso andi orretan bada jauregi eder bat; jauregi eder orretan zazpi anaie bizi dira, egunez pelotaka, gauez lapurretan daragoioenak. Zoaz jauregi alderantz. Baiña, ara orduko, eltzun² luze-luze bat aurkituko dozu, eta igon zakioz ganera. Eta orduan, zeure ikusbegian erriko pelota lekua aurkituko dozunez, ondo begiratu egizu; eta zazpi pelotari pelotaka diarduela baldin badira an, zoaz lasai eta sartu zaitez jauregian. Gauza ederrik ikusiko dozu an, artu egizu nai dozun gustia, *baiña ondo baliau* (gauzok onerako baiño ez erabili); gauza gustiok ostu izaniko gauzak dira, eta aen jaubeak gustiak illak, zazpi anaie lapurrak aurreragoko aldi baten baso bazterrean ileikoak..."

Aek berbak esanez beraz, itsutu egin zan atso zaartxoa, eta mutil gazteak, olan, une aretan Ama Birjinea bera agertu eta itzaldu egin izan jakala jakin eban.

* * *

¹ Jaungoikoa: Idazleak "Jaungoikua" diño.

² Eltzun: (Azk) chopo.

Joan zen beraz oihanerat buruz, eta oren erdi bat gabe, kausitu zen xoragarriko jauregi baten aintzinean, eta aiphatu zur-xuri luzeari oharturik, igan zen haren gainerat.

Atxoak erran bezala, behatu zuen urrunera, eta, bat, biga, hiru, lau... zazpi ohoinak pilotan ari ikusi zituen. Haren atsegina orduan!

Jautsi zen berehala eta sartu jauregi ederrean. Heia handi batean etzanak ikusi zituen zazpi behor, bat bertzea bezen ederrak.

Etxean urrunago joan, goiti joan, eta sekulako gauza ederrak han zituen aintzinean: urhe, zilar eta harri balios, begiak lilluraturik hantxet gelditu baitzen bulta handi bat.

Bainan gero ernatu behar zela gogoraturik, ahutaraka, urhe, zilar eta diamantez hamar bat zaku edo zorro betherik, zaku hek eman zituen bi behor pullitenen gainean; eta zalukara urrundu zen, hatzik ez zezaten nehon utz, aztaparrak behorreri oihalez inguraturik.

* * *

Anaia gaztenaren harritzea, bost-pasei egunen buruan zaldi hek etxeratzean!...

Anaia zaharrenak oro kondaturik, nahi izan zuen fortuna beraren egitera joan berak ere. Zuhurki erraiten zion anaiak: «Biek xahu ahala baino gehiago ontasun bazutela jada bildurik; bertzalde, zazpi ohoinak atzarririk egonen zirela handik harat...» Oro debaldetan!

Bere ogi handia harturik harek ere, joan zen beraz mu-thil gaztea.

Joan, joan, bethi joan, oihan beraren aldean atxo bera atheratu zitzaion biderat. Karitatea hari ere galdatu zion es-

Joan zan beraz basorantz, eta ordu erdi baiño lenago, zoragarritzko jauregi eder baten aurrean aurkitu eban bere burua, eta aitaturiko eltzun luzea oarturik, igon egin zan aren ganera.

Atsoak esandakoanez, begiratu eban urrunera, eta bat, bi, iru, lau... zazpi lapurrak pelotaka ziarduela ikusi zituzan. Aren atsegina, orduan!

Bereala jatzita, jauregi ederrean sartu zan. Korta andi baten, zazpi beor ikusi zituzan, etzanda, bata bestea baizen ederrak.

Sartu etxean barrurago, gorantz joan, eta naidan gauza eder zituzan an aurrean: urre, zidar eta arri baliotsu, eta begiak zorabiauta aldi luze baten gelditu zan bertan.

Baiña, gero, igitu egin bear ebala gogoraturik, atzak betean, urre, zidar eta diamantez amar bat saku edo zorro beteturik, zorro aek beor politenik bien ganean imiñi zituzan; eta arineketan aldendu zan, aztarrenik iñon itzi ez egien, beorraeri beatzak oialez inguraturik.

* * *

Anaie gazteenaren arritua, arik bost edo sei egun garrean zaldi aek etxeratutean!

Anaie zaarrenak gustia eragirik (kontaurik), berak bere zori berbera egiten joan gura izan eban. Anaie zaarrenak, zuur bere zuur, baiñotsan: "Biak eralgi-ala (gastau-ala) baiño ondasun geiago baebela batuta; ganera, zazpi lapurrak zurt egongo zirala ordutik geiago..." Gustia alperrik!

Bere ogi andia artuta arek bere, joan zan beraz mutil gaztea.

Joan, joan, beti joan, baso berberaren alboan, berak atsoak urten eutsan bidera. Karidadea eskatu eutsan areri

kale xaharrak. Bainan, bihotz gogorreko muthikoa zen gure bigarren anaia.

Feratu zuen beraz Ama-Birjina, oihanean sartu, eta, jau-regiari hurbil, zur-xuriaren gainerat berehala hupatu...

Pilotan ari ikusi zituen ohoinak, han, urrun, herriko plazaren erdian...

«Bat, biga, hiru, lau, bost, *sei*... Eta zazpigarrena? Ba! bere anaiak pilotan egarriturik, arnoketa joana dukek herriko ostatu zonbeitetara... Eta gero, ikusiko diagu! Gibelerat egin ere behar bada, gibelerat eginen diagu. Zer mila sorgin!...»

Zur-xuritik jautsi eta, badoa beraz jauregirat. Ixil ixila sartzen da; ikusten ditu zaldiak, ikusten ere urheak, zilarrak, harri baliosak.

Zaku handi bati lotzen da gero, harentzat han emana iduri baitzuen egiazki.

Lotzen da... eta, odoletan, hila erortzen, kanit bat bizkarraren erdian *zazpigarren* ohoinak hari hantxet landaturik...

* * *

Bi aste² iragan ziren holaxet.

Osoki eta bethikotz etsitu zuelarik, itzuli zen beraz anaia zaharrena ohoin-jauregirat. Nehor ez zuen han gaindi kausitu. Eta ez zen ere harritzeko, zazpi ohoinak sosegatu zirelaket, muthil gaztea hala garbiturik.

Bere anaiaren gorputza zilo batetara arthikia atxemanik, berekin hartu zuen zaldi baten gainera eta berekin eraman, lur sainduan hura ehortzi beharrez.

bere eskeko zaartxoak. Baiña, biotz gogorreko mutilla zan gure bigarren anaiea.

Muker egin¹ eutsan, beraz, Ama Birjineari, eta, basoan sartuta, jauregi urrean, eltzunaren ganera igon zan beingoan...

Pelotaka ikusi zituzan lapurrak, an, urrun, erriko plazearen erdian...

Bat, bi, iru, lau, bost, *sei*... Eta zazpigarrena?... Ba! bere anaiak pelotaka egarriturik, ardaoaren eske joan izango zoon erriko ostaturen batera... Eta ganera, ikusiko joagu! Atzerantz egin bear badok bere, atzerantz egingo joagu.

Zer milla sorgin...!

Eltzunetik jatzita, badoa beraz jauregira. Isil-isilik sartuten da; ikusten dituz zaldiak, baita bere urreak, zidarrak, arri baliotsuak.

Zorro andi bateri elduten dautso gero, benetan beretzat antxe iminia zirudian-eta.

Elduten dautso... eta, odoletan, ilda jausten da; bizkar bizkarrean ganueta bat sartu eutsan berperten *zazpigarren* lapurrak...

* * *

Urte bi igaro ziran alantxe.

Bete betean uste gustiak betiko galduta, beraz, anaie zaarrena lapur jauregira biurtu zan. Inor ez eban an barruan aurkitu. Eta aurkituteko bere ez zan, zazpi lapurrak, mutil gaztea alan garbiturik, lasai gelditu ziralako.

Bere anaiearen gorpua zulo batera jaurtita aurkiturik, beragaz artu eban zaldi baten ganera eta beragaz eroan ortu santuan lurperatuteko ustez.

¹ Muker egin: (Azk) Hacerse esquivo.

² Bi aste: Barbierrek 'bi aste', Otxoluak 'bi urte' emoten dabe.

Luze bizi izan zen muthil bihotz onekoa. Bere anaiaz orhoitu eta, gogoa ilhuntzen zitzaion ardura. Bainan, haren eta beraren arimarentzat ongi gehiago egiten zuen orduan, eskuetan zituen ontasun handiekin. Eta, oihaneko atxo mixteriozkoaz orhoiturik, eskale bat egundaino ez du utzi etxetik urrunterat, beraren eta bere anaiaren karitate ederra eskale hari egin gabe.

Eta lau-hogoi urthetan, gero, joan izan da bethiereko zorianaz bere anaia gaixoarekin gozatzerat.

Luzaro bizi izan zan biotz oneko mutilla. Bere aniaz gomutauta, gogoia illunduten jakon sarri. Bainan, orduan, aren arimearentzako onegin geiago egiten eban, eskuetan zituzan ondasun andiakaz. Eta basoko misteriozko atsotxoaz gomutaurik, ez dautso eguno eskeko bateri etxetik alde egi-ten itzi, beren eta bere anaiearen karidadea eskeko areri egin barik.

Eta gero, larogei urtegaz, betirauneko zorionaz bere anaie gaisoagaz gozauten joan izan da.

Euzkadi, 1934, Urtarrilak 26, Otsailak 2.

11. ERRALDIA AHUR-HUTSEAN

Bas-herri batean, bertz orduz, larunbat egun batez, etxekandre bat ari zen laborearen egiten. Hor heldu zaio atxo xahar xahar bat. Eta atxo xahar harek galdatzen dio hean zerbeit emanen dion, Jainkoaren izenean? Etxekandreak, orhe pitta bat harturik, emaiten du bere palaren buru buruan, eta, labean orhe hura sartu orduko, ogi eder bat egiten zaio labe haren barnean. Harriturik, eta ogi hura eskalearentzat ederregi kausiturik, bertze orhe miko miko bat, pus-kaz ttikiagoa, emaiten du suan; eta orhe mikoa egiten da berehala... ogi bat aintzinekoa baino ere ederragoa; doi-doia labetik atheratu ahal izan baitzuen, eta are gutiago eman baitzion hura eskaleari. Hirugarren aldikotz, bi erhien artean, doi-doia, hartu zuen beraz orhe pitta pitta bat; eta orhe hura labean hantu zen, hantu, hainbertzetaraino non labea bethe baitzuen eta hantxet tapatu; eta etxekandreak —ongi nahiko zuelarik— ezin eskuratu zuen gibelerat.

Atxo xaharra egin zen orduan andre bat xoragarri ederra, eta etxekandreari mintzatu zitzaion, erranez: «Ni naiz Ama-Birjina, eta larunbata nere eguna da. Zeren handiegi

11. LABAKADEA "ESKU-UTSE" N

Baserri baten, asagoko aldian, zapatu egun baten, labarsoa egiten eragoion etxeko-andra batek. Aor; bajatorko atsotxo zaar-zaar bat. Eta atso zaartxo arek eskatuten dautso ea zerbait emongo dautsonentz Jaungoikoaren¹ izenean. Etxeko andreak ore² edo sorro tindi bat arturik, iminten dau bere papalearen buru-buruan (punta-puntan), eta, a ore laban sartuten dauaneko, ogi eder bat egiten jako laba barruan. Arriturik, eta areri ogiari eskekoarentzat ederregia eritxirik, beste ore apur-apur bat, askoz txikiagoa, iminten dau sutan; eta ore apurra, beingoan... ogi bat egiten da, aurreragokoa bere baiño ederragoa; ozta-ozta al izan eban labatik atera eta ara bere gitxiago emon eutsan a eskekoari. Irugarren aldiz, atzamar biren artean, ozta-ozta, ore tindil-tindil bat artu eban, beraz, eta a ore laban anditu egin zan, anditu bere andituaren andiz labea betetuteko ginoan, eta makeztu³ egin zan bertan; eta etxeko-andreak —ondo bere gura izan eukeala— ezin izan eban atzera eskuratu.

Atso zaartxo, orduan, andra zoragarri eder bat egin zan eta berba egin eutsan etxeko-andreari, esanez: "Ni naz Ama Birjinea, eta zapatua nire eguna da. Olataoi niretzako andie-

¹ Jaungoikoaren: Idazleak 'Jaungoikuaren' dakar.

² Ore: (Azk) masa.

³ Makeztu: (Azk) atascarse.

neretzat kausitu ditutzun olhata hoik, ez da ogirik eginen
gehiago etxe huntan...» Eta hitz horiek erraitearekin, sun-
tsitu zen Ama-Birjina. Eta, geroztik harat, *Ahur-huts* errai-
ten diote jendeek etxe dohakabeari. Eta, ez da ogirik gehia-
go egin *Ahur-hutsean*...

giak eritxi deutsezulako, ez da ogirik geiago egingo etxe onetan..." Eta berbaok esanez, itsutu egin zan Ama Birjinea. Eta, arrezkero, *Esku-Utse* esaten dautso erriak etxe zorigaiztoko areri.

Eta ez da ogirik geiago egin *Esku-Utsen*.

Euzkadi, 1934, Otsailak 2.

12. ANDRE ALFERRA ETA KUKUSOAK

Orai duela aspaldi, Hergaraiko gain horietan, omen zen beraz ithurri bat hauta, *Ur-onttoa* deitzen zutena. Ur-onttoari hurbil, eta kasik Ur-onttoan, bizi ohi zen emazteki bat alferra... bainan alferra! Zotza, hots! Deus fitsik ez omen zuen egiten sekulan, Ur-onttotik hurrup eta klik bizi izan balitz bezala.

Hura alfer-zotz hola ikusteaz okaztatu zen azkenean Jainko maitea, eta andre biguina zerbeitetan bermarazi beharrez, egin zituen beraz... lehenbiziko bi *kukusoak*. Eta ix-tanteko sortu ziren bertze sekulakoak. Handik harat, lan izan zuen emaztekiak, bederen *kukuso miatzen*. Zorigaitzez, ez zituen oro hil —hain zen alferra!— eta Ur-onttoaren aldean iragan gizon eta emazteki guzien gainera jauzi egin zuten kukusoek, eta orai, badira bazter guzietan ilumina.

12. ANDRA ALPERRA ETA ARDIAK

Orain dala aspaldi, Ergaraiko ganeetan, ba ei zan beraz iturri bat ezin ohea, *Ur-ontxoa* eretxona. Ur-ontxon, bizi izaten ei zan andra alper... baiña alper bat! Tira, alperrontzia! Tautik ez ei eban eguno egiten, Ur-ontxotik zurrut eta klink bizi izan bailitzan.

Ain alper-ontzi ikusteaz a, iguindu egin zan azkenean Jaungoiko maitea, eta andra iguingarriari zeozetan saiatu erazo gurarik, beraz... lenengo *ardi* biak egin zituzan. Eta ots baten sortu ziran beste ainbat. Arrezkero, izan eban lanik gure andreak, *ardiak topaten* besterik ezean. Zoritxarrez, ez zituzan gustiak il -ain zan alperra-. Eta Ur-ontxo albotik igaroriko gizon eta emakume gustieri zapart egin eutsen ardiak ganera, eta orain, badira bazterretan makifiatxo bat.

Euzkadi, 1934, Otsailak 2.

13. BERHO GUZIEN GAINETIK...

Behin batez, herri batean, ama-alaba batzu bizi ziren elgarrekin, eta sorgin fama bazuten biek. Neskatorik ez muthilik, nehor ez zezaketen bil etxerat.

Aldi batez, bertze asko aldiz bezala, bazabiltzan beraz alde guzietan, muthil baten galdez. Jo ezker, jo eskuin, eta nehork ethorri nahi!

Azkenean, soldata izigarri bat hitzemanik, biltzen dute berek nahi bezelako muthiko gazte bat, ona, prestua, langilea. Eta laster laketu zitzaion hantxet gure muthilari; hainbertzetaraino non, arte laburrik barnean, etxeko alabarekin ezkontzeko urhatsetan baitzen. Besoak arin, gogoia arinago, gauaz eta egunaz karraskan ari zen beraz lanean.

Bizkitartean, noizik behin, ilhundura zerbeit heldu zitzaion bihotzera, bere etxekandreen sorgin famaz orhoitzen zelarik, eta, orduan, ongi nahiko zukeen jakin, ama-alaba hek sorginak othe ziren egiazki...

* * *

Arrats batez, alegia eta lokartu egiten du sukaldeko zizeluaren gainean. Orentsu baten buruko, gauerdiek jotzen

13. SASI GUSTIEN GANETIK...

Bein baten, erri baten, ama-alaba bi bizi ziran alkarregaz, eta sorgin entzutea ei eben. Ez neskatorik ez morroirik, ezin izaten eben inor (otseintzat) etxerako lortu.

Aldi baten, beste aldi askotan legez, baebiltzan beraz alde gustietarik morroe baten eske. Jo ezkerrera, jo eskoera, eta inok ez etorri gura!

Azkenean, soldata andi-andi bat agindurik, lortuten dabe eurak gura ebelako mutil gazte bat, ona, prestua, bearingina. Eta laster egin jakan eder antxe gure morroiari; egin bere, aldi gitxigarrenean etxeko alabeagaz ezkondu teko gertakunetan ebiltzeko ginoan. Besoak arin, gogoia arinago, gaez eta egunez jo ta ke eragoion bearrean.

Orraitiño, noizik beiñean, gogo-illun aldi bat etorten jakon biotzera, bere etxeko andreen sorgin entzuteaz gomutauten zanean, eta, orduan, ondo gura izaten eukean ama-alaba aek benetan sorginak ete ziranentz jakin...

* * *

Gau baten, loak artu ebalakoa legez egiten dau, eskaratzeko txixiluaren¹ ganean. Ordubetegarrenean edo, gabeko

¹ [Txixilu: Aulki.]

dute herriko ezkila-dorrean. Eta, ordu berean, xutitzen dire ama-alabak. Hurbiltzen zaizkote muthikoari; behatzen diote ixil ixila. Eian lo dagon ikusteko, pulliki inharrosten dute gero biek. Berea gogoan, ixil ixila hura ere, muthila ez da mogitzen; lokartuarena egiten du aintzina zurrunga handiago batean oraino.

Orduan, ahal bezen extiki, bien artean altxatzen dute suaren azpiko burdin zabal handia, eta handik atheratzen gero eltze ttipi, ttipi bat. Sorginen urin bereziaz gain gainearaino kasik bethea zen eltzea. Urin-gesal harekin torra eta torra, gantzutzen dire bi emaztekiak, erdi kantaz diotelarik:

«Berho guzien *gainetik*,
«Hedoi guzien *azpitik*,
«Oren bat harat,
«Oren bat hunarat!»

Eta, hainbertzenarekin, haizea bezen zalu, firrindan badoazi biak su-phizkiari goiti... *Akelarrerat* bazoazin.

Jauzian, berehala, xutitzen da gure muthikoa. Su-azpiko burdinaren azpian berriz emana, kausitzen du eltze ttipi mixteriozkoa. Akelarrera behar duela harek ere, urin mixteriozkoaz harraskatzen du bere burua, ithoka diolarik:

«Berho guzien *azpitik*,
«Hedoi guzien *gainetik*,
«Oren bat harat,
«Oren bat hunarat!»

amabiak joten dabe erriko kanpantorrean. Eta, ordu berean, zutunduten dira ama-alabak. Urreratuten jakez mutillari; begiratuten dautse isil-isilik. Lo dagonentz ikusteko, astinduten dabe gero biak, polito. Bere asmoa gogoan, isil-isilik a bere, morroiak ez dau zirkinik egiten; loak artu dabelakoa legez egiten dau beti, zurruka andiagoakaz ara bere.

Orduan, alik eta isilen, jasoten dabe bien artean suaren azpiko burdina zabal andia, eta gero ateraten dabe andik lapiko txiki-txiki bat. Sorginen berarizko koipeaz ia ganganeraino beteta egoan lapikoa. Koipegazi aregaz igurtzi eta igurtzi, gantzututen dira andra biak, erdi kantetan diñoelarik:

"Sasi gustien *ganetik*
"Edoi gustien *azpitik*
"Ordubete arantz
"Ordubete onantz!"

Eta geiago barik, aizea baizen arin, an doaz biak urrumada baten keodian (tximinian) gora... *Akelarrera* joazan.

Bereala, ankar¹ baten, jarten da zutunik gure mutilla. Idoroten dau, su azpiko burdinearen azpian barrero iminda, misteriozko lapiko txikia. Berak bere *Akelarrera* joan bear dauala-ta, igurtzen dau bere burua koipe misteriozkoaz, itoka diñoelarik:

"Sasi gustien *azpitik*
"Edoi gustien *ganetik*
"Ordubete arantz"
"Ordubete onantz!"

¹ [Ankar: Salto.]

Ah! baia?... Makur ikasiak edo sobera ithoka erranak, makur bethi errepikatuak ziren sorgin-hitzak... Gizagaixo muthikoa! Haize-zirimola berak hartzen du hantxet eta brixtaoan eremaiten su-phizkiari goiti.

Berak manatu bezala, lehenbiziko berhorat heltzean, nahi bazuen eta ez, sist sartzen da sasiaren azpian, lahar guziak alde orotarik lotzen zaizkola. Eta handik nolazpeit atheratu deneko, indar berak hartzen du eta eremaiten hedoi handi batzuen *gainera*; handikan gero bertze berho batetara, eta gero berriz hedoietara, eta gero oraino berhoen azpira....

Oren baten buruan, azkenean, leher egina, dena odolotan, Jainkoak daki non ibilirik, heltzen da Akelarrera.

Hobeki eginen zuen gaizoak etxean egonik! Akelarren, bere bi etxekandreak lehen, sorginak oro gainerat ethorri-rik, zurrak hartu zituen, mila karrasien erdian. Eta, gero, lephoa eta bizkarra hausteko menean, izerditan, odolotan,

Berho guzien *azpitik*,
Hedoi guzien *gainetik*,

oren bat eman zuen, berriz herrirat heltzeko...

* * *

Lorietan bainindagon, haren ezteiak laster jan beharrez, ez ditut jan batere, muthikoak neskatxari despeida zalukara emanik, goiz hartan berean...

A, bai, e?... Oker ikasita edo lar itoka esanda, ostera eta barriro bere oker esaten zituzan beti sorgin berbak... Mutil gizagaisua! Aize zurrumillo berberak artuten dau bertan, eta bristada baten badaroa keodian gora.

Berak agindutakoanez, leenengo sasira eldutean, gura nai ez, sist sartuten da sasiaren azpian, laar¹ gustiak alde danetatik oratuten dautsela. Zelan edo alan andik urteten dauaneko, berak indarrak artuten dau eta badaroa edoi andi batzuen *ganera*; andik gero beste sasi batera, eta gero barriro edoietara, eta gero ostera bere sasien azpira...

Ordubetegarreanean, azkenean, leer eginda, dana odoletan, Jaungoikoak² daki nondik ibilda, elduten da Akelarrean.

Oba eukean gaisoak etxean egon Akelarrean, bere etxe-ko andra biak lenen, sorgin gustiak *ganera* etorririk, zurak artu zituzan, milla garraiziren erdian. Eta, gero, lepoa eta bizkarra austeko zorian, izerditan, odoletan,

Sasi gustien *azpitik*
Edoi gustien *ganetik*

ordubete emon eban, barriro errira elduteko...

* * *

Pozarren nengoan, aren ezteguetara laster joateko ustez; ez naz joan bapere, mutillak neskeari ezetza arin baiño arinago emon eutsan-eta, goiz atan bertan...

Euzkadi, 1934, Otsailak 8.

¹ [Laar: Sasi.]

² Jaungoikoak: Idazleak 'Jaungoikuak' idatzi dau.

14. HIRUR IXTUDIANTAK

Baziren hirur ixtudiant, Parisen eskolatzen ari zirenak. Nola mandrainak baitziren, urthe guzietz heldu ziren beren etxetarat, sosik gabe; bainan hala ere, bethi norbeit enganatu, biltzen zuten beren bideko jatekoa.

Urthe batez, heldu direlarik, kausitzen dute emazteki fede oneko bat, labore edo oheta egiten ari dela: «Jainkoak daitzula egun on, Andrea.» —«Bai zueri ere, Jaunak. Nondik heldu zaizte hola?» —«Paristik!» —«Parabisutik! Ikusi duzue gure Goanes, ene lehen senharra?» Ixtudiantek elgarri: «Hau zozoskoa duk...» —«Goanes! erran behar duzu nolatsukoa den, ttiki ala handi! ezen han bada asko!» —«Ori! ez ttiki ez handi! Artekoño bat; ez gizon gaixtoa, bainan banboxa! zituen guziak xahu!» Erdi aphas elgarri zenbeit solasen erraiten hasten dire: «Hura duk, segur!» Eta gero emaztekiari: «Ikusi dugu ba zuen Goanes! Orai ere dirurik gabe bide da, ezen bertzeeri ari zen galdez.» —«Ba! sinhetsiko dut ba, hura hemengoa han ere!... Laster itzuli beharko duzue zuek harat?» —«Bai, lasterxko itzuli behar dugu.» —«Ez zinezakete zerbait ereman Goanesi?» —«Bo... Ez bauzu bertzerik atxematen, igual!» —«Banituzke hemen, Dominixe ene bigarren senharraren

14. IRU IKASLARIAK

Ba ei ziran iru ikaslari, Parisen eskolauten eragoioenak. Galutsak ziranez, urtaro-urtaro elduten ziran euren etxeetara, lauziri barik; baiña, alan bere, bat edo bateri iruzur eginenez ateraten eben euren biderako jatekoa.

Urte baten, etorri datozela, aurkituten dabe uste oneko andra bat, labasoa edo oreginen diarduala: "Jaungoikoak¹ dizula egun on, Andrea". —"Bai zueri bere, jaunak. Nondik zatoze olan?" —"Parisetik!" —"Paradisutik! Ikusi al dozue gure Joanis, nire lenengo senarra?" Ikaslariak alkarreri: "Aurenteltxoa dok..." —"Joanis! esan egin bear dozu zelakoa edo dan, txikia ala andia, an bada, asko dira-ta!" "Ara, bada; ez txikia ez andia! Bien artekatxoa; ez gizon gaiztoa bere, baiña diru ondatzaillea! zituzan gustiak eralgi!" Erdi aopean alkarreri berba batzuk esaten asten dira: "Axe dok, aurki!" eta gero andreari: "Ikusi dogu bai, zuen Joanis. Orain bere diru barik dago, antza, inori eskatuten ziarduaneta". —"Bai! sinistuten dot, bai; an bere a emengoa...! Laster joan bear dozue ara atzera, ala?" —"Bai gesu baten joan bear dogu atzera." —"Ezin zeinkeoe Joaniseri zerbait eroan?" —"Bo! Beste inor aurkituten ez badozu, bardin!" —"Izango dodaz emen, Txomin nire bigarren senarraren

¹ Jaungoikoak: Idazleak 'Jaungoikuak' dakar.

ixilik, berrogoita hamar liberakoño bat eta zapata berri pare bat, doi-doia erabili eta berak utziak...»

Puxka horiek harturik, badoazi gure hiru Ixtudiant bihotz onekoak.

Hor, etxerat heldu da Dominixe. Emaztekiak, sekretua ezin atxikiz, erraiten dio: «Ez dakik Dominixe? Goanesen berriak izan tiat!» —«Goanesen berriak? nundik?» —«Muthikoa! Hirur gizon gazte hemen izan zaiztak, Parabisutik heldu zirela.» —«Gaizo zozoa! Ez dire gaizki zutaz jostatu! Ez diozute bederen zerbeit eman?» —«Ba, ori, berrogoita hamar liberakoño bat, eta zapata pare bat...»

Dominixe, erhotua, abiatzen da, heiako zaldi bat harturik, behar dituela gibeletik atxeman. Bainan ixtudiantak ohartzten zaizko eta erraten diote Kantonier bati: «Errazu, gizon? Zato, gutarik biekin, hunaxet gordatzera; sari ona emanen dautzugu!...» Gordatzen da Kantoniera bi ixtudiantekin, eta hirugarrena hasten da, haren orde, Kantoniergoan. Ondorat heldu eta, erraiten dio Dominixek: «Errazu, barkamendurekin, aspaldian hemen ari zare lanean?» —«Bai, bai, goizaz geroztik.» —«Hirur gizon gazte ez ditutzu ikusi hemen iragaiten?» Mendixka bat irakutsiz, erraiten dio kantonier ordainak: «Bai, bai, hortxet, oraintxet berean gordeak dira; bainan nekez ganen zare zaldiz; nik atxikiko dautzut zaldia, nahi balinbaduzu oinez gan heien segi.» Dominixe, zaldia utzirik haren eskuetan, lasterka abiatzen da mendiarri gora. Orduan badoa kantonier berria bere lagunetarar; saristatzen dute kantonier egiazkoa, eta zaluxko eskapatzen dira, beren diru, zapata eta zaldiarekin. Leher eginik, noizpeit etxeratu zenean, biderat athera zitzaion andreari erran zion Dominixek: «No! zaldia ere eman ziakotenat, lasterrago hel diten Goanesen ganat...»

* * *

isilik, berrogeta amar pesetakotxo bat eta zapata pare barri bat, bein edo erabilia berak itziak..."

Gauzok arturik, badoaz gure Ikaslari biotz onekoak.

Aor; badator Txomin etxera. Andreak, isilekoa gorde ezinik, badirausso: "Ez dakik, Txomin? Joanisen barriak izan joadaz!" —"Joanisen barriak nondik?" —"A mutil! Iru gizon gazte izan jatazak emen, Paradisutik etorrita" —"Tentel gaisoa! Ez dozana igaz txarto jolastu! Ez al dautse-na beiñipein ezer emon?" —"Bai, ara: berrogeta amar pesetakotxo bat eta zapata pare bat..."

Txomin, burutik eginda, abiauten da, kortako zaldi bat arturik, atzetik atrapa bear dituzala-ta. Baiña ikaslariak oartu egin eben, eta badiñotse Kaminero bateri: "Esaizu, gizon? Zatoz gutariko bigaz onaxe ostenduten; sari ona emongo dautsugu!..." Ostenduten da Kamineroa ikaslari bigaz, eta irugarrena, aren orde, asten da Kaminerogintzan. Ondora eldu eta, badinotso Txominek: "Esaizu —zeure parkamenaz— aspaldi daragoiozu emen lanean? —"Bai, bai, goizetik ona." —"Iru gizon gazte ez al dozuz emendik igaroten ikusi?" —Menditxo bat erakutsiez, badiñotso Kaminero ordekoak: "Bai, ortxe eskutau dira oraintxe bertan; baiña, nekez joango zara zaldiz; nik gordeko dautsut zaldia, aen jarraian oiñez joan gura badozu". Txomin, zaldia aren eskuetan itzirik, asten da arineketan mendian gora. Orduan, badoa Kaminero barria bere lagunakana; sariztauten dabe egiazko Kamineroa, eta arinik arin iges egiten dabe euren diru, zapata eta zaldiaz. Leer eginik noizpait etxeratu zanean, bidera urten eutsan emazteak, eta badiñotso Txominek: "Andrea! Zaldia bere emon egin jeutsenat, Joanisegana arinago eldu jaitenazan..."

* * *

Ondoko urthean, Paristik etxerakoan, egiten dute bazkaldu behar dutela iragaiten ziren hiri batetako ostaturik ederrenean.

Hamar orenetako heinean, manua emanik bazkari on bat molda zezatela, badoatzi hiriaren ikustera. Bazkaiten hasi eta laster, hiruetarik batto badoa nausiaren ganat, eta erraiten dio: «Errazu, nausia? Ene lagun horiek nahiko baitute bazkaria pagatu, ez deusik har; nik pagatuko dut hiruena.» Ixtanteko, bigarrena badoako nausiarri gauza beraren erraiterat. Orobat hirugarrena, bazkaria finitzera zoalarik: «Ez har fitsik ene bi lagunetarik, nik pagatuko baitut hiruen bazkaria.» Nausiak, kontentik, erraiten dio bere andreari: «Gaur, ez dugu bazkari saria gal beldurrik! Hiruak izanak zauzkit, beren lagunen bazkaria pagatu behar dutela.»

Bet-betan, Ixtudiantetarik bat hor hasten da: «Asa! Ez da aski jatea, nausia; kontuak egin behar ditugu. Zenbat da bazkariaren saria?» Bigarrenak: «Ez duk hik pagatu behar, nik eginen diat hiruena.» Hirugarrenak: «Ez duzue zuek eginen, bainan bai nik hiruena.» Eta holaxet hasten dire kasailan. Azkenean erraiten du batek: «Orai artean hoin adixkide izan eta, ez dik balio hoin gutirentzat hasarretzea; eginen diagu gauza bat, ontsa balinbazautzute. Nausia emanen diagu bi begiak tapaturik eta haren besoetan atxemanak pagatuko dik.» Eta erran bezala egiten dute. Ixtant bat ariturik tarrapata harat, tarrapata hunat, athetik eskapatzten dire. Harrabotsetara ethorririk, etxeko andreak kausitzten du nausia, begiak itsu, bi besoak aintzin, harat hunat bakarrik ari itsumandoka, eta erraiten dio: «Zer ari zare hor?» Nausia lotzen zaio berehala, erranez: «Hik behar duk pagatu!» Orduan, etxeko andreak: «Bai, bai nik pagatuko

Urrengo urtean, Parisetik etxerakoan, erabagiten dabe igaroz joazan uri bateko ostaturik ederrenean bazkaldu bear dabela.

Amarrak alderantz, bazkari on bat gertu egiela agindua emonik, badoaz uria ikusten. Bazkaritan asi eta laster, iru-retariko bata badoa ugazabagana, eta badiñotso: "Esan, ugazaba? Nire lagun orreek bazkaria ordaindu gura izango dabe, bai, eta ez ezer artu; neuk ordainduko dot irurona". Arik gitxigarrenean, bajoako ugazabari bigarrena gauza berbera esaten. Bardin irugarrena, bazkaria amaituteko ego-alarik: "Ez artu lauzirik nire laguneri, iruron bazkaria neuk ordainduko dot-eta". Ugazabak, pozarren, badirautso emaz-teari: "Gaur, ez dogu bazkariaren ordaiña galduteko bildurrik! Irurak izan jataz, euren lagunen bazkaria ordaindu bear dabela-ta".

Bat-batean, Ikaslarietariko bat ara asten dala: "Ei! Ez da naikoa jatea, ugazaba; kontuak egin bear doguz. Zenbat da bazkaria?" Bigarrenak: "Ez dok ik ordaindu bear; neuk egingo joat irurona". Irugarrenak: "Ez dozue zuek egingo, neuk baiño irurona". Eta olantxe asten dira eztabaidan. Azkenean, badiño batek: "Orain artean ain adiskide izan eta, ez jauk balio onen gauza gitxigaitik asarratutea; gauza bat egingo joagu, ondo baderitxozue. Nagusia imingo joagu begi biak tapaurik, eta arek besoetan atrapau jagianak ordainduko jok". Eta esandakoanez egiten dabe. Zatitxo baten zarrapast batera, zarrapast bestera iñardu ostean, atetik iges egiten dabe. Etxeko andreak, abarrotsetara etorririk, aurkituten dau ugazaba begiak itsurik, beso biak aurrerantz, batera eta bestera ziarduala itsumustuan, eta badiñotso: "Zer zabiltzaz olan?" Ugazabak eutsi egiten dautso beingo-an, esanez: "Ik ordaindu bear dok!" Orduan, etxeko andre-ak: "Bai, bai, neuk ordainduko dot aurki, gaisoa! Ez dau-

dut segur, gaizoa! Ez zaituzte gaizki enganatu!» Ongi bazkalduak ere zirelakotz, hamar *lekua* egin zituzten, arratsalde hartan ixtudiant mandrainek.

* * *

Bertze urthean, egiten dute bazkaria berek behar dutela moldatu, puskak nolazpeit eta nunbaitik bildu eta. Lehenbizikoa badoa arno-keta, bi xahatorekin; batto hutsa zen eta bertzea urez bethea. Ostalereri erraiten diote arnoz bethe dezoten xahato hutsa; eta gero, galdegiten du zenbana den? Ihardesten diote: «Pinta, hamabi sos!» —«Hamabi sos? Nahi duzue zortzi sos?» Hek ezetz erranik, kexatzen da eta erraiten diote: «Orizue gibelerat zuen arnoa!...» Eta barrikari buxoina kendurik, zur-zur-zur harat husten du urez betherikako xahatoa, eta badoa. *Arnoa* bazuten bazaltzeko.

Bigarrena badoa Buzeriarat haragiketa, *bikezko begi batekin*, iduri okerra. Behar zuen haragia harturik, abiatzen da batere pagatu gabe. Buxerak erraiten dio gibeletik: «Hep, hunat, haragiaren saria?» Arte hartan begiko bikea kendurik, itzultzen zaio ixtudianta: «Zer nahi duzu, nausia?...» —«Ai! barkatu! Ez duzu ikusi hemen gizon begi oker bat?» —«Ez, ez dut ikusi; nik pagatua dut gero!» —«Bai, hura zaut eskapatu!»... Eta holaxet badoa bigarren ixtudianta, bazkariko *haragiarekin*.

Hirugarrena badoa merkaturat, oilo pare baten erostera. Ederrenak hautatu eta, heien tratua eginik, abiatzen zaio emazteki saltzaileari erranez: «Jaun erretorak pagatuko dauzkitzu.» Emaztekiak erraiten dio: «Nik ez dut herri hundertako erretorarekin egitekorik; pagazkitzu zuhaurek, edo ni utz nahi dudanari ene oiloen saltzera.» Eta ixtudiantak: «Ez

tsue iruzur makala egin!" Ondo bazkalduta bere baegozan eta, amar legua bide egin zituezen arratsalde aretan, ikaslari galutsak.

* * *

Urrengo urtean, erabagiten dabe eurak gertu bear dabela bazkaria, jakiak zelan edo alan eta nondik edo andik lorturik. Leenengoa badoa ardao-eske, zaato bigaz: bata utsa zan eta bestea urez betea. Esaten dautse ostatarieri ardaoz bete dagioela zaato utsa, eta gero, itaunduten dautse zenbana dan? "Azunberdia, amabi lauko" —erantzuten dautse. "Amabi lauko? Nai dozue zortzi lauko?" —Aek ezetz esanik, asarratuten da eta badiñotse: "Eutsie atzera zeuen ardaoa!..." Eta upelari tapotsa kenduta, zur-zur-zur utsituten dau an urez beteriko zaatoa, eta badoa. "Ardaoa" baeben bazkalduteko.

Bigarrena badoa Arategira okela billa, *uiezko begi bategaz* otxoloa bailitzan. Bear eban okelea arturik, asten da kanporantz bapere ordaindu barik. Arakinak badiñotso atzetik: "Ep, ona, okelearen dirua?" —Arteatan begiko uia kendurik, itzuliten jako ikaslaria: "Zer gura dozu, ugazaba?..." —"Ai! parkatu! Ez al dozu emen ikusi gizon otxolo bat?" —"Ez, ez dot ikusi; nik ordaindu dot gero?" —"Bai, arek egin daust igesi!"... Eta badoa olantxe bigarren ikaslaria, bazkaritarako *okeleagaz*.

Irugarrena badoa merkatura, oillo pare bat erosten. Ederrenak autu eta aen tratua eginik, asten jako andra saltzailleari esaten: "Abade jaunak ordainduko dautsuz". —Andreak badiñotso: "Nik ez dot erri onetako abadeagaz zer ikusirik; ordaindu egidazuz zeuk, edo itzi egidazu niri neure oilloak neuk gura dodanari salduten". Eta ikaslariak:

duzu jaun erretor baten baitan konfidantziarik» —«Erraiten dautzut nik, ez dudala jaun erretorarekin egitekorik.» Eta ixtudiantak: «Zato beraz nerekin jaun erretoraren gana» eta badoazi Elizarat. Nola jaun erretora kofesatzen ari baitzen, ixtudiantak erraiten dio emaztekiari egon dadien athearen ondoan; eta bera, badoa erretoraren Kofesateiko athean jotzera. Erretorari erraiten dio: «Hantxeko emazteki harek ez du bakerik eman nahi, baitezpada ikusi behar zaituela; eta nik erraiten diot ixtant bat egon dadien, zuk presuna hauek kofesatu arte; hemendik beretik erraiten bazinio baietz, geldirik egon liteke beharbada.» Eta orduan aphezak ahalik erraiten dio: «Bai, bai ixtantean!» Emaztekiak eman ziozkan orduan oiloak, eta hirugarren ixtudianta eskapatu zen, bere *oiloekin*.

Ez dute erraiten nun eta nola bildu zuten *ogia*; bainan eguerdi hartan, sekulako bazkaria egin zuten gure hiru mandrainek, oihan bazter batean, eta axeriak, hirur egun eman zituen, omen, hek utzi ondarren milikatzen.

* * *

Handik bertze urthean, hamar sos baizik ez sakelan eta, bazkaria oraino berek moldatu beharrez, badoa batto Okindegi edo Bolanjeriarat, eta etxeko andreari erraiten dio: «Jaz hemen iragan ginelarik, hamar sosen zorretan gelditu nintzen. Huna hamar sosekoa, andre! Bainan, horren ordaintzeko balinbadugu ere, ez dugu, zorigaitzez, gehiagokorik. Zorrak lehen direlakotz, eta goseak hil behar bagindu ere, emaiten dautzugu gure azken zilarño hori. Bainan, bertzaldian maileatzekotan, ez othe dautazu emanen lau libera-

"Abade jaun bategan ez al dozu abespelurik!?" — "Badiñotsut nik, ez dodala abade jaunagaz zer ikusirik". Eta ikaslariak: "Orrezkero, zatoz neugaz abade jaunagana". Eta badoaz Elizara. Abade jaunak autortuten eragoionez, badiñotso ikaslariak andreari egon daiteala ate ondoan; eta bera, badoa abadearen autorlekuko atea joten. Badiñotso abadeari: "Angoxe andra arek ez dau bakerik emon gura, ala-ta-bere ikusi egin bear zaituzala-ta; eta nik diñotsat egon daiteala une baten, zuk oneek lagunok autortu arte; emendik bertotik esan bazinegio baietz, orduan geldirik egongo litzate, bearbada". Eta orduan abadeak, aopean. "Bai, bai beingoan!" Orduan andreak emon egin eutsazan oilloak, eta irugarren ikaslariak iges egin eban bere *oilloakaz*.

Ez dabe esaten non eta zelan lortu eben *ogia*; baiña eguerdi aretan, sekulako bazkaria egin eben gure iru galutsak baso bazter baten, eta azeriak, iru egun emon zituzan, diñoenez, aek itziriko ondakinak miauzkauten.

* * *

Andik urrengo urtean, amar lauko baiño ez sakelean eta, ara bere bazkaria eurak gertu gurarik, badoa bata Okindegi edo Panaderiara, eta esaten dautso etxeko andreari: "Igaz emendik igaroeran, amar laukoren zorrean gelditu nintzan. Ona emen amar laukokoa, andrea! Baiña ori ordaintzeko lain baldin badogu bere, ez dogu, zoritxarrez, geiagorik. Zorrek lenen diralako, eta goseak il bear bagenduz bere, emon egiten dautsugu gure azkeneko elbiko² ori. Baiña,

¹ [Abespelu: konfiantza.]

² [Elbiko: erreal biko.]

ko ogi handi bat?» —«Bai, segurki, emanen baitautzut, eta amodioz oraino. Hamar sosen zorra pagatzen duenak ez du gutiago ordainduko lau liberako ogia. Huna, Jauna!» Eta bere ogi handia besapean, badoa gure ixtudianta.

Anhartean haren laguna badoa Haragitei edo Buxeria batetara. Xoko batean emaiten da jarririk. Azkenean, bere xokotik oihu egiten dio nausiari: «Eta nere aldi, noiz bada? Oren huntan hementxet beha bainago, nere hiru libera xahalkiak pagaturik!» —«Zuk, xahalkia pagatu? Niri?» —«Bai, zuri eta zuhauri!... Errazu bada ezetz! Errazu bada ohoin bat naizela! Lekukoak emaiten ditut berehala, eta zerbeit gostako zaitzu gizon behar bezalako bati *ohoina* erranik!» Eta, nausia harritua hantxet ezarririk, badoa ixtudianta xahalki xafla ederra eskuetan, buxer tzarraren kontra hasarre gorrian!

Bere lagunekin hola hitzarturik, badoa hirugarrena arno saltzaile baten gana. Bere bi xahatoak bethearazirik, alegia eta heien pagatzeko diruaren bilha ari delarik, lagunetarik batto *sist* sartzen zaio aldera, eta, bi xahatoak harturik, laster eta laster eskapatzen da. Bertzea haren ondotik. Nausia, atheraino jalirik, oihuka: «Atxemanen duzu, atxemanen! Berma hor!...» Lehenbiziko bihurgunean atxeman zuten elgar; berotuxeak ere zirelaktz, kolpe bana edan zuten xahatotik, eta bazkaitera joan.

Ongi bazkaldurik hola, errexki zuten arratsalde hartan, eta beren herriari hurbildu ere ziren. Bainan, ilhuntean, berriz goseturik, ostatu eder batean sarturik, afari ederra manatu eta manatu bezala jan ere zuten. Azken ahamena ahoan, hasten dire elgarri erranka: «Hiruek baitiaguk gure

urrengotan ordaintzeko, ez ete daustazu lau librako ogi andi bat zorrean emongo?" —"Bai, beintzat, emongo dautsut, eta biotzez emon bere. Amar laukoren zorra ordainduten dakianak ez dau gitxiago ordainduko lau librako ogia. Aemen, Jauna!" Eta bere ogi andia besapean dauala, badoa gure ikaslaria.

Artean, aren laguna badoa Arategi edo Karnezeria batera. Jarten da bazter baten jezarrita. Azkenean, bere bazterretik deadar egiten dautso ugazabari: "Eta nire txandea, noiz da bada? Ordu beteon ementxe nago begira, neure iru libra okelak ordaindurik!" —"Zuk, okelea ordaindu? Niri?" —"Bai, zuri-zeuri!... Esaizu ezetz, bada! Esaizu, bada, lapur bat nazala! Ikuslak imingo dodaz beingoan, eta zeozer kostauko jatzu bear dan lango gizon bateri *lapurra* esateagaitik!" Eta ugazaba bertan ikaratuta itzirik, badoa ikaslaria okela zerra ederragaz eskuetan, arakin dongearen ala asarre gorrian!

Bere lagunakaz olan itundurik, badoa irugarrena ardao saltzaille bategana. Bere zaato biak bete erazota, aek ordainduteko diruaren bila ziardualakoa egiten dauan bitartean, lagunetariko bat, *sist*, sartuten jako albora, eta zaato biak artuta, arinik arin iges egiten dau. Bestea, aren atzetik. Ugazaba, ateragino urtenik, deadarrez: "Atrapako dozu, atrapa! Ekin or!... Leenengo bide biurgunean atrapa eben alkar; ija berotuta bere baegozan eta, dzangada bana edan eben zaatotik, eta bazkaitera joan.

Olan ondo bazkalduta, errezo korridu eben (ibili ziran) arratsalde atan, eta euren errira bere urreratu ziran. Baiña iluntzean barriro goseturik, ostatu eder baten sartuta apari ederra agindu eben eta agindutakoanez jan bere egin eben. Azkeneko aokadea aoan ebela, asten dira alkarrerri esaka:

itzalak, Jainkoak emanak. Nik *hazteria*, hik *mukua*, horrek *zaragarra*. Hean zoinek hobeki estaliko ditugun aipatu gure itzalak. Ez dakienak afaria paga!»

Hazteria zuena hasten da: «Ene aita *ehailea* zian, eta hemendik tira, handik tira, egiten zitian athorra batzu!...» eta hori erraitean, ari zen hatz hemen eta hatz hantxet.

«Eta nere aita? dio *zaragarra* zuenak; *eskularruak* egiten zitian, bainan nolakoak!» Eta bere eskueri hazka eta hazka ari zen, hitz hoik erraitean.

«Zuen aitak! Zer ziren zuen aitak, nere aitaren, aldean? *Ihiztaria* zian. Gaitza, ihiztaria! Pekada hemendik, pekada handik, artikitzen zitian!...» Eta *mukuzua* ari zen sudurra erhieztorra eta torra...

«Hots! dio batek, orduan. Ez duk xoxorik gu hiruen artean. Aspaldi jakin ere behar ginian gauza hoi; zoazte biak kanpora, eta igurika nezazue hantxeko bihurgunean; nik pagatuko diat afaria.»

Badoa etxeko andrearen gana eta galdegiten dio: «Ez duzu arno hobeagorik oraino? Arno xahar zerbait?» —«Ba, gaixoa, ba; bainan barrika xilatzekoa dugu oraino, eta jauna kanpoan dut, hain xuxen!...» —«Hoi baizik ez bada, gogo onez lagunduren zaitut, etxeko andrea!» Eta xaiarat, sotorat badoazi biak. Bertzeak orduan... kanporat, eskerren bihurtzeko othoitzik egin ere gabe.

Sotoan, pinpaletarekin barrika xilaturik, edan eta edan arizan ondoan, ohartzen da mandraina xiri bat eskas dutela ziloaren tapatzeko. «Banoa bilha, etxekandrea! Zaude deskantsu! Ziria edo ardatza, zerbait atxemanen ahal dut gain

"Irurok joaguzak geure akatzak, Jaungoikoak¹ emoneiak. Nik, *azteria* (azkurea), ik *mokoa*, orrek *zaragarra*. Ea zeifiek obeto estalduten doguzan aitaturiko geure akatzok. Jakin ez dagianak, aparía ordaindu!"

"Azteria" ebana, asten da: "Nire aita *eulea* zoan, eta emendik ten, andik ten, egiten joazan alkondara batzuk!..." eta onan esatean, baeragoion atz emen eta atz bertan.

"Eta nire aita?" dino *zaragarra* (sarnea) ebanak; *esku-narruak* egiten joazan, baiña zelakoak!" eta bere eskueri azka eta azka ziarduan berbaok esatean.

"Zuen aitak! Zer zoazan zuen aitak nire aitaren aldean? *Eiztaria* zoan. Eiztari errimea! Oillagorra emendik, oillagorra andik, botaten zoazan barriz!..." eta *mokotiak*, surra atzamarrakaz igurtzi eta igurtzi eragoion...

"Tira!" dino batek orduan. "Ez dok kokolorik gu iruron artean. Atxinatik bere jakin bear gaioan gauza ori; zoaze biok kanpora, eta itxaron egidazue angoxe bide biurgunean; neuk ordainduko joat aparía".

Badoa etxeko andreagana eta itaunduten dautso: "Ez dozu arean ardao obagorik? Ardao zaarren bat?" —"Bai, ene gizona, bai; baiña upela zulatu barik dogu oindiño, eta senarra kanpoan dot!..." —"Ori baiño ez bada, gogo onez lagunduko dautsut neuk, etxeko andrea!" Eta badoaz biak upategira, bodegara. Besteak orduan... kanpora, eskerrak emoteko arrenik bere egin barik.

Bodegan, ginbeletaz upela zulaturik, edan eta edan eragon ostein, oartuten dau galutsak ziritxo bat bear dabela zuloa tapauteko. "Banoa bila, etxeko andrea! Zagoz lasai! Ziria edo ardatza, idoroko al dot zerbait an goian. Arteatan

¹ Jaungoikoak: Idazleak 'Jaungoikuak' dakar.

hortan. Arte hortan, erhia emazu xiloaren gainean, eta igurika nezazu ittant bat...»

Arratsean, jaunak, etxera jin zenean, bere andrea atxeman zuen, erhia bethi ziloaren gainean, dena konkortua eta ahalkez urtua...

* * *

Biharamunean, beren herrirat heldu izan ziren ixtudiantak. Jainkoak daki non dabilzan orai, ezen sekulan ezin egin dute ez legeko-gizon bat, ez mediku bat, ez eta ere notari bat! Sobera mandrainak ziren hortako!...

imini egizu atzamarra zulo ganean, eta itxaron egidazu une baten..."

Gabez, senarrak, etxera etorri zanean, atzamarra oindinokarren zulo ganean ebalatu aurkitu eban bere emaztea, konkorkonkor eginda eta lotsaz urtuta...

* * *

Biaramonean, euren errira eldu izan ziran ikaslariak. Jaungoikoak¹ daki non dabiltzan orain, inoiz ezin dira, badata, ez lege-gizon egin, ez osagille, ez eta eskribau bere! Lar galutsak (galutsegiak) ziran orretarako!...

Euzkadi, 1934, Otsailak 14, 24, Martiak 1.

¹ Jaungoikoak: Idazleak 'Jaungoikuak' dakar.

15. MUTHIKO ZOZOA

Behin bazen muthiko zozo bat. Egun batez, amak igorri zuen merkatura erranez: «To, huna hogoi liberako bat; hamar liberako *xerri* ttiki bat erosiko duk, merkatuan. —Ba, ama, ba, erosiko dut segurki.»

Badoa beraz gure muthikoa, eta erosten du kuxean bere xerria; eta ez baitzuen berehala etxera gan nahi, bere xerriari beharrian egiten dio hamar liberakoaren heineko xilo bat, eta urreñoa xilo hartan ezarririk, erraiten dio xerriari: «Hoa, orai, gure etxerat!» Eta harrikatzen du xerria.

Pentsatzen duzuen bezala, gure xerria gan zen berak nahi zuen lekurat, eta muthikoa ere bai, arratsean, etxerat. Ikusi bezen laster, amak galdetzen dio: «Erosi duk xerria? —Ba, ama. Ez da etxerat ethorri? —Ez; zertako? —Goizean igorri baitautzut, bere hamar liberakoarekin. —Goizean igorri? Muthiko zozoa, ez bertzea! Behar huen hura ekarri, soka batekin zangotik estekaturik, pulliki pulliki! —Ori, ama, bertzaldian hola ekarriko dut.»

Bertzaldian, igorri zuen amak *pegar* baten eroatera, eta, etxerakoan, orhoitzen da amak zer zion erran, eta soka batekin estekatzen du bere pegarra. Eta gero, bera aintzinean emanik, gibelerat gehiago behatu ere gabe, ekartzen zuen, terren-ten-ten, bere pegarra. Etxerat hura ethorri bezen laster, amak galdetzen dio: «Erosi duk? —Ba, ama; eta zuk

15. MUTIL TENTELA

Bein, bazan mutil tentel bat. Egun baten, amak, merkatura bialdu eban, esanez: "Eutsok; ona emen ogei pezetako bat; amar pezetako *txarri* txiki bat erosiko dok, merkatuan". —"Bai, ama; erosiko dot, bai beintzat".

Badoa beraz gure mutilla, eta aida baten erosten dau bere txarria; eta beingoan ez ebanez etxera joan gura, egiten dautso bere txarriari belarrian amar pezetakoaren besteko zulo bat, eta urre-dirutxoa zuloatan ezarririk, badinotso txarriari: "Oa, orain, gure etxera!" Eta arrika egiten dautso txarriari.

Uste izango dozuen legez, gure txarria berak nai izan eban lekura joan zan, eta mutilla bere bai, arratsean, etxera. Ikusten dauaneko, baditauntso amak: "Erosi al dok txarria?" —"Bai, ama. Ez da etxera etorri, ala?" —"Ez. Zer bada?" —"Goizean bialdu dautsut bada-ta, bere amar pezetakoa-gaz". —"Goizean bialdu? Mutil tentel, alakuori! Soka bategaz ankatik lotuta ekarri bear uan ik a, polito, polito." —"Ara, ama; urregotan olan ekarriko dot".

Urregotan, bialdu eban amak *pedar* (potin) bat erosten eta, etxerakoan, gomutauten da amak esan izan eutsanaz, eta soka bategaz lotuten dau bere pedarra. Eta gero, bera aurrean jarriarik, atzerantz geiago begiratu bere egin barik, baekarren, terren-ten-ten, bere pedarra. A etxera datorreneko, itaunduten dautso amak: "Erosi al dok?" "Bai, ama; eta

erran bezala estekatuta ekarri dut.» Hurbildu zen ama, eta ikusi zuen, hantxet, soka bat, eta sokaren punttan pegar puntta bat, tutua doi-doia! «Bainan, muthiko zozoa, hau ekarri behar huen *buruan!* —Ori, ama, bertzaldian ekarriko dut.»

Bertzaldian, igorri zuen amak *burra* kilo baten erostera, eta hura bederen ongi ekarri behar zuela, emaiten du burua-ren gainean. Bero bat izigarria baitzen, etxerat heldu gabe, bere burra guzia urtua zuen. Planta hartan ikustearekin, amak erraiten dio: «Bainan ez duk beraz sekulan deusik ongi eginen? Hau behar huen, atxemaiten hituen ur guzietan bustiz bustiz ekarri; eta hola fresko freskoa ekarriko huen! —Hitzemaiten dautzut, ama, bertzaldian hala ekarriko dudala.»

Bertzaldian, beraz, amak igortzen du libera bat *gatzen* bilha; eta, gure muthikoak, ongi baino hobeki egiteko, bustitzen du gatz hura, atxemaiten dituen ur-erreka *guzietan*; hain ongi non, etxerat heltzean, ez baitzuen ez gatz ez eta ere paperik...

Eta orduan —ordu ere baitzen— beldurtzen hasi zen ama, muthikoak ez *othe* zuen zozo aire bat; eta nahiz hartarik zerbait onik egin oraino, kontseilu onak emanaz, atxiki zuen berekin etxean.

* * *

Bainan, ama hura laster behartu zen berriz ere bere muthikoaz, eta egun batez, erraiten dio: «Gan behar duk merkatura, *ezti* hunen saltzera, eta salduko diok *solas gutiena erraiten duenari*; hots, ez sal dena xikana diren hekieri.» —«Ba, ama, hala hala eginen dut.» Eta huna gure muthiko zozo-aire bat (!) zuena merkaturat heldua. Norbaitek gal-

zuk esandakoanez, sokeaz lotuta ekarri dot". Urreratu zan ama, eta an, soka bat ikusi eban, eta sokearen puntatxoan pedar puntatxo bat, tutotxa ozta-ozta! "Baiña, mutil tentela; *Buruan* ekarri bear uan ik au!" —"Ara ama; ekarriko dot urrengotan".

Urrengotan, bialduten dau amak kilo bat *guri* (mantekilla) erosten, eta a beifipein ondo ekarri bear ebala-ta, iminten dau buru ganean. Bero izugarria egoanez, etxera eldu orduko, bere *guri* gustia urtuta eukan. Itxura aretan ikustean, badinotso amak: "Baiña ez dok beraz ik eguno ezer onik egingo? Aurkituten ituzan ur gustietan bustiez bustiez ekarri bear uan ik au; eta olan fresko ekarriko uan!" —"Urrengotan olan ekarriko dot, ama; berbea emoten dau tsut".

Urrengotan, beraz, bialduten dau amak libra bat *gatzen* bila; eta gure mutillak ondo baiño obeto egiteko, aurkituten dituzan ur-erreka *gustietan* bustiten dau a gatza; ain ondo busti bere etxera eldutean ez eban ez gatzik ez eta paperik bere bada-ta...

Eta orduan —tertzioa bere bazan— bildurtuten asi zan ama, mutillak tentel itxura bat ez *ete* eutsan ara bere edota; eta aregaz zerbait onik egin gurarik, onu edo kontseju onak emonez, beragaz gorde eban etxean.

* * *

Baiña, ama arek laster bear izan eban barriro bere mutila, eta egun baten badinotso: "Merkatura joan bear dok, auxe *ezti* au salduten, eta *berbarik gitxien esaten duanari* salduko dautsak; ea, gero, ez saldu malmutz utsak diraneri". —"Bai ama, alantxe egingo dot". Eta ara gure mutil tentel itxura bat ebana merkatura elduta. Norbaitek, bereala,

datzen dio berehala: «Zonbat, ezti hoi, muthikoa?» Eta harek aire berean errepusta: «Sobera solas! sobera solas!» Berriz ere egiten diote galde bera, ihardeste beraren aditze-ko, deusik ez baitziroten konpreni.

Bertze erostun bat heldu zaio gero gure muthikoari, eta galdatzen dio harek ere: «Zonbat, ezti hori, muthikoa?» Eta muthikoa kexu kexua: «Ez duzu, ez duzu izanen! Sobera solas! sobera solas!» Eta, bethi bere hitzean egon zen muthi-ko zozoa.

Arratsean, etxerat eremaki zuelarik bere ezti, *haitz* handi baten aintzinean gelditu zen, eta harek bederen ez zuela deusik erraiten, bere ezti guzia aurtiki zion gainera, hama-bortz egunen buruan haitzak segur pagatuko ziolakoan.

Hamabortz egunen buruan, heldu da gure muthikoa bere pagamenduaren bilha, eta bere ezti guzia atxemaiten du *uliek* jana, uli hek oinon han zabiltzala furrundaka. Hasarre gorrian emaiten da, eta badoa, kuxean, Jaun Jujearen atxemaitera, eta erraiten dio: «Jaun Jujea, emazteki ttiki ttiki batzuek ene ezti guzia iretsi dautate, eta ez naute pagatu nahi.» Jaun Jujeak errepusta: «Adiskidea, nik ez dezaket deusik egin, gehiagoko segurtamenik gabe. Ahal baduzu, bat edo bertze atxemazu emazteki hetarik, eta gero ekarratzu hunarat. Bertzenaz, deus handirik ez dezaket nik egin.» Gure muthikoa xehetasun gehiagoren emaiten hasi zitzaion orduan, erranez: «Halako beltz ttiki ttiki batzuek dira, non nahi ikusten baitira halakoak.»

Hainbertzenarekin, uli bat gan zitzaion eskuaren gainera eta berehala erakutsi zion Jaun Jujeari: «Ori, Jauna, holako batzu dira.» —«Bo deusik ez dira horiek; eta atxemaiten dituzun guzian hil behar dire.» Eta, uli bat memento berean Jaun Jujeari gan baitzitzaion kopetara, gure muthiko zozoak eskuan zuen makila lodi bat altxatzen du, eman ahala jotzen du jujea kopetan, eta bere bidean gan zen, etxera.

itaunduten dautso: "Zegan ezti ori, mutil?" —Eta bai berak bere arin erantzun: "Berba larregi berba larregi!" Barriro bere egiten dautse bera itaunea, erantzun berbera entzuteko, eta ezin eutsen ezer ulertu.

Beste erostun (merkatari) bat bajatoroko gero gure mutilari, eta itaunduten dautso: "Zegan ezti ori, mutil?" Eta mutillak asarre-asarre: "Ez dozu, ez dozu izango! Berba larregi! Berba larregi!" Eta, beti bere berbabidean egon zan mutil tentela.

Arratsean, bere ezti etxera eroiala, *areitz* andi baten aurrean gelditu zan, eta arek beñipein ez ebala ezer esaten eta, bere ezti gustia jaurti eutson ganera, amabost egungarrenean aretxak, aurki, ordainduko eutsalakoa.

Amabost egun garrenean, badator gure mutilla bere arturenaren billa, eta bere ezti gustia *euliak* janda aurkituten dau, eta euli aek oindinokarren bertan ebiltzala urrumadaka. Jarten da asarre gorian, eta badoa, arin, Epaikari Jauna idoroten, eta badinotso: "Epaikari Jauna; andra txiki-txiki batzuk neure ezti gustia irunsi dauste, eta ez dauste ordaindu gura". Epaikari Jaunak erantzuna: "Adiskidea; nik ezin daiket ezer egin, geiagoko argibide barik. Al badozu, bat edo beste atrapa egizu andra orreetarik, eta gero ekarri egizu ona. Gauza andirik ezin daiket nik egin, osterantzean". Gure mutilla zetasun geiago emoten asi jakan orduan, esanez: "Alako baltz txiki-txiki batzuk dira, eta edonon ikusten dira alakoak".

Onenbestez, euli bat joan jakon esku ganera eta beingoan erakutsi eutsan Epaikari Jaunari: "Ara, Jauna, olako batzuk dira". —"Bo! orreek ez dira ezer; eta aurkituten dozuzan bakotxean il egin bear dira". Eta, une bereatan, Epaikari Jaunari euli bat joan jakon bekokira, eta, gure mutil tentelak, eskuan eban makilla lodi bat jasota, indar alean joten dau Epaikaria bekokian, eta bere bidean joan zan.

Amak oro jakin zituen laster, eta pentsatzen ahal duzue haren bihotz-mina. Berekin atxiki zuen handik goitik, kontseilu on zombait eman beharrez berriz ere.

* * *

Zombait egunen buruan, noiz ere iduritu baitzitaion amari adimendua ethorrixea zuela semeak, erran zion: «Egun, ganen haiz aitatziren ikustera, heian pulliki den jakitera.» —«Ba, ama, ganen naiz segurki.»

Gan zen beraz gure muthikoa, eta, harat heltzean, hila kausitu zuen bere aitatz, eta guziak nigarrez ari zirela. Orduan, deusik erran gabe, itzuli zen kuxean etxera, eta amak galdetzen dio: «Izatu haiz? —Ba, ama! —Nola atxeman duk? —Ori, ama, hila zen, eta deusik erran gabe itzuli naiz. —Muthiko zozoa eta ez bertzea!... behar huen han belhaunikatu eta *Gure Aita, Agur Maria* eta *Errekien* erran! Hoa, berehala gibelerat, eta egik nik erran bezala. Ba, ama!...»

Badoa berehala beraz, eta hurbiltzarekin, atxeman zituen xerri hiltzen ari zirela, eta gehiagokorik pentsatu gabe, xerriaren aintzinean erran zituen *Gure Aita, Agur Maria* eta *Errekien*...

Bainan, ez zuen oinon zozokeriarik aski eginik!

Handik zombait egunen buruan, amak igorri zuen bere arrebaren etxerat. Badoa beraz, eta arreba atxemaiten du zangoko min baten lotzen ari dela. Ikusi ez balu bezala, gibelerat itzultzen da zozoa, eta amak galdetzen dio: «Izatu haiz, to? —Ba, ama. —Zer erran die? —Ori, ama, min batzuen lotzen ari zen, eta deusik erran gabe ethorri naiz gibelera. —Bainan, ez duk beraz sekulan deusik ikasiko?... Hoa berriz harat, eta arrebari erranen diok: «Agian holako guti duzu, eta denak ihartuko! —Ba, ama.»

Amak gustiak jakin zituzan laster, eta igarri daikezue aren tamala. Beragaz gorde eban ordutik aurrera, kontseju on batzuk emoteko ustez barrero bere.

* * *

Egun batzuk garrenean, semeak arean adimena ija etorrita eukala amari iruditu jakanean, onan esan eutsan: "Gaur, aitita ikusten joango az, ia ondo dagonez jakiten". —"Bai, ama, joango naz, oba ez!"

Joan zan beraz, gure mutilla, eta, ara eldueran, ilda aurkitu eban bere aitita, eta negarrez eragoioela gustiak. Orduan, ezer esan barik, beingoan biurtu zan etxera, eta amak badi-tauntso: "Izan al az?" —"Bai, ama!" —"Zelan aurkitu dok" —"Ara, ama, ilda egoan, eta ezer esan barik etorri naz atzera". —"Mutil tentel ori, alakuori!... belauko jarri bear uan bertan eta *Aita Gurea*, *Ave Maria* eta *Errekien* esan! Oa beingoan atzera, eta egik nik esandakoa legez". —"Bai, ama!..."

Badoa bereala beraz, eta urreratueran, txarri-ilketan ziarduela aurkitu zituzan, eta geiagokorik bururatu barik txarriaren aurrean esan zituzan *Aita Gurea*, *Ama Maria* eta *Errekien*...

Baiña, ez eban oindinokarren tentelkeria naikorik egin.

Arik egun batzugarrenean, aren (mutillaren) arrebearen etxera bialdu eban amak. Badoa beraz, eta aurkituten dau arrebea oiñean eban min bat lotuten ziarduala. Ikusi ez bai-leuan, atzera biurtuten da tentela eta amak badituantso: "Izan al az, txotxo?" —"Bai, ama". —"Zer esan doe?" —"Ara, ama; min batzuri loturak iminten ziarduan, eta ezer esan barik etorri naz atzera". —"Baiña, ez al dok inoiz ezer ikasiko?... Oa ara barrero, eta arrebeari onan esango dautsak: "Olako gitxi izango al dozu, eta danak igartuko!" —"Bai, ama".

Gan zen, eta arrebaren etxerat heldu gabe, etxeko langileak ikusi baitzituen ari zirela sagar eta udare landare landatzen, amaren mandatua, ahantzi gabe, erran beharrez, urrundik oihu egin zioten: «Agian holako guti izanen duzue, eta denak ere ihartuko!» Eta itzuli zen etxera, aldi hartan bederen ongi egin zuela bere mandatua.

Amak, bethi bezala, galdatzen dio: «Izatu haiz? —Ba, ama. —Eta? —Ori, landan ari ziren fruitu-landare landatzen, eta behar bada ahantziko ere nuela, etxeraino gan gabe, han berean, urrunskotik egin diotet oihu, zuk erran bezala. —Bainan, nik erran naukan arrebaren ganat gateko, eta ez heieri hola oihu egiteko!... To, baituk zerbaiten ikastearen ere beharra, ganen haiz oraikoan landara, eta axtiko gizon heieri erranen diotek: «Agian holako hainitz izanen duzue, eta fruitu ederrak ekarriko!»

Gure muthikoa kexatzen hasia baitzen, oraikoan bederen *arrebari berari* eginen ziola mandatua, landako gizonek ez ikusteko, hartzen du bertze bide bat, eta xuxen xuxena badoa arrebaren ganat. Eta nola bere arreba berriz ere min hekien arthatzen ari baitzen, athetik egin zion oihu: «Agian holako hainitz izanen ahal duzue, eta fruitu ederrak ekarriko!» Eta, zer ihardetsiko zioten beira egon gabe, gan zen bethi bezala etxerat.

* * *

Eta ama gaixoak ez zuen etsitzen oraino, eta iduri zitzaiion bere semeari ethorriko zitzaiola oinon adimendu gehiago.

Hor, goiz batez, erraiten dio: «To! hoa egunaren iragaitera hauzoko jende horiekin. Harat heltzean, eginatzik konplimentuak, eta gero, han hemenka ematzik zonbeit begi kolpe.»

Joan zan, eta arrebearen etxera eldu orduko, etxeko bearginak ikusi zituzan sagar eta madari landarak iminten eragoioela, eta amaren mandatua aztu orduko esan gurarik, urrunetik deadar egin eutsen: "Alako gitxi izango al dozue, eta eurak bere danak igartuko!" Eta etxera biurtu zan, ordutan beiñipein bere mandatua ondo egin ebalakoan.

Amak, beti legez, baditauntso: "Izan al az?" —"Bai, ama" —"Eta?" —"Ara; landan eragoioen fruta-landarak sartuten, eta bear bada aztu bere egingo nintzala-ta, etxeragino joan barik, antxe bertan, urruntxotik egin dautset deadar zuk esandakoanez". —"Baña, nik arrebeagana joateko esan neuan, eta ez aeri olan deadar egiteko!...Tira; zerbait ikasi bearra bere badok ik eta, oraingoan joango az landara eta arestiko gizon aeri esango dautsek: "Olako asko izango al dozue, eta frutu ederrak artuko!"

Gure mutilla, asarratuten asita bere bai, eta, oraingoan *arrebari berari* egingo eutsala mandatua eta, landako gizonak ez ikusteko, artuten dau beste bide bat, eta badoa zuzen zuzen arrebeagana. Eta bere arrebeak barrero bere aeri mineri ardurea artuten eragoionez, atetik egin eutsan deadar: "Olako asko izango al dozue, eta frutu ederrak artuko!" Eta zer erantzungo eutsen begira egon barik, beti legez etxera joan zan.

* * *

Eta ama gaisoak ez eban ara bere usterik galduten, eta baeritxon etorriko ekiola oindinokarren bere semeari adimen geiago.

Aor; goiz baten, badinotso: "Txotxo! oa eguna igaroten auzoko lagun orriekaz. Ara eldutean egizak eskumun-agurak, eta gero, or emenka, bota egizak begi golpe batzuk."

Zozoa badoa berehala beren ardi-bordara, eta han, begiak kentzen diozkate ardi guzieri, eta gero, begi hek sake-lan emanik, badoa, bidean bere *lehenbiziko xixtu aireak ikasiz*.

Heltzean, unkitzen dio bati eskua, eta ahur bat begi sakelatik atheraturik, botatzen diozka segidan. Badoa bertze baten ganat, eta hari ere gauza bera. Eta hantxet, bere begi guziak azkeneraino arthiki arte aritu zen, tira eta tira. Azkena botatu ondoan, itzuli zen etxera, bere axtiko xixtu aireak segituz.

Ama gaixoa orduan finkatu zen ez zela muthiko hura bertzeak bezalakoa, eta hobe zuela gehiago nehorri ez igorri. Eta geroztik, han dago muthiko hura, bethi bere amaren ondo ondoan. Horra zertako ez dugun ikusten, lehen bezala, mandatu egiten.

Tentela badoa bereala euren ardi-bordara, eta, an, begiak kenduten dautsez ardi gustieri, eta gero, aek begiak sakelean sarturik, badoa, bidean *lenengoko txistu soiñuak ikasiez*.

Eldutean, estututen dautso bateri eskua, eta eskubete begi sakeletik aterata, botaten dautsoz gero. Badoa beste bategana, eta areri bere bera gauzea. Eta antxe, bere begi gustiak azkeneragino jaurti arte ekin eutsan, bota eta bota. Azkenekoa jaurti ostean etxera biurtu zan, arestiko bere txistu soiñuak segiduez.

Ama gaisoak orduan etsi eban ez zala a mutilla bestek langoa, eta oba eukeala geiago iñori ez bialdutea. Eta arrezkero, an dago a mutilla, beti bere amaren ondo-ondoan. Aor zergaitik ez dogun ikusten, len legez, mandatuak egiten.

Euzkadi, 1934, Martiak 10, 15.

16. MARRO BELTZ ARDI

Orai berrogoi eta hamar bat urthe, Uztaritzeko eta Sempereko mugan bazen etxe bat, *Hamalauenea* deitzen baitzuten orok, hamalau seme bazirelakotz etxe hartan.

Ikazkinak ziren sortzez eta izaitez. Ikazkingoatik guziak hazteko sobera izanez, *Ameriketarat* joan ziren zonbeit. Eta, etxean gelditu ziren *Pepe Handi* zaharrena eta *Pepe Ttiki* gazteena; batto handi bezen bertzea ttiki.

Hor, igande arratsalde batez, aita erraiten diote Pepe Handi eta Pepe Ttikiri:

«Badakizue zer egin behar zindukuten, haurrak?

—Ez aita!

—Zoazte *Menttara*, eta ekharratzue handik bi xahako arno eta hamabi xardina. Bi ikaztoi egin behar ditiagu helduden astean, eta, gisa hortan, izanen diagu zer jan eta zer edan.

—Ba, aita, gure xahakoak hartu eta, berehala bagoazi.»

Hola egin ere baitzuten.

* * *

Pepe Handi eta Pepe Ttiki, gainez gain joanik, menttara heldu izan ziren arte laburrez.

Menttan xahakoak betherik, beren dotzena xardina golkoan sarturik, ahamen bat doi-doia ithoka janik, kopa bat agorient hurrup eta klik iretsirik, draga draga bazoazin beraz etxe-alde, ilhuna kasik zutelakotz han berean.

16. MOXO BALTZ ARDI

Orain berrogetamar bat urte Ustaritz eta Senpereko mugan bazan etxe bat *Hamalauenea* (Amalauenea) esaten eutsena gustiak, amalau seme ziralako etxe atan.

Ikazginak ziran jaiotzaz eta izatez. Ikazgintzeak azteko gustiak larregi izanik, *Ameriketara* joan ziran batzuk. Eta, etxean gelditu ziran *Pepe Andi* zaarrena eta *Pepe Txiki* gazteena: bata baizen andi bestea txiki.

Aor; domeka arratsalde baten, badiñotse aitak Pepe Andi eta Pepe Txikiri:

—Badakizue zer egin bear zendukeen, ene semeak?

—Ez, aita!

—Zoaze *Bentara*, eta ekazuez andik zaato bi ardao eta amabi sardina. Ikaztobi bi egin bear joaguz datorren astean, eta era orretara, izango joagu zer jan eta zer edan.

—Bai, aita, gure zaatoak artuta, bagoaz beingoan.

Egin bere olan egin eben.

* * *

Pepe Andi eta Pepe Txiki ganerik gane joanik, aldi laburrean eldu izan ziran bentara.

Bentan zaatoak beteturik, euren sardina dozeena kolkoan sarturik, kopau bat ozta-ozta itoka janik, eta agordent kopa bat dzangada baten iruntsirik, bajoazan beraz traka-traka etxerantz, illuntzea ia ganean eben-eta.

Eta, *Okilaueko patarra* goiti heldu ziren jada, solas eta solas, maiteki:

«Gure aitaren loria, sarri!

—Ba, gaur norbeit loriatzekotz, hura eginen duk, puska hauk oro guk etxerat eremaitearekin!»

Baietz eta baietz, heltzen dire holaxet *Kamieten-bordako* parrera.

Hor, bet-betan, *Ilitxipiko* Haitz Handiaren aldean iragaitzarekin, halako oihu bitzi bat entzuten dute:

«Huntza othe zuan hoi, Pepe Ttiki?

—Ez... Izaitekotz ere, gau-belea!»

Hainbertzenarekin, biek betan, behatzen diote Haitz Handiari... eta zer ikusten dute? Haitza, beheretik eta gainerraino, floka gorri ilhun batzuz aphaindua!...

«Ai, ai, ai! Toki onean gaituk to, Pepe Ttiki!... Sorginak dituk hemen! Guen aitari nihaurek entzuna diat, lehen, sorgin horietarik hiru hemen nonbeit egoki direla: *Marie-Martin*, *Maria-Biperbeltx* eta *Atso Katero*. Mogitzen ahal gaituk hemendik, eta zalukara!...»

Eta, hori hek erran orduko, mamu-bulto bat jauzian heldu zaiote aintzinerat, oihuka, karrasiaka:

«Hattikun, hai, hai, hai!»

Eta bertze manu batek, bere aldetik:

«Akhelar, bai, bai, bai!»

Pepe Handik, berehala, beso-gibelka, bere xahakoarekin, jotzen du sorginetarik bat, eta hortan galtzen... bere xahakoa. Sorginak ebatsi alabainan!

Egin ahala laster, ixila, berritz bazoazin gure bi anaiak. Eta *Jazarketako* ondoraino heldu ere izan ziren, deus bertzerik gabe.

Bainan gero, han (haste eta gure!) oihu bera berritz ere:

Baetozan *Okilarreko alagarrean* gora, berba eta berba maitero:

—Gure aitaren poza, gesu baten!

—Bai, gaur norbait poztutekotan axe egingo dok, oneek gauza gustiok guk etxera eroatean".

Baietz batak eta baietz besteak, elduten dira olantxe *Kamineruen etxearen* parera.

Aor; bat-batean, *Ilitxioiko* Areitz Andiaren albotik iga-roeran, alako deadar baragarri bat entzuten dabe:

—Ontza izan ete dok ori, Pepe Txiki?

—Ez... Izatekotan bere, gau-erroia!

Geiago barik, biak batera begiratuten dautse Areitz Andiar... zer dabe ikusten? Aretxa, beetik eta goragino, lora txorta gorri illun batzukaz apainduta...!

—Ai, ai, ai, leku onean gozak txo, Pepe Txiki!... Sorginak jagozak emen! Gueneko aitari entzunda najagok ni, leendik, orretariko iru sorgin emen nonbait egoten do-zaala: *Maria-Martin*, *Maria-Piperbaltz* eta *Atso Katero*. Igitu al gajaitean emendik, eta txistua baiño arinago..."

Eta, aek a esanaz beraz, mamau antzeko bat bajatorke ikotika aurrera, deadarka, garraizika:

—Kukulukun, jai, jai, jai!

Eta beste mamau batek, bere aldetik:

—Akhelar, bai, bai, bai!

Pepe Andik, beingoan, errebeska, joten dau bere zaatoa-gaz sorginetariko bat, eta bertan... bere zaatoa galdu. Sorgi-ñak ostuta baiña, agiri zanez.

Barriro bere bajoazan gure anaie biak alik arinen, isil-isilik. Eta *Jazarletako* ondoragino bere eldu izan ziran, beste ezer barik.

Baiña, gero, an (ostera asten jakuk eta!) deadar berbera barriro bere:

«Hattikun, hai, hai, hai!

—Akhelar, bai, bai, bai!»

Xahakoarekin, Pepe Ttikik du arthikitzen, oraikoan, hurbilegi atrebitu zaioten sorgina... Bainan, adio bere xahakoa! Sorginak eremana dio hari ere!

Bi xahakoak galdurik, xardinak gelditzen zitzaizkoten beraz doi-doia!...Gogoa ilhunik, ixil ixila heldu ziren beraz etxe-alde...

Eta, *Ur-Onttoko* ithurrira heltzearekin, huna berritz trabera, huna karrasi lazgarria:

«Hattikun, hai, hai, hai!

—Akhelar, bai, bai, bai!»

Pepe handik, den gutieneko durduzarik gabe, hartu bere xardinak eta, besagainka bota ziozkan hirugarren sorginari... Eta hunek, arrapalamako, guziak ereman berekin...

* * *

Doi doiako beren atsegina suntsiturik, harrituak heldu ziren beraz orai Pepe Handi eta Pepe Ttiki. —Aitak zer erranen othe zioten? Eta futxo, ez zen gibelerat itzultzerik! Sobera izituak ziren hortako!...—

Hola, jin, jin, jin heldu zirelarik, bere ardien alharazten ari, *Larre-Luxeko* malda gainean, ikusten dute *Manuel*, *Artzain Handia*. Eta Manuel, gure bi anaiak ezagaturik, hasten zaiote galdeka:

«Non zabilzate tenore huntan, Pepe Handi eta Pepe Ttiki?

—Ez sobera bide onean, naski, Manuel!

—Nik ez zakiat bizkitartean hobeagorik. Zer gerthatzen zaitzue beraz gaur bieri?

—Zer gerthatzen?... Bide hortan guk ikusi ez dugun jostetarik ez da...»

Eta Pepe Handik guziak hantxet erraiten diozka Artzain Handiari.

—Kukulukun, jai, jai, jai!

—Akhelar, bai, bai, bai!

Oraingoan Pepe Txikik, jaurtiten dautso bat zaatoaz urregi, atoman jakeen sorginari... Baiña, agur bere zaatoa! Sorginak eroan dautso areri bere! Zaato biak galdurik, sardinak geldituten jakezan doi-doi... Gogo-illun eta isil-isilik, baetozan beraz etxerantz..

Eta, *Ur-Ontxoko* iturrira eldueran, ara ostera bere, enba-zu berbera, ara garraizi ikaragarria:

—Kukulukun, jai, jai, jai!

—Akhelar, bai, bai, bai!

Pepe Andik, danik zalantzarik txikiena barik, artu bere sardinak eta, besaganka bota eutsazan irugarren sorginari... Eta onek, arrapalaka, gustiak eroan beragaz.

* * *

Aurre-aurretxoango euren poz gustiak iges eginda, arri-tuta etozan beraz orain Pepe Andi eta Pepe Txiki. —Aitak zer esango ete eutsen! Eta, kontxo, ez egoan atzera biurtuterik! Larregi ikaratuta egozan atarako!...

Olan etorri, etorri, etorri etozala *Larre Luzeko* aldatz ganean ikusten dabe Manuel, *Artzain Andia*, bere ardiak banatuten ziarduala. Eta Manuel, gure anaje biak ezaguturik, asten jake itaunka:

—Nondik zabilzte tertzio onetan, Pepe Andi eta Pepe Txiki?

—Ez bide onegitik, aurki, Manuel!

—Nik ez jakiat orraitino obeagorik. Zer jasoten jatzue gaur biori, bada?

—Zer jasoten?... Bide orretan guk ikusi ez dogun jigotnik ez da..." Eta Pepe Andik gustia esaten dautso bertan Artzain Andiari.

«Eta, zer zaizte ala izituak hortako, eta lotsatuak ere etxerat itzultzeko? Zaudete beraz hemen berean, eta, ene Marro Beltzekin, guziak bilduko dauzkitzuetet nik, arte laburrik barnean... Nontsu utzi ditutzue zuen sorginak?

—Ur-Onttoko ithurrian, azkenik...

—Ongi duk. Bego neri gaineratekoa... Goazen, Marro-Beltz!...»

* * *

Eta, gau ilhunean, horra Manuel Handia, Marro Beltzekin joaki, Ur-Onttoko ithurrira buruz... Hurbilduxe delarik, kantaz ari entzuten ditu hiru sorginak; Marie-Martin lehenik:

«Xardina begi gorria,
«Itsasotik ethorria!

Gero, Maria Biper-Beltx:

«Badiagu mama ona,
«Pepe handiarena!»

Atso Katero azkenik:

«Nik bertze mama ona,
«Pepe Ttikiarena!...»

Han zituen beraz hiru prendak. Manuelek, berehala, oihu egiten dio bere marro alimaleari:

«MARRO BELTZ ARDI,
«Hiru, bi, bortzeko!...»

Eta, hitz horiek entzutearekin, lur guzia aztaparrez harrotzen duela, hiru urhats egiten ditu marroak gibelerat.

«Bortz, hiru, biko!...»

Eta jauzian joanik, Marro Beltzek ataplau botatzen du lehenbiziko sorgina.

—Eta orregaitik ete zaree orren ikara, eta etxera biurtuteko bere lotsa? Zagoze, beraz, ementxe berton, eta neure Moxo Baltzagaz neuk ekarriko dautsuedaz gustiak, gesu baten... Non legez itzi dozuez zuen sorginok?

—Ur-Ontxoko iturrian, azkanengoz.

—Ondo jagok. Bego niretzat garatikoa... Goazen Moxo Baltz...

* * *

Eta gau illunean, ara Manuel Andia, Moxo Baltzegaz joaten Ur-Ontxoko iturri alderantz...

Ija urrean dala, entzuten dituz iru sorginak kanta kantari; Maria-Martin lenengo...

"Sardina begi gorria;

"Itxasotik etorria;"

Gero, Maria Pipar Baltz:

"Bajonagu mama ona;

"Pepe Andiarena!"

Atso Katero azkenean:

"Nik beste mama ona,

"Pepe Txikiarena!"

An zituzan beraz iru "aparejoak". Manuelek, beingoan, deadar egiten dautso bere moxo garauari:

"Moxo Baltz Ardi,

"Iru, bi, bosteko!..."

Eta, berba arek entzutean, lur gustia apatxakaz arrotuten dauala, iru oinkada atzerantz egiten dituz moxoak.

"Bost, iru, biko!..."

Eta ikotika joanik, Moxo Beltzek, daunbala, botaten dau leenengoko sorgina.

Eta manu bera emaiten dio berriz Manuel Artzainak:

«Hiru, bi, bortzeko!...
Bortz, hiru, biko!»...

Ataplau, plau... jo oraikoan bertze sorgina!...
Eta gero azken manua, aire berean:

«Hiru, bi, bortzeko,
«Bortz, hiru, biko!»...»

Eta, Marro Beltzek, oldar izigarrian, lau hatzez gora arthikitzen du hirugarren sorgina... Adios Akelarre! Suntsitu ziren gure sorginak, eta suntsitu sekulakotz!...

Manuel Artzain Handiak, orduan, bildu zituen bi xahakoak. Ez ziren arras arras betheak; bainan deus guti zuten eskas, edaten hasi berriak oraino zirelakotz sorginak. Xardinak aldiz han berean utzi behartu zitzaizkon, erdi janak hek izanez, eta sorginek eta marro mixteriozkoak azta-par-zangopetan zikinduak.

* * *

Pepe Handi eta Pepe Ttikiren loria, Manuel Handiri xahakoak ikustearekin!...

«Huna zuen xahakoak! Arno gehiena ere hor duzue... Xardinak, hatik, han berean utzi behar izan ditiat; sobera fundituak zituan...

Hirriz, orai, aitari kondatuko ahal ditzuzue egungo zuen gerthakariak.

Eta gero, berriz ere nitaz behartzen bazaizte sekulan, orhoit Artzain-Bordan egoiten direla Manuel Handi eta Marro Beltz Ardi.»

Eta bera agindua emoten dautso ostera bere Manuel Artzainak:

"Iru, bi, bosteko!
"Bost, iru, biko!..."

Dinbi, daunbala... jo oraingoan beste sorgina!...
Eta gero azkeneko agindua, danba danba:

"Iru, bi, bosteko!...
"Bost, iru, biko!..."

Eta Moxo Baltzek, abiada izugarrian, autsez-iperdi botaten dau irugarren sorgina... Agur Akelarrea! Itsutu ziran gure sorginak, eta sekulako itsutu bere!...

Manuel Artzain Andiak, orduan, zaato biak batu zituzan. Ez egozan bete-beteak; baiña gauza gitxi eben urri, arteragino edaten asi barriak baiña ez ziralako izan sorginak. Sardinak, ostera, antxe bertan itzi bear izan zituzan erdi janda egozalako, eta sorginak eta moxo misteriozkoak apatx-oinpeetan mazkilduta.

* * *

Pepe Andi eta Pepe Txikiren poza, Manuel Andiri zaatoak ikustean!...

—Aemen zuen zaatoak! Ardorik geiena bere or dozue... Sardinak, orraitino, antxe bertan itzi bear izan joadaz; lar mazi eginda zoazan!...

Orain, barreka kontauko al dautsezue aitari zuen gaurko jazoerak.

Eta gero, barriro bere inoiz bear izana bazinegie, gomutau Artzain Bordan egoten dirala.

Manuel Andi eta Moxo Baltz Ardi.

Euzkadi, 1934, Martiak 28.

17. BAIGURAKO AINGERUA

Hasi zen beraz artzaina eta, begiak argi argia, beharriak xut, huna zer aditu nioen:

«Hamazazpi urthe behar nituen izan, orai aspaldi. Baigurako Aingeruaz aipatzen entzuna nuelakotz edo bertzela, sekulan ez nintzen etxetik atherako, nere Aingeru begiraleari othoitz bat eginik baizen.

Goiz batez, argi-hasteko jeikirik, nere othoitz eginik, laudeta, kantuz, iguzkiari buruz altxa eta altxa ari zelarik, joan nintzen Baigurako mendira, mazelaz mazela nere ardiak eremaiten nituela.

Goiz ederra iragan zen, ezin gehiago, eta urrundik nere herriari begira egonik, batean galtzerdi orratzak, bertzean arrosarioak eskuan, ametz eder baten azpian egin nuen nere otruntza ttikia. Aldeko ithurrian xurga xurga edanik, badut uste lo kuluxka bat ere egina nuela, noiz eta ere iduritu baitzitzautan, burrunba mutu ilhun bat, urrun urrundik heldu, entzuten nuela. Xutitu nintzen eta, hainbertzenarekin, burrunba sumatu nuen nere ganik hurbilago. Duda-muda batean egon nintzen ixtant bat, arratsalde erditan ez ginelakotz oraino.

Bainan, orroa bethi eta handiago, bethi eta hurbilago entzuten nuen. Nere buruaren gaineko ametz hostoak, farra farra, mugitzen ikusten nituen; ardiak, azken ahamenak doblezka egin nahi izan baluzte bezala, harat hunat zoazin

17. BAIGURAKO AINGERUA

Asi zan, beraz, artzaiña (artzain-andrea) eta, begiak argi-argi, belarriak zut, ona emen zer aditu neutsan:

"Amazazpi urte edo nituzan, orain aspaldi. Baigurako Aingerua aitatuten entzunda nengoalako edo dana-dalakoa-gaitik, eguno ez neban nik etxetik urtengo neure Aingeru Jagoleari arren bat eginda baiño.

Goiz baten, egun-sentiaz jagirik, eta neure errezua esan ostean, larratxoria kantaka eguzki alderantz gora eta gora ziardualarik, baniñoan Baigurako mendira, egalerik egal neure ardiak eroan neroazala.

Goiza ederra igaro zan, ezin geiagoan, eta urrundik neure erriari begira egon ostean, batean kaltzetorratzak, bestean errosarioak eskuan nituzala, ametz eder baten azpian egin neban neure otordu txikia. Alboko iturrian dzanga-dzanga edanik, uste dot lo-kuku bat bere egin nebala, eta onetan, ara non iruditen jatan burrunbada motel itzal bat entzuten nebala urrun-urrunetik etorria. Zutundu nintzan, eta, geiagoko barik burrunbadea neuganik urreago susmau neban. Ezbaian egon nintzan apur baten, arratsalde erditan ez ginalako oindiño.

Baiña, orroea geroago andiago, geroago urreago entzuten neban. Neure buruaren ganeko ametz orriak, firri-farra ebiltzala ikusten nituzan. Ardiak, azkeneko aokadak bina-koak egin gura izan baileuezan, batera eta bestera joazan

orai, alhan, *bee* eta *bee* marrakaz. *Gorria*, gure xakur ernea, aintzinerat ethorria nuen, niri begira, ardiak bildu behar zituenez galdatzeko bezala.

Bertzerik ez zen, kalerna gainean ginuen; eta banakien kalernarekin ez dela jostatzerik mendian! «Hoa, hoa laster, Gorria! Ta, ta, ta, ta!» Eta xakur gaixoa joan zen firurikan, ardi bat hemen haika, bertze bat hantxet erdi ausik, mendi guzia bere saingaz bethetzen zuela eta inharrosten. Arthalde guzia han nuen zalu zalua, nere ondora bildua, elgar kasik ithotzen zutela bide-xendra hertsian.

Anhartearen, kalerna lehertu zitzaukun gainera, eta ortzanz ximixten erdian, uria turrustan heldu zen, oro itho beharrez.

Gorria bazterretik, ni gibeletik, ardiak bagineramatzan aintzinean, ahalik eta lasterrena; eta bazoazin, bazoazin gaixoak, marrakaz eta marrakaz.

Bat batean, ihurzuri bat egiten du izigarria, eta niri hurbil, garbi garbia, entzuten dut oihu bat: «*Alda!!...*»

Nere arrosarioa eskuan, harritua gelditu nintzen. Uri uharren artetik nere beldurrarekin, ongi ikusten ere othe nuen? Ez dakit. Bainan, iduri zitzaudan, han, hamar hurratsetan, xut xuta banuela halako molde xuri bat, ez jende, ez lanho... nik dakita zer, xuxen erraiteko. Eta, daldara batek hartua, han berean nindagon mututua, noiz eta ere aiphatu mixteriozko molde xuria hurbiltzen ikusten baitut oraino gehiago. Eta, hainbertzenarekin, lehen aldian baino borthizkiago, kexuago, oihu bera entzuten dut berriz ere: «*Alda!!...*»

Hurrats bat ez nezaken gehiago. Orduan, iduritu zitzaudatan garbiki, xuri xuri zerbait, ximixta bezala heldu zitzaudata gainera, eta —Jainkoa, zuk barka! —zuek orai ni bezen ongi, han berean, nere beharri ondoan, mehatxu batean bezala, boz bera entzun nuen hirugarren aldikotz, bainan zoin

orain, alaka, *bee* eta *bee* marraka. *Gorria*, gure txakur ernaia, aurrera etorrira neukan, neuri begira, ardiak batu bear zituzanez itaunduteko legez.

Besterik ez zan: ekatxa (galarrena) genduan ganean; eta banekian ekatxagaz ez dala jolas egiterik mendian! "Oa, oa arin, *Gorria*! Ta, ta, ta, ta!" Eta txakur gaisoa tximistea legez joan zan, ardi bat emen jaso, beste bat antxe erdi usigi, bere ausiakaz mendi osoa bete eta irdarausi egiten ebala. Artalde gustia antxe neban, amen baten neure ondoan batu-ta, alkar ija itoten ebela bide-zior estuan.

Artean, ekatxa geure ganean lertu jakun, eta trumoe justurien erdian, euria truxuaka etorren, dana ondatu bearrez.

Gorria bazterretik, ni atzetik, bageroazan ardiak aurretik, alik eta agudoen; eta bajoazan, bajoazan gaisoak, *bee* eta *beeka*.

Bat-batean, jausten da justuri izugarri bat, eta neure ondoan, garbi-garbi, entzuten dot: *Alde!*...

Neure errosarioa eskuan nebala, arrituta gelditu nintzan. Euri uriol tartetik eta neure bildurraz, ikusi bere egi-ten ete neban ondo? Ez dakit. Baiña, an, amar oinkadatan eta zutun-zutunik, alako itxura zuri bat nebala begitandu jatan, ez gizon, ez laiño... nik aldakit zer, zuzen esateko. Eta laudardu batek artuta, antxe bertan nengoan mutututa, eta onetan ikusten dot aitaturiko misteriozko itxura zuria ara bere urreago datorrela. Eta geiago barik, lenengotan baiño indartsuago, larriago, bera dedarra entzuten dot barri-ro bere: *Alde!*...

Oinkada bat bere ezin neinkean geiago. Orduan, garbiri iruditu jatan, gauza zuri-zuri zerbait, tximistea legez etorki-dala ganera, eta —Jaungoikoa, zeuk parkatu!— orain zuek niri baizen ondo, antxe bertan, neure belarri ondoan, zemai baten legez, abots berbera entzun neban irugarren bidarrez,

saminki! «*Alda, alda bada hortik!...*» Jauzi bat egin nuen bazterrera, jakin ere gabe zer ari nintzen, eta, karraska izigarri batean, ihurzuria erori zen, han berean, doi doia ni xutik nindagon tokian, alimaleko zilo bat egiten zuela lurrean...

Eta, orduan berean, bere azken oldarra hortan botatu balu bezala, kalerna barreiatu zen burrunbaka, eta iguzkia, halako iguzki hits hits bat, agertu zen hedoiien artetik.

Bainan, banuen aski izialdura arratsalde hartako, eta, haia haia, nere ardiak aintzinean, harritua sartu nintzen herrian. Eritua bezala egon nintzen, zombait egunez. Sendatu nintzen, gazte nintzelakotz; bainan, sinhesten ahal duzue handik harat ez nuela othoitz gutiago egiten nere aingeru begiraleari eta... *Baigurako Aingeruari*, etxetik atheratzean, bereziki mendira behar nuelarik.

bada samin bere samin! *Alde, alde bada ortik!*... Ikoti bat egin neban bazterrera, zer egiten niarduan bere jakin barik, eta, karraskada izugarri baten, justuria jausi zan antxe bertan, aurre-aurretxoan ni zutunik nengoan lekuan, erakusmeneko zulo andi bat egiten eبالa lurrean...

Eta, orduan bertan, bere azkeneko asarre bizia aregaz botau baileuan, ekatxa burrunbadaka sakabanatu zan, eta eguzkia, alako eguzki larri motel bat, agertu zan edoien tartetik.

Baiña, baneban naiko larrikararik arratsalde aretarako, eta, arinik arin, neure ardiak aurretik nituzala, ikaratuta sartu nintzan errian. Geisorik legez egon nintzan egun batzutan. Osatu egin nintzan, gaztea nintzalako; baiña, sinistuko al dozue, arrezkero ez neutsala gitxiagorik errezaute neure aingeru jagoleari eta... *Baigurako Aingeruari*, etxetik urteitean, eta batez bere mendiratu bear nebanean.

Euzkadi, 1934, Apirilak 10.

LAU IPUIN
"AXULAR" ETZAZ

AXULAR

Axular nor izan zan ba edo dakizue gustiok. Sarako abade on eta entzutetsua: *Gero* (edo *Geroko Gero*, izen one-gaz bere ezagututen da-ta) euzkerazko libururik ospetsuenaren egillea.

Orain zortzi urte eta akatz, 1925gnko iraillean, ospetu zan Lapurdiko Sara errian, "Sarako Eguna" Axular zanaren gorasarrez. Urte aretako iraillari eta urrillari jagokozan "Gure Herria"tik artuak dira nik emen laburto jarten dodazan zertzeladak. Jean Barbier jauna zanak orduan pantzeraz idatzirikoetarik dira.

* * *

Euzkaltzale askok dakioe ekin *Axular* zanaren bizitzeazko barri zeatzak emon nairik. Lapurdiko Urdazurin (Urdax) ala Zugarramurdin zan jaioa? "Pierre Daguerre" ala "Pierre de Axular" ete eretxon?

Bonaparteren ustez "Axular" eretxon, Humboldt-ene-nez, "Daguerre"; Vinsonek, Urdazurin jaioa dala diño, eta "Pierre de Axular" izenekoa; Etcheparek bere "Axular" diñotso, baiña Zugarramurdiko semea. Bayonako "Eskualduna" izparringira 1925gn. urtean ezezagun batek bialduriko idazki batek diñonez, "Urdazuri"n jaioa zan, oindiño zutik dagon "Axularrea" etxean; izenez "Pierre Daguerre"

zan, eta ango Lekaretxe zaar eta ospetsuan —orduan, antza danez, Buruñurdunen ardurapean— egin zituzan lenengo ikastaldiak".

"Gero"ren lenengo irarkaldiak 1643gko urtea daroa. Geienen ustez, XVII mendeko asieretan edo jaio izan zan.

* * *

Axularren bizitzeazko zeaztasun egiazkoak edestilariei eta aztertzaillerei itzirik, esan daigun guk emen aren gomuteak, gaurko egunean oindiño, bizi-bizirik irauten dauala errian; eta ez edozelan iraun bere, *gizagurenaren* ospez baiño.

Axularren ospea eta aren onbideen entzutea, ipuin eta asele (leyenda) tartean darabiltz erriak; eta iñoren gomutea onetara erabillia izateko, oi ez lako ona, oi ez lako jakintsua, oi ez lako azkarra, oi ez lako *andia* izan bear dau gizonak.

Erriaren aoz, Axularreri, deabruak berak bildurra eutsan, berak baiño geiago ekialako, eta *galtzagorriak* eurak bere menperatuta eukazan; Axularreri, *parte txarreko* biztanleak, sorgin eta abar, gorrotoa eutsen. *Gero* liburu ederra idazteaz Euskal-Erriari egin eutsan onaren amorruarren; Axular, abade ezin onagoa izan zan, bere illobian, Saran, dagon idazkunean irakurri daitekenez; eta aren gorpua, ilda urte asko garrenean lurpetik atera ebenean, "oso-osorik aurkitu ei eben berna batean zulo txo txiki baten utsa ozta-ozta eukala baiño beste barik"; eta badakizue zer esan nai dauan erriak "gorpu bat urte asko garrenean oso-osorik aurkitzeak": santutzat eriztea. Erriaren aoz —gustia batera esateko— Axular, "geriza barik" bizi izan zan munduan, eta gero ikusiko dozuenez Barbierrek esanda, "geriza barik", arean, aingeruak eurak baiño ez dira bizi.

Orraitiño, iñoren gomutea onetara ipuin eta asele tartean erabilteak gaitz bat dauko. Erriak, bere gizagurenari, iñon diran jazokunak eta ez diranak bere bardin ezarten dautsoz, eta batzutan aren ospe onagaz ain eratarata bere ez datorzan egikunak edo esakerak ezarri izaten dautsoz. Baiña au ez da arritzeko. Zabal dira Euskal-Erriari "Josu-Kisto eta Kepa Deunaren ipuiñak", eta askotan entzun izango zenden, Josu Kisto gure Jaunari ez, baiña bai Kepa Deunari erriak ezarten dautsazala diruzalekeria, amorru aldiak eta aren deuntasunagaz arira ez datozen griñak. Eta onegaitik ezin esan ginei erriak Kepa Deuna gitxiago maite dauanik. Jaungoikuak badaiki Kepa Deuna Euskal-Erriari ondo maitatua dana, sekula bada.

Erriak, gizagurenaren egitadetan, bere burua ikusi gura izaten dau; baiña aen ezteriara (talla-ra) ezin iritxiz, bere ezteriara erazten dituz zelanbait gizagurenak, eta bere onbide gustiak eta askotan baita bere errakuntzak bere, gizagurenari ezarten dautsez. Axular etzazko ipuin bat edo bestegaz bere aren baten jazoten da. Baiña, ez dogu uste onegaitik aren gomuteak erriaren artean ezer galduten dauanik, gorago esan dogunez bada, erriak, berak maite dituzan gizagurenari edozer ezarri arren bere, usterik onenagaz egiten daualako.

* * *

Jean Barbier abade jaunak, 1925gnko iraillari jagokan "Gure Herria"n, iru ipuin argitaratu zituzan. "Trois Legendes sur Axular" izenburupean. Senperen, H.A. izeneko andera gazteari entzunak dirala diño. Urrengo zenbakian, urrillakoan, Naparroako Irigarai jaunari, "Larreko" idazle bikaiñari Axularren Egunean bertan entzuniko laugarren ipuin bat atzalduten dausku.

Ipuin oneetan ikusten danez, Axular iru anaie ziran, eta eurotariko bata Zugarramurdin zan abade, ojez, gure Axular au Saran abade zan aldian.

Jean Barbier jauna zanak (G.B.) batu izaniko eta ain ederto idatziriko "Ixtorio Mixterio" edo Euskal-Erriko ipuiñak bizkaieratu ostean, onexek lautxuok bere bizkaieratu egin gura izan dodaz, bizkaitar asko eta askori erazagutuez ganera, Bidasoz andiko euzkoen ezaupide andiagotzat izan dakiguzan —ezaukuntzea, maitasun bide, esan daroe— eta bide batez guk bizkaitarrok Axularrerri egiten dautsogun aldiz atako gorasarre txiki bat legez izan daitezana.

Baiña, lenago, Barbier Jaunak Axularren Egunean Saran izaniko otordu ostean irakurriko olerki au jarri nai dot, beronen bizkaierapenaz:

AXULARREN ITZALA

Errepika:

Sara herrian, nere anaiak, eskuak elgarri guk har
Gure bihotzen erditik gora guziek Axular.

I

Zuhaitz handiak, lore ttikiak berekin dakar itzala
Nahi bezenbat argitu gatik, gizon orok hala hala!
Itzalik gabe, aditua naiz, Aingeruak ditezkel
Huna non dioten Axulaez: Itzalik gabe bizi zela.

II

Jainkoarenak hartu ondoan, diote Axular jaunak
Salamankan hartu zituela eskolak... debruarenak!...
Saritzat zer utz Galtxagorri gure aphez Eskualdunak?
Utzi ziozkan aztparretan zituzken *itzalak* denak.

III

Itzalik gabe, ordutik harat, bizi zen beraz herrian
Apez saindua, handi eginda, orotan Eskual-Herrian.
Orori beha, oro zakizkan, oro zartzen agerian...
Eskuara zuen gora altxatu, hari doakon neurrian.

IV

Itzalik gabe, hura bezala, nahi girea, anaiak?
Gure Axular bezenbat garbi nahi girea guziak?
Galtxagorri, harek bezala, utzi erdaldunkeriak,
Aztparretan utz debruari beraren kaskoinkeriak!

AUXULARREN GERIZEA

Berresatekoa:

Sara errian, neure anaiak, eskuak arturik alkar
Geure biotzen erditik goratu gustiok Axular.

I

Zugatz andiak, lora txikiak beragaz dakar gerizea
Gura ainbat argitu arren, gizon gustiak bere era berean.
Geriza barik entzunda nago, leitekezala Aingeruak
Ara non diñoen Axulartzaz: Geriza barik bizi izan zala.

II

Jaungoikuarenak artu ostean, diñoen, Axular jaunak,
Salamancan artu zituzala eskolak... deabruarenak!...
Saritzat zer itzi eutsan Galtzagorri gure abade euskaldunak?
Itzi eutsazan atzaparretan artu eikezan *geriza* danak.

III

Arrezkero, beraz, geriza barik bizi zan errian
Abade deuna andi egina, leku danetan Euskal Errian.
Gustiari begira, gustia jarten agirian
Euskera eban gora jaso, areri jagokan neurrian.

IV

Geriza bagakoak, a legez, nai al dogu izan, anaiak?
Gure Axular baizen garbi nai al dogu izan gustiok?
Galtzagorri, arek legez, itzi erdaldunkeriak,
Atzaparretan itzi deabruari bere maketokeriak!

1. AXULARREN ITZALA

Lehengo denboretan beraz, omen, baziren hiru anaia, *Axular* deitzen zirenak.

Gizon gaitzak¹ ziren hiruak; hetarik batto bereziki, gazteena.

Hiru anaiek elgar aditurik, egin zuten egun batez, behar zituztela debruaren eskolak hartu.

Debruarekin hitz hartzean, *Axular* zaharrenak galdegiten dio beraz: zer saritan emanen diozkaten bere eskolak?

Debruak, behin ere hura ez zozoa izaki eta, ihardesten dio: «To, urthe eta egunez irakatsiko dauzkitzuet nere eskolak: eta, gero, urthe eta egunen buruan, zuetarik zoin ere atherako baita azken nere zilotik, eta hura atxikiko diat saritzat. Hola nahi duzue?

—Hola arras ongi ziaukuk».

* * *

Biharamun beretik hasi ziren beraz ikasten... Eta oro hek ikasirik, urthe eta egun xitamiru joan zitzaizkoten.

Muga bezperarratsean, lo xortik ez zuten egin gure hiru anaiek; batek agian ez zela *azken hura* izanen; berteak ere ez zela agian *hura* izanen!

1. AXULARREN GERIZEA

Leengo aldietan beraz, ba ei ziran iru anaie, *Axular* izena ebenak.

Gizon oargarriak¹ ziran irurak; aetariko bata batez bere, gazteena.

Iru anaiak alkar aditurik, deabruaren irakasteak artu bear ebezala erabagi eben egun baten.

Deabruagaz itundueran, *Axular* zaarrenak itaunduten dautso beraz: zenbatean emongo dautsezan bere irakasteak?

Deabruak, a bein bere tentela ez izaten eta, erantzuten dautso: "Aiko; urtebete eta egun baten emongo dautsuedaz nire irakasteak; eta gero, urtebete eta egun bat garrenean, zuetarik nire zulotik azkenengo nok urten, eta axe gordeko joat saritzat. Alan gura al dozue?

—Alan gustiz ondo jakuk".

* * *

Biaramon bertatik asi ziran ikasten beraz... Eta gustia ikasirik aek, urtebetea eta eguna aida baten joan jaken.

Epearen bespera gauean, txistilik bere ez eben lorik egin gure iru anaiak batek ez al zala bera *arako azkanengoa* izango; besteak bere ez al zala bera *arako a* izango!

¹ [Gizon gaitzak (L), Gizon oargarriak (B): hombres notables.]

Bi zaharrenek elgar aditu ere zuten, beren anaia gazteena... azken uzteko gisan. Gazteena, hura ere, loak arinik, berea gogoan zagon.

* * *

Goizean goiz jeiki ziren beraz hiruak.

Hek bezen goiz edo goizago jeikia, ernerik zagon ere debrua.

Bet betan eta hitz bat gabe, lasterka badoazi hiruak kanpoari buruz, bi zaharrenak aintzin, gibeletik aldiz gazteena.

Bi besoak zabal, azkenari badoako debrua:

«Nere saria, *zuetarik azkena!*...»

Salto-motxean¹ kanporat jauzi orduko eginik, bere gibelean zuen *itzala* erakutsiz, erran zion *Axular* gazteak:

ITAUNE BAT

"Zelan oguzi biar da *Axular* itza?" —itaunduten daust adiskide batek. Eta, nik ezer erantzun orduko, auxe generatuten daust, bere itaunearen argibidetzat: "Bidasoaz andiko euskeldunak gure *x*-en ordeztu, *ch* idazten dabe; guk *gaixo*, eta areik *gaicho*. Beraz, guk bizkaitarrok oguzten dogun legez areik idaztekotan, *Achular* idatziko leukie. Baiña, zer dala-ta ez dabe onetara idazten? Esaidazu, arren, onetzaz dakizuna".

Arean bere, dakidana baiño ez daustut esango:

Axular itza, onetara ezeze, *Atxular* eta *Atsular* idatzita bere ikusita nago.

Zoritzarrez ez dot nik oindiño *Axular* beraren *Gueroco Guero* idaztia irakurri baiña, antza danetz, *Axular*-ek berak onexetara idazten eban bere izena edo abizena edo dana-dalakoa, eta baleitekez liburu aretan *x*-gaz idatziriko beste itz asko bere. Beraz, *Axular*-ek *x*-gaz idazten zituzan itzak gaur dan egunean zelan idazten diran jakin ezkerro, erreztu jakin giñei *Axular* itz ori zelan oguzi bear dan.

Zaarren biak alkar aditu bere egin eben, euren anaie gazteena... azkenengo iztekotan. Gazteena, a bere, lo arinean, berea gogoan ebalá egoan.

* * *

Goizean goiz jagi ziran beraz irurak.

Aek baizen goiz edo goizago jagirik, deabrua bere ernai egoan.

Bat-batean eta berbarik esan barik badoaz irurak arinetan kanporantz, zaarren biak aurretik, gazteena barriz atzetik.

Deabrua, beso biak zabalik, bajoako azkenekoari:

"Nire saria, *zuetarik azkenekoa!*..."

Izkintxo¹ bategaz (engaiñuzko salto motzaz) ordurako kanpora ikoti eginez, badiñotso *Axular* gazteak bere atzean eben *gerizea* erakutsiez:

Baiña, liburu a barik bere, egia antzeko susmo bat esan negizu. *Axular*-en aldiko lapurditarrak, eta baita eun urte gerokoak bere, orain eskualde aretan *ts*-gaz idazten diran itz asko —ez gustiak— *x*-gaz idazten zituezen. Eta, olan, *amultsua*, *etsaia*, *lotsa*, *itsasoa*, *jakintsun*, *aberatsa*, *khartsu*, eta abarren ordezt, orduko liburuetan txitian pitian ikusten dira, *amulxua*, *exaia*, *loxa*, *ixasoa*, *yaquinxun*, *abera-xa*, *kharxu*, eta abar. Beraz, *Axular* itza orduan oguzten zan legez idaztekotan, *Atsular* idatzi bear litzateke.

Egia esan; orduko liburuetan, *ts*-gaz idatziriko itzak bere ikusten dira: *ihardetsi*, *escuac hutsic*, *consolacione*, *irakatsten*, *eracutsi*, *hautsi*; baiña ez dot uste nik len esandakoa onek galduten dauanik: geien-geien bere, *ots* batentzako *ikur* bi zituezala orduan, esan gurako dau.

Oker badiñot, norbaitek zuzenduko al dau nire esana.

¹ [Salto motx (L): saut brise
Izkintxo (G): quiebro.]

«Harrezak beraz hoi; hoi duk *azkena*».

Eta debrua besatraka lothu zitzaion azkenari, eta hola, *Axular* gaztearen itzala gelditu zitzaion eskuetan.

Eta egundaino geroztik, hura izan da gizona, itzalik gabe munduan bizi izan dena.

Gure Herria, 1925, IX

"Atrapaik ori, orrezkero; ori dok *azkenekoa*.

Eta deabruak, besarka oratu eutsan azkenekoari, eta alan, *Axular* gaztearen gerizea gelditu jakon eskuetan.

Eta ordutik geiago, a izan da geriza barik munduan bizi izan dan gizona.

Euzkadi, 1934, Apirilak 21.

2. AXULAR ETA AITA SAINDUA

Beraz, *Axular* gazteena bizi zelarik, gerthatu zen Aita Saindua debruek arras setiatua. Hainbertzetaraino setiatua zen, non, egun batez, *oren-erdi baten buruko eginen zen bazkari batean, debrua behar baitzen Aita Sainduaz osoki jabetu*. Eta, futxo, fritsik holakorik ez zakien Aita Saindu gaixoak, eta deskantsurik ederrenean zagon hantxet, bere bazkaltiarren beira!...

Erromatik urrun nahiz bizi zen *Axular*, debrukeria horrietaz jakintsun egin zen bizkitartean.

Eguerdi jotzera zoan. Bet-betan, bere etxean, jauzi bat egin zuen *Axularrek*, eta goiti joan zen, bere amari erraiten ziola: «Ama, atheraazu eltzekaria; heldu naiz berehal berehala».

Gainerat heldu bezen laster, debru bat deitzen du bere gana; eta deithu orduko, han zuen debrua, bere aintzinean.

Parrapataka galdegiten dio: «Errak, to, zenbat luze behar duk, Aita Sainduaren alderat, Erromarat ni eramaiteko?»

—Hiru minuta.

—Sobera zaiat».

Bigarren debru bat galdatzen du beraz: «Errak, to, zenbat behar duk Aita Sainduaren alderat ni eramaiteko?»

—Bi minuta.

—Sobera minuta; hoa hire egitekoetara».

2. AXULAR ETA AITA SANTUA

Beraz, *Axular* gazteena bizi zalarik, Aita Santua deabruak gustia inguratuta eukitea gertau zan. Inguratuta, baiña, egun baten, *ordu erdi garrenean egingo zan bazkari baten, deabrua Aita Santuaz osoro iaubetu bear izateko ginoan*. Eta, kontxo, tautik olakorik ez ekian Aita Santu gaisoak, eta lasatasun ederrenean egoan antxe, bere bazkaldarren begira!...

Naiz-ta Erromatik urrun bizi izan *Axular*, orraitino, deabrukeria orreen jakitun egin zan.

Eguerdiko amabiak jo aginean egozan. Bat-batean, *Axularrek*, ankar egin eban bere etxean, eta gorantz joan zan, bere amari esaten utsala: "Ama, atera egizu lapikokoa: beingo-beingoan naiz etorri".

Gora eldu baizen laster, deabru bateri ~~deituten~~ ~~dautso~~ beregana: eta deituaz beraz, an eban deabrua, bere aurrean.

Zarrapastaka itaunduten dauto: "Esaik, txo, zenbat asti bear dok, Aita Saintuaren albora, Erromara ni eroateko?"

—Iru minitu.

—Larregi jatak.

Bigarren deabru bateri itaunduten dauto beraz: "Esaik, txo, zenbat bear dok Aita Santuaren albora ni eroateko?"

—Minitu bi.

—Minitu larregi; oa eure zereginetara".

Hirugarren debru bat deithurik, galdatzen dio: «Zenbat laster eramaten nauk Aita Sainduaren alde alderat?

—Zenbat laster joan nahi baituk eta hala.

—Ontsa duk. Eraman nezak beraz gogoeta bat izaiteko artean»...

* * *

Eta begien hesteko artean, huna gure *Axular* eta gure debrua Aita Sainduaren jauregiko athearen aintzinean;

Athean debrua gelditurik, *Axular* bera sartzen da barnerat: «Aita Saindua ikus diteke?

—Aita Saindua?... Ez, ez; segur ezetz! Badu bertze lanik!

—Ba, bardin du ba! Lanak lantegi, zerbeit gisaz, baitezpada behar dut ikusi.

—Ezetz, gizona! Aita Saindurik ez duzu egun ikusiko. Berehal berehala mahainean eman beharra da, kanpoko andana batekin.

—Hori bera! Han hura jarri gabe, hura nik ikusi behar!

—Erranen duzu nahi duzuna, bainan Aita Saindurik zuk ez duzu egun ikusiko.

—Aita Saindurik ikusiko ez badut ere, utzi behar nauzue, othoi, bazkaltiarren mahainaren neurtzera?

—Izaitekotz ere hori»...

Bere neurria eskuetan, sartzen da beraz *Axular* barne handi handi batean; eta, han, brixtakoa, mahainaren luzetasuna lehenik harturik eta gero zabaltasuna, *kurutzearen seinalea* egiten du horrela neurriarekin mahain haren gainean...

Ordu berean, sekulako harramantzetan joan ziren debruak oro, handik urrun, urrun...

Nor harritu eta Aita Saindua harritu! Guziak jakiteare-

Irugarren deabru bateri dei eginez, itaunduten dautso:
"Zeren arin eroango nok Aita Santuaren albo-albora?"

—Euk zeren arin joan gura izan, eta arexetan.

—Ondo jagok. Eroan nagik, orrezkero gogamen bat iza-
teko bear doan artean"...

* * *

Eta begiak isteko bear dan arte baten, ara gure *Axular*
eta gure deabrua Aita Santuaren jauregiko ate aurrean.

Deabrua atean gelditurik, *Axular* bera barrura sartuten
da: "Aita Santua ikusi daiteke?"

—Aita Santua?... Ez, ez; seguru ezetz! Badau beste lanik!

—Bo, bardin dau bada! Lanak lantegirako, zelan edo
alan ikusi egin bear dot nik ala ta be.

—Ezetz gizona! Aita Santurik ez dozu gaur ikusiko.
Gesu-gesu baten maian jarri bear da, kanpoko lagun pillo
bategaz.

—Orixe berori! An a jezarri orduko nik a ikusi bear.

—Zeuk nai dozuna esango dozu zuk, baiña Aita Santurik
ez dozu zuk gaur ikusiko.

—Aita Santurik ikusiko ez badot bere, itzi egin bear
daustazue, arren, bazkaldarren maia neurtuten.

—Izatekotan bere, orixe..."

Bere neurria eskuetan dauala, sartuten da beraz *Axular*
gela andi-andi baten; eta, an, ots baten, maiaren luzerea
arturik lenengo eta gero zabalerea, *kurtzearen seiñalea* egi-
ten dau alan neurriaz maiaren ganean...

Ordu berean, erakusmeneko arrantzetan joan ziran dea-
bru gustiak, andik urrun, urrun...

Inor arritu bazan, Aita Santua arritu zan! Gustiak jakin

kin, ez zen nahi baino lasterrago belhauniko erori, Jainkoari eskerren bihurtzeko...

* * *

Jin bidez itzuli zen *Axular* etxerat...

Eta horiek oro iragan ziren *amak eltzekaria tupinatik eta mahainerat eramaiteko artean!!!* Deuseri ez zen beraz ama gaixoa ohartu.

Bakarrik, mahainean ama-emeak jarri zirenean, *Axularrek* erran zion amari:

«Ama! Mendi hoitan diren elhurrak!

—Ba! Mendiak urrun dituk, haurra. Utzatzik mendiak deskantsu; deus ez duk bardin hetarik behar gaur gero!

—Ez, ez, hala hala da, ama. Bainan, han gaindi iragana bainaiz doi doia...

—Mendi horietan gaindi? Baduka burutik, muthikoa?

—Ez, ama, ez, batere! Nere kapusailari nahi bazinio behatu?...

—Kapusailari behatu? Zertako?»

Behatu zion bizkitartean, eta ikusi zuen kapusaila *elhurrez gaineraino bethea*...

Amaren harritzea orduan!... Eta egundaino ezin du amak aditu, *Axular bere semea noiz eta nola izan zen elhurrez betheak ziren mendi hetan gaindi*.

Gure Herria, 1925, IX

zituzanean, gura eukean baiño arinago ez zan belauniko
jausi, Jaungoikoari eskerrak biurteko...

* * *

Etorririko bidetik biurtu zan *Axular* etxera...

Eta gauza gustiok, *amak lapikokua lapikotik maira eroan bitartean* igaro ziran! Ez eban, beraz, ama gaisoak ezer oartu.

Orraitino, ama-semeak maian iezarri ziranean, *Axularrek* onan esan eutsan amari:

—"Ama! Mendiota diran edurrak!

—Ba! Mendiak urrun dozak, seme. Itzi egizak mendiak baketan; ez dok beiñipein gaur aetariko ezer bear!

—Ez, ez, alantxe da ama. Baiña, aen barruna ointxe-ointxe igarota nago-ta...

—Mendi orreen barruna? Burutik egin jak, ala, mutil?

—Ez ama, ez, arean bere. Nire kapusaiari begiratu gura bazinegio...?

—Kapusaiari begiratu? Zergaitik?"

Begiratu eutsan orraitino, eta kapusaia *goi-goraiño* edurrez beteta ikusi eban...

Amaren arritua orduan!... Eta eguno ezin izan dau amak ulertu, *Axular bere semea noiz eta zelan izan zan edurrez beteriko mendi aen barruna.*

Euzkadi, 1934, Maiatzak 3.

3. AXULARREN OTHOITZ MAKURRA

Bertze noizbeit, Axular erretor Saran egoiten zenean, bere anaia, Zugaramurdin erretor hura ere zagoena, eguna iragan, zaldiz ethorri zitzaion.

Deus estalkirik gabe jina zelakotz, eta arratsalde aphalean denbora ilhuntzen ari zela iduriturik, anaia hori xutitu zen, etxe alde goixko joanik hobeko zuela naski.

Sarako erretorak nahiko zuen aldiz gaua iragan zezan harekin:

«Behingoaren gatik, egoiten ahal haiz ba nerekin!

—Ez, ez! Nahiago diat etxerat joan.

—Bainan, ez dituk bada hedoi murruka horiek ikusten?

—Horiek ikusirik nioak eta, lehen bai lehen.

Eta bere zaldi zuria harturik lau hatzetan, zalukara urrundu zen Zugaramurdiko erretora.

* * *

Hura bideari eman orduko, Axular Sarakoa, deus bere anaiari ezin adiarazirik hasarretua, eman zen othoitzean, *baizik eta kalerna itsusiena eror zadin haren anaia kausituko zen tokira.*

Sekulan oren laurden bat ez zen iragan, noiz eta Zugaramurdiko erretorari, bere herrira buruz tira ahala tira

3. AXULARREN ERREGU OKERRA

Beste nozbaitean, Axular Saran abade egoanean, bere anaiea, Zugarramurdin a bere abade egoana, eguna emoten etorri jakan zaldiz.

Ezetariko estalgarri barik etorri zanez, eta arratsalde berandurantz eguraldiak illun antza artuten ebal iruditurik, anaie a zutundu egin zan kanporako, etxerantz goiztxo joatea oba eukealakoan.

Sarako abadeak, ostera, beragaz gura eukean ak gaua igarotea.

—"Beingoagaitik, egongo al az bada nigaz!

—Ez, ez! Naiago joat etxera joan.

—Baiña, ez dozak bada edoi mando orreek ikusten?

—Areak bere, orreek ikusita najoak, leen bait leen".

Eta bere zaldi zuria arturik, lau oinka, arinik-arin urrundu zan Zugarramurdiko abadea.

* * *

Ak bideari ekinaz beraz, Axular Sarako, bere anaieari ezer ezin ulertu-azoaz asarraturik, arrenka asi zan, *ala-ta, ekatxik dongeena bere anaiea aurkitu eitekean lekuan jausi eitean.*

Ez al zan ordu lauren bat igaro, eta Zugarramurdiko abadeari, bere erri alderantz alik arinen ekinalean joalarik,

zoalarik, baazuza eta harri erauntsi bat izigarria erortzen baitzaio burutik behera.

Nehon etxerik ez ikusten eta, erretor gaizoa lasterrez badoa, berari hurbil hurbila kausitzen duen mahasti batetara. Eta, ahal bezala bere burua gerizaturik, hantxet egon zen, kalerna izigarria pitta bat jabaldu ziteken arte.

.....

Nori zer gerthatu behar?... Mahasti hura guzia xirxikatu zuen kalernak, eta, hain xuxen, mahasti hura gerthatu zen *Axular Sarako Erretorak Zugaramurdi aldean zuen mahasti bat!*...

Gure Herria, 1925, IX

ara non jausten jakon abazuza eta iñetasi zaparrada izugarri bat burutik eta beera.

Etixerik inon ikusten ez, eta abade gaisoa badoa arineketan bere urre-urrean aurkituten dauan masti batera. Eta al eukean legez bere burua gorderik, antxe egon zan, ekaitz izugarria tindi bat ibitu zeitekean arte.

.....
Baiña zer jaso eta nori?... A masti gustia susitu susitu egin eban ekatxak, eta, ain zuzen bere, a mastia, *Axular Sarako Abadeak Zugarramurdi aldean eban masti bat izatea* gertau zan!...

Euzkadi, 1934, Maiatzak 10.

4. AXULAR ETA SORGINAK SORGIN-SOKA

Hor, aspaldi hartan, jende guzia errenkura zen Zugaramurdin, baizik eta behiak galtzen zirela mendian.

Bata bertzearen ondotik suntsitzen ziren, eta bethi mendi-mazela berean: mixterio baitzen egiazki!

Elgarrekin hitz harturik, egin zuten zeletan behar zirela beraz egon. Eta hala ere egin zuten.

Ilhun-nabar batez, zonbeit gizon goait zagozilarik han gaindi, betbetan, *sorgin bat* jali zitzaioten aintzineran; ongi haritu baitziren oro...

Sorginak *soka handi bat* eman zioten, erranez: «Beren onetan, soka hura harturik, joan zitezen berehala Axularren gana; Axular soka harekin ingura zezaten; eta gero, ezker eta eskuin, zoinek bere alde, hazkarki indar egin zezaten».

Horiek manatu eta... suntsitu zitzaioten sorgina.

* * *

Artzainak, harrituak, berehal-berehala joan zitzaizkon Axularri, eta kondatu ziozkaten oro...

Uste duzue durduzatu zen Axular?... Bai, zera!... Zugaramurdiar artzaineri manatu zioten, mendi-mazelaratz itzul zitezen, eta, haitz-ondo bat sorgin-sokaz inguraturik, zoinek bere alde indar egin zezaten.

4. AXULAR ETA SORGINAK (Sorgin Sokea)

Aor, bada; aspaldi atan jende gustia deskeilla ebulan Zugarramurdin, ala-ta beiak galdu egiten zirala mendian.

Bata bestearen urrengo itsututen ziran, eta beti mendi egal bereatan; misterioa zan benetan!

Alkarregaz itundurik, erabagi eben beraz, zeletan egon bear ebela. Eta alan egin eben, egin bere.

Illun-nabar baten, gizon batzuk andik zear adi egozala, bat-batean *sorgin batek* urten eutsen aurrera; bestelako ikareea ez eben gustiak artu...

Sorginak, *soka andi bat* emon eutsen, esanez: "Euren onerako, a sokea artuta joan eitezala beingoan Axulargana; soka aregaz inguratu egiela; eta gero, ezkerrera eta eskoera, bakotzak bere aldetik sendo indar egiela.

Aginduok emonda... itsutu egin jaken sorgina.

* * *

Artzaiñak, ikaratuta, beingo-beingoan joan jakezan Axularreri, eta gustia kontau eutsen...

Uste ete dozue Axular dolidu zanik?... Bai, zera!... Biurtu eitezala mendi egalera, agindu eutsen Zugarramurditar artzaiñeri, eta, sorgin sokeaz, aretxondo bat inguraturik, bakotzak bere alderantz indar egiela.

Artzainak itzuli ziren beraz mendirat; haitz-ondo bat ederra sorgin sokaz inguraturik, zoinek bere alde indar egin zuten, eta... —haitz-ondoa ez zen beharrik Axular! —haitz-ondo izigarria *erroz-gora hantxet eman zuten!!!*

Gure Herria, 1925, X

Itzuli ziran beraz artzaiñak mendira; aretxondo eder bat sorgin sokeaz inguraturik, bakotxak bere aldetik indar egin eben eta —zorionez ez zan aretxondoa Axular izan!— aretxondo izugarria *orpoz gora imini eben antxe!*

Euzkadi, 1934, Maiatzak 10.

ATXULAR ORAINO

Atxularrek manatu zion bere beattarrari hil zezan, Meza ematen ari zelarik, kontsekrazioneko hitzak erraten zituen denboran.

Eman zion errebolber bat kargatua, haren hiltzeko; baina, lehenbiziko egunean, beattarrak etzuen izan kurajik, eta etzion tiro egin.

Biharamunean, Atxularrek berriz ere erran zion finki: «Ez hadila izi, hil nezak; ez daie deusik eginen».

Eta, beattarrak hil zuen, Kontsekrazioneko denboran, zeren orduan debruak ez baitu deus podorerik; eta, nola Atxular apezaren debruaren eskolan ibilia baitzen, debruak baino gehiago bazakien, eta hura baino gehiago zen. Bazakien zertako hil arazi behar zuen bere burua.

MARIE ARIZTIA¹

"AXULAR" OSTERA BERE AXULARREN ERIOTZEA

Axularrek, bere meza-mutillari agindu ei eutsan, Meza emoten eragoiola eta konsagraziñoako berbak esaten zituzan bitartean, il egiala bera.

Errebolber bat emon eutsan, kargauta, bera ilteko; baiña, leenengo egunean, meza-mutillak ez eban izan adorerik, eta ez eutsan tiro egin.

Biaramonean, Axularrek, barriro bere, ekiñez esan eutsan: "Ez adi ikaratu; il nagik, ez daue ezer egingo".

Eta, meza-mutillak, il egin eban, Konsagraziño aldian, orduan bada, deabruak ez dau ezetariko podererik eta; eta, Axular abadea deabruaren eskolan ibilia zanez, deabruak baiño geiago ekian, eta a baiño geiago zan. Baekian zergaitik il erazo bear eban bere burua.

¹ Jaun Barbier jauna zanak argitaratu izaniko Axulartzazko lau ipuiñak bizkaieratu ostean, Marie Ariztia Andereak, 1932gnko irailla-urrilletako "Gure Herria"n iragerturiko bostgarrentxo au bere bizkaieratutea otu jat, nire anai bizkaitarreri atsegin izango jakelakoan. Izan bere, bete-betean dator ipuin au Axulartzazko aseleen amaitzat, asikerarako era-eratarata datorren legez, baita bere, Barbier jaunak idatziriko "Axular" geriza barik gelditzearena".

Beattarrari etzioten deusik egin, etzuten preso hartu, atxeman baitzuten, kalitzaren azpian, Atxularren letra bat, hartan ematen zituena esplikazione guziak, eta nola beattarrari, berak manatu zion haren hiltzea, eta zertako.

Erraten zuen ere, nahi balinbazen froga bat, egiazki hura salbatua izan zela eta debrua bentzutu zuela, aski zio-tela bihotza kentzia eta ezartzia sagar ondo baten gainean: zeruan balinbazen, fika batek eremanen zuela bihotz hori, eta damnatua bazen, bele batek. Hala egin zuten; eta etorri zien berehala bele bat eta fika bat karrankaka!!!...

Bainan, etzuten ez batek eta ez bertzeak bihotz hura ereman.

Hurbildu zen uso xuri bat, eta harek gan zuen Atxularren bihotza, zeruetan goiti.

Denek ikusi zuten ongi Atxular apeza salbatua izan zela...

* * *

Eta nor da Marie Ariztia Anderea? Lapurdiko andera agurgarri bat eta euskeldazle jatorra. Boakio nire zorion-agurra aspaldion "Gure Herria"n argitaratuten dituzan ipuiñen alderako. "Amattoren Uzta" (Amamaren Uzta edo Batzea) daroe ipuiñok izenpurutzat, eta esan bearrik ez dot bata baiño bestea politagoak dirana. Barbier jauna zanak "Gure Herria"n bertan itziriko lorra-tzeri darraiko onegaz, eta ipuiñok, ganera, Ariztia andereak baserritarreri eta erriko laguneri eureri entzuniko era-eratan idatziak dira, berbatxo bat kendu ez aldatu ez geitu barik. Baleiteke, augaitik, euskera mordoilloz edo idatzita dagozala norbaiteri iruditutea. Baiña, olan izanda bere, ez uste izan obeto ezin idatzi izango eleukezanik. Bere sendikoen artean euzkel-idazle gurenak izan ditu Ariztia andereak, eta ipuiñok orraztuten astekotan, errezeko lana izango litzakio. Euzkel "folk-lorista" edo diralako "erri-jakintzazaleeri" bideak erreztutearren baiño ez dau egiten erriari entzuniko eura-kaz berbakaz idaztean, eta aitortu daigun "erri-ia-kintza arauz", "folk-lore" arauz, orrexetara idatzi bear dala. Olako gogorik ez dabenak, edo ni legez, ipuiñok bizkaieratutean, Lapurdi eta Bizkaiko euzkereen artu-emonen baiño billatzen ez dabena, besterik uste izan legie, eta augaitik, ni neuk, bizkaieratutean, zerbait orraztuteko eskukotasuna artu dot. Eta txarto badinot, parkatu.

Meza-mutillari ez eutsen ezer egin, ez eben preso artu, kalizaren azpian, bada, Axularren karta bat aurkitu eben-eta, emonez bertan argitasun gustiak, eta esanik berak agindu izan eutsala meza-mutillari bera ilteko, eta zergaitik.

Esaten eban baita, egitan bera salbau izan zala eta deabrua azpiratu ebanaren ezaugarri bat nai baldin balitz, naikoa eutsela biotza kendu eta sagar-ondo baten ganean ezartea: zeruan baldin bazan, mika batek eroango ebala a biotza, eta kondenata baegoan, bela batek.

Alan egin eben; eta beingoan, bela bat eta mika bat etorri ziran karrankaka!...

Baiña, ez eben ez batak ez besteak a biotza eroan.

Urreratu zan uso zuri bat, eta arexek eroan eban Axularren biotza, zeruetan gora.

Gustiak ikusi eben ondo Axular abadea salbau izan zala.

* * *

Josepe Amorenak 82 urtetan errana, 1925ean.

Berak, dionaz, ikasia zuen, haurrean, Muttilla zaharraren ganik, Muttilainean Josepe muttil ttiki zagolarik, duela 70 urte.

Erran ninduen ere, bere Lehen komunionea egin zue-
nian, Sarako elizan hari zirela aintzineko aldare behereko
taulen berritzen. Ordu arte, Sarako erretor eta aphez guziak
han ehortziak izan ziren. Harri guziak altxaturik, aphez hoi-
kien ezurrak bildu zituzten eta Elizako arko azpian ehortzi.
Atxular aphezaren gorputza, bakarrik, atxeman zuten, oso-
rik, elhurra bezein xuri: errauts xehe bat altxatzen zitzaion
gorputz harri, aize egiten zitzaiolarik; aphez erropak arras
estatu onean zauden.

Amattoren uzta, 1934

Amorenatar Josebak, 82 urtegaz esana, 1925gn.

Berak, diñoanez, umetan ikasi eban, Mutilla zaarragandik "Mutilainea"n, Joseba morroe txiki egoalarik, dirala 70 urte.

Esan eustan, baita, bere Lenengo Jaunartze edo Komuniñoa egin ebanean, Sarako eleizan antxiñako altara beietako olak barriztauten ziarduela. Ordurarte, Sarako parroku eta abade gustiak an lurperatuak izan ziran. Obi-arri gustiak jasorik, abade aen azurrak batu eta Elizatarpean lurperatu zituezen.

Axular abadearen gorpua baiño ez eben aurkitu osorik edurra baizen zuri; auts zee-zee bat jasoten jakon gorpu areri, aize egin ezkerro; abade eleiz-jantziak gustiz egozan estadu onean.

Euzkadi, 1934, Maiatzak 19.

ESKUALDUNAK EGYPTOAN*
(Eguerriko Kondaira)

EUZKALDUNAK AEGITON
(Gabonetako Ipuia)

* Kontakizun hau, berez, Barbierren «Supazter Xokoan» ipuin sortakoa da, baina idazle berarena danetz bilduma honetan sartzeari ondo eritzi beutsagu.

ESKUALDUNAK EGYPTOAN
(Eguerriko Kondaira)

Eguerri arratsa zen. Haurrak oro aldean eman zitzaizkon, eta huna nola hasi zitzaioten Aitaxo:

—Duela aspaldi, aspaldi, iguzki-aldetik ethorri zen berri handi bat, eta laster hedatu Eskual mendietan: *Mesias*, orok igurikatzen zuten *Salbatzailea* sortu zela han, Betelemen, Jerusalemeko ondoan. Nondik jina berri hori? Xuxen, nehork ez zakien. Nehork ezagutzen ez zituen gizon eder batzu mendiz mendi ibili ziren, mezu horrekin; aingeru zonbeit, segur! Gero! gau eder batez, bethi iguzki aldean, zeru guzia argitzen zuela, izar bat xoragarria agertu zen...

Haro bat gaitza altxatu zen Eskual-herrian. *Gernikan*, *Uztaritzen* biltzarrak egin ziren, eta egun batez, gure arbaso Kantabreek, hor, gogoan hartzen dute: «*Eskualdunen ize-nean, behar zela norbeit igorri Mesias-Haurraren ganat.*»

* * *

Eta erran bezala egin ere zen. Moltsa luzea koka-ahala diruz hanpaturik, jatekoz alfotxak, etxe-arnoz xahakoak le-hertzeko heinean betherik, bideari lothu ziren Eskual-herriko *zazpi* etxeko jaunik hoberenak.

Bide luzea, izigarria zuten egiteko. Bainan, biderik izi-

EUZKALDUNAK AEGITON
(Gabonetako Ipuifia)

Gabon gaua zan. Ume gustiak alboan jarri jakozan, eta ona zelan asi jaken Aitita:

"—Orain dala aspaldi-aspaldi, albista andi bat etorri zan eguzkialdetik, eta laster zabaldu Euzkal mendietan: *Mesias*, gustiak itxaroten eben *Salbagillea* jaio zala an, Betelenen, Jerusalem ondoan. Nondik eldu zan barri ori? Zuzen, ifiok ez ekian. Ifiok ezagututen ez zituzan gizon eder batzuk ibilli ziran mendirik mendi, erreparri orregaz; aingeruen batzuk, aurki! Gero! gau eder baten, beti eguzkialdean, zeru oso argituten ebala, izar zoragarri bat agertu zan...

Usobillo andia sortu zan Euskal Errian. *Gernikan*, *Ustaritzen* batzarrak egin ziran, eta egun baten, gure asaba Kantabroak, aor, erabagiten dabe: *Euzkaldunen izenean*, *norbait bialdu bear zala Mesias-Umeagana*.

* * *

Eta esandakoanez egin zan egin bere. Zisku luzea euki-ala diruz anditurik, bidezorroak jatekoz eta zaatoak etxe-ardaoz ler-egin aginean beteturik, bideari ekin eutsen Euskal Erriko *zazpi* etzeko jaunik obeenak.

Bide luzea, izugarria eben egiteko. Baiña, biderik izuga-

garrienak egundaino izitu othe ditu Eskualdunak? Eta gero, Salbatzailearen ganat zoazin...

Joan ziren beraz, mendieri gora, ibai handier beheara, Espainian barna. Bide txar, handi, eder, itsusi, oro luzatuz zoazin haien gibelean. Eta, hala ere, puskaz gehiago gelditzen aintzinean!

Espainiako azken azken mugatik, untziz iragan ziren Afrika beltzera, eta, gero, bidean ez errebelatzeko, leihorrez leihor joan, iguzkiari buruz bethi.

Joan, joan, bethi joan, bainan sekulan ez heltzen! Gose eta egarri onik jasan zuten bortu izigarri hetan. Bainan orduan, beren Eskual-Herriko kantu-xarameletan hasten ziren, eta xaramela heien entzuteko, gose gaixtoenaren kurrinka ixiltzen omen zitzaieten sabelean. Moro-beltz, ohoin, basa-ihizi mota guziak maiz ondotik zituzten, arranoak arthaldearen ondotik bezala, inguruka... Bainan, orduan, zazpiak irrintzinaka hasten ziren eta... kuku lehoinak, ohoinak eta Moroak: sekulakotz harriturik, oro beren ziloetaratz itzultzen ziren. Eta bakhar zonbeit, fortunaz, soberaxko hurbiltzen bazitzaieten, makila eskualdunek xixtu zuten gure etxeko-jaunen ahurrean.

Berriz ere joan, joan, desertuan barna, Egiptoan barna, bertze itsaso bat oraino iraganik, azkenean, heltzen dira Jerusalemera. Sei ilhargi bethe bazuten Eskual-Herriatik abiatuak zirela!...

Bainan, zer uste-gabeko nahigabea Jerusalemen! Andredena Mariarekin eta San Josefekin, Jerusalemetik Egiptoratz ihesi joan berria bide zen Jesus, *Herodes* tzarraren beldurrez!

—Herodes ozpina! Hemen izan bagine bederen gure makilañoekin! Zer ximitxak eta ximixtak hire bizkarrean!... Berroien bizkarra, ez bertzea!...

Bainan zer balio zuen hola marrumaz artzea?... Jo beraz Egiptora... Eta jin-bidez badoazi berriz Egiptora.

rrienak ba ete dituz eguno Euzkaldunak izutu? Eta ganera, Salbagilleagana joazan...

Joan ziran, beraz, mendien gora, ibai andien beera, Españían barruna. Bide zior, zabal, eder, ezain, gustiak joazan luzatuz aen atzean. Eta, alan bere, askoz geiago geldituten aurrean!

Españiako azken-azkeneko mugatik, untziz igaro ziran Apirka baltzera, eta, gero bidean ez erratuteko, legorrez legor joan, eguzki alderantz beti.

Joan, joan, beti joan, baiña sekulan ez elduten! Gose eta egarri onik irauñ eben murtu izugarri aetan. Baiña orduan, euren Euskal Erriko aldra-abestietan asten ziran, eta abesti aek entzuteko, gose gaiztoenaren kurrinkea bera bere isildu egiten ei jaken sabelean. Mauru-baltz, lapur, basa pizti mueta gustiak zituezen sarri jarraian, arranoak artaldearen jarraian legez, inguruka... Baiña, orduan, zazpirak irrintzika asten ziran, eta... kuku leoiak, lapurrak eta Mauruak: sekulako ikaratuta, euren zuloetara biurtuten ziran. Eta banaka batzuk, arean, lartxoegi urreratuten baekioezan, euzkaldun makillak txistu egiten eben gure etxeko jaunen eskuetan.

Barriro bere joan, joan, basamortuan barruna, beste itxaso bat ostera igarorik, azkenean, elduten dira Jerusalenera. Baziran sei illargi bete Euskal Erritik bidean asi zirala!...

Baiña, a uste-bagako naigabea Jerusalemene. Miren Andra Deunagaz eta Joseba Deunagaz, Jerusalemendik Aegitora igesi joan barria zan ojez Josu, *Herodes* dongearen bildurrez!

—"Herodes ozpina! Emen izan bagina gu geu geure makillatxoakaz! Ako tximitxak eta tximistak ire bizkarrean... Demontrien bizkar ori, alakuori!..."

Baiña, zer balio eban olan marmarizoka jartea...? Jo

Joan, joan berriz ere, eta, ilhun-nabar gorri batez, bas-herri batetako etxe garbiño batean, berek ongi jakin ere gabe nola, huna non aurkhitzen diren... Jesus-Haurraren aintzinean!

Ama Birjinaren altzoan lo zagon zero lurren Jainkoa, ja poxi bat handitua, tarrotua. San Josef, ixil ixila, lanean ari zen bazter batean...

Eskualdun etxeko-jaunak Jesusen ondoan belhauniko jada emanak ziren, egin-ahala polliki. Oi, heien nigar goxoak begietarik behera! Zer *pil pil* goxoa bihotzean! Bideko unhadura eta gal-menak, oro ahantziak ziren orai, han, Jesusen aldean. San Josef, lanetik baratua, ixil ixila bethi, amultsuki beha zagon Eskualdun fede handiko gizon heieri.

Eta huna non Ama Birjinak, hirriño batekin, besoetan emaiten dioten, lokhartua oraino dagolarik, Jesus beren Jainko Salbatzailea... Gure arbasoen atsegina orduan! Bihotza erdiratzen zitzaioten, zorionaren zorionez! Han berean xoratu ez baitziren! Beharrik da Eskualduna kasko onekoa!...

Hainbertzenarekin, huna non iratzartzen den Jesus, Mariaren besoetarat gure arbasoak berriz itzuli orduko. Eta hirri goxo bat egiten diote berehala:

—Hor zaiztea, nere Eskualdun maiteak? Zuen beha nindagon, urthe huntan guzian. Atsegin dut zuek ikusirik, zeren, zuen moldean, Jainko legeari bethi atxikiak egon zaizten. Zertan dire zuen lagunak, han, Eskual mendi eder hetan? Begira bethi zuen fedea! Eta fedearen begiratzeko, *atxik bethi zuen mintzairre ederra*; atxik ere, fedearen behar-orduetako... zuen *makila* lerdanak. Zoazte, itzul zaizte zuen herrietarat! Bihotzez, eta menderen mendeentzat, benedi-

beraz Aegitora... Eta etorririko bidetik, badoaz barriro Aegitora.

Joan, joan barriro bere, eta, illun-nabar gorri baten, eurak bere ondo jakin barik zelan, ona non aurkituten diran... Josu-Umearen aurrean!

Ama Birjinearen altzoan lo egoan zeru-lurren Jaungoikoa¹, ordurako pizka bat andi egiña, azittoa. Joseba Deuna isil-isilik, lanean ziarduan bazter baten.

Etxeko jaun euzkaldunak Josuren ondoan belauniko jarri ziran beindaneko, alik politozkoen. Oi, aen negar gozoak begietatik beera! Ako *pil pil* gozoa biotzean! Bideko neke eta lorrak, aiztuak ziran gustiak orain, an, Josuren alboan. Joseba Deuna, lana lotuta, isil-isilik beti, Euzkaldun siñiste andiko gizon aeri begira egoan samurkiro.

Eta ara non Ama Birjiñak, barretxo bategaz, besoetan iminten dautsen, oindiño loakartuta dagola, Josu euren Jaungoiko Salbagillea... Gure asabaen atsegiña orduan! Biotza erdiratu egiten jaken, zorionaren andiz. Antxe bertan zoratu ez ziranen! Zorionez, Euzkalduna kaisko onekoa izan!

Onenbestez, ara non iratzartuten dan Josu, gure asabak Mirenen besoetara atzera emonaz beraz. Eta barre gozo bat egiten dautse bereala: "Or zaree, neure Euzkaldun maiteak? Zuen begira nengoan urte gusti onetan. Atsegin dot zuek ikusteaz, zuek, bada, zeuen eratara, beti Jaungoiko legeari deusazuela egon zaree-ta. Zetan dira zuen lagunak, an Euzkal mendi eder aetan? Jagon beti zeuen sinistea! Eta sinistea jagoteko, *eutsi zakioze beti zeuen berbeta ederrari*; eutsi egiozue baita, sinistearen bear orduetarako... zeuen *makilla* lerdeneri! Zoaze, biurtu zaiteze errietara! Biotzez, eta sekula gustietarako, bedeinkatuten dodaz neure Euzkaldun adis-

¹ Jaungoikoa: Idazleak 'Jaungoikua' dakar.

katzen ditut nere Eskualdun adixkideak. Nere girixtinoetan, hek nahi ditut eta hek izanen dira bethi hoberenak!...

* * *

Biharamunean, etxeari buruz eman ziren Eskualdun arbasoak. Bidea labur iduritu zitzaioten gibelerakoan; alabainan, Jesusen graziez ihaurri heldu ziren.

Eskual-Herrirat noizbeit ethorri zirenean, nork erran Eskualdunen bozkarioa, Jesusen mezu maite handi entzute-arekin? Ordutik, jada, eta Erromatik lehen aphezpikuak ethorri artean, girixtino eginak ziren lehiaz eta bihotzez...

Ene iloba maiteak, horra akabo ene kondaira. Jesusek galdegin bezala, atxik zuen mintzaira ederra, zalhu eta garbi atxik ere zuen *makilak*; Eliza-Ama Saindua, Jesusen fede-a, makila horien beharretan izan ditezke, eta behar-bada, guk uste baino lasterrago!...

* * *

Eta Eguerriko bere kondaira pollita hola bururatu zuen beraz gure Aitaxok.

Eta haurrak, ilobasoak, aho xilora oraino beren Aitatxi onari beha zagozkiolarik, ohartu zen hau, *Pettan*, zaharrena, sukalde xokoan harturik, tinko tinkoa ahurrean zaukala *bere aitaren makila!*...

Eta berehala, piztu, loriatu zitzaion Aitaxori bere Eskualdun bihotz maitea.

Gure Herria, 1924, XII
«Supazter Xokoan»

kideak. Neure kistarren artean, areixek gura dodaz eta eurak izango dira beti obeenak!..."

* * *

Biamomonean, etxe alderantz asi ziran Euzkaldun asabak. Bidea labur iruditu jaken atzerakoan; Josuren grazia ugarigaz eldu ziran, alabaiño.

Euskal Errira noizbait etorri ziranean, nok esan Euzkaldunen poza, Josuren erreparri maite andia entzutean? Orduxetik, arik eta Erromatik lenengo Obispoak etorri artean, kistar eginda egozan gogoz eta biotzez...

Neure loba maiteak, aor amaitu nire ipuiña. Josuk eskaturikoa legez, jagon egizue zeuen berbeta ederra, zaal eta garbi jagon baita zeuen *makillak*; Eliza ama Deuna, Josuren sinistea, makilla orreen bear izanean leitekez, eta bear bada, guk uste doguna baiño lasterrago...!

* * *

Eta Gabonetako bere ipuin polita olan amaitu eban, beraz, gure Aititak.

Eta umeak, lobak, oindiñokarren euren Aitita onari ao zulora egokazala, ara Aititak oartu, Kepatxo, zaarrenak, eskaratz bazterrean artuta, tente-tente eukala eskuan *bere aitaren makillea...!*

Eta bereala, biztu, poztu egin jakon Aititari bere Euzkaldun biotz maitea.

Euzkadi, 1933, Abenduak 26.

AURKIBIDEA

LAMINAK

1.	Laminak Semperen, Utsaleko zubian	68
	Laminak Semperen, Utsaleko zubian	69
2.	Lamina eta Atxoa	74
	Laminea eta Atsoa	75
3.	Dominixtekun.....	80
	Doministikun.....	81
4.	Laustaneko jauregia.....	84
	Laustaneko jauregia.....	85
5.	Lamin-Eltzea	88
	Lamina-lapikoa	89
6.	Mundarraingo laminak.....	90
	Mundarraingo lamifiak.....	91
7.	Laminak Behorlegi mendin.....	92
	Laminak Behorlegi mendin.....	93
8.	Laminak Bazterretxean.....	94
	Laminak Basterretxean	95
9.	Lamina, lakharen barnean.....	96
	Laminea Imilaunen	97
10.	Lamina eta harri-pikatzaila	98
	Laminea eta Argina	99

JESUS JAUNA ETA JON DONI PETRI
 JOSU JAUNA ETA KEPA DEUNA

1.	Ogi jotzea	104
	Gari jotea	105
2.	Boketa	108
	Bogadea	109
3.	Ogi ezpalak	112
	Gari txolak (Gari ezkutak)	113
4.	Ezkontzak	114
	Ezkontzak	115
5.	Emazteki zirtzila eta emazteki garbia	116
	Emakume baldana eta emakume garbia	117
6.	Emaztearen eta debruaren buruak	118
	Andrearen eta deabruaren buruak	119
7.	Jon Doni Petriren zaldia	120
	Kepa Deunaren zaldia	121
8.	Orga uzkailiak	122
	Burdi itzuliak	123
9.	Zaldi ferra eta gereziak	124
	Zaldi perrea eta kerizak	125
10.	Urhe-zilarrak elhorri-xurian	128
	Urre-zidar (diruak) elorri zurian	129
11.	Espainia eta bakea	132
	España eta bakea	133
12.	Jainkoaren begia	134
	Jaungoikoaren begia	135
13.	Onak eta gaixtoak	136
	Onak eta gaiztoak	137
14.	Ihizko hesia	138
	Iizko esia	139
15.	Dafaila, astoa eta makila	140
	Zamaua, astoa eta makilea	141

16.	Harria eta behi-ongarria.....	148
	Arria eta bekorotza	149
17.	Bi beso, bi zango, sabel bakar bat.....	150
	Beso bi, oin bi, sabel bakar bat	151
18.	Trentekutxilo.....	152
	Trentekutxilo.....	153
19.	Erregina bat oihanean	160
	Erregina bat basoan	161
20.	Kuiak	176
	Tuntuxak	177
21.	Zazpigarren manamendua	178
	Zazpigarren agindua	179
22.	Bardotze	180
	Bardotze	181
23.	Miarritzeko aintzira	182
	Biarritzeko zingirea	183

IXTORIO-MIXTERIO IPUIN-MIPUIÑAK

1.	Meza mixteriozkoa	188
	Misteriodun mezea.....	189
2.	Salbatoreko ganderailua.....	192
	Salbatoreko argi mutilla.....	193
3.	Xaindia	198
	Santatxoa	199
4.	Tataroa	202
	Tartaloa	203
5.	Haxko eta haren bi lagunak.....	212
	Aizko eta aren lagun biak	213
6.	Erregea, tupina eta xixtua	230
	Erregea, topina eta txistua.....	231

7.	Artzaina errege	242
	Artzaiña errege	243
8.	Erregina hirriz	254
	Erregina barrez	255
9.	Axeria eta Jaun Kapitaina	266
	Azeria eta Untziburu jauna	267
10.	Zazpi ohoinak	272
	Zazpi lapurrak	273
11.	Erraldia Ahur-hutsean	282
	Labakadea Esku-utsen	283
12.	Andre alferra eta kukusoak	286
	Andra alperra eta ardiak	287
13.	Berho guzien gainetik	288
	Sasi gustien ganetik	289
14.	Hirur ixtudiantak	294
	Iru ikaslariak	295
15.	Muthiko zozoa	310
	Mutil tentela	311
16.	Marro Beltz Ardi	322
	Moxo baltz ardi	323
17.	Baigurako aingerua	332
	Baigurako aingerua	333

LAU IPUIN AXULAR-ETZAZ

Axular	340	
Axularren itzala	344	
Auxularren gerizea	345	
1. Axularren itzala	346	
	Axularren gerizea	347
2. Axular eta Aita Saindua	352	
	Axular eta Aita Santua	353

3.	Axularren othoitz makurra	358
	Axularren erregu okerra	359
4.	Axular eta sorginak.....	362
	Axular eta sorginak.....	363
	'Axular' oraino: Axularren heriotzea (Mayi Ariztia)	366
	'Axular' oster bere: Axularren eriotzea.....	367
	Eskualdunak Egyptoan	374
	Euskaldunak Aegiton	375

